



Iturria: *Edo geuk edo iñok ez (Euskerearen alde)*, Ebaristo Bustinza «Kirikiño» (Adolfo Arejitaren eta Xabier Perearen edizioa). Labayru, 1984.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KirikinoEdoGeuk.htm>

EDO GEUK EDO IÑOK EZ EUSKEREAREN ALDE

Kirikiño

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Kirikiñok erabilitako idazkeraren eredu lez

Erderaz ta euzkeraz esakura banak

Bakizue euzkerazko «kirikiño» itzak aberetxu bat adirazten dauala, erderaz «erizo» deitzen yakona.

Erdeldunak esaten dabe sarri: «Eso es un erizo» (kirikiño bat da ori) izakera asarrekorra dauan notiña adirazteko; «se ha puesto hecho un erizo» (kirikiño bat einda parau da) asarre yarri dala iragarteko.

Erdeldunen esakera orreek sortu dira kirikiñuak bizkarraldian ule ordeztaka gogorak ugari dauzalako, azal oso lakarra daulako. Lakartasun orixe da erdeldunak kirikiñuagan beiñen ikusten dabena.

Euzkeldunak, ostera, eztabe iñoz esaten «ori kirikiño bat da» notin lakarra, asarrekorra, «jeniño» txarrekua adirazteko; esakera orregaz adirazten dabe eskutuka, atzeka, ixilka dabillen notiña. Kirikiñua da aberetxu bat, beti sasipietan eskutauta bizi dana; iñor, sumetan eztauanian, bakar-tasuna dagola uste dauanian, orduantxe urteten da sasipetik munetara kokotxuak arrapetan, koko-yalia da, ba, askok uste ezarren, eta olgetan, oso olgetariya da, ba, pizti txiki au. Eta iñoz ustez-uste barik notiñen aurrian aurkitzen ba'da, beriala biribiltzen da, kirimiltzen da, arpegiya ondo gordeta.

Ortik dator, euzkeldunak izen ori ezartia lotsorrari, bildurtiyari, iñoren aurrian agertzeko lotsa dan eta atzeraka, eskutuka ibiltzen danari.

Beraz, notiñai ezarrita, esakura bana dabe «erizo»-k eta «kirikiño»-k, arek asarrekorra, onek lotsorra.

Kirikiñuak bere sasipetik eztau urten gura izaten ezetara be; jente askoren artian lotsaz kirikilduten da, iñok arpegirik ikusi eztagiyon. Ondo egiten dau, ezaña, motza, itxusiya dalako.



Eldu da gure eguna

Gaurko egun au pozkarria da, ta gogoragarria izango da, euskaldunentzat.

Gure euskera maite-maite onek ba dauko gaurtik aurrera nun agertu egunoro; euskeraz idatzi ta euskeraz irakurteko egarri diran euskaldun zintzoak, ba dauke nun asetu gaurtik aurrera euren egarri aberkoi ori; aurrerakada andia da gaurkoa geure biotzetako ele edo berbeta onentzat.

Orain baiño len alegiñetan ibilli izan gara euskerea sartzeko, apur bat baiño ez bazan be, egunoroko izparringi edo albistarietan; euskerea eskeiñika erabili izan dogu emengoetan, eta ezezka artzen ginduezan.

Lengo urte baten ia siñestu genduan sartu giñala emengo albistari baten; asi giñan bidaltzen euskeraz irakurkiak, alditxu baten argitaldu be egin ebazan, eta gero polito-polito atepak itxi euskuezan eta alde eragin euskuen. Urrean izparringi aren irakurle erdaldunak ez eben ikusten begi onakak euskerarik eta zarata egin izango eutsien izparringi aren artezkari ta jabeei; onakoren bategaitik izan ete zan susmoa egiten dogu guri atepak istea.

Izparringi orreek, emen geure aberri onetan agertzen diran arren, emengotarren diruakaz irasia (fundauta) egon arren, ez dira emengoak benetan, ez dira euskotarrak; euren gogoa emendik urrun dago, ta berau-gaitik euren irakurlerik geienak muker izaten dira euskotarren gauzarik ikusteko, batez be geure elea edo berbeta, euskotarren gauzarik euskotarrrena, berau da ba garbi ta zeatz bananduten gaituana atzerritar guztia-kandik.

Orrelakoxeak izan dira, ta dira, emen agertzen diran egunoroko izparringiak, eta ez da ikaratzeko euskereari jazo jakona eurakaz; eskean eltzen izan dan ate guztietatik bultzaka atara dabe.

Baiña euskera maite oni ta beronen alde gagozan euskeldunei eldu jaku geure eguna. EUZKADI izparringi au geure-geurea da; euskotar abertzaleak geure diruaz ta guztion artean irasi dogu, ta geuretzako irasi be; onen irakurleak bertakoak izango dira; oneen gogoa ez dago iñun ementxe geure aberrian baiño.

Aberriko gauza guztiak maite-maiterik izango dauz izparringi onek, eta aurrenengo euskotarren agerkunik agirierna, euskera ederra, geure abizenetan darabilguna ta beste aberri guztiakandik osoro ta zeatz bananduten gaituan antziñeko ele edo berbeta garbi txukuna.

Ementxe, izparringi barri onetan, leku egokia egunean-egunean eukiko dogu euskeraz idatzi ta euskeraz irakasteko; ementxe egunoro erabillirik bizkortu ta sendotuko dogu, apur-apurka galdu eragiñik auzoko erdera ziztriñetik ganeratu jakozan zetaka ta loiak; ementxe gogor ekingo dautsogu il ez daiten geure gurasoekandik artu dogun euskotasun barru-barruko au.

Etorri ona ba euskerea maite dozuen euskotar guztiok, emengo atepak zabalik daukozuek euskeraz idazteko.

Aintza ta barri ona euskereari! Ilgo dala ta ilgo dala laster esaten izan da ta esaten da gaur be. Ba, guk erantzuten dogu beingo-beingoan ez dala ilgo; gaur artu dogun goi onetatik jarkiko gaiakoz bere arerio guztiei, ta gaitz izango jake atzamarrrik ezartea geure maite oni.

Antziña-antziñetatik onaiño izan diran euskotar zintzo garbiak, geure asaba zar guztiak, euren illobietan pozezko ikara bat egin dabe gaur ikusirik ondiño ez dala galdu bizidunen artean euren azia, ta galduteko antzik be ez dagoala.

1913-II-1



Zelan idatzi?

Itandu auxe egiten dautsogu geure buruari: Zelan idatzi? Garbiz ala loiz?

Ondo dakigu batek baiño geiagok erantzungo daua: Al dala, garbiz idatzi beti; garbia ta loa, imiñi leioz iñori aukeran?

Egia da ori berez, beste zertzelada guztiak arduratan ez artzekotan. Baiña gauzeari berari bakarrik begiratuaz ganera, artzen ba dira ardura-pean bere inguruko beste gauzak, itandu lei bai garbiz ala loiz idatziko dan.

Euskera zeatza, euskera garbia, euskera uts-utsa erabili ezker euskaldun asko ta askorentzat kaltea dator, ulertzen ez daualako; euskerearentzat kaltea dator, euskaldun asko ta askok euskeraz irakurriko ez daualako; guretzat euskalgilleentzat kaltea dator, alperrik egiten dogulako alegin ori, aize utsari ukabilkadea jaurtiten dautsonak lez.

Euskera zeatza euskaldunik geien-geienak ez dabe irakurten; ikusi ordukoxe alde batera isten dabe.

Euskera zeatzez idatziriko irakurki bat artzen dau izparringi edo periodikuan geien-geienetarik batek; berorrek ez dau iñoz irakurri ezer euskeraz, edo gauza gitxi beinzat, eta berau loiz idatzita; iñoz ez dau eskuetan euki euskal izirik (gramatikarrik), ezta iztegirik (dixionariorik) be; an aurkitzen dauzan itz asko ezezagun egiten jakoz; astia ta nekea bear eurak ulertzeko aurreko ta atzeko itzetatik; astirik ez dau izaten, izparringia irakurten ezin dalako luzaro egon, bere egunoroko lanari eldu bear dautsolako; nekea artzeko be ez da gogodun egoten, nekeari guztiak alde egiten dautsoelako, bai emen gure Euzkadin eta bai edonun.

Zer egiten dau? Itxi, ta erderara jo, ta auxe irakurri. Zintzoen-zintzoenak be, irakurgurea daukonak berak be, itxi egiten dautso, esanik: «Orain etxaukoat astirik eta, gero edo irakurriko joat». *Gero* ori beti gero-ko gelditzen da; iñoz ez dator oraiñera.

Len esan doguna: kaltea euskaldunak, kaltea euskereak, eta kaltea idazgilleak uts edo kalte egin daualako.

Guk artu bear dogu geure Aberri au berau dan lez gaur, ez geuk gura geunkean lez.

Gauza erraz-erraza emon bear jako ba euskeraz irakurten zaletuko bada. Ume samur-samurrei, ondiño jaten ez dakienei, lukainka ta urdazpi gordiña edo arrautza egosia edo makallau errea emon eiozue jaten, eta

galduko dozue alperrik; emiozue aia edo zuku arin-ariña ta ondo egingo dautso, ta bere urdailla indartuko da.

Agaitik, ondiño euskera zeatza artzeko bigun edo makal dagozan euskaldunei euskera erraza, euskera ariña, euskera loa, euskera mordoi-loa emongo jake izparringi onetan irunsi al izan dagien. Au irunsiiten ikasten badabe, ta baietz uste dogu, indartuko jake urdailla, geroago koipe geiagodun janaria irunsiteko.

Garbizaleak ez doguz jaurtiten, ez dautseguz ateak isten; betoz ordu onean eurak be, lekua emongo dautsegu.

Euskera garbiz pozik imiñiko doguz irakurki laburtxuak euskerazko toki onen aurrenengo; irakurki auxe berau argitzen dan leku berberan.

Guztien atsegiña egiten gauza gatxa, edo gauza eziña dala esan oi da. Alan uste dogu; baiña alegiña egingo dogu.

1913-II-10



Norberen izkuntza zaindu bearra

Gure eskuetara atzo eldu zan Frantziako izparringi bat eta bertan irakurri genduan izpar bat frantzitarrek oso ikaratu dauzana.

Izpar ori auxe da: «Kanada deritxon Ameriketako lurkian ango gobernuak agindu dauala eskoletan ingalanderea irakatsi daitela frantzere-a baiño aurrerago».

Lurki artan frantzitarrek bizi dira, obeto esateko, frantzitarren jatorrikoak, frantzitarren odolekoak, frantzitarren abendakoak, lurki artako zati andi baten jabea izan zalako aldi baten Frantzia; ta augaitik ango erri askotako elea edo berbetea frantzerea da.

Frantziak geroago galdu eban ango bere jabetasuna ta Ingalandaren eskuetara jausi zan eta gaur berau da jabea ta ugazaba.

Eta, jakiña, ango ingalandarrak euren opillari sua egiñik, agintzen dabe ingalanderea izan daitela frantzerea baiño geiago.

Agindute au jakin danean ikaratu dira frantzitarrok, eta jarki jakoz gogor agindute orreri.

Euren arteko batek, Burassa Henri deritxon diputaduak argitaldu dau an: ... la vie et l'unité de la race française dépendaient de la conservation de la langue...

Onek esan gura dau euskeraz: «Bere ele edo berbetea jagotean dagoz frantzitar abendearen bizitza ta batasuna».

Ondo esanda dago ori, ez bakarrik frantzitarrentzat baita be euskotarrentzat. Aek igarri dabe euren elea galtzen badabe joango dala euren frantzitasuna, euren elea iruntsiten badau ingalandereak onen abendeak irunsi ta bereganduko dauala frantzitarren abendea Kanadako lurki artan. Eta auxe igarririk, asi dira gogor, guztiak bat eginda, ango gobernuaren agindu ori atzeratuteko.

Kanadako frantzitarrek bakarrik ez dira, ele edo berbetearen zerikusia abendearen iraunkunagaz igarten dabenak. Emen daukozuez geure auzoko españiarrak orixe berori dakienak, ba PUERTO RICON ingalanderaz irakastea eskoletan agindu ebenean yankitarrek, amaika negar ta arrantza irakurri genduan españiar izparringietan, iñoela eleagaz batera galduko zala portorrikotarren artean orain dauken españiartasuna.

Euskotarrak bakar-bakarrik dira ludi guztian orixe igarten ez dabena, ez dabe igarten eleagaz batera, euskereagaz batera galduko dala betiko Eusko erria... tira, oraintxe asi dira urteten tentelkeri ain lotsagarritik.

Euskotarrak jarraitzen dabe españiar ta frantzitarren bideetatik gauza asko ta askotan, gauza txar geienetan.

Jarraitu egiozue ba norberaren elea maite-maiterik eukiteko bide orretatik be; españiarrak bere elea, españiñerea, maite dau; frantzitarrek bere elea, frantzerea, maite dau... maite egik euk eure elea, euskerea.

* * *

Emen idatzi doguzan itz batzuen azalpena: *Frantzia*, Francia: *frantzitar*; frantzesia; izpar, notezia; *ingalandera*, ingelesen berbetea; *frantzerea*, frantzesen berbetea; *lurki*, lur zati edo errialde; *ele*, berbetea; *iñoela*, esaten ebela.

1913-II-26



Neskatillak, entzun ondo

Arañegun eldu jakun NAPARTARRA, ta bertan irakurri genduan Mirentxu deritxon neskatilla batek argitaltzen dauan idazki oso polita ta jakinbear andikoa.

Naparroako euskeraz dago, ta guk bigurtzen dogu Bizkaiko euskerara, idazkai orretan Mirentxuk irakasten dauana gura dogulako jakin dagien emendiko neskatillak.

Ara Mirentxuren idazkai mamintsua emengo euskeraz imiñita:

«Ene neskatilla maiteak, negu au isiltxorik joan jat eta orain udabarran sartzean, aberri abesti gozo zoli-zoli bategaz ez bada be, bizi nazala ta Euzkadirentzat, adierazo gura neuskizue.

Atsekabez biotza minduta daukot, ene eusko neskatillak, neure adis-kide ta lagun maitea dan Juletxoren negar samin-samiñiakaz.

Guretzat ikasgai eder-ederra ba dauko ta ara emen argi ta garbi.

Juletxo ori Naparroa maite onetako euskal uri polit bateko alabea dogu.

Goikoak gorputz-edertasunak ganezka emon ez badautsoz, lirain samarra bai eban egin eta biotz eder baten jabea...

Aberats andikien alabea, erdalkeria azi zan... bere guraso erdalztale itsuak iru-lau urte Donostiako Bartoloma deunaren irakastetxean euki eben.

Gure Juletxo, ogetalau urtegez bere euskal uri politean, euskera ta euskal oitura ederrak begitan arturik, osoro erdaldundurik bere gurasoak bizi zan. Auzo-erriko mutil on batek, sendagin (mediku) argi ta gizon zintzoak, bere emaztetzat eskatu eban... eta berak eta bere gurasoak esaten ebenez, baserri-usain arpegizabal eta ipurdi andidun euskaldun mutil orren emaztegeitzat izateko jaioa etzan, eta alan gure euskaldun sendagin ona arrabete surregaz itxi eben.

Juletxoren aita erri polit artako *jauntxua* zan lez, ango sendagintzat ekarri eban gallegu bat, eta onen lengusu bat, sendagiña au be, eulia ezti-usaiñera lez etorri zan uda artan bere aide ta erritarren etxera.

Naikoa guzur ta barriketa zuri laban ba eban berak, batez be Juletxorentzat; au, gaisoa, *gallegu* barritsu aren zale egin zan... Juletxuren aitak bigarren *gallegu* sendagin oni be Naparroako beste erri bateko atek edegi eutsozan, eta bere alabea emaztetzat emon be bai...

Ezkontza ori egin zala iru urte ba dira; Juletxok amaika negar samin egin dau *gallegu* erdaldu orren menpean... barriketa gozo labanak joan ziran betiko, ta birao iguingarriak eta erdal esakera zikiñak sarri-sarritxo Juletxo gaisoak entzuten dauz bere senarragandik... ona dalako ta kristau legean azia, bere buruari ta bere gurasoai ezarten dautse bere zoritxarreko ezkontza orren errua, ta isilean iruntsirik daroaz bere atsekabe gorriak Juletxo gaisoak.

Bizi diran erria itxi gura dau Juletxok eta atzera etorri Naparroako euskal erri on ederrera, bere gurasoak bizi jakozan erri aldera.

Era ona be ba datorkio; beragaz ezkondu gura izan eban mutil euskaldunaren erria aurkitzen da sendagin barik... ango ta emengoak ba darabillez Juletxoren erdaldu sendagiña autatu dagien errian sendagintzat... Juletxo bere aitagaz badoa errira iru illabetean bere senar ari euskeraz irakatsiko dautsolakoan... erriak ao betean diño euskaldunak dirala ta euskaldun sendagiña bear dabela ta ganera erriko semea sendagintzat autatu dabela ta axe gura dabela.

Au zan, Juletxok, baserri-usain euskaldun arpegi zabaldun legez bere senarzat artu gura izan ez ebana.

Naikoa errukigarri da Juletxo bere erdalkeriaz ta *galleguaren* barriketa labanai belarriak zabalduaz, bere biotza atzerritar bati emonda... negar bizi da, ta entzun gura dautsoen eusko neskatilla guztiei esaten dautse: Goikoak ezkontzara deituten badautsue, euskaldun neskatillak, zeuen abendako euskotarragaz ezkondu zaiteze ta ez egin nik egin dodan lakorik, bizitza guztiko negargaia ez badautsezue ekarri gura zeuen buruei.

Entzun, ene neskatilla onak, Juletxoren aotik datorkizuen ikaskaia ta ez iñoz be aitzu».

1913-IV-23



Ume txikitxuen euskal ikastolea

Bilbaon, Plaza Barrian, dago eskola maitegarri au ia urte batzuk dirala.

Eskola onetan irakasten jake umeei, neskatotxu ta mutikotxuei, beste eskola guztietan irakasten dan gauzea, ta onez ganera, euskerea.

Irakaslariak dira neskatilla bi, Iturri-tar Elbire irakaslari nagusia; ta Arribi-tar Agurtzane irakaslari bigarrena.

Ikasten dabiltzan umeak eun ogeta amabi dira; berrogeta emeretzi neskatotxu, ta irurogeta amairu mutikotxu.

Lengo baten be, oraintsu, aitatu genduan leku onetan euskal ikastola au, bertora dabiltzan ume txiki batzuk lenengo Jaunarkundea (Komunioa) egin ebela ta.

Orduan esaten genduan gauza pozkarria dala Bilbaoko kalean umeei euskerea euren artean erabilten ikustea. Unamunok baleki!

Egunero ikusten doguz ba geure etxe onen aurrean, txoriak lez olgetan dabiltzan umeak, alkarri egiten dautsoezan deadarrak: Etorri ona!... urlia da!... neu naz lenengoa!... ta onetara.

Egarriaren egarriz azkenetan dagoanari ezpanak ur ozkirriaz bustita emon leikion atsegiña baizen andia da ume polit orreek darabilten euske-reak dakaskuna, Bilbao erdaldundu onetan bizi garan euskaldun euskaltzaleei. (Esakera onexek luzea urten dausku; ez dakigu ulertuko dozuen. Ulertzen ez badozue, zoaze geuk dakigun *jaimista* bategana; arexek, euskeraz jakin barik igarriko dautso arin).

Atzo arratsaldean ba, Bilbaoko *Centro Vasco*-n aurkeztu ziran euskal ikastola onetako umetxuak euren irakaslariakaz, agirian iminteko zenbat dakien, azterketak edo esamiñak egiteko antxe guztien aurrean.

Arrituta itxi eben mundu guztia. Zein polito, zirti-zarta, erantzuten eben irakaslariak egiten eutsiezan itanduetara! An begira aurkitzen ziranen artean askok esaten eben: Oneek, geuk baiño askozaz geiago dakie ba ta. Zelan atondu dira ume ain gazteei orrelako gauzak irakasteko?

Egia da. Urtean-urtean egiten dabe atzoko azterketa ori, ta ikusi genduzan orain urte bi ta igaz; orduantxe lez orain be, guzurra dirudisku iru arrabete ez dauken orrelako ume gorriei ainbeste gauza irakatsi leikioela.

Irakaslari neskatillai dagokie goralbena, ta biotz-biotzetik damotsegu izparringi onetatik. Ederto lan egin dabe umeen alde, baita Aberriaren alde be. Neskatilla bikain goragarri oneek, euren irakastolan isil-isilik, eze-

tarikoz zarata barik, lan eta lan, ainbat umetxuri euskerea ta euskaldunen gauza asko irakatsirik, Aberriaren alde ederto bideak gertututen dabez. Gure Aberri maite onek ganean daukon labarra (arri andia) azpitik jan eta zulutzen dauan ur ibilokea dira onetariko eskolak; entzun dogu besteren bat zabaltzeko asmoa dagoala Bilbaon; betoz, betoz, ba da bearrizana ta.

Irakaslarian urrengo zorionduten doguz umetxuak eta euren gurasoak.

Aintza guztie!

Goazen aurrerantz, batzuk bide batetik, besteak bestetik, Aberria gaizkatzera.

1913-VI-2



«Orfeón euskera» Gallartan

Atzo gure izparringi onetan irakurriko zenduen zein ondo artuak izan ziran Gallartan abeslari oneek; zein meza abestu eben, zeintzuk eusko abesti abesau ebezan eguerdian erriko musikakioskoan eta arratsaldean pelota lekuan, zein egun ederra igaro eben abeslariok eta.

Gaur ez dogu imiñiko emen atzoko guztia; baiña bai zorionopa bat egingo dautsogu «Orfeón» euskaldunari.

Euskalduna deituten dautsogu lateraz (latinez) izan ezik, betibeti euskeraz bakarrik abestuten daualako. Euskereari emen orain arte erakutsi jakon ezezkeri edo desprezioaz, abeslari batz onek, irasi zanetik ona, beti euskeraz abesturik, ez dauko ondo irabazita euskalduna-ren izena? Bai bein!

Gallartako erriak atsegiñik andienagaz entzun ebazan euskal abesti txukunak. Berez dira politikak, eta ondo abestu ezkerro barriz... onetantxe dira ba mutillak «Orfeón Euskera»koak, geure abestiak erabilten!

Gallartara eldu zan araiñegun abertzaletasunezko aize-bolada bat. Gallartar euskotarrak artu eben aize-bolada ori, egun sargoritsu itogarri baten bapatera iparraize ozkirri ta atsegingarria agertzen danean artuten dan lez.

Erri orretako euskotarrak bizi dira erbestetar askogaz batera. Ba dakizue miatz-erria dala Gallarta, eta ba dakizue miatz-ugazabak zenbat erbestetar ekarri daben lan egiteko, emengo langilleak bailo merkeagoak dirala ta. Enkartaziño aldeko miatz-errietan nastean bizi dira euskotarrak atzetarrakaz, ta oneek, geienak izaten dira emengo gauza guztien aurkariak edo kontrarioak.

Atzetar oneek gure artera datozanean ez dabe artzen ez gure euskeraz ez gure ekandurik, eurenak beti erabili bailo; ta euskaldun eta euskotar abertzaletasun bakoak, erraz-erraz isten dabez euren euskerea ta euren ekanduak atzetarrenak artzeko.

Eun euskaldun uts bizi diran lekura sartu badaitez zortzi bat atzetar, laster ikusiko dozuez euskaldun makalak erderaz itz egiten, mordoilloka bada be; atzetarrak, barriz, ezer ikasi ez dabela euskeraz; laster ikusiko dozuez euskaldun indargeak aurrekuak eta dantza garbi politik itxita, baltzio estu-estua egiten guztiz zikinduta; laster ikusiko dozuez euskaldun doillorrek itz loa ta birao iguingarria ezpanetan darabillela, uleak aurretuntz orraztuta, errebolbera ta aitzo (kutxillo) luzea sakeletan daroela; las-

ter ikusiko dozuez euskaldun kirtenak euren arteko abesti gozo samur polit txukun ederrak aztuta, tango ta malagueñak abots urratuaz kantatzen, ezetariko grazia barik, asto zar bati berari be barre eragingo leuskioela.

Abertzaletasunik ezak eragiten dau guzti ori.

Abertzaletasun aizeak sartu diran errietan asi dira euskotarrak, iñoren bideak itxi ta eurenak artzen. Asi dira, apur-apurka, euskal usaiñari eutsiten; jolastokietan asi dira emengo ekandu zar ta onai indarra emoten.

Gallartan, abertzaletasuna sartu zanetik ona, euskotarrak orretantxe asi dira, euren asaben biderantza jotzen. Erbestetar asko bertan bizi arren, eta alde guztietan lez euren jolas, dantza ta ekanduak beti erabili arren, ez dautsie euskotarrak jarraitzen; oneek euren jolas, dantza ta ekanduak darabillez besteenen aurrean.

«Orfeón Euskera»ko geure adiskide batek edestu (kontau) euskun atzo, Gallartan araiñegun ikusiriko gauza jakingarri bat.

Erromeria zan araiñegun erri artan. Zelai bi ei dagoz orretarako, ikastola-etxeen beko aldetik bata, goiko aldetik bestea. Beko zelaian jotzen ei eben erriko musika-bandeak eta txistulariak; antxe ebiltzan jantzan eta jolasean euskotarrak; ez ei zan agiri an euskotarra bailo, esan eitekeala euskalerriaren biotz-biotzean aurkitzen zala. Goiko zelaian, barriz, zazpi-zortziren bat esku-pianuak ei egozan jotzen jantzak, eta antxe egozan eurak euretara erbestetar guztiak. Onetara, bakotxa bere lekuan, banan, jolastuten ziran euskotarrak eta erbestetarrak.

Ura ta orioa nastau arren berez banantzen diran lez banandu dira Gallartan abenda bietakoak...

Berez?... bai zera! Abertzaletasunak eraginda. Auxe ez balitz, ezebez.

Augaitik, ekin eta ekin, euskotarrei irakatsi bear jake zein dan euren Aberria, esan bear jake noren semeak diran, ezagutu dagiela zein jatorrikoak diran.

Eta ganera, Aberria imiñi begien aurrean, polita da ta maitatu dagien.

«Orfeón Euskera»k gallartarrei Aberria erazagutu dautsie eusko abesti ederrakaz, era askotara Aberria erakutsi leike ba ta: abestiak erabili; jantzak eta ekandu polit asko bazterretik atara ta erdira ekarriaz; geure edesti edo istoria jakin eta irakatsiaz; geure euskera garbi au erabili, idatzi ta irakurriaz; euskera onen izkelgiak edo euskera-moduak ikasiaz; umeei euskeraz izena imiñiaz; etxeak eusko antzera egiñaz; iragarkiak (anuntzioak) euskeraz jarriaz; geure idazkiak be euskeraz ezarriaz; euskeraz otoi egiñaz; geure gauza guzti-guztietan eusko antza eukiaz.



Aurrera, euskaldunak, bakotxa bere bidetik. Ekiñaren ekiaz gauza izugarriak, siñestu be ezin leikezanak, egiten dira. Gatxa dirudi gure Aberri au sartuta dagoan lezatic ataratea; baiña gelditu barik badiñardugu, atarako dogu.

Jauna lagun dogula.

1913-VI-17

Etxe izena euskeraz

Oñatin oraintxe urte bi erre zan etxe bat, geure adiskide maite Zulueta-tar Pilliparena; eta urte atantxe eregi eban barriro.

Ate-buruan ipiño dautso, arrian izkiak (letrak) atarata, urrengo idazkun au:

ZULUETA-ETXEA
MCMXI URTEKO IRAILLA-IX-an ERRETA
URTE BEREAN EREGI ZAN.

Zorionak, Zulueta! Orrelakoxe gauzatxuekaz be geure Aberri maite oneri gorantza bultz egiten jako. Erabilli daigun euskerea beti ta alde guztietan.

Eta Zuluetak egin dauanagaz ikasi dagiela beste etxedunak, saloskari edo denderuak, eta enparauak.

Ikasi dagiela euskeraz ondo ipinten ate-buruetako idazkun ok, erderaz barik.

Gure aurretiko euskaldunak zaletasun andia izan dabe erderara. Tautik be jakin barik erderaz, etxe barri bat egitorduan edo zarra barriraztorduan, ez eben ipiñi gura idazkunik euskeraz, eurak zetarikoak ziran onetara erakutsiaz. Ezta; erderaz ipiñi bear, bazter guztiei barre eragiteko bazan be.

Amaika barre egin dabe gure lepotik, onetariko idazkunak dirala ta ez dirala; eta barre egiteko zio edo motiboa euki dabe.

Begiratu, ezpabe, euskalerriko etxe bateko idazkuna:

*Loi só
Coliparco de Mandoburuaga
ai no de 1858*

Idazkun auxe ikusita, barrearen barreaz alboko miña eginda egon dira iñoz erdaldunak; eta esan be bai:

—¡Pero qué brutos son los de esta tierra!

Eta guk erantzun:

—Ez diñozu guzur andirik. Astotan emen azten dan aiña, nun gero? Erderarik ez dakiela be erderaz ipiñi bear. Zelako astakeriak ez ete leukiez



ipiñiko Cabeza de Buey-en, eurrez asiko balitzaz ipinten orretariko idazkunak ingalanderaz edo frantzeraz? Baiña Cabeza de Buey-en euskalerrian baiño zentzun geiago dauke (guretzat lotsagarria da, baiña egia) ta etxako iñori otu ondiño ate-buruko idazkunak ipintea bertako ele edo berbetan baiño.

Emen, saloskari (konbertziantze) guztiak erderaz euren ateburuetako idazkunak, euskeraz bat ez dago.

Eta bearbada, iñok esango dau, on dala emen erdaldun asko dabil-lako, oneek be jakin dagien.

Ez, ez; ez da orregaitik. Euskaldun uts-utsak diran erri txikietan, eta urtean erdaldunen bat edo bi, kasuelakaraz, igaroten badira geien-geien dala, aurkituko dozuez ardantegi koskorak ateburuan edo orman dauke-nak:

Buen biño se bende

edo

sidra y chacolí.

Gizonak! Norentzat erdera ori? Euskeraz ezin lei ipiñi, andik ibiltan diran guztiak obeto ulertuko leukiela, ta ganera, geure ele edo berbetan?

Euskeraz ipinten gaitz dalako be ez da. Nor da gauza ez dana euskeraz ipinteko, baita ez ulertzeko, idazkun oneek?

Ardao ona saltzen da

edo

Ardaoa, txakoliña ta sagardaoa.

Au egiten erraz da. Egiten ez bada, ez esan besteagaitik dala itxita-sunagaitik baiño. Auxe da, auxe: itxitasuna, arditasuna.

«Besteak nundik doaz, ortik? Neu be bai». Auxe da arditasuna.

«Orain arteko iragarri edo ate-buruetakoak erderaz dagozala? Neuk be erderaz ipiñiko dot eta kitu». Auxe da arditasuna.

Iñoren bidetik ibiltea ez diñogu txarra danik, bide on ona izan ezke-ro; diñoguna da, iñoren bidea artu orduko begiratuteko zelakoa dan. Burua zetarako dogu ba? *Zarronzalek* eta bere lagun koiteduek lez, apain-garritzat edo adornotzat bakarrik erabilteko?

Itxi daiguzan barriketa guztiak, eta gauza bat esan bear dautsuegu:

Emen, euskalerrian, erdaldunen ekanduak artu ta geuretuten mutil andiak gara, baiña ekandu txarrak. Ba, bein artu dagioegun ekandu on bat eta geuretu daigun.

Cabeza de Buey-tarrak euren errian beti-beti ipinten dabez espaiñe-ratz ate-buruetako ta ormetako idazkunak edo letreroak, euren erriko ele edo berbetan. Ekandu ona da.

Geuk be, eurak lez, ipiñi daiguzan geure erriko ele edo berbetan, euskeraz.

Artu daigun eta joan gaitzezan Cabeza de Buey-tarren bidetik, bide ona dala dakigula.

1913-VII-3



Euskerazko gauzatxuak

Markiñatik Zorrotz-ek diñoskun izpar ori, etxe bati izena euskeraz imiñi dautsoela, pozkarririk pozkarriena da.

Esan leike ez dala gauza andia. Etxe bati euskerazko izena... orregaz Aberria gaizkatu al da?

Iñok uste dauan baiño goraketa andiagoa eragiten jako Aberriari orrelakoxe gauzatxuekaz.

Ume bateri euskerazko izena ezarri; etxe baten aurpegian euskeraz imiñi zein izen daukon eta noz ta nok egiña dan; saloki edo dendako ateburuan euskeraz iragarri an zer saltzen dan; ilizpar, edo jaiotz-izpar, edo ezkontz-izparrak alkarri euskeraz bidaldu; idazkitxu bat euskeraz egin; euskeraz itz egiten ez dakienei be euskeraz esan beti esakun laburtxuak: «Egunon, arratsalde on edo gabon, biar arte edo gero arte, urrengo arte edo ikusi arte, zer diñok, etxera noa, tirok, gaioazan, edaik, artuik, eka-tzu», ta abar ta abar ta abar.

Onelakoxe *gauzatxuak* guztiok egingo bagenduz, ta ondo errazak dira egiteko, nai izatea bailo ez da, urte gitxitan kenduko geunskio gure Aberriari atzerri sundea ta emongo geunskio eusko usain gozo ederra, geure usaiña.

Urrea legetxe itxiko geunke.

1913-IX-17

Euskerea zelan zabaldu

Sarri ibiltzen gara esaten zelan zabaldu leiken euskerea Euzkadiko erdal erriak izan eta karlisten menpean euskerea oso galdu daben errietara.

Lan gaitz-gatxa da benetan. Irakastola edo eskola barik, zelan arrano eroan euskerea Bizkaiko, Arabako ta Naparrako erri askotara, elez gaztelar uts-utsak diranetara?

Ezin da, erantzungo dau abertzalea ez danak, on galdu zan eta kitu orain.

Ez dago kiturik, ez; Aberriaganako maitetasunak ez dau ezagutzen eziñik.

Maitetasuna da gauza guztien eragillea.

Etxe onetan egon zan lengo egun baten Araya Arabako abertzale benetako bat. Axe da gizona, a! Ez dogu emen jarten bere izena, dakigulako atsekabetuko dogula, ta bearbada, okerra ekarri gengikiola bere bizi-keran.

Esan euskun zoritxarrez ez dakiala euskerea, bere aitaitak jakin ebala baiña.

Jakiñez onek ez dautsola bein be ardura txikerrenik emon, lengo urte baten bere Aberria zein dan jakin arte.

Orduantxe mindu zala euskeraz ez jakiteaz, euskotarra izanik, eta asmo sendo bat egin ebala bere umei jakin erazoteko.

Euskalerrietan ekandua dagoala mutil-neskatoak bidaltzea erderean ikasten Araba aldera, ta ekandu auxe gogoraturik Bergarako bere ezagun bateri esan eutsola iñok baeukan asmorik olan umerik bidaltzeko Arabara, beronek ordeaz bidalduko ebala bere ume bat euskerea ikasten.

Idoro eben bat, eta truke egin ebezan umeok. Bergarakoak, bidaldu eban Arayara neskato bat, eta Arayakoak Bergarara mutiko bat. Orretara egon dira ume biak amairu illabetean, etxe on eta ezagunetan, gastu bagarik.

Arayako abertzale onak diño, bere mutikoak euskerea ederto ikasi dauala; ta orain daukola asmoa bigarren umea be olantxe bidaltzeko euskalerrira, ta irugarrena be bidalduko dauala, ta orretara bere ume guztiak ikasiko dabela, ta etxean euren artean euskeraz beti itz egiteko aginduko dautsela.

la, maitetasunak zelako bideak idoroten dauzan!

Geuk esan geuntson arabatar zintzo oneri, umeak jarraituko ete eutsuen asmo eder-eder orretan, eta erantzun euskun ori lortuteko esaten



dautsela bere umeei euskerea dala geure odolari dagokion elea, euskerea dala euskotarren ezaugarria, euskotar onak izateko euskerea jakin bear dabela.

Itz baten esateko, amaitu eban arabatar onak, sendo-sendoro aber-tzaletuko dodaz umeak, eta aunexegaz naikoa da euskerea maitatu daien, eta maitatu ezkerro ez dabe lagako.

Auxe, Arayako arabatar auxe lako asko bageunko, gaurtik ogei urte-ra... emen izango litzake erdaldunen ariñeketea!

Arabatarrak egiten dauana, ezin leie egin beste askok?

1913-IX-19

Ormetako idazkunak euskeraz

Lengo baten Durangotik gentozala tranbian, Arriandiaga deritxon tokitik igaro gintzazanean, bertako etxe bateko orman ikusi genduan, geure atsegin andiz, urrengo idazkun au:

BAKIOKO TXAKOLIN BALTZA

Ikusi ordukoxe, poz-pezik esan genduan geure arterako: Noz-edo-noz!

Guk dakigula ba dagoz euskerazko idazkun edo letreroak Gernikan, Bermeon eta beste lekuren baten.

Ba dakigu ba Arriandiagako idazkuna ez dala lenengoa ez gitxiago be; baiña ba dakigu idazkunok urri dirala euskalerrian, batez be, or Durangorako bide orretan eta Durango inguruetan.

Orregaitik izan zan geure poza ta geure atsegiña idazkun ori ikus-tean. Tranbia arin etorri zalako ze ostantzean sartuko gintzazan etxe artan txakolin dangada bat edanaz saloki edo denda jabeari barriona emoteko.

Ez dakigu nor dan bera, ez dogu ezagutzen; dana dala, leku onetatik emoten dautsogu barriona eta agur bero bat berari.

Euskeraz idazkuntxu ori iminiñaz euskerearen alde egin dau, euske-rearen alde egiñaz Aberriaren alde, ta Aberriaren alde egiñaz geure alde, euskaldunen alde; beraz geure eskerra zor dautsogu.

Zelan ordaindu? Ementxe iragarririk zein lekutan dagoan etxe ori, euskaltzale guztiak jakin dagien.

Durangotik onantz datorren bitxabala (kamiñoa, kamiño erreala), killometro bi ta erdi inguru eginda, bitan urkultzen da (biturkuldu), adar bata Zornotzarantz eta bestea Zugastietarantz dabezala.

Bide-urkuluan bertan dago arri-meta polit bat, bide-adar biak norantz doazan iragarteko. Arri-meta on antxe dagoalako, leku areri dei-tuten dautsogu euskaldunak *Arriandiaga*.

Ba, leku artan dago etxe barri bat, janedanetxea, eskuma aldean emendik arantz joan ezkerro.

Lengo urteetan sarri igaroten gintzazan andik, eta ormako idazkunak espaiñeraz bakarrik ikusten genduzalakoan gagoz, gure gomuteak uts egi-ten ez badausku.



Orain, espainol idazkunei generatu dautsie, goian imiñi doqun euskal idazkuna.

Agertu da euskerea, burua atara dau kalera, beti baso bazterretan eta etxe barruetan egon barik lotsaka lez, bere semeak eurak ikusi gura ez ebelako.

Gora euskalerrria ta gora euskerea ta gora geu!

* * *

Orrenbeste zarata orma baten txakoliña saltzen dala idatzi dabelako? -Bai, onenbeste zarata. Orrelakoxe idazkuntxu bat euskeraz imiñiak, askok uste dabon baiño geiago esan gura dau, euskereari aurrerantz eragiteko.

Len esan dogun lez gure ele edo berbeta au, geure Aberriaz batera bizi edo ilgo dan au, orain arte bazterretan, etxe barruetan sartuta iñora urteteko adore barik aurkitzen izan da, lotsa-lotsa, bertakoa, etxekoa, Aberrikoa ta Aberriarena izan ez balitz lez.

Iñun ez eben artu gura, iñun ez eben ezagutu gura, at eskoletatik, at erri landoletatik, at aberatsen etxeetatik, at eleiza askotatik, at alde guztietatik. Gauza ostikopetuagorik!

Eta euskereaz batera geu ostikopetuta, Aberria erdi illik.

Geure buruak ezagutzen asi gara ta geure Aberria maitatzen, eta era batera geure gauza guztiak, geure-geureak, lurretik, saskara artetik, botata egon diran lekutik jasotzen, garbitzen eta apaintzen; eta euren artean aurrenengo geure euskera maitea, geure gauzarik ederrena.

Berau, dagokion tokian jartzeko esaten dauskue eskolak bear dirala, baiña nun jagozak eskolok? Eskola orek eukiko doguzan arte egon bear al dogu besoak eunduta ta arkoloka jesarrita, ezertxo be egin barik, arrausi baten?

Al doguna egin.

Geure umeak euskeraz ugutzau.

Geure etxeai euskeraz izena imiñi.

Geure dendetako ate-buru ta ormetan euskeraz egin idazkunak.

Geure adiskideei euskeraz idazkiak egin. Geure iragarkiak euskeraz argitu izparringietan.

Geure etxean eta kalean eta alde guztietan euskaldunaz euskeraz itz egin.

Geure otoiak euskeraz egin.

Geure edozein gauzatan ez ezetsi euskerea, maitatu ta onetsi baiño. Onakoxe egikunakaz ataraten dogu geure euskerea erdira, aizetara, eguzkitara, sendotu ta azkartu daiten.

Ume bat euskeraz ugutzau dala, etxe bati euskeraz izena imiñi jakola, orma baten euskerazko idazkuna egin dala... ori da euskereari gora eragitea.

Orregaitik euskaltzaleak poztu orrelako bat jakiñaz.

1913-X-23



Euskerea eskoletan

Euzkadiren alde baten gobernuak erabagi dau euskeraz irakasten istea ume-eskoletan.

Alde ori da Frantziako legeen azpian aurkitzen dana: Laburdi, Beko-Naparra ta Zuberu.

Bai, irakurleak, alde artako eskoletan maisu-maistrak irakatsi leie euskeraz alan gura badabe ta al badabe, ango gobernuak isten dautse ta.

Gaur ikusiko dozue gure izparringi onetan EUSKALZALEEN BILTZARRAko lendakari Decrept-ek bere lagun eta bazkideei zuzentzen dautsen idazkia, euskaldunentzako izpar eder au emonaz.

Izpar ederra da, bein gero ederra, ta bertan agertzen da Frantziako agintzaldunak igarten dabela zuzena dala euskaldunari euskeraz irakastea.

Idazki orretan be jakingo dozue Decrept-en eretxian eskatu bear jakona ango gobernuari, ta diño berak, erraz izango dala lortutea. Izango al da!

Eskakizun bi orreek dira:

1.^a Ez dagioela debekatu umei euskeraz itz egiten eskolan, olgeta-aldia daukenean.

2n. Aurrerantzean ez daitela izentau maisurik ez maistrarik euskalerriako euskalduna ez danik.

Ganeratzen dau Decrept-ek azkenengo eskakizuna bete al izatea, bearbada, gaitz egingo dala, euskaldun diran irakaslari naikoa aurkitu al ezagaitik. Au dala ta, eskakizun orreri ezarri bear jakozala itz bi oneexek: *al dala*.

Onetara, diño, adoretuko dira gure gazte euskaldunak maisu-maistra izateko bidea artzeko, ta iñoz elduko da aldia gure euskalerriko eskola guztiak irakaslari euskaldunak eukiko dabezana.

Zorioneko da gure Aberri au izpar aunegaz, ta zorioneko dira gure anai maite laburtar, benapartar, ta zuberotarrak.

Gora zuek!

Geure alderdikide Garmendia-tar Kermanek, Saratik, bidaltzen dau sku Decrept-en idazkia, azkenean auxe idatzita dakarrela:

«EUKADI irakurta eta. Biotz-biotzetik ene zorionak jeltzale guzientzat. Gora Euzkadil!»

Garmendia onak urrean bidaltzen dau skuz zorionak igandean garaitu genduan gurenda ederragaitik.

Eskerrik asko, adiskide maitea; baiña zalantza barik orde-egingo geunskizue gurenda au zuek eskoletan euskerea sartuaz garaitu dozuen gurenda orregaz.

Emen noz ikusiko dogu orrenbeste?

Iñoz bai; baiña orain, bideak illun baltz dakuskuz. Emengo gobernuak ez dau euskerarik ikusi gura, ta ez da arritzeko.

Euskaldunak daukoguz emen asko ta asko, euskereari gorrotoa artu dautsoenak geuk abertzaleok maite dogulako bakarrik. Zein itsukeri andia!

Eta geu gorrotatzen gaitue, Jaungoikoa ta geure Aberri Euzkadi maite doguzala diñogulako bakarrik.

Alde guztietatik ekiten daukue: goikoak, bekoak, angoak, emengoak, eleizakoak, eta eleizako ez diranak...

Ez bagenki egiaz gagozala, gauzak bertan bera isteko izango litzake; baiña guztien aurrezka jarten gara, guztiei jarkiten gaiakez, bide zuzenean goazala dakigulako.

Jauna geugaz, ta geu guztien aurrezka.

Ekin eta ekin, aurrera beti indarra dogun artean. Gora Jel!

1913-XI-13



Ez neuke gura ezegaitik be

Erruki dot Txori-Erreka gixajo au. Or darabille asarreka emakume-txuok egoi-aizeak orbela lez. Ai zein ederto gagozan geu emen! Arazo onetan jazoten da errubakoak errudunen ordez ordaintzen dabela. Txori-Erreka ez da Zaldupe-Zale ta ez da Goikokalebedar, ta a darabille barre-garri; baiña azkenengo biok be, onean-onean idatzi eben, ez eutsien gauza garratzik esaten Ondarroako emakumeei, itxuraz ezagaturik zelako nes-katoak diran.

Gauza garratzak, *sarjentina* ta aretarikoak, neuk, zorigaiztoko onek, ipiñi nebazan. Ondo damututa nago. Alakoren baten Ondarroara joan bearren bat badot, eta jakiten badautse, arpegi quztia erpeka urratuta eka-rrri bear dodana ba dakit.

Gure bakea joan zan. Batean erreketeruak dirala, bestean *erreketera morralduak* dirala, ta orain Ondarroako emakumetxu bizkorrok dirala, artega ta urduri gagoz bein.

Orraitiño, nik *sarjentina* ta orreek esan nebazan, euskera geurea ikusi gura ez ebenakaitik, baiña ez danakaitik; eta orain atzeratuten dodaz esan nebazanak, ez dot gura nik burukomiñik, eta ez dot gura or Txori-Erre-ka, Zaldupe-Zale, Goikokalebedar gixajook erabilli daiezan nire erruz arramuskadaka. Parkatu dagistela Ondarroako emakume orreek.

Nire parka-eske au naikoa ez bada, ta onantza etorteko asmorik iga-rriko bazeuntsie, mutillak, jakitun ipiñi nagizue astirik galdu barik, ainbat ariñen igesi egin daidan Pankorbo alderuntz.

Don Jaime berberagaz edo Zuazolagaz edo Zarrontzale kurrilloia-gaz, bearbada burrukaldi bat egin egingo neuke; baiña emakumakaz ez dot ezer nai.

Libera me Domine.

1914-1-23

Ez dok ori niretzako

Ara, Txori-Erreka, Don Jaime, Zuazola, Zarrontzale ta euren antze-koak Melillara zuen ordez joango diralakoan bazagoz, ez zagoz gixajo txar-txarra. Orreek gorabera, egur makurra lepoan dozula ibilli bearko dozue Afrika aldeetan, beti be ostikada bat edo arturik *destruziñua* ondo egin ez dozuelako.

Erreketeruak ez doaz gudara, erreta be. Emen gudazaletasun andiak erabilten dabez, urten bear dabela mendira ganeko egunen baten esaten; baiña, bai zera! urtetea balitz eurak eixean geldituko litzakez, ta zu ta ni lako gixajoak atarako gindukiez etxetik gura-ta-ez, izkilluak artu eragingo leuskiguez, ta gu lakoakaz egingo leukiez, lengo gudatean (gerratean) lez, *voluntarioen batallioiak*; gu bidalduko gindukiez bala artera, ta bitartean eurak jan ta edan ederto egin eta neskakaz olgau ta erriaren ogasuna ondatuko leukie, lenagoko gudatean egin eben letxe. Tresna ederrak dira ba eurok!

Orrelakorik jazoko balitz orraititiño, eurak emondako izkillu berbera-kaz *biboteak* astinduko geunskioez Don Jaimeri ta bere inguruko jeneral ta andiki ta ojalatero guztiei, ez uste lenagoko iñusentiakaz aurkituko litzakezanik. Areek aldiak joan ziran sekulako!

Au dala ta, ez noa ezer esaten eurei, alper-alperrik izango litzakela ba dakit eta.

Kantiñera orek kontserban edo ipiñi bearko dozuz galdu ez daitez-zan; edo zeuekaz batera eroan Melillara morral andi banaz.

Don Jaimek, Zuazolak eta Zarrontzalek ez dabe bearrik be kantiñe-rra orreenik. Lenengoa ointxe udabarrian ezkontzen dala esan eban atzo emengo erreketeruak izparringi isil-ezkutukoak, ota beraz, laster euko dau bere kantiñerea.

Zuazola aspaldian ezkondu ta dago; ta Zarrontzaleri, barriz, etxako toketan orrelako usaiñik.

Agur ba, ta Kataliñeri ta Nekaneri barritsuak deitu eutsen neska gan-gar orrek ez daiala kantau euskeraz gura ez badau, faltarik be ez dau egi-ten. Kataliñek eta Nekanek eta euron moduko neskatilla politak egin bear leukiena da esan: Zuek ez dozuela euskeraz kantauko? Ba, geuk bez erde-raz, ta kitu.

Eta neu banengo jai toki baten edo eleizan edo nainun, eta *sarjento-na* pilloa asiko balitz erderaz kantetan, egingo neukena da, jagi ta piperra baiño serioago tipi-tapa erdi-erditik kalera urten, or konpon! esanaz, «ez dok ori niretzako».

1914-1-30



Durangoko erdalkeriak

Uri eder artan bizi dan euskaldun gazte batek bidaldu dausku idazki bat, eta bertan diño an Josu-Biotzaren aintzaz egin izan diran eleizkizunak, ederrak izan dirala; baiña danak erderaz, otoi edo erregu, izkaldi edo sermoi, kaleetako idazkunak (letreroak), abes edo kantak.

Gazte onek diño Durango euskalerrria dala, Durangon bertako ta erbesteko euskaldun asko ta asko dagozala (geienak) erderea ulertu arren eguneroko artu-eman gauzetan, ostantzekoetan ondo ulertzen ez dabena, esaterako, eleizako izkaldietan ia tautik ez dabe arrapetan.

Eta itanduten dau euskaldunak izanik Uzkuartzaleak (erlejiñozaleak), gitxienez erdaldunak aiña, ta euren errian bizi izanik, ia zegaitik dana emoten jaken erdaldunei ta bapez euskaldunei; Jaunaren landako jana ez dauala uste ardi erdaldunentzat bakarrik danik; uste dauala euskaldunak be Josu-Biotzagana eroan bear dirala, izkaldiak euren elean edo berbetan egiñik, eta euskerazko abes ta ostantzekoakaz euren gogoak poztu ta argiturik.

Egia da guzti au baiña...

Ara, adibide bat ipintea otuten jat. Zuk, ba dakizu, Durangoko gazte orrek, Sagunto deritxon Valenciako itxas-uri baten euskaldun pillo andia bizi dala.

Sagunto artara joten dau Sierra Menerako burdinbideak, eta berone-tik jasten diran meak artu ta eroateko eltzen dira Bilbaoko itxas-ontzi asko; onez ganera bertan sortu dira olak eta lantegiak eta arrikatz-bildegia.

Onetariko arazo guztien jabe ta nagusiak euskotarrak dira, ta augaitik ango ola ta lantegi ta bildegi ta zeregin-toki guztietan emengoak dagoz asko ta geienak euskaldunak.

Saguntan orraitaiño iñori etxako otu euskeraz egiterik eleizako jairik; eta iñori otu balitzakio, txarto egiña eretxiko eben bertako biztanleak.

Jokatuko neuke bertakoak ezetz joan eleizara, eleizan euskeraz egin-go balebez izkaldiak, otoiak, abestiak eta abar; eta jokatuko neuke emengo euskaldun erdaltzaleak be esango leukiela: «Nori bururatu jako baiña Sagunto lako erri erdaldun baten euskeraz eleizkizunak egitea? Bertakoak ori ikusirik ez dabela oiñik ipinten eleizan eta asarre dirala? Jakiña! Aituten da bai ori!».

Erbesteko aberatsei, edo beintzat dirudunei, eder egitearren, eleizan erriko elea edo berbetea aldatu ezker, errikoak asarre jarri ta eleizara ez

agertzeko asmoa artzea, ez dot esango ondo dagoanik; baiña bai esango dot ori egingo leukiela ludiko alde guztiguztietan ementxe, Euzkadin izan ezik.

Geuri euskaldunei egiten jaku iñori egiten etxakona, lelo eretxita edo nik ez dakit zegaitik; lotsarik, izpirik be, etxaku artzen; beti garabillez ostikoka ta ezetsika.

Noz uleak astinduko ete jakuz ta noz lotsea zabalduko ete dogu?

Ordua ba dala uste dogu ba.

1914-VII-10



Pizti txarrak!

Ara Durangoko jazokun bat:

Igandetako ikastolara dabilzan astokrazia-ko neskak sumindu dira ikastolan euskal idazkun bi jarri diralako; ta Deun Jagoba egunean, lenen-goz ikustean, arterik artu ezinda, eskegita egozan tokitik eratsi arte etziran lotu, neskazarko batek atarako gaztetxu bi berotzen ebazala. Orraitiño be, berak ez zituan eratsi; kolkoan arditan (arkakuxotan) baiño tranpa geiago dau neskazar orrek. Toki artan bertan dago astegunetan gazte-txuentzako euskal ikastolea, ta euskal ikastola onetakoak ziran euskal idazkunak.

Baiña euskereak, zer egin ete dautso neskazar orri? Euskalduna edo da bera, ta bere guraso ta enparau asaba guztiak izan ziran; orpotik orpora odoletik jatorko euskerea... ta euskerari gorroto alan be. Bere jatorriaz lotsatu egiten al da? Erdaldunakaz kristautasunean naiz edozertasunean bardintzeko lakoak ez al ziran izan bere guraso ta enparau asaba euskaldunak? Ez al daki emakume orrek Jaunaren laugarren agintzak diñoala gurasoei lotsea artzeko? Ez al daki emakume orrek, berorrek euskerarik nai ez badau be, beste batzuk nai izan ezkeru, onei bakean isteko bearkuna edo obligaziñoa daukola? Ez al daki emakume orrek, bera baiño txikiagoak ez dituala ipiñi bear egiten, berak bere eskuz egiten azartzen ez dan gauzarik?

Pizti! Pizti! Euskereari itxion bakean.

1914-VIII-5

Urkixo-tar Juliri

—Kirikiño, Urkixo-tar Julitzaz zerbait esan zenduan lengo baten, eta generatzen zenduan erantzungo zeuntsola. Noz izango da?

—Aspalditxo daukot idatzita erantzun ori, «Euzko-Abendaren Elez» atalean ipinteko, baiña egunero dago ugari argitalgeia ta ez dakit noz sartu al izango dodan.

—Orixe irakurteko guraria ba daukot ba. «Egunekua»n sartu egizu.

—Izan be! Gaur ipiñi bear dot. Irakurleak ez al jataz asarratuko.

—Bai, zereko asarratu! Guda-guzurrak baiño gogozago irakurri baietz orixe jokatu neuskizu orraitino.

—Orduan ezer geiago esan barik or doa:

KIRTENKERIAK ALA... ZER?

Azkenengo Bagillaren 26ko EUZKADIn ipiñi neban esakun auxe: «Tierra Santa-rako Pelegriñaziñotik», eta onen urrengo: «orrexen antzera orain larogei urte argitaldu ziran ainbat kirtenkeri ardurarik andienaz biltzen ditue baita berrargitaldu be *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en eta orrelako aldizkingietan».

* * *

Revista Internacional de Estudios Vascos-en jabea da Julio de Urquijo (Urkixo-tar Juli euskeraz). Nik esandakoak oni min egin dautso, ta arrikadea jaurti daust. Alde egin bear dautsot arrikada orreri, buru-buruan jo ez nagian.

Ara:

Oraintsu argitaldu dau Urkixo-tar Julik ingurtitxu (folleto) bat, emengo gazte batek esandako okerren batzuk zuzentzeko usteaz; ingurti orretantxe aitauten nau onetara:

«...en Bilbao se trata de poner en ridículo a la Revista Internacional de Estudios Vascos, porque recoge cuidadosamente y da a luz cuantos textos vascos puedan tener alguna importancia histórica o lingüística. De



kirtenkeriak los califica Kirikiño, pseudónimo, según me aseguran, de D. Evaristo Bustinza. ¡Y que esto lo escriba un profesor de Euskera!»

* * *

Geldiro gabiltzan.

Nik ez neban esan, nik ez diñot, *Revista* orrek billatzen dituan antziñeko idazti guztiak kirtenkeriak dirala. Zeatz irakurri bear da, arrikadak jaurtiten asi baiño len.

Nik esan neban eta diñot, «Tierra Santa-rako Pelegrinaziño» erderakada «orrexen antzera argitaldu ziran ainbat kirtenkeri»... orrexen antzera! niñoan.

Urkixo-tar Julik ezetz, ta nik baietz... onen-onena izango da irakurleak erabagi dagiela; alde batera barriketea.

Ara *Revista Internacional de Estudios Vascos* orretan idoro dodazan nire eretxirako kirtenkeri batzuk:

BAT

DOCTRINA CHRISTIANEEN

explicacinoa eusquera cein ofrecietan deusten gustai D. Martin de Arzadun Durangoco urico Elexataco Beneficiadu da cureac.

Dediquetan deutso D. Nicolas de Echezarreta de Olasarri, Santiago ordeaco caballeroari.

(*Revista Internacional de Estudios Vascos*, año I. Enero 1907).

* * *

BI

EXERCICIO SPIRITUALA

Bere salbamendua guiteco desira duten giristinoentzat laguntza handitacua.

Bigarrena editionea.

Bayonaco gure jaun Ipispicuaren permissionearequin.
(*Revista Internacional de Estudios Vascos*, año I, núm. 6.
Noviembre 1907).

* * *

IRU

MEDITACIONEAK

gei premiatsuenen gainean cenbait abisuekin, othoitcekin eta bicitceko erregela batekin. Arima Jainkotiarren oneraco Bayonaco diocesaco Elizagizon batec eginac.

I PARTEA

(*Revista Internacional de Estudios Vascos*, año II, núm. 3. Mayo-Junio 1908).

* * *

LAU

GUIRISTINOQUI BICITECO ETA HILCECO MOLDEA

ceinetan causitcen bai dire egunaren guiristinoqui iragateco moldea, Meza sainduco, Hagoniaco, Confessioco eta Communioneco othoitzac, Igandeko Bezperac, Ihabetearen egun gueietaco Meditacioneac, Arima penatuten consolamenduac eta contcientciaren esamiña.

(*Revista Internacional de Estudios Vascos*, año II, núm. 3. Mayo-Junio 1908).

* * *



Zer deritxozue? Oreek kirtenkeriak dirala esateagaitik ez daust ez garbai-arrak neure biotz au zulatuko. Nik, benetan diñot, orrelako idaztirik (libururik) iñun aurtituko baneu, apurte egingo neuke ta iñok ez leuke jakingo, lotsagarriak diralako.

Nik ori egingo neuken arren, ulertzen dot askok zaletasuna eukiten dabela antziñeko gauzekana; jakin gura izaten dabela antziñekoak zelan bizi ziran, zelan idazten eben, zelako ekanduak eukezan, zelako errediza ta izkillu ta jantziak erabili ebezan, eta abar. Urkixo-tar Juli da orretariko jakikura bat, eta atsegin izaten dau jakitea zelako idaztiak argitaldu ebezan gure asabak. Ondo dago. Nik ez diñotsot ezer orregaitik. Bakotxak bere zaletasunak euki daroaz. Onetan aske bakoixa.

Baiña Urkixo-tar Julik edo bera lako antziña-gauza zaleren batek ataraten badau autsartetik argitara gauza zatarren bat edo idazti kirtenen bat, eta enparauok badiñogu zatarra edo kirtena dala, ez dauko zegaitik asarratu ta ez dauko zetan etorri destaiña.

* * *

Eta, zelako destaiñak? Ara bat: «¡Y que esto lo escriba un profesor de *Euskera!*»

Mutillak! Neu irakaslea izate onexek burukomin andia damotse karlistei. Lenengo asi zan Zuazola, gero Zarrantzale barregarriak ekin eutson leloka-leloka, ta orain *Julio de Urquijo* dator.

Zetara dator orain nire irakaslaritza ori erdira? Or gorago irakurri dozuen *vascuentze* ori kirtenkeria dala esan ezker, ez ete lei euskerarik irakatsi al? Zer bear ete da ba euskerea irakasteko? Kirtenkeri orreek eredu-tzat artu, ala karlista izan, ala zer?

Urkixo-tar Julik or esan gura dauana da, nire ustez, ez nazala jakituna. Au bada, ez dot euki, Jaungoikoari eskerrak, iñok esan bearrik ori jakiteko, neuk be ondo dakit ba ez nazala ta. Baiña orregaitik ez da ardura. Jakituna izan barik be irakaslaria izan leiteke. Asko dira irakaslariak jakitun ez diranak, eta neu be bai, ta zer? Irakatsi egiten dogu geuk be, orretan jakitunen atzean gelditzen ez garala sarritan.

Eta, zer arrano!, neure irakaslari-tokian ikusi gura ez banabe kendu naguela bertatik al badabe ta kitu. Ulebiook!

* * *

Ara beste destaiña bat:

«Mas, por lo visto, prefieren pasarse los días discutiendo la etimología de *ekaita* o *aketa*, sin enterarse todavía de que esta palabra la inventó una vieja de aquende el Pireneo para pedir café a una amiga suya, sin que se enteraran sus vecinas.»

Sin enterarse todavía... «asto zarrok alakook ezer ez dakizue ta!» esan gura dau orregaz Urkixo-tar Julik.

Guk gero... astoka-astoka... jakitunek ez dakiezanak jakiten doguz batzuetan. Guk ez genkian atso orren ipuin ori; ez da arritzeko, atso guztien ipuin barregarriak ba, zelan jakin daiegeuz? Baiña orra, Urkixo-tar Julik be, ainbeste dakian arren ez daki ondiño «akeita» itz ori eurrez erabilten dala Naparrako Sunbilla aldean. Urkixo-tar Julik diñoan atso aregandik ikasi ete eben itz ori Sunbilla aldeko napar guztiak? Gaitz egiten da siñesten.

Eta gu ez giñean ibilli emen «akeita»ren itxorkuna ataraten. Urkixo-tar Julik ez dau ondo ulertzen euskerea, edo nik ez dakit. Gu emen ibilli giñean jakin gurarik nun esaten zan itz ori, nundik norakoa zan, ez beronen itxorkuna.

Baita be diño Urkixo-tar Julik: «...soy partidario de la purificación (relativa, claro está) del léxico vasco. Lo que desapruebo es que ejerzan de purificadores y de etimólogos, los que carecen de preparación suficiente para tan difícil labor.»

Zeregin gaitz orretarako egoki gertauta dagozanak, nortzuk ete dira Urkixo-tar Julirentzat? Atsegin izango litzakit auxe jakitea.

Arana Goiri-tar Sabin eta Arriandiaga-tar Imanol Abak asmauriko itz eder egokiak, euskerearen sustar-sustarretik sorturikoak, ez dauz ontzat artzen, ez dauz entzun be gura Urkixo-tar Julik; eta au ondo dakit berberari entzun neutsolako beñiola Zumarragan.

Barbada, Arana ta Arriandiaga, euskera arazoetan oskil batzuk izango dira Urkixo-tar Julirentzat. Bai ba!

* * *

Eta «lo que desapruebo»... Zer gero? Nor zara ba zu erdira urteteko esaten ontzat ala txartzat artzen dozula ori? Idazti zar barregarri batzuk idoro dozuzala or-emen, eta naikoa diru daukozula *Revista Internacional de*



Estudios Vascos zeure lepotik argitatzeko ta, zatoz burua nagusi egiten? Ez gero ñori barrerik eragin, gizona!

Zuk ontzat emon naiz txartzat emon... parra; euskeraz noraiñoko mutilla zarean ikusteko gagoz ondiño ta. Zer diñot? euskeraz mutilla zarean be ondiño ez dozu erakutsi ta.

Billatu egizuz, billatu, artarako garra daukozu ta, idazti zarrok; baiña euskereatzaz maisukeriak egiten etzakiguz etorri, gizona, Jainkoarren!

1914-VIII-17

Euskal idazleen bazkaria

Atzoko idazkian Batxik agertu eban asmoa, euskal idazle guztiok egun batean alkartzeko nunbaiten, guztiz ederto eretxi jatan.

Autsak daukoz onek gure Batxik!

Ni gertu nago ba; ta izentau egizue erria ta eguna. Eraldu (organixau) egizue gure jai ori. A ze poza izango dan euskeraz itz egin al izatea ainbeste anaiekin!

Baiña ni buru ez, ezetara be. Ikusiku ia nok ipinten nauan ni buru! Lenago izango da an burrukaldi ikaragarri bat, ori nik itxi baiño.

Gaurko izparrakaz ez daukogu lekurik geiagorako, ta biar edo ekin-go dautsagu arlo oni.

1914-VIII-22

Gizonak, jakitun zagoze Batxiri otu jakola guztiok alkarregaz bazkaldutea. Asmo polita da, ta batzuk erantzun dabe poz-pozik dagozala orretarako; araiñegun Barainkak urratu eban baietz esanaz; egunokaz emen daukodaz Urni ta Zargasteren gaztiguak (abixuak) be; nik uste dot asko egongo dirala gertu.

Baiña Batxi joan dan ezkeru, bera izanik asmatzaillea ta ganera idazle errimea... baderitxozue itxi egingo dautsogu asmo orreri Batxi etorri arte. Agertuko da emen sarritxu, ba bera dabillen ontzi ori ez da andiandia, «Bayo» da; ta Ameriketara ta urriñetara barik, emen inguruan ibilliko da, Ingalanda-Frantzia-España-Portugal, ta Euzkadira joko dau, ontzi on emengoa da ba ta.

Guk egin geinkena da alkar artu nun izango dan alkartze ori ta ñnoz dakigunean Batxiren ontzi ori Bilbaora datorrela, orduantxe eguna izentau, ta bera eldu daitenean esan: Tira, Batxi, gaiuazan ulizein tokira igandean, ara batuko dituk gure anaia euskal idazleak eta.

1914-VIII-27

* * *

Batxi urrengo Bilbaora datorrenerako gertauta euki bear dogu nun ta zenbat bilduko garan. Bera Bilbaoratu, ta urrengo jai edo igandean izango da, naiz gitxi naiz asko. Etorreko ustea daukenak esan begie euren baia, ta adierazo zein erritan naiago daben.

Orain arte Urnik eta Barainkak eta Belumenduk esan dauskue atsegin izan jakela alkarregaz bazkaltze ori emen idazten dogunoi. Orraitiño, ez dabe izentau bazkal-erria (neu oker ez banago).



Atzo etorri jatan Biritxillaga-tar Josebaren idazkia arazo aunetzaz, ta onek argi ta garbi ta artez, aiko-maikoetan ibilli barik, bere eretxia onetara adierazten dau.

«Nik diñotsat (Belumenduri) Zornotzan izango litzatekela ondoen neure eretxiz; Gernika aldeko idazleok datozala bultzian, Bilbao aldekoak be bai, eta geuk, goi aldekoak be orraxe joko dogu Donostitik datorren bultzian sartuta.

Batxik onantzakoan eupada bat egin daiola Enbeitari be».

Onek esan dau berea.

Orain neu noa neureaz. Nire aburua da bildu bear garala Bilbaotik Donostirako burdinbideko erri baten; bide orixe da lekuri onena Bizkaia ta Gipuzkoako alde guztietakoak errazen biltzeko. Zornotza erri egokia da zio askogaitik; batetik ondo ta merke jateko erri ona, bestetik Gernika aldeko ta Arratia aldekoentzat goiz etxeratzeko ondo, ta bestetik izparringian lan egiten doguentzat ia bear-bearra, urriñago joango bagintzaz ba, Bilbaoratu ta bertan apaldu ta gertau orduko lanean asteko berandu egingo litzakigu ta.

Beraz, bi gara Zornotzarakoak: Biritxiñaga ta neu.

Asi zaitze ba esaten zeuena, baiña arin, or albora begira egon barik, etorteko ustea dozuenok. Neuk ementxe erabiliko dot aburu zenbakuna.

Zeuen aburua agertu baiña itz gitxitan onetara lez: «Nik, urliak, alako erritan gura dot», eta kitu. Sartu estalgi barruan, ipiñi beroni ganean «Original para imprenta», ta zentimo-laurenko seillu txikia, ta bota korriora estalgia sarratu barik.

Jaungoikoarren! Ez eistazue *sermoerik* bidaldu nun gura dozuen esateko.

Sermoiak an esango doguz, biltzen garan errian; an ezpanetatik agiriko da biotzetan gañezka daukugun maitasuna euskerarako, anaiak anaiaz gogozko artuemona eukiko dogula; an geure ele garbi oneri emonik beroni dagokion goralbena, pozezko ikareaz igituko doguz geure asaba antziñekoen azurrak euren illobietan: an zin esango dogu sutsu geure ele txukun onetan aintzaldu gura dogula Jauna, geuri onantxe dagokigulako; an gogortuko gara geure abenda-ele au aldeztuteko beti, geurea dalako Jaunak emonda; an deadar egingo dogu gozaro ta sendaro: Gora euskera garbia!

Gizonak, ia ba.

1914-IX-10

* * *

Atzo artu nebazan ingitxu bi Gernikako Belumendu ta Durangoko Urni izenordedunenak. Oneck diño euren aburua dala Zornotzan egitea gure batzar ta bazkaria. Oraintxe gomutetan dot Batxi berberak be erri orixe izentetan ebala lenengoz bere asmo au adierazo euskunean emen.

Beraz, onezkero bost gara bazkarira joateko gertu gagozanok eta bostok Zornotza autatu dogu.

Gitxi garala? Ta guri, zer? Ondiño geiagok ots egingo dauala ta nago, baiña izango ezpalitz be, ardura gitxi guri alkarregaz ederto bazkaldu ta euskeraz itz egiñaz abendeari zor dautsoguna ordaintzeko.

Batxi, Biritxiñaga, Urni, Belumendu, ta nerau, *ara* orain arteko bazkalkideak.

1914-IX-12

Galdakaotik esan dabe Lurrobi ta Lukik ondo deritxoela Zornotza bazkari ori egiteko, ta eurak be gertu dagozala etorteko.

Oneck idatziz diñoskuena, aoz esan dauskue Bilbaon bizi diran Amilgain, Arrugain eta Lezkainek.

Beraz, orain arte gara *amar*: Batxi, Biritxinaga, Urni, Belumendu, Luki, Lurrobi, Amilgain, Arrugain, Lezkain, eta *nerau*.

Ondiño geiagok ots egingo dabe, neuk uste; baiña oker andi baten banengo be, *amarrek* ia, zalaparta puskat atara daikegu.

1914-IX-14

Lengo astelenean esan genduan *amar* giñeala bazkari orretarako gertu gengoanok.

Ordutik ona geitu dira oneexek: Mirena Donostikoa, Zinkunegi osalaria, Axe, ta Imanol. Beraz amalau gara.

Asko ta asko dagoz ondiño gure izparringi onetan idatzi dabenak; gomutau baiño ez daukazue lengo egun baten Batxik agertu eban erreskada andia.

Oneen artean asko dira lekaide ta jaupariak, eta oneek ezin leitekez etorri. Eurotarik batek, M. B. S.-ek, idatzi daust, etorri ezin izango dan arren bere gogoa geukin egongo dala, ta opa dausku egun alai onuratsu bat. Eskerrik asko, jauna ta adiskidea; aske bazengoz ba dakigu etorriko zintzakiguzala.

Beste batzuk, jantzi laburdunak izan arren, euren errietako jauntxu edo kazikearen bildur-bildur dira, gure bazkarira joan ezkerro igarriko dautsiela nor dan, eta gero barregarri erabilli; orregaitik dagoz isilik. Oneetarik bat da *Txiñuelo Mañarikoa*. Beronen gaisoa nor dan jakingo baleutso!



Errekies... Katin... patze, gure erriko *sankristauak* esaten dakian lez. Euren buruen jabe ez diran oneetariko idazle gixajoak be ezin jakuz etorri. Urrengo baten, sokapetik urtenda badagoz edo, etorri al izango dira. Euren gogoa ba dakigu geuretarra dala ta... tira.

Beste batzuk dagoz nagjak, geugaz etorteko gogoa dabenak, baiña ingi zatitxu baten esateko ba datozala gauza ez diranak; oneetarikoak irakurri dagienean «onen egunetan dok», dapa! agertuko dira eguerdirako bazkari lekuan esaten: «Emen nator ni be, mutillak». Baiña jazo leiteke guk aurreztik aginduta euki onenbestentzako bazkaria, ta gariez datozanak gugaz batera maian ezin jesartea, geiagorentzat bazkaririk gertautu egongo ez dalako.

Nik, benetan diñot, uste neban askozaz geiago bilduko giñeala. Zer egingo jako? Garanak garala, egin gure bazkari ori; gitxi izan arren zintzoak bagara ez da ardurarik.

Bayo ontzia dago, atzoko EUZKADIn eta gaurkoan be bai ikusi daiken lez, Ingelandako Middlesbro-n zama-isten ille onen 13 garretetik; laster alde egingo dau andik, eta onantza badator, zain egongo gara, ta ona elduko dan urrengo iganderako iragarriko dogu batzarra, ta egin eta kitu.

Eta iñok esango baleu ia Imanolek noz euskeraz idatzi dauan erantzungo jako bazkaria izango dan eguna baiño lenago idatziko dauala, ta berak ez dau uste, baiña ondo.

Lengo egunean Batxiren izen erreskadan Zarrontzale be agertu zan; onek ez dau idatzi bein be, baiña bai idatzi eragin; eta augaitik eta Batxik izentau dualako, etorri daitela gura badau; arrera ona egingo litzakio baletor.

1914-IX-19

Araiñegun esan genduan amalau giñala Zornotzan bazkalduteko gertu gagozan euskal idazleak.

Atzo irakurriko zenduen Elgoibarko Urkiagaren idazkia gure izparringian; a gertu dago, ta beraz amabost.

Baiña bart artu nebazan idazkitxo bi: Eibarko Zargastena ta Portugaleteko U-tar J.-ena, adierazorik eurak be ba datozala.

Onetara *amazazpi* gara. Ederto, mutillak! Ba joak aurrera!

1914-IX-21

Gaurko idazkian diño Batxik «emetik amabosterantz urtengo dogu orrantz», ta idazkia da 11 garrenean eginda. Orain neuk ez dakit zeatz zer

esan gura dauan, ala egun artatik asi ta amabost egun geroago ala ille onen amabostean dala urtetea; batetik bestera amar egunen alde dago.

Amaboskarren egunean urten badira, datorren astean emen da Batxi bere txokor, bere txilibitu, bere piperpote ta bere kapela zuriagaz, onez ganera beste gauzaren bat ekarri ez balei, Galiziako gaitaren bat edo. Amabost egun geroago bada, orduan ille onen azkenean edo urrengokoren lenengoetan agiriko da.

Bera datorrenean bereala aginduko dogu bazkaria Zornotzan, eta izango ez dan lez ministro plenipotentziarioen banketea, egun bat edo bi aurreztik aginduta be laster gertauko daskue, pillo andia be ez gara ta.

Ara zenbat eta zeintzuk gagozan izena emonda an alkarregaz jateko:

Batxi, Biritxiñaga, Urni, Tabira-tar, Belumendu, Luki, Lurrobi, Amilgain, Arrugain, Lezkain, Mirena, Z. osolaria, Axe, Imanol, Urkiaga, Zargaste, U-tar J., Barainka, Egi-Alde, Txori-Erreka, Kardantxillo, Pizkunde-Zale, Enbeita, eta *nerau*. Guztira 24.

Ai! aiztu jat ia. Gaur *Egnekua* onetan agertzen dan Sollubeko Sorigiña be ba dator, ta olan 25 gara. *Gibelpa* Bermeokoak esan euskun ez dakiala ondiño etorri al izango dan, eta gaztigauko ebalu egun bat edo bi lenago.

Zarrontzale-ri dei egin eutson lengoan Batxik, esanik ondo artua izango litzakela. Bai arraietan! Baiña ez da etorriko, alde batetik abadea dalako ta abadeak igandetan zeregiña euki daroe bakotxak bere eleizetan, eta bestetik gu lako *hereje*-tzarrakaz gura izango ez leukelako batu. Or konpon; badator, arrera ona egingo jako, ez badator geure *errazioneak* garbituko doguz *pake ta amorio santuan...* eta kitu. Zer egingo dautsozu ba! Errekara itxi buruari? Ez orixe!

Euskal idazle neure lagun maite orreek, zuur eta zain egon zaiteze ba datorren astean izparringi onetan jakiteko noz eta zein etxetan egingo dogun bazkaria, ta azurbakoa ondo gertautu eroan barriketaldi galantak egingo doguz egun orretan ta.

1914-X-17

Lengoan zenbatu nebazan 25 lagun bazkari orretara joateko gurari diranak.

Gaur bi geiago ezarri bear dautsedaz: Baztandarra, ta Aizkibel-tar Bingen. Beraz 27 gara.

Atzo artu neban Batxiren idazki bat, biar argitalduko doguna J. 1., ille onen 16an egiña. Onexek argitzen daust lengo egunean adierazo neban ezbai edo duda; ez dira urten 15ean, eta ez diño ezer urtekuntzeaz;



beraz datorren igande edo astelenean urteteko izan bear dabe, ta andik onako biderei bost bat egun jo ezkeri Azillaren lenengorako dira emen okerrik ez bada.

1914-X-19

Datorren igandean, ille onetako 25ean, egin bearko dogu ba geure bazkari ospetsu ori. Batxik diñost atzo elduriko idazki baten, gaur, 20an, urtengo dirala Lisboatik eta Bilbaora joko dabela 23an, bariku edo ostira-lean, eta berak diño igandean egin bearko dala. Bai ba; bere ontzia utsik dator, ta bereala zama-artzen asiko da, ta urrengo astea amaitu orduko bearbada itxasoratuko da barriri, batek ba daki noz atzera etorteko.

Esango dogu leku onetan Zornotzako zein etxetan izango dan bazkaltokia ta zein saneurrikoa.

* * *

Gaurko Zumarragatiko idazkian Elaire-tar Sinborenek adierazten dau berak Zornotzara baletor esango leukezanak. Asmo ederrak dira, batez be, Euskal Begiratzaille-Bazkunarena; auxe egokia izango litzake, ta uste dot gaurtik laster bearra be izango dala, itz barriak guztiok batera erabilli daiguzan; ibilli ez gaitezan batzuk alde baterantz eta besteak besterantz, eta indarra ta astia galdu orlan.

* * *

Orretariko asmakizunak erabagi ta aurrera eroateko neuk uste dot Zornotzan bilduko garanok ez garala. Ez neuke gura iñor mindu, baiña nire aburuz, *Axe* alde batera, beste enparauok ez gara jakintsuak euske-reatzaz; euskal idazleak eta euskaltzaleak bai, euskal jakintsuak ez. Eta orrelako arazoetan sartzeko jakintsuak obe litzakez; eurak erabagi ta guk jarrai.

1914-X-20

Biar emen da Batxi, okerrik ez badauke bidean, eta igandean egin bear gure ainbeste bider aitaturiko bazkari zorionekoa... Au dok au! Ondiño gertetako jaukaguk eta!... Arrano gorri-gorri bat!

Gizonak ba!... atzo goizean oe epeletik urten nintzan nagika-nagika, ta begiak andi-andi nebazala, San Anton ondoan sartu nintzan tranbian, eta or naioak Zornotzarantz gudako *bateko biribillak* iruntsi ta iruntsi.

Lemoan ba daurkit adiskide maite bat Zornotzarantz datorrena bera be. Ditantsot jatetxe on bat, jabea abertzalea dana. Darantzust: Orra, ortxe daukozu.

Sartu, ta itundu neban jatetxe-jabeagaz gure bazkaria onetaraxe: Iru lapikoko (indaba, aza), arraiña (badago) edo makailu on-ona ostantzean, bizkarki-okelea, oillazkoak, igaliak (matsa, sagar), gaztaia, txakolin zuria edo gorria ta ardaoa, akeita, txol betena edari gogor. Amazazpina errial ordaintzea dagokigu bazkari orregaitik.

Jatetxe au dago Zornotzako Jel-Batzokia dagoan etxean bertan, Batzokia baiño oin bat berago.

Ba dakizue ba nun, zer ta zenbat dan bazkaria. Ordua... nik uste dot eguerdian dala ondoen.

* * *

Nik lengo egun baten argitaldu neban Zornotzarako baietza emonda dagoan idazleen izen erreskadea.

Orra ba, atzo Lurrobik iñostan bera ez datorrela ta ez dauala esan etorriko danik be; orrez ganera, Biritxiñagak diño ez nebala aitatu Txindurri...

Arraio-arraioa! Ez ba; oingoan ondo kontau (zenbatu) bear joadaz ba.

Ta, illabete ta erdi onetako izparringi guztiok mai ganera atara, ta emen ibilli naz billa ta billa alik zeatzen... okerren bat egin ete dot? Balei-teke, Adan zanaren kastakoa alperrik ez naz ta.

Ara zeintzuk diran:

Batxi, Biritxinaga, Urni, Belumendu, Amilgain, Arrugain, Lezkain, Z.-tar osalaria, Axe, Imanol, Urkiaga, Zargaste, U-tar J. Portugaleteko, Egi-Alde, Barainka, Txori-Erreka, Kardantxillo, Pizkunde-Zale, Tabiratar, Enbeitia, A-tar J. Muxikako, Txindurri, Sollubeko Sorgin, Baztandarra, Aizkibel, U-tar A. Zornotzako, Legarda, Urkiazelai, Luki, ta nerau.

Zumaiako *Emengoak* eta Bermeoko *Gibelpek* iñoen al baeben etorriko zirala, baiña ezin leiela gauza osorik esan.

Beraz, *ogetamaika*, 31, gara.

Lenengorako polito da.

* * *



Eup! Eup! eta... iiEup!!

Aurreko guzti orreek idatzita gero, eldu jat eskuetara Batxiren idazkia, ta diñost urten zirala Lisboatik astelen-arratsaldeko lauretan, eta mus-tur-aldeko aizerik edo eukiten ez badabe gaur arratsaldean elduko dirala emengo iztate edo portura.

Baiña... auxe jagok ba!... Lisboan oraintsu izan da zaratea gangeri edo *alera* egoanarena, ta ez da ezer izan; baiña ango kontsul españiarrak osasun-agiria (*patente de sanidad*) ez dautsela emon ez garbi ta ez loi, ezbaikoa; ta augaitik jazo leitekela emen Bayo ontziari sartzea ez istea egun batzuetan, eta Batxik diñost gaur arratsaldean neuk itandu dagiodala Portugaleteko Itxas-osalariari (a Sanidad Marítima) ia *Bayo* barrura datorren ala egun batzuetako gelditzen dan.

Egin dot ba jakin-billatze ori, ta biar goizean esango dautsuet zer izan dan. Batxi barik ez goaz; itxarongu dautsogu urrengo igandera arte. Ezta?

1914-X-22

* * *

Gauzak oker urteten asten diranean...

Atzo arratsaldean urrutizkiñez itandu neban Santurtzeko Itxas-osakuntzara (Sanidad Marítima) ta erantzun eusten *Bayo* ontzia kaian egoala; Bilbaotik joan bear ebela Itxas-osakuntzakoak bera ikertu ta keztuten, eta gero erabagiko ebela oneek, ontzia lazaretoan ipiñi ala ibaira sartzen itxi; ez ekiela noz joango ziran osalari ikerle orreek eta ketzailleak, ia bostak zirala ta etzirala agiri, iñoz jazo dan lez biaramonerako itxiko eutsoen be ez ekiela, ta au ta ori ta bestea.

Gerotxuago deitu neban Bilbaoko Itxas-osakuntzara, ta andik erantzun eban osalariok eta ketzailleok joan zirala *Bayo* ontzira.

Geroago deitu neban Santurtzeko osakuntza-landolara (ofizinara) ta inok erantzun ez; deitu orduan Bilbaokora ta emen be bapez; antza danez, bostetatik laster atea itxi ta, or konpon! alde egiten dabe lanari ostikadea emonda.

Orduan deitu neban ontzi jabearen etxera ta emakumeren bat, katua lakoze abotsaz, jarri zan tramakuluan eta *Bayo* ontzia aiatu neutsaneko, dri dra! ebagi eustan itza ta esan eustan ugazaba etzala Bilbaon eta eurak ezer be ez ekiela, ta klank! eskegi eban entzukaia ta kitu, len aiñean.

Geratu nintzan ba jakin eziñik gure Batxi biar leorreratuko dan ala kaiolan itxiko daben egun batzuetarako.

Ba, gaur goizean goitzxo jagi ta neu noa ontziaren billa, ta neurez jakingo dot bear doguna, ta biar larunbatan esango dautsuet ementxe.

Biar arte, beraz.

* * *

Beste bi geiago daukoguz bazkari lagunak: Bermeoko *Gibelpe* ta Gernikako *Txamorro*.

1914-X-23

* * *

Atzo goizean jagi oetik neure egunoroko *taria* baiño ordu bi lenago, ta begiai igurdika eskuakaz sartu nintzan Portugaleteko bultzian (trenean). Ara eldu ta bertako nasa musturreko torrean itandu neban bear nebana ta erantzun eusten *Bayo* ontzia goizeko seiretan sartu zala ibaira. Au jakinda nasaitu jatazan barruok eta biurtu nintzan Bilbaora; joan nintzan telegrafa edo urrutidatzera (??) ta bidaldu neutson izparra Zornotzako jatetxe jabeari, esanik ipiñi dagiala bazkaria ta iru-lau leku geiagorentzako.

Beraz, mutillak, biar eguerdirako ara jo. Bazkalduko dogu pake ta amorio santuan, eta gero itz egingo dogu geure gauzetaz. *Txamorro*-k iñoan atzo, itz-egite au obe zala bazkal aurretik. Ondo bazkaldu ta gero *gíro* edo *aro* ona ixaten da ba barriketan egiteko; bazkalduta, urdailak zeregiña eukiten dau bota jakon jatekoaz, ta burua orduan aske egoten da berak gura dauan lekuetatik ibilteko.

Arratsaldean idazkola onetara etorri nintzanean Batxik deitu eustan Barakaldotik urrutizkiñez ta itz egin genduan. Gertu dago bera be biarko.

Txokorrak makarrak... zelan da gero? Ai ene, txilibitua ez da niretzako! Zer egingo jako! Iñoz musikea jo gura izan daidanean... *violon*-a eskatu bearko dautsot... nori? Neuk dakidan *vascuentzista accerrimo*-a dan batenbateri.

1914-X-24

* * *



Ias! Egun ederra igaro genduan atzo.

Egudirako an giñean guztiok, Batxi izan ezik; au be amabi ta erdie-tako tranbian agertu zan, bere txilibitu ta txokor ta abar; ta geroago, sartu giñean jatetxean, jesarri mai ederto gertaurikoan, eta bazkaldu genduan *pake ta amorio santu* baten.

Ederto bazkaldu be. Gauzea ugari ta ondo ipiñita izan genduan. Txalo bat Aurtenetxe-tar Bernarta jatetxe jabeari ta bere otseifei.

Bazkari azkenerantz Batxik irakurri ebazan bere itz-neurtu batzuk itxasoko bere bakartaldietan eginda daukazanak, polito eginda atan be. Onek Batxik autsak daukoz.

Gero akeita artzeko gengozala barriketa bete-betea, orra nun agertu jakun morroi bat besapean kutxa baltz bat eroiala, ta otoi egin euskun kalera urten eta pilloan jarteko, geu guztion *porrotogarrapia* atara nai eballa ta, nora edo ara bidaltzeko. Erderaz itz egin euskun arren gogorik onenagaz jagi ta joan giñean Udaletzeko albo-orma ondora, arrizko jesarleku luze bat dagoan lekura, ain gara gu bildozkiak! Bestetara izan balitz, bestetara!... erdaldun artera joan balitz euskaldun uts bat, euskeraz itz egiten baiño ez dakiana esan gura dot, ak entzun bearko zituan entzutekoak!: *¿De onde ha salio ese salvaje? ¿Que vaiga y deprenda a hablar como las presonas! ¿A ladrar a tu casa, vascuence!* Gu ez gara olakorik iñori esateko, ta ondo da izan ez gaitezcan be; jagon daigun beti gugandik eurekana dagoan aldea.

Bereala biurtu giñean jantokira ta artu genduzan akeita eta txol bana. Bitartean Batxik atara ebazan maira iru *pemy*-ko txilibitua ta txokor pillo bat. Txilibitua *Urni* Durangokoak irabazi eban amar bidar ta arnasa baten zeatz esanik: *Txokorrek makarrak ixaxarrak txikerrak zureztat*, eta gero beste arnasa baten amar bidar itzik galdu barik: *Luzekorrek lodikorrek tokorrek txokonak nireztat. Urni*, Jaungoikoak jagon dagitsuzala urte askotan min askatu on ta arnasa luze ori. Mutillak!

Ixetu genduan txokor bana ta mustur ertzetik kea dariola asi giñean ba geure euskereatzaz barriketan. Batxik esan eban *Bazkuna* egin bear genduala, bakotxak onenbeste illero emongo leukeanaz argitaltzeko euskerazko ingurriak (orriak) eta onek zabaltzeko baserritarren artean, ikasi dagiezan Aberriatzazko jakinbearrak eta olan euskereari ta enparau gauza geurei maitetasuna izan dagioen. Gero *Txomorro* Gernikakoak adierazo eban sendien Bazkuna bear zala bere eretxiz euskerearen alde, zaletasuna zabaldu daiten emakume ta umeterian be. *Tabira*-tar ta *Axe*-k esan eban Bazkuna bear dala ume ikastolai laguntzeko, ikastolea dala oiñik sendoe-na euskereari gorantz eragiteko ta... bear dana dala idaztiak (liburuak) umeentzako. Guzti oneen eretxiekaz bat zirala, an egozanak adierazten

eben *Bazkun* bat, euskaltzaleena, bear-bearra dala, ta irasi egin bear dala. Batxik gura eban antxe bertan bereala irastea. Belaustegigoitia-tar Perderikak azaldu eban Jel-Alderdi Buru-Batzarrak asmoa daukola Euskaltzale Bazkuna irasteko, an esan ziran gurari guztiak izapidean jartzeko, ta au entzunik erabagi genduan Buru-Batzar orreri oso-osoan laguntzea bere asmo onurakorrean, eta berau agertzen dan artean, orain arte lez jarraitzeko idazten geure ele maitean.

Igon giñean gero Batzokira, ta an abesau eban eder-ederto eusko abesti polit bat Tolosako Eizagirre jatorrak, eta oni txalojote aundi bat egin ondoren, abesau genduan guztiok batera geure Ereserkia, ta alkarri agur egin geuntson beste bat arte.

Atzo bildu giñeanak ara: Belaustegigoitia-tar Perderika, Tabira-tar, Urni, Kardantxillo, Biritxiñaga, Pizkunde-zale, Lopez Mendizabal-tar Ixaka, Eizagirre, Axe, Urriolabeitia-tar A., Batxi, Zargaste, U-tar J. Portugaletekoa, Legarda, Urkiazelai, Urkiaga, Txindurri, Amilgain, Sollubeko Sorgiña, Lodi, Aizkibel, Txomorro, Enbeita, Altube, Txori-Erreka, Luki, Arrugain, Lezkain, Eli, Eladi, Gibelpe ta nerau.

Agurra bidaldu eban Zinkunegik, Errenderiko Olaziregi Uarte ta Lasak, euskerazko *telegarrametar*, Urki Zornotzakoak idazkiz, Kirikiñok irakurri eban idazki eder bat Bilbaoko Euzko-Gastediarena agur egiñik eta eskeintzen jakela euskal idazleei edozetan laguntzeko orain arte beti euskerearen alde egin dauan lez.

Andik alde egitorduan bostekoa banan-banan estutu neutsenean neure lagun maite arei, otoi egin eusten guztiak euren izenean Batxiri eskerrik asko egiteko bere asmoa dala ta Zornotzan bildu ta alkar ezagatu ta egun eder bat izan dogulako, ta Batxik osterata eskatu eustan esateko leku onetan laztan estu bat anaitarra dagitsela guztiei.

Ai Txiñuelo, etorri baziña!

1914-X-26



Euskeraz irakatsi

Gaur diñosku «Urni» durangarrak eurak an edegi daben euskal ikastolea ba doala aurrerantz. Poz andia artzen dogu, ta zorion oparik bizi-na bialtzen dautsegu ikastola on edegi daben eta bertan lan egiten daben abertzale onai.

Ori da gauza ona egitea: gazteei irakatsi geure ele garbiaz batera kristau ikastea, ta beste ikastoletan irakatsi oi diran beste jakinbear guztiak.

Aldiz edo denporaz igarriko da ikastola onetan mutillak geiago ikasiko dabela besteetan baiño, eurak ondo dakien mintzo edo berbetan gauzak adierazoko jakezalako.

Norberak dakian izkeran be, lenengokoz gauzak entzuten diranean nekez ulertzen dira, ta gogoratu begi zer izango dan norberena ez dan izkeran entzun ezkeru.

Onexek dakast gomutara neure txikitaldiko jakozun bat: neuk zelan ikasi neban atalketa edo *division*-ea.

Oi baltzaren aurrean gengoan bost edo sei mutiko ta eskola-maisua kare-zatia eskuetan ebala, an ibilli zan luzarotxo barriketan guri azalduten atalketa edo *division*-ea zelan egin bear dan; baiña erderaz esaten eban eta guk ez genkian barriz tautik, ez genduan ba ezer ulertu.

Gero, bakotxari geure ingurtza zurian (*cuaderno*-an) ipiñi euskun eragoketa edo ekertzisio bat, biaramonean ondo eginda berari eroateko.

Orduan izan ziran nire esturak! Narruko galantak artu bear nik, zelan egin ez nekian ta! Arratsalde artan ez neban jokatu ez pelotan ez ezetan, eta azkaria edo meriendea be aztu jatan etxean eskatzea. Kokolotuta nengoan oldozketan biaramonean artu bear nebazanak.

Onetan gure ama zanak (g. b.) bidaldu ninduan iturrira pitxerbeste uren eske. An aurkitu neban Maulesio Labakoa, ni baiño aurrerago eskolan ebillena, ta berari esan neutsozan neure barruko kezka; erantzun eustan: «Neuk inguat», eta berak euskeraz azaldu eustan zelan egin bear zan. Nik orduan: «I, Maulesio, *ekenpulu* bat ipiñi eistak ia neuk bakarrik eiten doan, ». *Ekenpulu* bat edo bigaz ederto ikasi neban Arimetikako egiketa ori.

Maisuaz ezin eta Maulesiogaz beingoan; a erdalduna ta au euskalduna neu lez.

Neuri jazo jatan onegaitik diñot ba, Durangoko ikastola barri orretan mutikoak asko ikasiko dabela, irakaslari edo maisuak euskeraz azalduko (esplikauko) dautsiezalako gauzak.

Irakaslari orreek ekiten badautsoe abiau daben lan eder aberkoi orreri, igarriko dau jendeak irakaskera orren obari edo bentajea, ta bidalduko dabez mutikoak bertara.

Olakoxe ikastolakaz aurrerakada andia eragin leio gure aberri Euzkadiri.

1914-XI-23



Atzo

GOIZEAN

Iragarrita egoan lez zortzi ta erdietan Deun Bingen Abandoko eleian ospatu ziran Jaupa ta otoizketak Arana Goiriren eta il diran bizkaitar abertzaleen gogoan alde.

Urtean-urtean lez ozte aundia erdu zan bertara. Gastediakoak ederto abestu eben.

Atsegiña izaten da beti ainbeste lagun ikustea otoi egiten Sabin zanaren alde. Ori dagokigu euskotarra, ezin lei zenbatu ba zer zor dautsogun Sabiñi. Orretara esker ona erakusteak asko goraltzen dauz Bilbao-Abandoko abertzaleek.

GABEAN

Centro Vasco deritxon Batzokian ospatu zan batzar gomutagarria Sabiñen aintzaz.

Itz egin eben bik, bata euskeraz, besteak erderaz.

Areto edo salon ederto bete zan abertzalez. Euskeraz itz egin ebani eskatu geuntson bere izkaldia, ta ona emen:

«Urtean-urtean, gaurko egunez, biltzen gara Arana Goiri-tar Sabin zanaren gomutaz. Egia esateko, beti darabilgu bera geure gogoan, baiña gaur alkarregaz berariz gomutatzen dogu geure Abenda zar antziñati onen semerik andiena. Gaur dagigun gomutakunde onegaz biztu ta bertu bear dogu, urte guztian bakotzak erabiliko dauana. Bear-bearra dogu euskotar abertzaleak Arana Goiri-tar Sabiñen gomutea ezer egin gura badogu geure Aberri zorigaiztoko onen alde.

Emen bildu garan guztiok ondo baiño obeto dakiguzan arren Sabiñen irakaste argi-argiak eta bere egintza gorlagarriak, ez da ardura, aitatu ta esan daiguzan barriro be, ondiño barrurago ta gogorrago sartu dakiguzan geure gogoetan, untze bati maillukadak beti be emoten jakozan lez, nasaitu ta lokatu ez daiten, eta gogor bere lekuan iraun dagian.

Esan daigun ba Sabiñi zor dautsogula geure Aberriaren ezaugarria. Sabin irakasten asi arte iñok ez ekian emen Aberriaren barri, guztiok geunkan Aberritzat, egin-egiñean be geure Aberria menpean daukon erria. Au zan osteria itsutasuna! Begien aurrean geunkona, ikusi ez! Berak, Sabiñek, jakin eragin euskun ba zein dan geure Aberri au; berak adierazo euskun zein zoritarrekoa dan, berak argi-argi ipiñi euskuzan zein ederra

dan Aberri onen edestia edo istoria, zein politak diran beronen ekanduak (jolas, abesti ta abar), zein sakona ta zein geurea dan abenda-ele samur gozo au, euskera zar au; zein zuzenak eta zein egokiak diran Aberri onen legeak; zein berezkoa ta banakoa dan eusko semea beste abenda semea-kandik. Abendea, edestia, elea, legeak, ekanduak... guzti-guztia argi ipiñi euskun geure begien aurrean. Eta ez euskun irakatsi bakarrik egin, etzan esanean bakarrik gelditu, egiñera sartu zan, eta gogor sartu be; erakutsi euskun zenbat maite eban berak iragerturiko euskotarren Aberri errukarri au, beronen alde egitearren ardura barik galdu ebazala bere ogasuna, bere adiskideak, bere bizikera ona, bere ogasuna, ta azkenean bere bizia. Adimenaz andia izan bazan ikusirik eta igarririk iñok ordurarte ikusi ta igarri ez ebana, etzan izan txikiagoa guramenez: buru argia baizen biotz sutua izan eban Sabiñek, eusko errian izan dan gizonik andiena zanak. Goian bego.

Il jakun. Bere gogoia Jaungoikoagana joan zan; bere gorputza an dago Sukarrietako illobi txiro ta bakar artan.

Beraganako zor andia dogu. Zelan ordaindu? Bere gogoaren alde Jaunari otoi egiñik, gaur goizean txadonan bildurik egin dogun lez, eta bere neke guztiakaz erakutsi euskun Aberri bide zuzenean jarraiturik, orkate edo pausurik galdu barik alde batera edo bestera.

Gaur lako egunetan biltzen garanean bere gomutea biztu ta sendotzeko, asmoren bat artu bear geunke zeozer bat egiteko berak egin ebannaren antzera. Adibidez, guztiok dakizue Arana Goiri txikitatik etzala euskalduna, geroago abertzaletasun argiak jo ebanean artu eban asmoa euskera ikasteko, ta ba dakizue noraiño eldu zan euskaltasunean; ez eban itz egiten eta idazten bakarrik ikasi, gure euskera azterkatu eban sustar-sustarretaraiño, euskal jakitun andienetarikoa egin zan, jakintasun andi au lortzeko urte askotan gabak igaro zituala ikasi ta ikasian; etzan gelditu onetan, ez eban izan naikoa euskal jakitun errimea izanaz, euskera zabalitzen alegin andiak egin zituan bere buruaz ta bere diruaz.

Bere bide on ori artu daigun geuk be; lan egin daigun gogoz euskerrea eutsin, indartu ta zabaltzen, gizonak ba, euskera bako Euzkadirik ezin izan leiteke ta.

Gaur ba, geure Irakasle maitearen gomutaz dirautsuet erabagi daigula ementxe euskaldun guztiok euskera bear-bearreko egitea emen gure Aberrian bizi izateko. Au entzunik esango dau batek baiño geiagok: «Ori or zeuek orretan zabiltzenok egin bearko dozue, nik ba naikoa jaukoat neure etxerako ogia irabazten egun guztian lanean ibillita». Ori diñonari diñotsat baiña: Euskerearen alde lan egiteko ez uste bear danik idazten eta



irakurten eta ikasten egun osoan ibiltea, ez olakorik; euskerearen alde zuk uste dozun baiño lan geiago egingo dozu igarri barik. Zelan? Euskeraz beti, al dozun guztietan, itz egiñaz.

Orixen da, ori, egin bear doguna guztiok; beti euskeraz egin, geure buruaz ta geure etxeetan, kalean, tranbi ta trenetan, au lako lekuetan, den-detan, naiñun... ezetarako iñor edo ezer bear dogunean euskaldunagana jo; gu lako bi edo iru edo geiago alkarregaz euskeraz izketan diñardugunean, artera erdaldunik bajatoriku, ezer diñoskunean erderaz erantzun ari baiña geuk euskeraz jarraitu, ez itxi euskerea a etorri dala ta, zer diñogun jakin gura baleu ikasi dagiala gure elea; euskaldunik erderaz jatorkunean adarra joten beste leku batera bidaldu; gauza guzti oneetan oso gogortu bear dogu, euskerea da geure elea ta ez dirudi, aldirik geiena doakigu erderaz itz egiten, beti bildurrez beti lotsaz, ez ardurarik izan gu basati kirten batzuk garala iñok esan leikela ta, asarratu egingo jakuzala ta... gizonak, asarrea beste gauza guztiak lez ondo da aldizka edo txandaka, ta euskaldunik arazo onetan ez gara iñoz asarratu, ta onezkeru ordua da ta geu be nozbait asarratu gaitez.

Onantxe, su ta gar, asten bagara, laster baiño laster egingo geunke emen euskerea bear-bearrekoa bizi izateko, ta egundoko ariñen zabalduko litzake. Orduantxe beteko geunke gure Irakasle Sabiñek bein esan ebana: «Euskereari indarra emoteko euskaldunen artean, bear-bearrekoa egin bear da zetarako edo atarako».

Artu daigun asmo auxe ba, ta opaldu dagiogun gaur Sabiñi: Al dan gauzea balitz bera berbiztu ta ona geure artera etortea, egon ziur pozik andiena emongo geunskiola ta lastanduko gindukezala asmo onegaitik.

Jo daigun euskerara; gure elea biziko dan artean gure Aberria be biziko da, ta zenbat biziago ta sendoago ta aberatsago ta indartsuago izango dan euskerea alantxe biztu, sendotu, aberastu, ta indartuko da gure Aberri auldu au.

Gizonak, uste egin daigun Sabin Irakasle maitea ementxe geure artean daukogula ta beragaz batera deadar dagigun: iGora Euzkadi!»

1914-XI-26

Euskaldunen alde

Erenegun, Gipuzkoako Diputazioan, Orbea, Intziarte eta Angulo diputaduak agertu zuten erabakizun bat, euskera jakitea ez dedilla bearrekoa izan Diputazioaren otseiña edo enpliadua izateko.

Elortza, azpeitiar diputadu jaimetarrak erantzun zien euskera bearbarrara dala Diputazioaren otseiñentzat, euskaldunekin izan bear dituzte-lako beren artu-emangeienak; eta onez gallera, gaurko egunean euskerearen alde guztietan gogoz ari diralarik, ia zergaitik atzerakada ori egin bear zuen Gipuzkoak, euskalerriko zatirik euskaldunenak.

Olazabal diputadu integristeak sendotu zuen Elortzak ain ederto azaldu zuena.

Gero, auteskundera (botaziora) sartu ziran, eta Orbea piperpotea eta bere lagunenean erabakizuna atzeratua gelditu zan, eta zutik, orain arte bezela, Gipuzkoako Diputazioaren otseiña izateko *euskalduna* izan bearra dala.

Euskeraren alde autarkia (botua) eman zutenak dira: Elortza, Azitria, Aranburu, Orbe, Ayala-Gaitan, Lazkibar, Arregi, Olazabal, Ikazategi, Ameztoi, Bianki, Zabala (Lendakaria), eta Laborda. Amairu.

Euskeraren kaltez: Orbea, Laffite, Aginaga, Angulo, Intziarte. Bost.

Nik ez ditut ezagutzen diputadu oiek eta esan didate, alde autarkia eman dutenak dira: lenbiziko bostak jaimetarrak, urrengo zazpiak integristak, eta azkenengoa liberala.

Zorion agurra damaiegu eta txalo beroak jotzen dizkiegu euskaldun jatorrak diraden gizon oiei.

Kaltez autarkia eman dutenak omen dira: lenbiziko biak piperpoteak, eta beste irurak liberalak.

Auei dasaiegu (esaten diegu) oker egon dirala beren asmoan. Gipuzkoa euskalduna da oso, eta otseiñak nagusiaren ele edo izketea jakitea bidezko gauza da; bestela, nola antolatuko dira elkar ulertzeko? Eta ez du balio esateak Gipuzkoan jaiotakoren bat gelditu litekela otseintza-leku oietara eldu eziñik euskera ez dakialako, ba leku oiek ez dira egiñak oneri edo areri irabazpidea emateko, gipuzkoar guztiei bear diran arazoetan erantzuteko baizik, eta ontarako euskera jakitea bear-bearra da, ta ez badakite... ikasi dezatela. Eta oraindik gutxiago balio du esateak euskere-beartasun orrekin otseintzarako onenak atzean gelditu ditezkeela, ba euskalerrian eta batez ere Gipuzkoan, euskera dakitenen tartean mutil azkarrak daude beti bezela, edozetarako jaiok diranak, erdaldunakin neurtzeko ta aurrenen irtetzeko gai diranak.

Ez, orretan ez zerate zuzen egon.

1914-XII-18



Euskaldun ikurra

Gaur asiko dira saltzen Bilbaoko «Euzko-Gasteia»n lengo astarteetan aitatu genduzan orratzak.

Zidarrezkoak dira ta errial bian salduko dabez; euren taiua adierazo gura neuskizue ainbat zeatzen itz gitxigaz, ia al dodan: gogoratu egizue gurutze bat, lau adarrak bardiñak daukozana; ba, adar bakotxa erdi-erdi-tik ausi ta okertu beti eskumarantz; ta orra bere taiua.

Bira-biraka dabilen izar edo tixirringatxua dakar gogora berarizko gurutzetxu onek. Antziña-antziñako gudari euskotarrak euren guda-ikurriñetan, erabilten ei eben ikur au eta uste danez, beronegaz eguzkia iruditu gura izaten ei eben, olan adierazo nairik eurak *eguzkitarrak* zirala, eguzki aldetik etorririko abendarrak edo.

Dana dala, ikur polita edo ekarra (senzillua) da berau, ta euskaldun euskaltzale guztiok erabili bear dogu paparrean, edonun alkar ezagutzeko ta geure abenda elez beti itz egiteko ta alkarri laguntzeko anaiak lez al dogula ta adierazteko ez garala lotsatzen euskaldun izateaz.

Jagi ta aurrera! Imiñi daigun guztiok orraztxu au papar egalean, eta olantxe alkar ezagutuko dogu alde guztietan, eta euskerea erabiliko dogu orain arte baiño geiago, ta geiago erabilliaz bizi geiago emongo dautso.

1914-XII-12

* * *

Gure lauburudun orraztxua ba dabil euskaldunen gorbeta ta papar galetan geroago ta ugariago.

Izango dira euskaldunak orixe erabilteko be lotsa izango diranak, orraztxu orregaz «ni euskalduna naz» eta «nik euskerea maite dot» adierazteko bildur izango diranak; bai, izango dira, baiña koldarrak (kobar-deak) ez doguz anaitzat ezagutzen; orreek ez dabe gurutzerik bear sokea baiño.

Jeltzalea ez dan euskaldunak erabili lei orraztxua? itandu eban batek; eta erantzuten jako baietz. Beraz, jaimetarra, integristea, piperpotea, errepulbikanoa, edo beste edozer danak be gura badau orraztxu ori, eskatu begi, ta salduko jako.

Orratza euskaldunena, euskaltzaleena da.

Guk iñoz esaten dogunean geure euskerea, geure orretako geu orregaz adierazten dogu *euskalerra*, *euskaldun guztiok* batera, ez jeltzaleak bakarrik, gazbakoren batzuk aitu daben lez.

Geure orratza ba edozetariko euskaldunen orratza da.

1914-XII-15

* * *

Gure orraztok izugarri saldu dira Joan dan astean; «Euskeltzale-Bazkuna»ko mutil batek esan daust ia gitxi daukezala, ta barriak ekarri bear dabezala.

Au entzun neban atzo illuntzean eta poz-pozik itxi ninduan, zerbait ilduta nengoan ba arratsaldean euskaldun abertzale bati entzun neutso-naz.

Euskaldun orri neure aurrean esan eutson batek ia zegaitik ez eban ipinten berak be orratza, ta erantzun eutson: «Nik agirian ez dot erabili gura ezer, nik ementxe barruan daukat ori» bularra eskuagaz ukututa.

Barruan! ezta? Orixe da ba bear ez dana, euskerea ain barru erabiltea, iñok ez ikusi ez igarriko dauan lekuan. Argitara bear da; bekokia zabal-zabal adierazo bear dogu euskaldunak garala, beti ixilkerietan ibilli barik.

Eztabaidarik ez dot gura; gu besteko abertzaleak izango dira euskaldun ori ta bera lakoak; baiña zek lotsatu bear dauz ba euskaldunak dirala adierazteko?

Auxe da nik ulertu ezin dodan arazoa!

1914-XII-21



Unamuno-tar Mikelen idazkun bat

Orain ogetaz urteak dira argitaldu zala urrengo doan euskal idazkun ori. Antza danez, orduan ez eban uste euskerea itxi bear zanik, berak erabilen ta. Geroago esan euskun geuk erail gengiala geure abenda elea, ta zegaitia zan, euskerea ez dala gauza oldozkun goikoak adierazteko. Jakiña! Unamuno larri ibilli zan euskera mordoillo ori idazteko (naikoa da berau irakurtea igarteko), ta uste izan eutsun: «Neuk ain nekez idatzi al izan dodanean, euskerea ez dok gauza jakitunentzat». Eta etxakon otu orraitik oldoztutea: «Neu ez nok gauza euskeraz idazteko».

Dana dala, atsegiñez iminten dogu Unamuno-idazki ori, uste izanik gure irakurleak pozik irakurriko dabela. Gaur espainieraz be ba diñoe zeozer beronetzaz izparringi onetan.

Ona emen:

AGUR, ARBOLA BEDEINKATUBE!

Neguban igartuten de arbolie; orrijek jausten dire bere oñetara eta antxe orbelak indarrrik emoten deutzaz urtengo dirianak udabarrian orri barriai.

Gorputzarako irudije legez, bardiñ de izpirituarako berbakuntza. Arrapau euskubezan legezarrak, gure bizije ziriala, bañon gorde daigun gure euskaldun arimie eta onetati urtengo jakuz barriro foruak, bai, urtengo dira justitziaren eguzkije argituko danian, betiko udabarriaren egunian.

Euskaldunak euskaraz eztakijenak ikasi biar dabe, arren, biotz indar-tsuarentzako bere errije maitauten dabena gauza erraza da; badakijenak ez aztuteko, euskerie korapillube estuten dituzana illobak aitonai eta gurasoen jakintasuneko ontzije dalako.

Euskaraz berbeiten eben gure aitonon aitonak, gizon ayek etorri ziran, eztakigu nundik, narruakaz jantzijek, arrizko azkoriakaz armatubek, pakian lur gogor onetan laneiteko. Ayek baño gero etorri ziran iberotarrak, zeltak, erromarrak eta arabiarrak, ekarri eben bakotxak bere berbakuntza, bañon zapaldu zirian Eskalerraren kontra. Euskarazko soñu gozoak entzun zirian Terranova'ko errijetan Colon'en jayotza baño len.

iAgur eiten zaitut, arbola zarra, anaijen odolez eta amen negarrez erregatube, bañon Jaungoikoaren eskubagaitik bedeinkatube, aretx mai-

tea, ondatuten dituzuzana zure sustraijak lur onetan, gizon prestuben biotzakaz oratube, gorde gaizuz danok zure kerizpian!

iAgur eiten zaitut, zuri pe bai, Gernika, erri ederrenena, euskaldun danentzako erri santube, zugar arbola santube jarririk dagolako: euskaldunen artian maitatube baliñ bazara, ayek baño nik maitauten zaitut geijao, zertije baño egun gozuague pasa dot, eta zergaitik ementxe nere biotzaren biotzeko abijie dago!

iAgur eiten zaitubet, zuei pe bai, neure anaija laztanak! Denbora datorrena obie izango da; negu illunaren ondoren udabarri agertu oi dabe!

iOraiñ arte esan deutzube iaurrera!; bañan gure arbolie bere buruba gure burnizko mendijek egin zituzan Jaungoikoaren zerura jasoten dabena erakusten deusku zerube esanda legez, gora, beti gora!

Euzkalerria amen asi, Zeruan akabauko.

Miguel Unamuno-koak
1914-XII-23



Euskaldun ikurra zetarako

Atzo arratsaldean neure lagun batzukaz berriketan nengoala, Bizkai-erri txiki batean bizi dan batek esan eutson aldrako lagun erdaldun bati:

—Oneri ez dautsoe emon ba orrelakorik, nire paparreko orratzaga-na bere atzamarra ipiñita.

—Ez ba, erantzun neutson, orrek ez dau bear, euskerarik ez daki ta.

Orduan euskaldun arek igarri eban neuk eban neuk berari itanduko neutsolea, bear ba da, ia zegaitik berak ez eukon eta arin-arin aurea artu eustan, esanik:

—Guk, an errian ez dogu bear, danok gara euskaldunak eta, danak dakie gu euskaldunak ba garala ta.

—Baña, esan neutson, orratz au ez da bakarrik euskaldunak garala adierazteko, euskera-zaleak garala ta euskeraz itz egin gura dogula adierazteko baño.

Isildu zan. Eta egozanakaz beste izketa-bide baten sartuta nenbille-lako ez neban izan astirik ondiño gehiago esateko arazo onetzaz.

Eta beraz, ementxe esango dot, neure toki onetan. Auxe da nire lubaki edo trintxerea.

* * *

Erri euskaldunetan bizi diran asko aterako dabe nire adiskide orrek atzo atara eban akiakula edo atxakia, paparrean euskaldun orratzik ez ipintzeko.

Guztiak euskaldunak diran errietan, erdiak baño geigo dira eurak gura ez ebela euskeraz itz egiten ikasi ebenak, euskereari ta aberri Euzka-diri bape maitetasunik ez dautsienak. Eurak gura ez dabela dira euskaldunak, eta euren artean asko dira euskerarik ez jakitearren diru zati bat emongo leukienak. *Txiñuelo*-ren erriko astokrazia lakoa erri guztietan bizi da.

Oneetakoentzat ez da asmau *euskaldun orratza*. Eurok ez dabe gura orratz au, baiña geuk be ez dogu gura eurak erabilli dagien.

Erri euskaldunetan ba dira, gitxi, euskera jakiñaz poztuten diranak, euren asaban elea, abenda ele garbia, atsegin andiz erabilli oi dabenak; euren odol zarra, euren aberri Euzkadi maite-maite dabenak. Oneek, bekokia zabal azalduten dabe alde guztietan euskotar euskaldunak dirala;

euren euskerea ez leukie saldu edo emongo ezegaitik be, irudituko litzakioe ba euskereaz batera salduko leukiezala euren aita ta ama, euren sendi ta asabak, euren jatorria, euren odola.

Oneexentzat asmau da paparreko orratza, euskaldun jatorrentzat.

Orratz onegaz adierazten dau euskera dakiala ta euskera jakiñaz pozik dagoala, ta orratza beti paparrean erabillirik ezaugarria emoten dau bera lako beste enparauentzat, alkarren barri jakin dagien ikusteaz bakarrik. Orratz au da idekoak alkarregana joteko.

Orratz au da guretzat andiki batek bere etxearen arpegirik agirienean ipinten dauan ikurdi edo *arma-aria* lakoa, adierazteko noren jatorrikoa dan, errikoei ta guztiei.

Orratzxu onek daukon lauburu edo gurutz au gure asabak erabilten eben orain bi milla urte inguru euren ikurriñetan. Aen oiñordekoak garanok odolez ta elez ta gogoz, erakutsi daigun nortzuk garan, noren semeak garan...

* * *

Ona eldu orduko esan dau nire adiskide *Zarrontzale*-k: «Sekuleko sasien sartuok au, kostako iakok urtetan kirikiñoa izen arren; iretzat eztozak olako *pillosopiak*».

Burukomin egiteko beste sasi erne jat or; baiña jokatuoko neuke nik esan gura dodanaz baten dala edo konforme dala Zarrontzale, ba karlis-tea izan arren euskera-zalea dala ezin ukatu lei. Bakotxari berea.

Ez gara deadarrez ibilliko: «Gizonak, orratza ipiñizue». Zetarako? Bere barruan odolaren deadarra entzuten dauanak ipiñiko dau iñok esan barik be; abenda maitasunez barrua utsik daukonari alperrik izango litzake ezer esaten ibiltea, atxakia atarako leuke ba ukondoetatik be.

Abenda bat da gizonen artean, euskotarrena; abenda au sorkundetik ona euskalduna izan da; gu euskotarrak eta euskaldunak gara. Auxe darakusgu geure orratzokaz.

1915-I-2



Ozpiñik ez, eztia

Ainbat bidar auxe ikusi dogu; euskaldunak geure elez izketan deraoela eurretario batek ba diño:

—Gure erriko ayuntamientoan alkatea ta kontzejalak bat ez dira, ta guerra gogorra darabile.

Edo onetariko esate bat.

Eta itza ebagiten dautso bereala besteren batek, itxaldo esanaz:

—Ez da esaten ayuntamientoa! Ez da esaten alkatea! Ez da esaten kontzejala! Ez da esaten gerra!! Zelako euskera da ori?... Gizona!... Gizona!!... Gizona!!!...

Itzela barik barrezalea bada, euskaldun zeatzak, onetara edo, itza ebagiten dautso besteari:

—Beraz, kontzejal... ja, ja, ja, ja!... Beraz, alkate... je, je, je, je!... Beraz, ayuntamiento... ju, ju, ju, ju!... Ori dok, ori! ji, ji, ji, ji!... hablatzeko modo... jo, jo, jo, jo!

Jakiña, lotsatuta geratzen da itz egin dauan euskalduna, baita gogaituta be, esaten asi dana ebagi dautsoelako, gauza gogaikarriagorik ez dago ba orretara norberen itza apurtzea baño ta; bildurra sartzen jako barrero euskeraz itz egiteko berak baño obeto dakienakaz, ta eurok maite izan bearren iguiña artzen asten jake, ta eurokandik igesi egiten.

Bai, esan dodan lez, sarri ikusi dot destaiñaka erabilten erderatiko itz bat edo beste esaten dauzan euskalduna, ta ez dot uste bide ona danik euskera garbia irakatsi ta zabaltzeko.

Gogoan euki bear da, gaurko euskaldunak erderatiko itzak darabiltzala besteak ez dakizalako ta euskerazkoak diralakoan; ez da egoki ba berari asarre edo destaiña egitea orregaitik. Asarre edo destaiña orrek, ganera, asko minduten dau, eta euskeraz itz egiteko poza galdu eragiten dautso.

Bestetara jokatu bear dogu, orretara barik. Euskeraz itz egiten zalea danari poz geiago emon, eta zalea ez danari poz ori sortu eragin.

Gugaz itz egiten diñarduanak esan badagi *alkate*, *erreminta*, *gera* edo antzeko itz asko, ez daiogun ebagi adierazo gura dauana, utzi, oartu ez bagenduz lez bere itz ok, eta gero geuk erantzun daiogunean, polito-polito ta bestela-baitakoan, berari irakatsi gura ez bageunskio lez, itz erdal usaindun orreen ordeazko euskerazkoak erabili. Onetara, mindu barik

berak artuko dauz, lenengoan ez bada bigarreanean edo irugarreanean edo, ta pozaro artuko dauz, ikasteak notifiari atsegin andia beti damotso ta.

Bide auxe erabili dot neugaz egunero itz egiten daben euskaldunakaz, ta ainbat eta ainbat itz barri garbiak esaten dabez gaur, txikitatik geiago jakin balebez letxe.

Onean-onean askozaz geiago egiten da asarreka ta destaiñaka baiño. Eztia, eztia, ozpiñik ez.

1915-I-24



Laperriko euskeraz

Bazenki, Kirikiño, zelako kili-kili emon eustan lengo egunean neure buru makal onetatik urrengo gaisokeriak argiro-argiro izparringian ikusi nebazanean. Zuk, ipiñi, ta zeuk ederto artezturik gero. Gauza bat aiztu egikedan esatea: iñori ez esateko ikastolan euskeraz egiten nebanik; eta zuk, fara-fara danen aurrean sakela ustu. Baldin ez dautsue iñoz ipiñi ikastolan elastunik?. Zelakoetara ibilli zara ba? Etzara gure aldikoa ala? Ez al dakizu ezin aditu edo ulerturik dabillenari adi erazo edo ulertu eragitea deungakeri edo pekatu andia dala?

Katarra
1915-I-27

Urte bi!

Gaur, Otsaillaren lenengo egun onetan, betetzen dira urte oso bi, euskotarren izparringi egunoroko bakar au argitara urten zanetik.

Ez da bakarrik euskotarrena berau, euskotar euskaldunena be ba da. Euskereak ez eukan lenago izparringi egunorokorik, etxakon lekurik emoten iñun; bai ba, beste guztiak, bat kendu barik gero! ez dira euskotarrak eta. Orregaitik, geure izparringi au da bakarrik euskerazko idatzia dakarrena; besteak, Euzkadi agertu arte lez, erdaldun eta erderatzale utsak izanik darraie.

Euskaldunak, auxe bakar-bakarrik dozue zeuen izparringia; besterik ez dozue.

Urte bi oneetan, bide andia eragin jako geure ele maite oni. Gomutau baiño ez da zenbat eta zenbatek bidaltzen dauskuezan euskal idazkiak Euskalerriko alde guztietatik, baita erdal errietatik be. Igazko udan Batxik dei egin ebanean, emengo euskal idazleak bildu geintezan alkarregaz bazkari bat egiñaz alkar ezagutzeko, eun baiño geiago zenbatu ebazan; eta ordutik ona asko geitu da idazle kopuru ori, oker andi-andi barik esan daikegula euskal idazle ok berreun inguru gaur ba dirala.

Idazle geien-geien oneek, izparringi auxe argitaldu arte ez eben itzik idatzi euskeraz urrean, bururatu be etxaken olakorik.

Jakiña da idazle askok irakurle asko dakarrela, eta olantxe, gure euskal irakurleak uste dan baiño geiago dira. Ba dakigu eurrez irakurten dirala *Egunekua* ta *Euzko-Abendaren Elez* deritxoen gure izparringiko zati biak. Irakurle oneetzaz diñogu idazleetzaz esan doguna: izparringi oni eskerrak egin dira euskerearen irakurle. Eurotarik askoren barri ba dakigu, ta diñoen lenengo aldietan egunean puska bat eta nekez irakurten ebela, ta gaur, barriz, erderea baizen erraz; len ez ekiezan itz eta esakera asko ikasi dabezala, geroago ta pozago irakurten dabela euskerea, ta obeto ezaguturik maiteago dabela len baiño.

Geitu dira ba, zorionez, euskal irakurle ta idazleak; lengo aldean euskaltzale geiago dago; euskerea, euskotarren ele jausi au, ba doa gorantz.

Gaur, atzerantz begituta igarten dogu zenbat bide egin dogun, eta poztu gaitezan, oso poztu, zeri ba dago ta; baiña bereala bizkarra ipiñi daiogun igaro dan aldiari ta jarri gaitezan aurrerantz begira, ta ekin lanean gogor iñoz gelditu barik, gorantz ta gorantz beti.



Gaur arte lez goiazan, eta aldi bardiñean geroago ta andiago egingo da euskaldun euskaltzale taldea, edur moltzoa ibilliaren ibilliaz geroago ta andiago egiten dan lez; emendik urte batzuetara, orain diran euskaltzaleak eun bidar geiago izan daitezanean, lengo baten giñoan lez, ipuintxo bat esango dautsogu emen ugazaba gogorra izan dogun eta ondiño be ba dogun erdera ziztirrintxo orri.

Izparringi auxe da gure sutabo edo kañoi lodia; berau zaindu ta euki daigun beti gertu ta ondo, beronegaz bunbada garratzak jaurtiteko gure arerioa dan erdereari.

Egunero irakurri euskerazkoa. Auxe egiñaz bakarrik, uste dan baiño geiago egiten da euskerearen alde. Orra bunbada bat.

Euskeraz irakurri dan ori aitatu ta aotan erabilli lagun artean, erarik bada. Orra beste bunbada bat.

Erriko izparrak labur ta polito idatzi ta bidaldu beti be. Orra beste bat.

Norberak irakurri ta gero, ingiaren bearrik izan ezik, bestelabaitakotan norbaiti emon irakurteko, bakoitzean banari, ia ikusiaz zaletzen diran, eta zaletuko balira, orduan, iñoz bai, baiña gitxiagotan emon, egarri geiago izan daien. Orra bunbada garratza.

Onantxe, batzuetan azeri-azerika ta beste batzuetan leoi-leoika, ekin bear dogu geure Aberri alde.

Irugarren urtean sartzen gara, Jaunak lagun egingo al dausku orain arte lez.

* * *

Euzkadi urten zanean, ez, urten baiño lenago, *Carabias* deritxon anditiko profeta batek esan eban ille bigarrengo ilgo zala, zer idatzi izango ez gendualako. Esakerea da iñor ez dala izaten profeta bere errian; baiña *Carabias* iñorenean bez.

Erreketeru ta beste gure arerioak be iragarri eben orixe, illabete bi, goitik jota, iraungo ebala *Euzkadi*-k. Gero, irugarren illabeteen sartuta, aurrera giñoiazanean, esaten eben urtearen azkenean ilgo zala, ta... bai zera!

Bigarren urte onetan be beti ibilli dira txakur-amesak egiten, egun batetik bestera *Euzkadi* ilgo zala ta. Txakur gosetuak ogiaz ames!

Emen gaukoiez ba irugarren urtean sartuta, txairo gero! Gu, aurrera goaz.

Obeto egingo leukie erreketeru ta enparauok geugana jo, barriketak itxi-ta, anaia guztiok batera ibilli gaitazan Euskalerriko gauza guztien alde.

Erdue, gizonak!

1915-II-1



Artzain otsozaleak

Atzo, Santurtzerako tranbian sartu nintzan emengo Deun Nikola ondoan, eta neure aurrean jesarri zan gerotxuago abade jantzidun bat, kapela egal-zabala buruan, eta paparreraiño bizar baltz ederrakaz. Neure artean esan neban: «Sekulako gizona dok berau. Belgundaria jirudik».

Sakeletik atara ta zabaldu neban Euzkadi izparringi au, ta oartu neban ordutik geiago bizardun abadea neuri begira-begira egoala itz egin gura baleust lez; neuk be alako baten jaso begiak izparringitik eta beragana zuzendu nebazan, eta orduantxe esan eustan berak irribarre egiñaz:

—Euskalduna al zera?

—Bai, jauna.

—Eta abertzalea noski?

—Bai, jauna.

Alkarri bostekoak estututa, asi giñean barriketan geure elez, ta aldi gozatsu bat igaro genduan biok Portugaleteraiño. Belgundaria zan bai, *misionaria*, Afrikako baltzerri batetik oraintsu etorrita. Nik emen ipiñiko baneutsue gure autu guztia izparringirik erdia euskeraz beteko neuke. Zertzuk eta zenbat gauza erabili genduzan!

Orraitiño, guztia ez bada, gure autuaren zati bat argitaldu gura dot ementxe, batzuen jakinbide izan daiten be. Ara.

—Eta, jauna, zelan atonduten izan zara Afrikako alde artan bertakoak aitzeko?

—Beren izketa ikasi nuen lenbizi.

—Orduan euren elez alkar ulertzen izan dozue. Eta eleizan be bai?

—Baita. Eleizan guzi-guzia beren elez ematen zaie, *liturjia*-k lateraz esateko agintzen duena izan ezik.

—Ori ederto deritxot. Ba dakust Afrikako baltz gixajo orreen ondoan gu euskaldunak ez garala ezer. Arei euren elez, emen guri erbesteko elez.

—Emen eta alde guzitan beartuta gaude jaupariak bertako izketa erabiltzeko geron zeregin goitar ontan, donokirako gogoak irabazten. Ez al dute orla egiten emengo jaupariak?

—Geienak bai; abadeen artean daukoz gure euskereak aldezkari zintzo gorengoak; abade ona dogu emen geiengan. Orraitiño ba dira banaka batzuk beti erdere erabilten dabenak euskaldun uts-utsak diran errietan,

nik ez dakit zetarako; esan leike Goizparkiaren adiskide baiño Espaiñako erderearen adiskideagoak dirala.

—Gaizki egiten dute. Zergaitik erdera ura zabaltzeko naia? Zer irabaziko dute Uzkuartzak eta oitura onak erdera orrekin? Ez al degu ikusi orain baiño len, eta ez al gaude ikusten gaur bertan ere, erderakin batera datorkiguzala Uzkuartzaren oztasuna eta galdutzea, eta oitura gaiztoak, birao-esatea aurretik dala? Gaizki, txit gaizki, egiten dute, euskera il nai duten apaizak; iruditzen zait dirala otsoekana bere bildotsak daramazkian artzaia bezela. Bildots oien Jabeari, zer esango diote?

—Euren narruan ez neuke neuk egon gura.

1915-II-13



Sermoiak euskeraz Bilbaon

Atzo goizeko bederatziatan, iragarrita euki dogun lez, izan zan emengo Deun Nikola txadonan lenengozko txonitz edo sermoia euskeraz.

Azkue abade jaun jakintsuak irakurri eban lenengo atzoko Goizpar-kia (Ebanjelioa); beronek adierazten dau, Josu Gure Jauna mendian egonean berrogei eguneko barau egiten, Txerren (deabrua) joan jakola ziltza egiten (tentatzen), eta zein egoki Josu maiteak erantzunda bidaldu eban ondolik.

Jakozun onetatik, itz errazagaz, argi-argiro ta euskera garbi ederrean atara ta azaldu euskuzan itzegilleak irakaskizun onuragarriak.

Ondo pozik egon giñean Jaun-itza entzuten geure abendearen elezar, euskera maite-maite onetan; gomutara etorri jakuzan geure guraso ta gurasoen guraso ta enparau asabak, eurak itxi euskuen euskera garbi ta zindo onetan Uzkurtz edo Erlejiño Deuna entzutean eurak lez, ta geure biotzak pozarren astindu ta samurtu ziran, eskerrak ugari gengikiozala Azkue abadeari, ta Jaunari eskaturik sariztu dagiola guri ainbeste on dakarskun asmo ta egikizun eder ori.

Entzuleak ugari izan giñean, emakumeak geiago; baiña gizona ezkotan be mordo galanta batu giñean orraitino, txadonetik urtekaldian ederto igarten zan lez.

Urtenda gero, Areatzan ibilli giñean batera ta bestera geienok, eta an euskerea entzuten zan alde guztietatik. A zan gauza ederra!

Ordu artan andik igaro ziran belarri-motzak, aoa zabalik kokolotuta geratzen ziran ainbeste jente euskeraz itz egiten ikusita, siñestu eziñik Bilbaon egozala.

Mutillak! Orrei *anka-jokoa* emendik eragiteko, ez dago gauza oberik euskeraz itz egitea baiño, euskerea ezin dabe iruntsi ez entzun, eta igesi egiten dautsoe, katuak urari lez.

Gure 42ko motroilloa *euskerea* da. Auxe sendotu ta zabaldu badagigu, apurtu ta baztertuko doguz *erdereaz* batera sartu jakuzan birao, esate zantar, dantza zikin eta beste ekandu gaizto asko. Aurrera ba beronegaz! Geure eskuan daukogu, ta ia ba.

Datorren igandean atzo egon giñean guztiak joan bear dogu barriro; ta atzo egon ez ziranak be, buaz; gonburuz bete daigun Deun Nikola txadona.

1915-11-22

Gizonak! Lau katu baiño ez?

Atzo, Donostin, «Artzai Ona» txadonan, goizeko 81/2etan, txonitz edo *sermoia* egin zan *frantzeraz*, uri artan bizi diran frantzetarrentzat. Arañegun argitaldu zan *Meza* ta *sermoi* orreen iragarkia gure izparringi onetan. Donostiko frantzetarrek, ederto erantzunik dei oneri baita euren abertzaletasunari be, oste edo pilla andia batu ziran bertan. Bai ba! txonitzta frantzeraz ta frantzetarrentzat... siñesteduna dan frantzetarra, itsutsuan bertara, Aberriak deitu baleutso lez.

Emen, Bilbaon, Garizuma onetan asita txonitz edo sermoia dauko euskeraz Deun Nikola txadonan, goizeko 9etan, eta emengo eleizarik erdiak betetako lain euskaldun baiño geiago garala, atzo ez gintzazan joan txonitz orretara lau katu baiño. Gauzak artez ta garbi esan bear dira: lau katu.

Goiz-erdiko *sermoi* ori asi zanean poz-pozik gengoan, gogoraturik nozbait emon jakela euskaldunei uri onetan zor jakena, ta euskereak, iñoiz gogorra ta zailla izan dan abenda ele eder onek aurrerakadatxo bat egin ebalakoan.

Neuk dakit sermoi euskerazko ori ez dabela begi onakaz ikusten emengo andiki-emakumeren batzuk, eta esaten dabiltzala, ordu orretan barik, goizeko bostetan egin bear litzakela, egitekotan!, baserritik datozen esne saltzailleentzat, eta nik eskier (seguru) daukot kenduko dabela sermoi ori, ta kentzeko artuko daben zio edo *motivoa* izango da: *gitxi joaten garala ta ez dagala zetan egin iñok entzuten ez dauan sermoirik*.

Eta ezerezean geldituko da guk siñestu genduan euskerearen aurrerakunde Bilbaon. Noren erruz? Euskaldunen euren erruz!

Eta betiko (onezkero) euskerea eleizatik atara dagiñean, *sermoi* orretara eltzeko nagia ta itzikeria euki dabenak, eurak izango dira aurrenengo zer-esanetan asiko diranak; baiña orduan urtengo gaiakez bidera, neuk beintzat, esateko:

Euskalduna, iñoren lepoan ez egizu ezarri gure euskera ta gure gauza guztien galkunde; zeu zara galdu dozuna ta galtzen dozuzana danak ezetarako adorerik ez dozulako; bape nekerik eskatzen ez daben gauzak, euskeraz itz egitea, euskeraz irakurtea, euskeraz sermoia entzutea, ta onakok egiteko ez daukozu irabiorik, eta atzerritarra zeure etxera sartuta zeure jabe egin bada zu baiño bizkorrago, adoretzuago, azartuago ta langilleago dalako izan da; ez, ba, arrantzarik egin.

Oraingoan azazkau naz. Bear neban.

1915-III-22



Euskal izenak

Ean, Ama Miren txadonan, geure adiskide Landa-tar Joseba Iñaki-ren semetxu bat ugutzau dabe Berbiz (Resurrección) izentzat jarri dautsoela.

Aita-amatxi izan ziran Egiarte-tar Martin eta Landa-tar Iñake.

Zorionak uguzparri ta bere gurasoei. Aolan erakusten da euskaltzaletasuna ta abertzaletasuna, euskerea, geure abenda ele ederra (ta motza balitz be bardin) erabillirik ereti guztietan eta aurrenengo ta lenen geure etxekoen izenetan.

Gora zeuek, umeei euskal izena ipinten dautsezuen euskotar zintzo orreek!

* * *

Baiña jarraitu, ez atzerarik egin bide orretan.

Nik ba dakidaz iru edo lau sendi, ume bati edo biri euskal izenak ezarri dautsezanak, eta gero urrengokoari, espaiñeraz!

Ori egin daben gizonak (!) lotsagarriak dira, ez dabe gogoan indarrik.

Geienetan jazoten da ori, senitartean beti dalako atso edo neskaren bat euskal izenen arerioa dana, ta onexek ekiñaren ekiñaz, txaka ta txaka, bere guraria goitutzen dau, esan eta esanik euskal izenak iñok ez dauzala erabilten, geroago umeari kaltea etorri leikiola izen orregaitik, abadeak eurak be geienak ez dabela gura, ta olan.

Eta praka bagako gizon (!) koldarra ipinten dabe atsook gaztanberea baiño bigunago, ta azkenean burua makurtu ta sartzen dau buztarriean, lotzen dabe antxe ede gogorraz, ta kitu, gorantziak emioizak alako gizonari! euskera aldetik jausten dok barriro erdera aldera.

Emengo san Antongo zubipean *pasiegi* gona zar batzuk erosita, nik dakidazan olako gizoni bana bidaltzeko asmoetan be iñoz ibilli izan naz; baiña ondo oldoztuta gero esan dot: Orreek bape ez dozak lotsatuko, ta gona ori gondu (aprobetxau) egingo joek, arranoek! Enaioak bidaltzen.

Gizonak iñozbait izan gaitez! Euskaldunari euskeraz izena ezartea zuzentzat badogu, ezarri beti; ta atsorik edo ostantzekorik badabil txaka ta txaka orren kaltez, norberak be ekin eta ekin; eun bidar badator, beste ainbestean gogor egin; ez atzeratu, ez ikaratu, ez lotsatu, ekin!!

Nire ustez, orreetarikoentzat lotsaria izango litzake auxe egitea: umeren bati erdal izena ipinten dautsoenean izparra agertu onetaraxe edo:

ERDAL IZENAK

AKER-LEKU erri politean ugutzau dabe gaur ume bat, geure adiskide len izandako Prakabigun-tar *Ozkildo*-ren seme jaioparria, *Robustiano Mandonio* erdal izen ederrak ezarri dautsoezala.

Ozkildo onek daukoz seme-alaba bi euskal izendunak, eta orain damututa edo, ez dau euskerazkorik gura.

Berau lakoak balitzaz euskotar guztiak laster ez litzake geldituko Eusko erriaren aztarrenik be.

Orregaitik ez dautsoegu zorionik opa berari, zoritxarrik opa ez dautsoegu arren.

Oneetarikoakaz, gure Euskal erri maite begiko au biurtuko litzake Ozkil-erri iguingarri bat.

1915-IV-7



Azterketak Barakaldoko jel-gaztetzeko euskal ikastolan

Arañegun goizean egin ziran azterketa edo esamiñak aurtengo ikastaroari amaia emoteko, ementxe leku onetan iragarri zan lez.

Irakaslaria izan da Solaun-tar Jokin, eta beroni lagundu dautso asko zeregin onetan Intxaurrega-tar Paul gure adiskideak.

Aurrean daukat Solaun irakaslariak azterketa ostean esandako itzei-kizun labor mamintsua.

Bertan diño irakaste-aldi gitxi euki dabela, batu ezkerro ba irakastolan emon dan asti guzti-guztia, ozta-ozta elduko dala 50 (berrogeta amar) ordura.

Irakastolan azaldu dana berridatzita daukela osorik ikaslariak, oporaldian irakurri ta erabili daikiena, gura izan ezkerro.

Ikasten asi ziranetarik erdiak inguru jarrai dirala azkenera arte, amabost, azkerketan agertu diranak.

Enparauak alde egin dabela esanik euskerea gatxa dala ta eurak ez daukela bururik gauza gatxak ikasten ibilteko; ta Solaunek diño ez dala orregaitik euskereari istea, abertzaletasun gitxi daukelako ta gaur egunean euskerea jakiteak onurarik ez dakarrelako baiño.

Zoritxarrez au egia dala, ta geure erruz dala, alegiñik egiten ez dogulako euskaltzaleok geure elea bear-bearrezkoa egiten emen geure Aberrian.

Datorren urrengo Urrillean asiko dala barrero euskal irakaskintza Barakaldoko Jel-Gaztedi orretan.

Geure zorion agurra Solaun-tar Jokin eta bere laguntzaille Intxaurrega-tar Paul irakaslari, azkenerrate eldu diran amabost ikaslari zintzo orrei, eta baita Jel-Gaztedi orretako Bazkintza Artezkari zoliari be.

Jarraitu, adorerik bape galdu barik, ekiñean dago gurenda, jo ta jo gauzarik gogorrenak apurtzen dira, ta gogorra da, ziñez, euskereaganako euskotarrak dauken oztasuna, baiña auxe be ausiko dogu ibilli ta ibilli.

* * *

Ikastaroa askok asi ta gitxi amaitu, ori jazoten izan jaku, ta jaku, emen Bilbaon urtean-urtean; betiko gatxa da.

Eta ez da abertzaleak ez diralako edo buru txarra daukelako edo euskereak onurarik ez daukolako, ez, zelanbaiteko nagitasuna da, guramen makala eukitea.

Beste ainbeste jazoten da frantzerea ta ingelera ikasten asten diranakaz be; lenengo aldietan aldra andia izaten da, ta askalditik iru edo lau illabetera begitu ta zenbatu, ta aldra ori ondo urri izaten da; ori, onurea daukola frantzeraz ta ingeleraz itz egiten jakiteak.

* * *

Beiñola, orain amarren bat urte dala, Bilbaoko Instituto *deritxon* irakastetzeko euskal ikastolan ebillen Fermaud abizena dauan atzerritar bat euskerea ikasten, eta bide batez esan daidan ementxe gizon zintzo buru argidun onek polito ikasi ebala gure abenda ele au.

Bein ba, udabarri aldian, ikastolatik urtenda barriketan gengozala esan genduan tamala dala euskotarrak ain zaletasun gitxi eukitea euskerea ikasteko, gogoa illundu ta otzitzen dala ikusirik, urte artan lez, irurogei inguru asi ta azkenerrate ogetabostetik ogetamarrera bakarrik gelditzea; ta onan giñarduan tamal-itza dariola.

Fermaud on orrek, orduan, irribarre egiñaz esan euskun:

—Ara gizonak, ori jazoten da alde guztietan, naiz ta dirua irabazteko izan, ikastolan irakasten dana. Zuek emen kukurruku egin zeinkie; irurogeitik ogetabost gelditu, gurenda da.

—Zer gurenda ta zer kukurruku, gizona! erantzun geuntson, emen goz ez da iñun jazoten.

—Edestu (kontau) bear dautsuet ba, esan euskun, neuk ikusita daukodan onako jazokuna Frantzian, neure aitaren errian. Badakizue Frantziak lurki andiak daukozala Afrikan, eta beraz frantzitarrentzat guztiz onuratsua dala arabeen ele edo berbetea jakitea saleroste edo komertzioan egiteko Argel, Tunez, ta beste toki askotan. Ba, Montpellier uriak irasi (fundau) eban irakastola bat uri artako Irakastetxe Nagusi ospatsuan, irakaslari jakintsu ta beargiña jarririk. Urte artan neu be an nintzan, eta otu jatan arabe ikastea, ta emon neban neure izen-abizena irakastolan. Asi giñean, Iraillean, or berreun inguru ikaslari. Ordutik bost illabetera, Otsailierako, zenbat gelditu giñala uste dozue? Ia, jo egizue.

—Eun? Larogei?



—Bai zera! Askozaz gitxiago!

—Berrogetamar?

—Arritu zaiteze! Irakaslaría ta neu bakarrik! Orregaitik diñotsuet, zeuek uste ez arren, goitik zabiltzela arazo onetan; nagikería ta guramen-eza ugari dirala alde guztietan; emen be ba dirala, baña askozaz gitxiago beste lekuetan baiño.

Solaun-tar maite ori, ba, etzaitez ikaratu, asi jatzuzanetarik erdiak igesi egin badautsue. Ikusi dozunez gurenda da ori.

Datorren urtean jo barrero, ia asten diran erdiak lotu al badagizuz. Eta orretara, ekiñaren ekiñaz, zuek or, guk emen, eta beste abertzaleak bakotzak bere tokian, urteakaz beste antz bat ipiñiko dautsogu gure Aberri erdaizaletu oni.

1915-V-11

Euskaldun orratza erabiliko dauanaren bearkunak

«*Lenegoa*.— Euskaldun guztiai itz egiten eta idazten alik zintzoen aleginduko da, batez be euskaldun ikurra erabiliko dabena.

Bigarrena.— Euskaldun bat ezer itanduten beragana joan ezkeru, euskeraz erantzungo dautso, ta bere arazoa alik ondoen atonduko dautso.

Irugarrena.— Euskerearen alde egiten zintzo-zintzoro aleginduko da, leku ta alde guztietan be».

* * *

Or gorago doana bidaldu dau ona norbaitek, ez dakit nor dan.

Euskaltzale-Bazkunako mutillei ez dautset itandu aspaldian zelan dabillen euskal orratzen zabalkundea; ez dakit ba geituz goazan orrazdunak ala gelditu dan orratz au erabilteko lenengoetan agertu zan garra edo jorana.

Ori ez dakit, baiña bide bitatik etorri jat albistea, len orratza ipiñi eben batzuk orain ez darabilela. Egia dala bete-betean siñesten dot, ondo dakit ba zelako gizonak (tira, zelan edo alan deitu bear jake) dagozan alde guztietan eta emen geure artean iñun beste. Notin batzuk, edo askotzuk, izaten dira talde aundiko ardiak; gitxi dagozan aldran ibilteak lotsatu edo bildurtu egiten ditu; asko-lekura beti joten dabe.

Orreek uste izan eben, ausa, orratz onegaz ibilliko giñeala euskalerriko biztanleak eunetik larogei edo, ta bereala eurekandu orratza ta arroarren ebiltzan: Ona ni euskaldun garratza.

Baiña geroago, ikusi ebenean, gitxi giñeala, ta sarritan egun osoa igeroten zala orrazdunik aurkitu barik, eta orratz onen arerioak destaiñaixuren bat jaurtiten eutsiela irribarreka, agur orreen adorea ta gizontasuna!

«Zeintzuk dozak geiago orrazdunak ala orrazbakoak? Orrazbakoak askozaz be, zetan esanik be etxagok!

Orretara ezkeru, neu be enaioak erabilten, lotsa nok; iñok etxarabilk eta, danak barre ta burla egiten jauskuek eta».

Orra or zegaitik kendu dabena orratza, gizon erbikoi orreek: lotsarren.



Eta ez dabe igarten, doillorrok, askozaz lotsagarriago gelditu dirala ori egiñaz; orain destaiña egingo dautsegu orrazdunak, eta len baiño destaiña geiago egingo dautsie orrazbakoak, eta ondo egiña, orrelakoei etxagoke gitxiago, gitxiren batzuk diralako.

Ut gizon iguingarriok! Ondo egin dozue gure aldratik urteteaz, gitxiago izan arren pozago gagoz. Lagun txarragaz baiño bakarrik obeto da.

1915-V-14

Sermoiak euskeraz

Emengo Deun Nikola eleizan egiten izan diranak atzo amaitu ziran. Amalau igande erreskan izan dogu, goizeko bederatzietan, Goizpararren (Evangeli) azalbena geure elez.

Bilbaon bizi garan euskaldunentzako guztiz egokiak izan dira txonitz edo sermoiok.

Eurok egitea otu jakon Azkue abade jaunari. Berak asmau eban eta berak artu dau bere gain arazo neketsu ori. Berarentzat izan daitezala ba lenengo-lenengo geure eskerrak. Euskerearen alde ta euskaldunen alde berak egin dau alegiña.

Txaunburuak itzi dautso eleizea ta Gotzailleak emon dautso lake-mena orretarako; onei be eskerrak dagioeguzan.

Zelan erantzun dogu Bilbaoko euskaldunak? Guztiz txarto. Onantxe esan daigun argi ta garbi, aiko-maikoetan eta estalkerietan ibilli barik, guztiz txarto.

Emen gagozan beste euskaldunegaz (millaka asko) Deun Nikola eleizeak gonburuz beterik egon bear eban igandean-igandean goizeko bederatzietan, ordu baztarra ez da ta.

Baiña gitxi elduten izan dira, ta beti batzuk. Igande bi edo irutan, an asieran, polito eltzen zan oste edo jentea; gero ez, laugarren edo bosgarren iganderako asko gitxitu zan oste ori, ta arrezkero beti arpegi berberak ikusten izan dira.

Eleizan ikusten izan doguzanak abertzaleak dira; bestetarikorik ez da agertu an, beintzat gizon agirikorik. Lenengo igande bietan ikusi genduzan jaimetar andiki bi, egin-egiñean be Azkueren adiskideak diranak; geroago ez dautsegu narrurik ikusi an.

Guk, lenengo aste batzuetan ekiten geuntson emen euskal sermoi orreetzaz, ta ikusirik geutarrak baiño ez zirala eltzen, eta aitatu doguzan andiki biak be itzi eutsoela joateari, bururatu jakun auxe: «Bearbada, guk emen ots egiten dogulako uste izango dabe sermoi orek *bizkaitaristen* gauzak dirala; isilik egon gaitezana».

Eta isilik egon gara orrexegaitik ainbat aldiz; baiña bardin izan da, ez da iñor agertu.

Azkuek esan euskun atzo ustea daukola datorren neguan sermoiok barri-ro asteko. Poztuten gara, ta aurten joan ganarok elduko gara, ta alegiña egingo dogu beste geiago eroateko geugaz batera.

Gure Jaunaren Irakaste ezin ederragoa euskeraz entzutea maite-maitero dator gure biotzetara.

1915-V-24



Zer dala ta?

Itandu auxe buru dauala ekarri dausku idazki bat Lexonako Artatzak, eta bertan diño ango txauburu edo parrokoak ez dauzala ipiñi gura izan euskal izen bi, esanik Eleizako legeak ez dauala olakorik aginduten.

Eleizako legeak ez al dira bardiñak alde guztietan? Zelan da ba, euskal izenak ipintea edozein erritan, naiz Euzkadin, naiz Espaiñan, naiz Amerikan, naiz Pillipanetan, naiz edonun, eta Lexonan... Lexonan, gizonak! ez ipiñi al izatea? Doipuruak, Aita Santuak (abade orrek ulertu dagian), agindu eban euskal izenak ipiñi leikezala, ta agindua argitaldu zan Goterki-izparringian (*Boletín Eclesiástico*, abade orrek ulertu dagian), eta danok irakurri genduan, eta ez eban esaten Lexonan ezin leikezanik, Lexona ez eban aitaututen; beraz, bete-betean uste genduan agindu orrek arrapetan ebalu Lexona be. Zelan da ba orain Lexonako abadeak urtetea, an ez dauala Eleizeak laketuten (*permitteduten*, abade orrek ulertu dagian) euskal izenik? Doipuruak (Aita Santuak) isilik esan ete dautso ba berari? Ez ete dautso ezer esan, ta beraz, abade orrek *guzurra* esan dautse bere ardurapean dagozan eleiztarrai? Abadea *guzurra* esaten? Zelako irakatsia da gero? Jaunaren bildotsen artzaiña da, ala zer da?

Abade ori jaimetarra dala ta euskotar abertzaleen gauzarik ezin dauala begien aurrean ikusi... abadea ez balitz be ez legoke ondo, baiña tira... Abadea izan ezkerro, guztientzako da, ta abadetzea ezin dau edo ez dau erabili bear bere opillari sua egiteko; abadetzea ez da orretarako, emen beko arazoetan, Jaunak aske itzi euskuzan arazoetan, alde batari edo besteari indarra emoteko, edo alde bata edo bestea joteko; abadetzeak ori baiño gorago

egon bear dau; bere toki goikotik jasten bada, ez iñor ikaratu gero zor jakon lotsea galtzen bajako; errudun izango dira abadetzea bere lekutik atarata, bear ez dan lekuetara eratsi dabenak.

Ez dakit zer egin daben Lexonako umedunok; bearbada, abadeaz eztabaidan ez ibiltearren, biotz barruan euren kezkea gorderik, erdal izena ipinten itzi izango dautsoe; ori sarri jazoten da erri txikietan, gure base-ritarrak otzanegiak (mantso-egiak) diralako.

Ibilli ta ibilli, Lexonako abadea lakoakaz otzantasun ori galduko dabe, ta orduan ikusiko dira ikustekoak.

1915-VI-12

Zuzentze bat... izan gura dauana

Azkengo larunbatean esan genduan leku onetantxe Lexonako txauburuak «ez dauzala ipiñi gura izan euskal izen bi, esanik Eleizako legeak ez dauala olakorik aginduten».

Egun bertanixe, eguerdi aurretik agertu ei zan ona Lexonako txauburu ori, ta gure Artekariari esan eutson zuzendu egin bear zala izparra, egia etzalako ta au ta ori ta bestea. Gure Artekariak erantzun eutson, egia ez bazan, poz-pozik zuzenduko zala egindako okerra; ta itundu ziran, txauburuak idatziko ebalu zuzenkunde ori.

Araiñegun (astartea) arratsaldean eldu zan ona Lexonako txauburuaren idazkia. Gure Artekariak nire mai gaiñean itzi eustan atzo argitaltzeko, baiña atzo ez neban ipiñi, beste gauza batzuk neukazalako; ta gaur argitaltzen dot.

Españeraz dator guk emen euskeraz egin genduan arren; euskeraz ipiñiko geunke, baiña bildur gara abade orrek edo bestek ez daiela esan españeraz-tik euskera-ra biurkeran zelanbait aldatu egin dogula berak diñoskuna. Orra ba españeraz abade orrek diñoana:

«... y dejando a usted en completa libertad para que dé a la rectificación la forma que juzgue más conveniente, sólo quiero consten en ella las afirmaciones siguientes:

Primera: Que el señor cura de Lejona, cumplió en el caso que ha motivado esta su defensa, ha cumplido y (D.m.) espera cumplir lo que está ordenado por la Iglesia y sus legítimos Pastores en lo referente a la imposición de nombres en el Santo Sacramento del Bautismo.

Segunda: Que en el cumplimiento de la misión que su Rdm. Prelado le confiara al nombrarle cura de Lejona, no admite distinciones de razas ni de políticas y que debiendo ser y siendo todo para todos, en frase del Apóstol, para ganarlos a todos para Jesucristo, no tiene el mal gusto de arrimar el ascua a sardina alguna».

Or ikusten danez, ez dau ukatzen guk emen ipiñi genduen: «euskal izenak ez ebazala ipiñi gura izan». Auxe esan genduan, eta... gaur barriro diñogu, egia dala, eta bigarren umearena izan zanean itandu eutsoen abadeari «ia zegaitik ezin leikezan euskal izenak ezarri», ta zegaitirik ez eban agertu.

Berorrek diño bere zeregiñetan ez dauala abenda bat bestea baiño geiago artzen: «no admito distinción de razas». Ori olan bada... zegaitik



erdaldunen umeei erderaz izena ezarri, ta euskaldunenai ez euskeraz? Ori al da bardin artzea bitzuek? Ori ez al da erderazko opillari sua egitea?

Erdaldun batek esaten badau bere umeari María de las Nieves izena ipinteko, bereala, zer-esanik baga, ipiñi ta kitu. Euskaldun batek eskatzen dau bere umeari ipiñi dagiola Miren Edurne... bai zera! ezin leitekela, ezin, ezin... erderaz ipiñi bear jakola... baiña zegaitik? Ez dago zegaitirik, etxako ipiñiko ta kitu! Eta gero: *no tiene el mal gusto de arrimar el ascua a sardina alguna*.

Esatea bat, egitea beste bat; eta guk egitea begiratu, ez esatea.

1915-VI-17

Bilbaoko euskaldunak

Araiñegun goiz-erdian jagi ta urten nintzan etxetik nire adiskide zar eguzki jaunagaz aldi bat igaroteko; joan nintzan ibai ondotik Olabiagaraño, an igon aldaztxo bat, eta sartu Erruki-Etxeko (Samames) zugazti gerizpetsuan... nire adiskideak emoten eustazan laztanakaz izerdia dariola nengoan ta.

Jesarri nintzan aulki luze batean eta ba nengoan arkoloka geure izparringia irakurten, beti be an ebillen uso pillo bati begira. Alako batean ni nengoan aulkiaren urrengokoan jesarri ziran andereño (señorita) gazte bi, amasei ogeira bitartekoak, politak, apaindo jantzita, ta txor-txor-txor ba eragoioen alkarregaz barriketan, abots me bigun zoli-zoliaz.

Neure artean esan neban: Oneek, ingeleraz ala frantzeraz ete dabilz? Espaiñeraz ez ebiltzala igarri-igarri eben, izketa legun biguna zalako eurenna. Alako batean oartu neban euretatik batek iñoala:...*eta, azpiko aldetik etorri zanian...*

Orduantxik, neure barru guztia ikaratuta, neure buruari esan neuson: Zer, euskeraz jiñarduek orrelako señorita eleganteak?

Adi jarri nintzan eta... bai gizonak! euskeraz eben euren jarduna andereño apain areek, eta euskera gozo-gozoa gero; belarrira bigun eta legun etorren areen elea, *tonu* barik eta gorabera barik. Zati baten egon nintzan gozaro entzuten, eta alde egin nebanean gogoratu jatazan ainbat erritako *señorita puixikak*, uste dabenak euskeraz egin ezkeru atzamarretako erestun guztiak jausiko jakezala, ta barriz, espaiñera ele gogor ori erabilli ezkeru, astokrazian sartuta dagozala, txanpon baten jabe izan ez arren be.

Nik ikusi nebazan andereño euskaldunak ez dakit nortzuk diran, baiña zoriz gure izparringi au irakurten dabenak badira, emendik bidaltzen dautset zorion agurrik sutsuena, eskaturik olantxe beti euskeraz itz egin dagiela.

«Emakume bik euskeraz itz egin dabela ta, orrenbeste zarata?» esan lei bat-edo-batek; eta nik darantzutsot: Bai, zarata andia, geure bizi guztian ikusi ta ikusten dogulako *señorita ta señoritoak* eta euron antza artu gura daben guztiak beti espaiñeraz itz egiten dabela, ostikadea emonaz euskerari, geure abenda-ele ederrari, bestea baiño politagoa ta gozoagoa berau izanik; lengo eguneko andereño politak lakoak balitzaz beste enparauak Euzkadin, beti euskeraz diñarduenak, laster azpikoaz gora jarriko litzake



gure Aberri au, ta goian egongo litzake goia dagokiona ta been gaur goian dagoana.

Eta gora andereño euskaltzaleak eta... beste aldera *señorita* erdaltzale puixikak!

* * *

Atzo goizean, barriz, Atxuritik aruntzako pagadoitik nentorrela neure ondotik igaro ziran mutikotxu bi polito jantzita, sei-zortzi urtedunak lakoak, alkarregaz euskeraz ederto itz egiten ebela; otsein bat etorren euren zain, eta esan neutson:

—Nundarrak dira mutikotxu oneek?

—Bilbaotarrak dira.

—Eta euskerea, nun ikasi dabe ba?

—Ementxe, bertan. Etxean euskeraz beti egin jake ta... —Ori da gauza polita! Bilbaon jai, Bilbaon azi, ta Bilbaon euskaldun izatea, señoritoen etxean. Nor da euren aita?

A-tar I.

—Oi, ba dazaut! Abertzale zintzoa da ta, ez naz ikaritzen bere semeai irakastea berari bere gurasoak irakatsi eutsoen ele abendatarra.

Bilbaon, A-tar I-aren ganera, abertzale asko dazaudaz euren umeak euskaldunak diranak. Guztiai, A-tar I-ri ta enparauai, opatzen dautsegu zoriona.

Baiña baita ba dazaudaz euskaldun abertzaleak euren umeak euskerea ez dakienak, eta onei diñotset nora begira egon diran eta dagozan, abertzaletasuna egintzakaz erakusten dala, ez barriketakaz.

1915-VI-20

Euskeraren arerioak

Soraluzetik diñoskue: «Lengo baten abertzaleen semetxo batekin izketan ari nintzala esan zidan *maristen* ikastetxean zebilela, eta jakini euskeraz Josuren dotriña erderaz ikasten ari zala, bere ta gurasoen guraria ala etzan arren. Ia zegaitik itandu nion, eta erantzun zidan *maristak* bear-tzen dutela, ez bera bakarrik, geiago ere bai».

Maristak eurak ikasi bear leukie euskeraz *dotriña* ta beste guztia, euskalerrian bizi diran ezker, baiña ez dabe egiten, eta ez egiñaz gañera, euskerearen lotsarik ez dabela erakusten dabe; baiña orren errudun geu gara euskaldunak, geuk ez dogu aintzat artzen geure elea, ta zelan gura dogu atzerritarrak artu dagien?

Euskerea benetan maite dabenen artera etorriko balira *maristak* eta euron antzekoak diran ta ez diran asko, eurak berez iñok zirrikatu barik asiko litzakez euskeraz irakasten.

Guk ekin bear dogu geure lanean, euskaltzaleak geituten, eta bitartean, gure euskera oni kalte egiten dautsona begi-begitan artu ta iñoz gure eskutik esker edo mesederik egin al bagengio, ez egin; beti lagundu geure alde dagoanari; bakoxta bere opillari su egiten dabil, guk geureari; ez asi zarataka: «au dok! eta ori dok!, guri egiten dauskuezanak!»; ez arrantzarik egin, artu ukabilkada ta ostikadak isilik eta miñik erakutsi barik, baiña norberak be jaurti ta jo; al daianak al daiana, ostantzean iruntsiko gaitue, ta irunsi bear bagaitue nekez izan daitela, ia eragiten dautsegun eiokaitz edo *indigestiño* andi bat, eta gu irunstea damutu erazo.

* * *

Durangoko Txiberrik be araiñegun edo bidaldu eban idazki bat erderaz ta salatzen eban ango eskola maisu bat, mutikoai eskolan euskeraz egitea galazo dautsela ta.

Oni be bardin diñotsat. Alper-alperrik da negarrez ibiltea; negarrak itzita, ekin beti ta beti euskereaz ta geure ekandu garbiakaz, bein be atzera egin barik, eta onantxe antza aldatu bear dautsogu erri oni. Eskola-maisuak eta *maristak* eta orain aitatuteko astirik ez dodalako isten dodazan beste asko ta asko alde batetik, eta gu abertzaleok bestetik, arek geure Aberri kaltez ta gu alde, ementxe erabilli bear dogu guda gogorra, ta geuk



irabaziko doguna eskierto, esaten dogun guztia sendotzen badogu egiten dogunagaz.

Soraluzekoak eta Txiberrik diñoskuena antziñako gatxa da, zerbait bigundu dana alde batzuetan abertzaleak geitu diralako, ta oneek geitua-go ta batez be zintzoago, ta ainbat bigunago egingo da gaitz ori, ta azke-nerako kenduko dogu bide zuzena isten ez badogu.

* * *

Aspalditxo onetan, au dala ta ori dala, nire pillosopiak ez dauke amairik, oraingo gogaituta zaukodaze; asketsi, biartik izparrak ipiñiko dautsuedaz laburto.

1915-VI-22

Aurrerantz ala...?

Itandu egiten dot, ene irakurle maiteak, neuk erabagi ezin dodalako, ez dakidalako zer oldoztu.

Egia da, gure irakasle zintzo-zintzoa izan zan Sabin andiaren lorraztetik jarrai, asko ta asko ta alde guztietan iratzarri dala eusko abertzale-tasuna.

Izparringietan, batzarretan, Jel-Batzokietako itzeikizunetan irakatsi da gure aberria Euzkadi dala, gure Alderdi abertzale onek aberriaren gaizkatasuna gura dauala, ez bestetako, euskotarrari bere betiko gaizkatasun bidean laguntzeko baiño. Gizona jaió dala Jaungoikoagana joateko; auxe da gizonaren zeregiñik nagusiena, zeregiñik gorengoena, ta berau lortzeko bakarrik artu ta erabilli bear dauz bere zeregin guzti-guztiak, eta Jau-nak gizonari emon dautsozan gauzak, bat itxi barik, Beraganako bidea gertetako emonak dira.

Aberria be orretarako emon dausku ba, ta beraz, aberria da bide bat Jaunagana joateko. Augaitik Sabin argiak esan eban ainbat bidar aitatu oi dan ikurritz au: «Gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat», eta Sabinen bidetik joanda, Eusko Alderdi Jeltzaleak irakatsi dau beti geure aberri ele garbia ta geure ekandu polit eta txukunak maite-maitero jagon bear doguzala, eurokaz gaizpide gitxiago daukelako euskotarrak; beti esan da, Euzkadi bere buru izan daiten lan egitea zentzunkeria dala, erdalduna ta erdal ekandu loiakaz bizi izatekotan, orretara Euzkadi izena bera be ez legokio ta.

Gure Alderdiak Jel-en alde zabalkunde garratza erabilli dau; ugaritu dira Uri-Buru-Batzarrak; abertzaleren bat ez dan erririk, baztertuena bada be, ezin idoro lei; Jel-Batzokiak asko dira; batzarrak egiten diranean oste edo jentetza ikaragarriak biltzen dira, arerioak eta alderditik at dagozanak ikaraturik isteko lakoak; auteskundeak izaten diranean, keea ataraten dabe jeltzaleak, or daukaguz ainbat diputadu ta kontzejal; gaur egunean aobetean diño adiskide ta arerioak, bertako ta erbestekoak, Eusko Jeltzalea baizen indartsua dan Alderdirik ez dagoala Euzkadin; eta onetara badoa, urte gitxi barru, beste guztiak bat eginda jarri arren, gure onek zapalduko dituala.

Ori egia da, abertzalea izugarriro ugaritu da amabi urte oneetan, geroago ta geiago dira. Beraz aurrerantza goaz, ezta? Ba dirudi.



Orraitiño ezpai edo dueda sortzen da an gogoaren barru-barruan, bakean itzi gura ez gaituana. An, gogoaren barru sakonean, itaunen batzuk erne dira: Asko izateaz dana eginda ete dago? Gorputz andi orrek ez ete dauko barruan arra? Ez ete zan ohea sendotasuna anditasuna baiño? Ez ete da oker bat izan asko ta asko batzeko jorana erabiltea, errien goiak edo agintze-lekuak arrapau, ta andik gogor egiñaz Alderdira etorri eragin abertzale iñoiz be izango ez diranai?

Itaun orokorrok, zein azitatik sortzen dira? Orra:

Abertzale euskaldun asko, baiña asko!, ta aurrengoak, besteei bidea erakutsi bear leuskioenak, euskal errietan bizi arren ta euskaldun artean ibilli arren, beti-beti! *erdera* dariola dabiltz, beti erderaz idazten dabez euren idazkiak, eta euskerarik ez irakurteko akiakulatatzat ataraten dabe euskeraz ez dala argitaltzen irakurgarri dan gauzarik.

Arazo onetan, euskaltzaletasunean, aurrerakunde gitxi agiri da, alde batera isten badoguz Bilbaoko Euzko-Gastediya, Iruñako Euzko-Batzokiko gazteak, Donostiko Euzko-Etxea, ta beste banakaren bat, eta eurotan be, gazte mordoska batzuk baiño ez dira euskerearen aldeko lan ori darabilenak.

Gure izparringi onek atek eta esiak zabal-zabal ipiñirik, oraintsu arte polito geitu izan dira euskeraz idazten ebenak, eta beraz, euskeraz irakurten ebenak be, jakiña da ba idazleak irakurlea sortu ta atzean ekarten dauala; baiña geituzte ori joan zan, eta orain gitxitutzea asi da; geroago gitxiago dira idazten dabenak, eta irakurleak be alantxe gitxituko dira.

Euskereatzaz au. Ekanduetzaz ia zer.

Gure Alderdi batzarrak izaten diranean dantza garbia egiten da, euskotarrei dagokioena. Baiña batzar onek izan ezik, Euskadiko erri-jai geien-geienetako erromeriak zikinkerri okagarriak izaten dira, abertzaletasuna zabaltzeaz gitxitu ez diranak.

Dantza loia bazter guztietan sartu da, baso ta mendi arteetan ezkutan dagozan erri txikietaraiño. Zoaze erromeriak ikustera batean-beste, eta eurrez aurkituko dozuez abertzaleak, mutil eta neska, baita gizon eta andra be sarri, paparrean geure ikurrin-margoak darabillezala dantza oratuan.

Onez ganera, zoaze zezenetara... ez, etzaitze joan, jarri zaitze zezen-plazaren ondoan, eta ikusi egizue zenbat abertzale doazan eta ikaratuko zarie.

Ba dakit esango dala, izparringi onetan eta abertzaletzat bere burua dauan batek ez leukezala agertu bear gauza orreek, etxean geure artean atondu bear geunkezala, arerioei biderik emon barik gure kaltez barrike-

tan ekiteko. Eta nik diñot, gauza loi ustelgarria ez dala etxean euki bear estalduta, etxetik atara ta jaurti egin bear dala. «Egiak gaizkatuko zauz».

Ondo dakit nik ba dirala abertzaleak, Jeltasunak bide onera ekarri ta bide onean eutsiten dauzanak; baiña gorago esan dan guztia be, euskeretzaz ta ekanduetzaz, egia da.

Egi oneetatik sortzen dira lengo itaunak, egi oneetatik sortzen da bildurra, onan bagoaz jazo leitekela biar Euzkadi guztia izatea abertzale, baiña abertzale erdalduna, ekandu onik bakoa, eusko usaiñik artu ezin leikiola iñundik. Euzkadi orduan ez litzake Euzkadi izango, edozer gauza izango litzake, ta arteko alegiñak, ardurak eta nekeak alperrekoak.

Nik illun ikusten ete dot eta ez ete da nik diñodan bestekoa? Ai nire poza orixe balitz!

1915-VII-12



Savona (Italia)

Ba dakizue zer esan deustien gaur euskaldun batzuk? Ara eurak esan deustena erderaz: *El vascuence es un idioma sin literatura, sin poesía y sin historia* (1).

Ganera esan deustie ganorearen (2) piskatxu bat ez daukela gure izparringi orretan idatzi oi doguzan idazkiak, danak dirala errietako izparrak eta bape *literatura* (3) barik egiñak. Orra ba, esate baterako Bektetzeko Petornilla ezkondu dala Prantzisko Zamaluzegaz, eta gauberako aparitarako esne sopa bakarrik euki dabela, ta au jan ondoren koltzara joan ta artaburuak zuritzen ekin dautsela, ta olakoak izpar ben-benak ipiñi bearran ipiñiko bageunkez, gure izparringi orregaitik txakurrenak esango leukiez orreek morroiok, eta barriz izpar ori erderaz idatzita ipinten badau Madrilleko *Heraldo* edo besteren batek, orduan ederki, ezta?

Neure biotzeko adiskideak zarien *Arriandiaga-tar Imanol, Elaire-tar Koldobika*, eta beste enpaiduok ez naizue itxi oingoan umezurtz eta ipiñizue gure izparringi orretan zelan diran gauza oneek: *¿Qué leyes tiene el euskera para la poesía? ¿Qué reglas de acentuación se usan en euskera? Si es un idioma que posee poesía, tendrá sus leyes para hacerla*, diñoste nire etsaiok.

Esan dautset ba gure Enbeitak ba dakiala poesiak egiten eta sarritan izan dala txalokatua, baiña oneri erantzun dauste: Nok txalokatzen dau Enbeita? Bakarrik baserritar ezjakin literatura zer dan ez dakienak (4), beren bertsoak ez diralako *poesías, saetas* ta *couplets* baiño. Orra ba, ene anaiak, ez naizue itxi umezurtz oingoan eta idatzi egizue zelan erantzun onei (5).

Orrez ganera nai neuke jakin Larraskitu abizenaren jatorria edo nundik datorren.

BATXI

(1) *¿Y qué?* erantzungo neuskioe nik Salomon merke orrei; itzertirik, olertirik, ez edestirik euki ez arren ez da ardura, geure-geurea da ele au, ta maite dogu, ta ba darabilgu, ta berau lantzen diñardugu, ta iñoz izango dauz itzerti, olerti ta edestia. Euskaldun erdaltzale orreen gogoko elea be, aldi baten, *literatura* ta *poesía* ta *historia* barik egoan, eta ori gorabera, españiarrak maite eben, euskalduntxu orreek baiño abertzaletasun ta gizontasun geiago eukela erakutsirik, eta maite ebelako, erabilli, landu, aberastu ta indartu eben.

Eta españiarrak euren eleaz egin ebena berbera egin eben frantzitarak, italiarrak, doistarrak, eta abar eta abar, bakotxak bere eleaz, abertzaleak eta gizonak ziralako. Batxiri salomonkada ori jaurti dautsoen euskalduntxu orreek lakoak izan balitzaz alde guztietan, ez litzake gaur ezagutuko ludian *literatura* ta *poesía* ta *historiaren* izpirik be; oingo, itz egitea bera be aztu izan izango jaken gizonen, arrantzaren bat edo beste alkarri jaurtitea naikoa izango litzakean, lurtean bira-biraka batzuk ankaz gora egin ondoren.

(2) Ganorea aitatu baiño len ondo izaten da zer dan jakitea. Orreek uste dabe, Zamoran lez itz egin ezkeru beti dagoala ganorea; barriz, Munitibarren lez izan ezkeru, ganorarik ezin egon leikela. Eta eurok, Munitibartik urrekoak eta Munitibartarren abendakideak dira; beraz, euren ganorea be ez da agiri. Zerurantz arria jaurtizu, ta urtean buruan joko zaitu.

(3) Guk, euskal idazle guztiok, esaten doguna ez da izaten *jakintsuentzako*, geu be ez gara jakitsuak eta, Jaunari eskerrak. Batxigaz itz egin daben Salomon orreek bear daben literatura guk ezin daikegu emon; orretarako or dagoz *El Tío Conejo, Los Sucesos, Sol y Sombra, El Tío Jindama, La Hoja de Parra*, ta beste asko; orixe dabe jakintsu orreek euren literatura-egarri itogarria. Literatura zer dan ete dakigu gero, gizontxu maiteak?

(4) *Tío Conejo*-tarrak ezin leie igarri nor dan ez noraiño eltzen dan geure Enbeita.

(5) Batxi, astia alperrik galduko dozu orretarikoakaz benetan bazabiltz; orreek ez dabe gogorik euskeraz irakurteko, ta atxakia beti gertu dauke; orain diño gure gauzak ez dirala benak; gero, benak ipiñiko bagenduz, iñoz gure izparringian agertu diran lakoak (adibidez, Zinkunegi osalari bikaiñak beñola bidaltzen euskuzanak), esango leukie beste gauza bat. Gogorik ez daukonari ezin aserik emon leio. Orretarikoak izaten dira arro-ereti gogaikarriak, eta ez dago gauza oberik, eurai gogait eragitea baiño. Eurak gure elearen kaltez ezer esaten dabela? Geiago esan eurak maite daben elearen kaltez. Norbera ez asarratu bein be, ta eurak asarratuta aidean erabilli. Euren *atakeari kontratakea* egin. (Orain gudaaldian au esan leike.)

Kirikiño
1915-VIII-7



Ez dauskue egiten edonori egiten jakona

Lengo astelenean argitaldu genduan toki onetan *Zazpi* buruñurdun zintzoaren idazkia, Marianas ugarteko Guam-dik bidaldu euskuna, ta bertan, beste gauza polit askoren artean iñoskun, ango ele edo berbetea, *txamorro* deitua, erabilteko agindu dautsela ango Gotzaiñak (Obispoak) bere abadeei Jaungoikoaren itza ulertu dagien biztanleak, orixe dala ba Gotzain eta abadeen egin bearra: Uzkuertza edo Erlejiñoa irakatsi gizadiari, beronek ulertuko dauan eraz. *Zazpi*-k berak ikasi ebalá arrapalada baten *txamorroa*, bertakoei zelán edo alan Uzkuertza irakasteko.

Ori ederto egiña! Zentzunak berberak diño iñori ezer irakatsi gura izan ezkeró berak ulertuko dauan eraz esan bear jakola.

Eta orra, gure eskuetara eldu dira, zelán esan bearrík ez dala, Beldukuntza edo Misiñoetako izparrak ekarri oi dabezan ingurti edo *revista* batzuk, eta antxe irakurri doguz urrengo izpar oneexek:

Saigon, Cochinchinako uri andi ospatsuaren alde aretan, frantzitar belduak (misionariak) bertako elez egiten dabezala eleizako otoitz, itz eta abesti guztiak, lateraz (latiñez) egiteko Doibatzak (Eleizeak) aginduta daukazanak izan ezik. Frantzian frantzeraz lez, Cochinchinan kotxiñeraz (ez dakigu zelán deitzen jakon ango eleari).

Oubanghi deitzen dautsoe frantzitarak Afrikako Kongoko erki bateri. Oubanghi edo Ubanji alde ortan antziñetxutik dagoz belgundariak (misionariak) Frantziatik joanda, gure Jaunaren barri irakasteko ango gizon azalbaltz gixajoei. Eta frantzitarak izanik abertzale sutsuak, frantzerea maite izan arren beste ele guztiak baiño geiago, Oubanghiko txadonetan, lateraz egiten ez dan enparau guztia bertako elez, ubangieraz, egiten dabe: abestiak, otoitzak, txonitzak...

Otxandio da Euzkadiko Bizkaia deritxon erki edo errialde bateko uria; bertako biztanleak betiko euskaldunak dira, beti egin da euskeraz bertan, eta egiten da; erderaz gitxik dakie, batez be Uzkuertz edo Erlejiñoako egin beargarriak ondo ulertzeko; Otxandioko abadeak ez dira etorri Bizkaira Frantzitik ez iñundik, bizkaitarrak dira, euskaldunak; orain arte euskeraz egin dira ango txadonan abestiak eta otoitzak eta abar...

Aurten, Otxandio orretan, euskalerrí uts-uts orretan, Ama Neskuts Jaiokundeko bederatzíurrena erderaz dana egin da, bertakoen elea baztertuta.

Au jakin dogunean (bide onetik jakin be) berez asi da gure gogoa lanean. Aurrean jarri jakuz Guam ugarteko txamorroedun indioak, Saigon aldeko azal-orizkak, eta Oubanghi azal-baltzak; bereala gomutau jaku onei euren elez Uzkuertz edo Erlejiñoako janaria emoten dautsiela euren arteko abadeak eta bai atzerritik Joan jakezanak...

Eta Otxandion... eta Otxandio ez dan Euskalerríko beste leku askotan... ez dauskue egiten indioei, azal-orizkai, eta azal-baltzai egiten jakona...

Zegaitik? Ez al zan Gurutzean josita il gure alde be Josu-Kristo Jaungo-Seme bakarra?

1915-IX-19



Nor da *separatistea*?

Ibarrurin.— Erri onetako eleiza nagusian ille onen 3an, bertoko txauburu jakintsu ta onak ezetariko eragozpen barik ugutzau dau Baraiazarra-tar Toma eta Dudagoitia-tar Seraperen seme jaiobarría Sabin euskal izena ezarririk. Besoetan artu eben Enbeita-tar Kepak eta Zallo-Etxebarria-tar Gergorek. Ama ta morroskotxu barría ondo dagoz Jaunari eskerak. Beren guraso euskaldun zintzoai eta Sabintxuri opa dautseguz zorio-nezko urte ugariak Jaun-Goikoa eta Lege Zarraren alde egiteko.

* * *

Epaikariaren idazkaria (Juez-en sekretarioa).

Baraiazarra-tar Toma, *Sabintxu*-ren aita emon eutson epaikariaren idazkariari idatzi bat bear dan lez egiña (epaikariarentzat, ez idazkariarentzat), bertan esaten eutsola seme bat jaioko jakola ta bere izena, Sabin, ipiñi egiala jaiotza-idaztían aita olantxe gura ebala ta. Irakurri ebanean Sabin euskal izena, epaikariarentzako idatzia esku artean biribil-biribil apurtzeko eran tximurtu, ta maipera bata eutson, «Onek dire *pikerdijek...*» esanda, guztiz asarraturik. Euskal izena semeari ezartea, ala epaikariarentzako dan idatzia esku artean moltzotu ta maipera edo ostikopera botatea ete da pikerdi andiagoa? KARATX.

* * *

Onezkero urtetxuak dirala, lau edo bost bai, Espaiñako Araka-Buru (Director de Registros) zanak, Weyler-tar Perdiñandak, agindu eban bape iguin barik artzeko euskal izenak jaiotza-idaztietan; eta ordutik ona alde guztietan artu ta ipinten dabez euskerazko izenok. Orduko agintzea ausi ta kentzen dauanik ez da izan.

Beraz, Ibarruriko epai-idazkari orrek, zer darabil? Espaiñan emon-dako agintzea ostikopetzen dauana, ez al da benetako separatistea? Nor da ori Espaiñak emon daukun eskubidea guri ez ezagutzeko?

Karatx adiskide ori, esan egiozu umearen aitari, joan daitela epaikari-riagana (separatisteari jaramon bez), ta eskatu dagiola legeak agintzen dauan lez ipinteko jaiotza-idaztían umearen izena, ia zer erantzuten

dauan; bere bearra gura ez badau egin, esan dajiala zegaitik, eta gero bear dan lekura jo; ez itxi, erabili eurok be, ta erakutsi Espaiñan aginduta dagoana bete bearrean aurkitzen dirala.

* * *

Durangon.— Barikuan, Deun Ane eleizan ugutzau eben Barrena-tar Jagoba gure adiskide maitearen eta Isusi-tar Eugeneren semetxua, Sabin Jokin Martin euskal izenak ezarririk. Besoetan artu eben Isusi-tar Martinek eta Ibarra-tar Ikerne neskatillak.

Zorion asko opa dautseguz ume ta guraso ta aitamabixiei.

* * *

Uri epaikariak bere jaiotza-idaztían ipiñi dauz Barrena txikiaren euskal izenak. Zer diño Ibarruriko separatistek? Onek, itxuraz, uste dau uri bakotxean epaikariak (edo epaikariaren idazkariak) egin leikela berari gogora datorkiona, bere burutik ibilteko eskubidea daukola.

Ez, ene gizontxua, oker zagoz! Uri-epaikari guztiak, eta oneen idazkariak, Espaiña laterri guztian lege bardiñak dabez, ta eurok bete bearrean dagoz, edo... etxera joan. Bakotxak berak gura dauana egitekotan ez da bear legerik, ez laterririk, ez agintaririk, ez epaikaririk, ez orreitaririk; bizkarra ondo neurtzeko adaki on bategaz naikoa litzake.

1915-XII-5



Laburdikoak

Etxakidaz ikaratu, ene irakurletxu ori, Laburdi itza ipiñi dodala ta. Euskalerrria da Laburdi ori. Nun dagoan? Ez urrin beintzat. Bizkaiatik abiau zaitez Gipuzkoarantza; igaro egizu gure anai maiteen errialde polit au, eta beti itxas-ondoan zoazala, Laburdi idoroko dozu, Bidaso ibaiaren beste aldean.

Ango euskaldunak, geure anaiak, Frantziako legepean bizi dira antziñatxutik, gu Espaiñako legeen bean aurkitzen garan lez. Auxe dala ta, emengo euskaldunak arei deitzen dausie parrantzesak eta parrantzes-euskaldunak; eta ango euskaldunak barriz emengoei *espaiñulak* eta *espaiñul-ekualdunak*. Ara zegaitik, alkarren anaiak diranak, jatorri berbera dabena, abenda bateko semeak, batak bestea atzerritar edo extranjero-tzat artzen dauan. Ez al da ori burubakotasun ikaragarria?

Orain, abertzaletasunak geure gogoak argiratu dauskuzan ezker, ezagutu doguz geure anai Laburditar, Benapartar eta Zuberotarrak; ba dakigu geure odola, eusko odola, daukola euren zanetan; ama ta aita baten semeak, senideak, garala eurak eta guk igarri dogu, ta maite doguz; ta pozozik jakiten doguz euren izparrak.

Atzo izketaldi bat izan genduan geure adiskide kutun bategaz, bizkaitar abertzale zintzoa ta euskaltzale benetakoa bera, ta esan euskun lengo egunetan ibilli izan dala Laburdiko errietan; eta beroni entzun geuntsozan izparren batzuk ementxe argitaltzea bururatu jaku, uste izanik gure irakurleei guri baizen atsegin izango jakezala.

Abertzaletasunik ez ei dakie an; euren buruak frantzitartzat daukez. Baiña au gorabera, guztizko euskaltzaleak dira, ta euskaldunen abesti ta ekandu ta enparau gauzen zale-zaleak. Eurak ez dakiela dira abertzaleak. Emengoak ara joan eta agertzen dabenean abertzaletasuna, etxake asarratzen, ez dira aurka jarten, emengo ainbat astokillo ta mandokillo jarri oi jakuzan lez.

Gure adiskide au egon da erri baten, frantzeraz Briscous deitzen dautsoena, ta bertakoak euskeraz Beskotze (edo olakoren bat, ez nago eskier) esan daroena. Bertan bilbotar bat bizi da, abertzalea, Irala-tar Albontsa; ango alaba bategaz ezkondu zan au, emen Bilboan umeen etxe-irakaslari egoanean ezagutu ebala. Bilbotar au Laburdin euskaldun egin da, ango izkelgia bertakoak lez erraz ta ederto ikasi dauala. Ume bat izan eben senar-emazte ok, neskatoa; uriko txauburuari adierazo eutson Ira-

lak izena euskeraz ezarri gura leuskiola, ta *apez* jaun arek erantzun eutson ederto eritxola euskaldun umeari euskeraz izena ezartea; orixe dala bidezkoa. Emetiko abade batzuk ikasi beie.

Miren Begoña izena zala umearentzako autatu ebana. *Apezak* itandu eban ori zein izen zan. Azaldu eutson orduan Iralak Miren ori dala ebertarren (hebreoen) Mirian euskeraz esanda, ta Begoña dala Ama Neskusaren txadon ospatsu baten izena Bizkaian. Guztiz ondo eritxi eutson *apezak*, eta ugutzau eban umea, aitag gura eban izenagaz.

Urian jaiotza-idazti latarra (libro de nacimiento civil) darabilenak ezetariko atzerapen barik artu ta ezarri eban idaztitan Miren Begoña izena. Ikasi bei Ibarruriko *separatistek*.

Uri artan, Briscous-en edo Beskotze-n (Beskotze ete da gero? Bildur bat ba dot oker ete nagoan, gomutamen makala dot eta. Tira, asketsiko daustazue, gizonak, neure okerra) euskeraz egiten dira beti eleizako izkal-di guztiak. Au emen be erri askotan egiten da, danetan ez bada be. Baiña gure adiskide onek esan dauskun gauza batek asko arritu gaitu, ain da polita eta ain bidezkoa edo naturala!

Ara: Jaupa nagusi ostean eta eleiz aurrean uriko idazkariak (sekretarioak) bere aurrean batuta daukozan biztanleei euskeraz jakin erazoten dautsez iragarkiak, Gobernuak edo Departamentak edo Uriak argitaldu dauzanak. Orrelan, idazkariak ipinten dauz eurak bete bear dabezan gauzen jakitun, zerga edo kontribuziñotaz, gudaritza edo soldautzaz, edo beste edozein arazotzaz.

Ekandu orri ez deritxozue egokia? Bai bein!

Emen, noz orrenbeste ikusiko ete dogu? Batek ba daki! Udaletxeko atean edo orman ipinten diran orretariko iragarkiak erderaz bakarrik idaztziak izaten dira... zetako? Bardin izango litzake abarka zar bat edo ipizki bat eskegita ipiñiko balebe erririk geienetan, erderazko idatziei beste jaramon egingo leuskioe biztanleak eta.

Guk baiño zentzun geiago dabe laburtarrak.

1915-XII-6



Erantzun, bear dan lez

Abotsezko iragarkia edo pregoia, zetarako da?

Alkateak edo beste edozeñek erriari zerbait jakin erazoteko, bitzuei egoki jakena.

Alkateak edo beste edozeñek erriagaz dauken izketa bat da pregoia.

Beraz, zentzunekoa da pregoia edo izketa ori egitea erriak dakian elez edo berbetaz: Euskal errian bada, euskeraz; Espaiñan bada espaiñeraz; Frantzian bada frantzeraz; eta abar, eta abar, eta abar.

Au ulertzen ez dauana astakirten ikaragarri bat da... nire aburuz; edo jakiñen ganera iñoren gorrotoz gauza argi ta zuzenaren aurka jarten dan gizon *moaia* da.

* * *

Mundakan, Euskal erriko beste uri askotan lez, antziñatik etorri da ekan-dua pregoiak euskeraz esateko. Bai ba! Erriak dakian eta beti erabilli oi dauan elez edo berbetaz.

Orain, jakin dogunez, debekatu egin dabe euskeraz pregoiak esatea. Indarra dauanak, askotan, edozer egiten dau, zuzen naiz oker.

* * *

Valladolid aldeko urietan aginduko balitz pregoiak esatea euskeraz edo ingeleraz edo, ez ete leukie txartzat artuko ta ez ete leukie gogor erakutsiko euren asarrea, *Queipo de Llano*-k eta bere beste errikide guztiak? Bai arean! Eta ondo egingo leukie.

Ba, *ez eiook iñori egin eurretzako nai ez dokana*. Auxe da zuzentasunaren sustarrik sendoenetarikoa.

* * *

Ondiño aldi asko ez dala, birritan emon genduan emen izpar au: Laburdiko Beskoitze (Brisous, frantzitarrek) uri politean, igande guztietan, bertako idazkari edo sekretarioak, Udaletxeko balkoitik, euskeraz esaten dautsozala erriari Gobernuaren erabagi eta agintza jakingarrienak.

Beskoitzetarrak Frantziako lege ta agintarien menpean bizi dira. Gu, beskoitzetarren anaiak garala, Espaiñako lege ta agintarien menpean bizi gara.

Guri galerazoten dauskuena gure anai maite arei ez dautsie galera-zoten.

* * *

Frantzian euskereari ez dautsoe gorrotorik.

Paris ondoan ango Gobernuak atondu dau Osatetxe edereder bat, oraingo guda andi onetan geixorik edo zauriturik jausten diran euskaldunentzako. Bertan dagozan osalari, geixozain, abade ta otsein dan-danak euskaldunak dira. Ara osatzeko daroezan gure anai gixajoak, euren zoritxarrean ba dabe poztasun bat: euren elez itz egiten dautsiela, euren anai kutunen ardurapean aurkitzen dirala, euren etxean balegoz lez.

* * *

Emen ori lakorik ez dogu iñoz ikusi, eta itxuraz, ikusiko bez. Ez dago euskerearentzako ezetariko begiratze onik. Euskerea, ta beraz euskalduna, jaurtika darabille beti. Eta gero, ikaratuta esaten dabe guk ez dogula maitasunik erakusten eurakana!

* * *

Bizkaian Espaiñako Gobernuaren ordezkariak debekatu dau pregoiak euskeraz esatea euskaldunei.

Zegaitik?

Euskerazko pregoi orreek ete dakarre kalterik, edo ete dauke iraiñik Espaiñarentzat edo Gobernuarentzat? Ez, orretan ez dago kalterik ez iraiñik iñorentzat.

Iñorentzat gatzik ez dauan gauza bide-bidezkoa galerazo dabe.

Ori, beraz, euskerea ikusi-eziñak, euskerearentzako gorrotoak eragiña da.

* * *



Eta guk, zelan erantzungo dautsogu gorroto orri?
 Bear dan lez: Euskerea geroago maiteago izanagaz.
 Gure gogora iñor ezin eldu leike, ez agintaririk, ez
 iñor.

Ba, antxe geure gogoan biztu daigun euskerearen maitasuna, ta erabagi sendoa artu daigun geuk al dogun guztian erabilteko.

Euskerea il gura dabe? Ez dabe ilgo, geu bizi garan artean beintzat!

Euskerarik ez dabe entzun gura? Entzun bearko, miiña erroerrotik ataraten ez badauskue!

Iñok ez dau eskubiderik ez alik guri euskerea kentzeko, gurasoen odola ta abizenak guri kentzeko iñok ez dauan lez eskubiderik ez alik. Geure-geureak dira!

Gora euskerea! Bizkortu euskaldunak!

1916-II-3

Ba jatozak!

Bizkaian Espaiñako Gobernuak daukon ordezkariak idazkia zuzendu dautse alkateei. Atzo arratsaldeko izparringi batean irakurri genduan.

Idazki orretan diño Ordezkaririk, errietan Udalak arturiko erabagiak eta alkatearen agintza guztiak, gaztelera iragarri bear jakozala erriari. Auxe agintzen dau gogor.

Onetarako, bere erabagi au sendotzeko, ataraten dau ez dakit nozko lege bat esaten dauana Espaiña laterrian Gaztelako erdere dala agintari arteko elea (lenguaje ofiziala). Eta agintaritzazko Batzar guztiak lotuta dagozala ele ori erabilten; Udalak be bai.

Baiña gauzak aitu egin bear dira. Entzuizu, Ordezkaririk zoriotsu orrek: Agintaritzazko Batzarrik, eta euren artean Udalak, gaztelera ori erabilli bear dabe, lege orrek diñoanez, euren arteko ta euren nagusiekazko artuemonetan, esan-erantzunetan; ori bai, baiña erriari ezer iragarri edo jakin erazo bear jakonean beste arazo bat da. Orduan, erriari esan bear jako berak ulertuko dauan eraz. Au zentzunak eskatzen dau.

Legearen bearkizun bat da, bera bete bear dauanak jakin daiala. Zelan bete lei iñok legerik, beronen barri ez badaki? Eta, zelan jakin lei iñok legearen barri, esaten badautsoe berak ez dakian elez?

Au ondo argi dago, ezin argiago. Beraz, Ordezkaririk bere idazkian ataraten dauan zegaiti ori atxaki utsa da.

Emen gura dana igarrita daukogu aspalditik. Euskereari guda egin gura jako; bizkortzen asi dala, bazterretik urtetan asi dala ta, orain atzeratu egin gura dabe.

Udal iragarkien zartada au ez da izango azkenengoa; etorriko dira beste batzuk be.

Gertau gaitazan, zintzo gero, euskerea jagoteko. Batu gaitazan danok, zanetan darabilgun odola maite dogun guztiok.

Mutillak, ondo lotu gerrikook, estutu txapelok buruan, eskuei igurdi bat eragin, eta gertau burrukarako, ba jatok eta.

Gora Euzkadi! ta aurrera. Beingo-beingoan ez gaioezak urtuko.

1916-II-4



Euskerearen alde Bart «Euzko-Gastedija»n

Gazte-Batza gurentsu onek atzo gabean batzar bat ospatu eban bere asarrea erakusteko Queipok euskerearen kaltez artu dauan bideagaitik, eta era batez bere maitasuna erakusteko gure abenda ele oni.

Gazte pillo andia bildu zan, guztiak suz beterik agiri zirala, beti lez, Aberriaren alde ezer egin bear danean. Euren artean asko dira euskeraz ez dakienak, ez euren erruz orraitik euren gurasoen ez baiño, ta ori gorabera euskereari maitetasun andia dautsoe euskaldun askok dautsoenaren aldean. Gurariz dira euskaldunak, elez izan ez arren.

Itzeikizun batzuk egin ziran, bata euskeraz, besteak erderaz, txalo andiak entzun zirala bertan, eta surik bizienaz asmoa sendotu zan geroago ta gogorrago ekiteko euskerea ikasten eta zabaltzen geure Aberri gaixo au bear dan lez goraltzeko.

Euskeraz egin ebanari eskatu geuntson bere itzeikizuna, ta gaurko EGUNEKOTzat ezarten dogu, ara:

* * *

EUSKALDUNAK:

Emen batu gara gaur euskerearen alde deadar ekiteko asmoz. Euskereari gorroto aundia dautsoe motzak eta euren adiskide diran euskotar endekatu eta doillorak. Euskerea il egin gura dauskue. Eta beronen semeak erabagi bear dogu ez dauala iñok ilgo, ezta txitik atzeratuko be, geu gertu gagozalako geure biziaz, bear balitz, euskereari bizia emoteko. Ez dabe ilgo, ez, noren semeak garan aztuten ez bajaku, geure gurasoen odola ta jatorria ta gomutea ostikopean zapaltzen ez badoguz.

Danak dakizue euskerea dala gure Aberri maite-maite onen ikurrik (seiñalerik) lenena, berau barik izan ez leikela Aberririk guretzako. Antziña-antziñetatik, iñok ondiño ez dakiala noztik, lur onetan bizi izan dira euskotarrak, eta euren betiko ele edo berbetea euskerea izan da, Jaungoikoak euri emona. Gure auzoko erdera ziztrin ori sortu ta jaió baiño millaka urteak lenago ezagutzen zan euskerea. Orreen *armoniosa* lengua, eurak alan esan daroe, ludian agertuko zanik iñok uste baiño lenago, gure asabak euskerea erabillen; euskeraz ikasten ebezan amagandik euren lenengo itzak, euskeraz egiten ebezan ume-alditan euren jolasak, gazte-

aldiko euren maitasunak euskeraz alkarri abestuten eta adierazten eutsoezan, euren bizitza guztiko lanak, atsegiñak eta atsekabe-negarrak euskeraz ziran, Jaungoikoari euren otoiak euskeraz, eta azkenez il orduan euskeraz egiten eutsien euren biotzekoei ta euskeraz esaten ebezan euren azken itzak. Euskera maite onek bete eban gure asaben bizitza osoa, bera izan da Aberriaren una. Ta ori, millaka ta millaka urteetan, beti, ludian euskotarrak bizi izan diran aldi guztian, eta ekizue eusko erria dala European danik zarrena. Ba, ain antziñatik, belaunik-belaunera guganaíño eldu dan ari luze ta eder au eten gura dabe, gure Aberriari sustar-sustarrean aizkorakadea emon gura dautsoe. Anaiak, ez gara gizonak izango, ez dogu lotsarik izango, orixe besoak eunduta otz-otzik eta ezer egin barik ikusteko gauza bagara! Eutsin daiogun asabakandik etorri jakunari! Ez daigun ukatu geure Aberria, geure aita, geure abizena, geure burua!

Oraingo aizkorakada au, oraingo zartada au, oraingo ostikada au, ez da, zoritxarrez, gure euskereak artu dauan lenengo; gure abenda ele onek orretariko ostikadak lenagotik ainbat eta ainbat artuta daukoz, bai atzeritarrakandik, eta bai, lotsagarria! euskaldunekandik be. Aspalditik, eundaka urteak dira, euskereari egin izan jakon gudea itzela da.

Gudarik txarrena ta lenena bere semeak egin dautsoe erabilli gura ezagaz, asto eletzat eukiagaz, ta onan astotzat artuaz euren gurasoak eta Aberria, ta beraz euren buruak; itsukeria da gero! Gaurko egunetara arte, danok dakizue, lau laukoren jabe egin izan dan edo izan ez da be ba dala erakutsi gura izan dauan edozein txotxolok, orpodun oiñetakoak eta arkondara gogorra ta ezpan ganean bibote zorri bat erabilli al izan daben euskaldun zirtzil geienak, euskereari ostikadea jaurtiten izan dautsoe, berau gauza ezezgan-itzat eukirik, baserritarren eta langillen ele ezjakiña dala, ta eurak lako jakintsu ikaragarrientzat ez. Eurak jakintsuak! Bere Aberria ezagutzen ez dauana, edo ezagutu gura ez dauana baiño ezjakiñagorik, nor ete da ba?

Oneexek eusko seme deungok bideak gertau ta zabaldua, jausi zan gure Aberri zoritxarreko au atzeritarron menpean, eta oneek, gure agintari egin ziranetik ona, ekin dautsoe euskereari guda egiten, jaurtin dabe eskolatik, tribunaletik, erri batzar guztietatik; txitean-pitean argitaltzen izan dabe agintzaren bat azkenetan egoan euskera gaixoa ainbat lasterren amaitzeko, ba dakie ba euskerea galdu ezker joan dala betiko euskotarren Erria, ba dakie orduantxe guztiz irunsi ta eurekanduko dabela Erri au, eta euskerea biziko dan artean ez dala izango guztiz eurena, euskerea dala eurakandik zeatz banatzen gaituan esink gogorrena. Bai, anaiak, ori



geuk baizen ondo dakie atzerritarrok, euskerea bizi daiten artean Euzkadi edo Eusko Erria be biziko dala, naiz ta iñoren menpean egon.

Auxe ondo dakielako, euren gurari bizia izan da beti euskereari jo ta jo zartadaka ekitea, ta ekin dabe gogoz, len aitatu dodazan euskaldun txotxolo ta deungen laguntasunaz. Jotze jarraikor ori ikusirik arrituta gertzen da bat ondiño gure euskera au bizirik dagoala ikusiaz. Zori irakagarri (millagro) eldu da berau guganaiño ainbeste ta ainbeste arerio gaiztoen artetik.

Orain arteko zartadak isil-isilik artu izan dauz gure Erri onek, iñok ez dautsolako jabe urtetan izan. Emen ikusi da bein be iñun ikusi ez dana: zartadak, eta gogor mingarriak, artu, ta aiene txiki bat be jaurtin ez. Zentzuna galduta eukan Enni onek, eriotzako ateatean aurkitzen zan.

Baiña abertzaleak argitu ziran nozbait, gure Sabin andia buru ebela, ta ordutik ona ez da jazo zartadak isilik artzea. Gomutan daukot, orain amairu-amalau urte, gure Sabin diputadu probintziala izanik, bera aurretik zala abertzaleak zaratea atara eben eskoletako erestun lotsagarriagaitik, eta lortu eben kentzea eskolamaisuen ekandu okerra.

Ordutik ona be, abertzaleei eskerrak, euskereari dautsoen arazoetan ez da zartadarik izan atzean zaratea ekarri ez dauanik. Gure Erria minduten asi da, beraz bizmena ba dauko.

Gaur emen batu gara Bizkaiko gobernadoreak galerazo dualako Udalak erriari euskeraz adieraztea bere erabagi ta agintzak. Au, euskerearentzako zartada txarra da. Dagoan baiño geiago baztertu gura dabe euskerea. Orain isilik geratuko bagintzaz, etorriko litzake gero euskerea galezotea izparringietan, eleizetan, onako batzarretan, eta azkenez, kalean eta geure etxeetan be.

Ez gaitzean isilik geratu ba, erakutsi daiogun gobernadore orri ta bere nagusiei ta bere adiskide danai geure asarrea egin dauanagaitik. Gure asarre onek indar geiago izan dagian batu gakiozan Alderdi Jeltzalearen Bizkai-Buru-Batzarrari, berak artu dau ba onetan, dagokion lez, aurretasuna, ta berak deitu dautse Euzkadiko abertzale guztiei eta abertzale ez diran euskaldun onai, baita be Kataluñako abertzaleei. Bapat egin gaitzean danok eta agertu daigun geure asarre bizia.

Eta asarre bizi au erakutsiaz ganera artu daigun erabagia euskeraz beti egiteko. Ez daiskuela arpegira jaurtin belarri-motzak iñoz jaurtin dauskuena, ta gaur bertan orixe diño Bilbaoko izparringirik motzenak: euskerearen alde zarataka gabiltzala ta geuk ez dogula erabilten. Eurrez entzun daiskuela euskerea motzok, ia entzunearen entzunaz amurruz gibeletik geixotuta alde egiten dauskuen emendik. Euskerea lako esirik ez

dagoala gu eurakandik banantzeko esan dot len, eta orain diñotsuet euskerea lako izkillurik ez dagoala geure ondolik orrei alde eragiteko. Euskerea zabaltzen dogun bestean garbituko dogu Aberria. Euskerea da Aberriaren giltza.

Orain gobernadoreak egin dauanari emon leion erantzunik ederrena da euskerea ikasi ta erabili ta zabaltzea. Gora euskerea, mutillak! Gora Euskadi garbia!

1916-II-6



Euskerearen alde

Mundakako Udalaren erabagiak Queipo de Llanok agindutakoaren aurka atzo argitaldu ziran izparringi onetan. Gaur doaz Bermeokoak artu dauzanak arazo orretzaz.

Biak diñoe txarto deritxoela gobernadoreak agindu dauanari, abotsezko iragarkiak (pregoiak) erderaz eginbearra euskaldun errietan; eskatzen dabe agindu au atzeratu daitela, ta aurrerantzean, espaiñeraz idatzita Udaletxepean ipiñi oi diran iragarki ta agintzak ipiñi daitezala euskeraz be euskal errietan.

Zorionak Udal bi orrei. Ederto! Artu begie euron bidea Euzkadiko beste Udal guztiak be, ta danak bat eginda jagon dagiela euskotarren betiko eskubidea euren elez alkarri itz egiteko.

Bilbaon barikuan Udalak izango dauan batzaldian agertuko dira erabagiei (mocion-eak) bi: bata da jeltzaleak an daukezan ziñegotziena; bestea da Llonak, Pérez Bonak, González Olasok (jaimetarrak) eta Bandresen (errepublikano estaldua) agertzen dabena.

Bitzuek dauke txartzat gobernadorearen agintza, ta eskatzen dabe onen atzeratzea, euskaldunei iñok ezin leioela kendu eskubidea euren errietan euskeraz gauzak adierazteko ta. Geure txaloak aldra bie.

Baiña... beti dago zeozer! Llona, Pérez Bona, González Olaso, ta Bandres, lau ziñegotzi zuri-gorri oneek eskatzen dabe, Espaiñako Agintariak adierazo edo azaldu edo izentau dagiela euskerea espaiñar elea dala, espaiñarra dala.

Baiña, gizontxuak, euskerea izango da beti izan dana, Espaiñako Agintariak ez dira gauzak aldatu leikiezanak eta. Euskerea izango da euskotarren elea, ta besterik ez. Zuek esan gura dozue euskotar zati batzuk Espaiñako legeen eta agintarien azpian aurkitzen garala. Ori ba jakiguk! Zuek esan bearrik etxaukoguk! Baiña gu zati batzuk Espaiñapean egoteak ez dau esan gura gure *euskerea* espaiñarra danik; or daukozue beste batzuk Frantziapena, an daukozue beste batzuk Laterri-Batzapean (California eta); ortik atarako da *euskerea* dala frantzetarra, ingelandarra? Bai zera!

Euskerea euskotarren elea zan Espaiña, Frantzia ta orreek ludian agertu baiño lenago; iñok amesik be ez eukonean laterri orreek iñoz ludian agertuko ziranik, euskotarrak gure asabak emen egozan zintzo euren euskerea parra-parra erabillela.

Gaurko euskerea ordukoxe berbera da, ez da aldatu; orduan etzan espaiñarra, beraz gaur bez, naiz zuek eskatzen dozuela naiz Espaiñako agintariak diñoela naiz ta Kaisar agintari gogorrek bere amar milla kañoiak aginduko baleu be. Gauzak iñok ezin leiz aldatu.

Orain, zuen guraria bada, Agintariak ori adierazota, gure euskereari izan dagoela danak Espaiñan lotsea ta begiramena, ta ez daiola gorrotorik izan... tira, orduan ez geunke zuen kaltez ezer esango.

1916-II-9



«Euzkel-Laguntza»

Egunokaz gure izparringi onen erdal aldean irakurri izango dozuez «Euzkel-Laguntza» orretzaz idazten diran izparrak.

Pozkarriak dira eurok. Emengo Jel-Gaztedian asmauriko batza ori geituaz ta geituaz doa, onetara uste leikela lur onean azia jausi ta erne dala.

Ba dakizue zetarako sortu dan Euzkel-Laguntza: igarri barik, piska-piskaka, dindi-dindika, dirua pillatutea.

Eta diru au, zetarako? Euskereari indarra emongo dautsoen bideak edegi ta zabaltzeko; idaztitxuak egin, ez dakienak ikasi dagien, umeek euren ikaskintza euskeraz egin al izan dagien, eskolak irasi umeentzakoak, txiroen umeak erdal-eusko errietatik euskal errietara eroan al, antxe euskaldun biurtu daitezcan eta gero eroan al dagien abenda elea euren errietara, ta oneetariko beste lan onuragarri asko.

Diru barik ezin leike ezer egin, eta diru au biltzeko biderik ederrena asmau dabe «Euzko-Gastedi»koak. Astean-asteen *txakur txiki* bat emon bear dau Batzan sartzen dan laguntzaleak. Onexegaz bilduko da, ez bear dan beste, baiña bai aurre emoteko beste gaur ezetara be egin ezin leikezan ainbat eta ainbat gauza bear-bearrekoei.

Txakur txiki bat astean! Ori, zer da? Ezebez!

Txakur txiki bat emoten da bape tamal barik edozetan: adiskide edo ezagun baten ume bat ikusten dozula «Eutsi, ume, txin» esanaz an doa; gitarrea jotzen (benetan, e?) agertzen jatzula gizon bat, abestuten dabela-koan deadar ikaragarriak darabilzala, an damotsozu txanpon txiki ori; artz tisiku bat eta tximiño zikin bat lagun dabezala ta pandero zar andi bat jotzen eltzen da errira ungaro koipezto ule-luze bat, eta txakur txikia botaten dautsozu; bertso berri ganorabako batzuk erostearren ataraten dozu sakeletik dirutxu ori ezetariko iguin barik; eta onan, ezerezkeri askotan, igarri barik joaten jaku txanpontxua.

Orregaitik diñogu, ba, txakur txiki bat astean ezer ez dala; igarri barik, gure *Euskera* ederrari ukar edo limosna onurazkoa egingo dautso-gu.

Eta ondiño geiago. Euskaldunak ori egiñaz bere buruaren alde, edo beintzat, bere oiñordekoen alde azia ereiten dau txakur txiki orregaz. Ara zelan:

«Euzkel-Laguntza»k artuko dauzan bideakaz ta egingo dauzan lanakaz euskerea ipiñiko dau joakera onean gure aberrian, eta aldia etorriko

da euskeraz jakitea bear-bearrekoa izango dana emen otseintza edo enpliorik geien edo danentzako; ta beraz, orduan euskaldunak beñago izango dira erdaldunak baiño, ta ogia irabazteko tokia askozaz errazago idoroko dau bere aberrian, iñora joan bearra izan barik, gaur jazoten jakon lez.

Euskerea jaso ta indartzeko bide guztiak onuratsuak dira ba euskaldunentzat. Euskereak irabazten badau, berak be irabazi bear; ori argi dago.

Onan ba, al dozuenok sartu zaiteze «Euzkel-Laguntza»n; batu zaitez amar-amarra, ta *amarreko* orretan batek artu ardurea astean-asteen txanpon txikia besteei eskatzeko. Gauza errazagorik...

Orretara igarri barik, ezer egin ez dogulakoan, indar andia emongo dautso-gu danok batera geure euskereari, edo geure aberriari, edo geure buruei, geu guztiok batera gara aberria ta.

Zenbat eta zenbat euskaldun izango dira esango dabenak Koipez ta bere lagunak Pankorborantz bidaltzarren ogerleko bat pozik emongo leukiela!

Ba, astean txanpon txiki bat emoizu, ta urte gitxi barru Koipez guztiak baiño beñago izango gara emen euskaldunak. Ori eskier!

1916-II-26



Oñatiko mutikoei

Aloñapeko mutil zindo euskotar utsak zarienok, euskeraz itz egiten dozue danok ederto, zeuen etxeetan gurasoei entzun ta ikasita.

Zuen zanetan euskotar odol garbia daukozue, ta zuen gogoak eta ezpanak euskotarren ele edo izkera garbi ederra darabille.

Euzkadi, Euskalerrria da zuen Aberria; euskerea da zuen Aberriko izkerea; zuek dakizue ta darabilzue zeuen Aberriko izkerea, españiarrak berea, frantzitarrak berea, txiñatarrak berea dakien eta darabillen lez.

Españiarrak, frantzitarrak, txiñatarrak iñok ez dautse asarrerik egiten euren elez edo izkeraz ekin arren; iñok ez dautse zigorrik (kastigorik) emoten orregaitik. Ez ba!

Zuek be Jaungoikoarenak zarie; españiarrak, frantzitarrak eta txiñatarrak aiña eskubide dozue zeuek be; zuei be iñok ez dautsue asarrerik egin bear ez zigorrik emon bear euskeraz itz egitegaitik.

Asarre egin edo zigorra emon zuei euskaldunak zarielako, okerreri andia da, zuzentasuna (justizia) azpi-azpitik austeaa da.

Auxe entzun egizue ondo, mutiko euskaldunok: iñok ezin egin leizue ori, zuzentasuna jo ta ausi barik.

Zuen arteko bategandik jakin dot orko irakastetxe (colegio) batera zabiltzenai asarre egiten dautsuela zeuen artean euskeraz itz egiten dozuelako, zigortau (castigau) be bai orrexegaitik, eta beiñolako erestun edo *anillo* madankatu lotsagarria ipiñi dautsuela irakastetxe orretako lekaide (praille) frantzitarrak; eta ori dala ta, bildurrez, kaleetan be erdera itz egin bearean aurkitzen zariela.

Ba, neuk diñotsuet, erestun edo *anillo* ori jaurtiteko errekkara, emoten dautsuen bakotxean; eta augaitik zigorren bat (castigoren bat) agintzen badautsue, ez daizuela bete; jarki edo *plantau* zaitezue gogor, gogor gero!

Galdetu egiezue frantzitar praille orrei ia zer deritxoen alemanak Frantzian sartuta zigorra emongo baleutsie frantzitarrak frantzes itz egiten dabelako, ia zer erantzuten dautsuen orduan.

Seguru erantzungo dautsue, ori txarto egiña izango litzakela, frantzitarrak frantzes itz egiten laga bear jakela.

Orixe jagok polito, eurentzako lege bat eta zuentzako beste bat; eurak nasai euren izkera erabilteko, ta zuei galerazo zeuena erabilten. Ez dozue igarten argi-argi zelako okerra dagoan or?

Jarki edo plantau ba, mutiltxuok; bota errekkara anillo ori, ta euskeraz itz egitegaitiko zigorrik ez artu ezetara be.

Eta zeuen gurasoak badiñotsue beste gauzarik onetan, esaiozue: «Zeuk erakutsi daustazu ba euskeraz itz egiten, zeure burua zigortau (castigau) egizu lenengo».

* * *

Queiporen aginduen aurka jagi diran euskaldunei. Orra nun argitu jakun Queipo pilla bat, benetakoa bailo askozaz kaltegarriagoak gure euskerearentzako. Queipori ekin dautsogu zintzo; ekin dagioegun zintzoago Oñatiko mutil-irakasle orrei.

1916-III-3



Euskaldun abadeak, zain!

Irakurri dozue atzo emen erderaz argitalduriko jazopena, Alonso Rodríguez deunaren bizitzakoa?

Jakingarria da ba.

Mallorcan, josulagun (jesuita)-etxe bateko atezaiña zan Alonso Rodríguez. Eleizeak edo Doibatzak, geroago, deuntzat ezagutu ta iragarri dau; baiña bera bizi zala be, deun ereisten eutsoen ezagutzen eben guztiak, ain zan ona, apala, zeatza ta jaumaitasunez betea.

Josulagun etxe artako nagusia zan Rico-tar Jaime aba, gizon ona, arteza, jakintsua, ta itzegikari bikaiña. Valenciatarra zan, eta beraz, Mallorkatarren ele edo izkerea ba ekian; jakiña da ba, Valenciako ta Mallorkako ta Kataluñako biztanleak euren izkeran alde gitxi daukela, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak eta naparrak dogun aldea lez orrenbaten.

Bein jazo zan ba Rico aba joatea itzeikizun edo sermoia egitera Palmako eleiza batera. Alonso Rodríguez deunak lagun egin eutson; eta txonitz-toki (kulpito)-ko mailletan jesarrita egon zan, txonitza edo sermoia izan zan artean.

Amaitu zanean au, iru *Agur Miren*-ak esan ebazan sermolariak erriagaz batera; ta Alonso deuna be jarki zan belauniko mailletan, eta orduan-txe eldu jakozan oni argi-argi itz oneek Donokitik (zerutik) lez:

—*Ire nagusiak sermoi au Purgatorioan ordainduko jok.*

Au entzunik arrituta geratu zan deuna. Ulertu eziñik ebillen zegaitik izan leitekean, bere nagusia josulagun eta gizon guztiz ontzat eukan ba, ta ganera, orduko sermoiar guztizko ederra ta zuzena eretxi eutson. Zer ete zan ba?

Ekin ta ekin igarri eban azkenean zegaitia; bere nagusiak gazteleraz egin eban sermoia entzuleak izanik gazteleraz ez ekienak mallorkeraz baiño. Ortze egoan untzea.

Deunak jakin erazo eutson nagusiar eleiza edo txadonan jazo zana; ta onek, igarririk ondo Jaunak esan gura eutsona, ordutik aurrera ez eban txonitzik (sermoirik) egin gazteleraz alde artan, beti bertako biztanleen elez.

Zer deritxozue jazokunari? Ba dauko irakaskizuna, ezta? Zelan be daukon! Batez be emen gure Euskalerrian. Ba dira emen abadeak eta prailleak euskaldunei Uzkuertz (Erlejiño) arazoak erderaz irakasten dautsiezana; batzuk ekanduz, beste batzuk nagiz euskeraz egiteko; beste batzuk

norbaiti errian atsegin emotearren; beste batzuk uste dabelako euskerea *bizkaitarristen* gauzaren bat dala ta sua emon bear jakola orregaitik...

Jazokun orretan Jaunak adierazo eban bere deun Alonso Rodríguez bidez erriari Uzkuertz irakatsi bear jakola bere elez edo izkeraz, ta adierazo eban bere abotsez, argi ta garbi, ezetariko ezberrik edo dudarik ez izateko eraz.

Jaunak berberak gizonai emon dauskun zentzunaz irakatsi dausku bere Gurea: iñori adierazo gura badautsogu ezer, batez be Donokirako bidea, adierazo dagiogula berak ulertuko dauan eraz, esan dagiogula bere elez, ostantzean alperrik da ba ta...

Baiña, zoritxarrez, gizonaren argaltasuna bide dala, zentzunaren esanari etxako sarritan jaramonik egiten, eta orra gure Jaun ona dator bere abotsez guri irakastera zentzunetik jakin bear genduana.

Gizonak a... arduraz ibilli zaitezte, zain gero zer egiten dozuen, ez da txantxa ta.

1916-III-8



Guztia da abertzaletasunik eza

Ugutaldian (bateoan) umeei izena euskeraz ezarri al izateko eskubidea daukogu. Berau irabazteko, amaika buruauste ta atsekabe jasan bear izan genduzan abertzaleak! eta, amaika gauza entzun bear izan genduzan eleiaz geure nagusiak ziranakandik!

Ibilli ta ibilli baiña, iruntsi-alak iruntsita, bear dan lekura jota, jaretxi genduan eskubide ori, ludi guztian beste erri bakar bati iñoz atxakiatu etxakon eskubidea.

Guredea izan zan polita Eusko Alderdi Jeltzaleentzat, eta abertzaleak poz-pozik gelditu giñan.

Eta bereala asi ziran abertzaleak batean-bestean eskubide ori erabilten, umeei euskeraz izena ezarten, bere abizenetan lez bere izenetan be euskalduna dala erakutsi dagien beti.

Euskal izenak ipinteko abiada ta su au ikusita, uste genduan, urte gitxi barru, abertzaleen ume guztiak euskal izendunak izango zirala.

Ez da olan jazo, orraitioño. Asko dira abertzaleak ekandu zuzen eta bide-bidezko ori darabilenak, baiña geiago dira erdereari jarraitzen dau-tsoenak izen-ezartze orretan, lenagoko bidean dabiltzanak.

Zegaitik? Gauza askogaitik: lotsea, bildurra, prakarik eza, ta geien-geien abertzaletasunik eza. Esan daigun onantxe biribil-biribil!

Benetan abertzalea danak, aberria zer dan dakianak eta biotzez maite dauanak, gure aberri ele euskera eder onen maitale zintzo izan bear; eta ezer maite izaten danean beragana joten da iñori ta ezeri begiratu barik.

Barritsuak eta zentzunbakoak au ta ori ta bestea esango dabela? Maitaleari orregaitik ez dautso ardura, iñoren esamesak gorabera joko dau maiteagana.

Etxean emazteak, edo amagiñarrabak, edo izekoak, edo oneetariko beste edonok euskal izenari, euskereari, eragozpenak bidean ipinten dautsozala? Aberria, ta beraz, euskerea, benetan maite badagi, ez dabe alden-duko bide zuzenetik; eta garratz jarten bajakoz atsook, atarako ditu prakak erdira, ta esango dau bere etxean bera dala nagusi, Jaungoikoak agintzen dauan lez.

Euskal izena umeari ipiñiko leuskioela ta, ez ipiñi barritsuaren esamesakaitik edo sendiko (familiako) emakumeen ezagaitik... asketsi dagistela, baiña ez daukodaz abertzaletzat, aberri maitaletzat.

Erantzungo dabe abertzaleak ba dirala, baiña gizon baketsuak edo otzak dirala; batzuetan auzoko bakeari ta etxeko bakeari be begiratu bear jakola; gauzak ezin leikezala eroan gogorkeriz beti; ta abar.

Orra ba, maitetasunik gizona aldatzen dau: epela bada berotu, kol-darra bada azarritu, nagia bada bizkortu, alperra bada beargindu, txarra bada ondu. Maitetasunik gizonari eragiten dautsoz egintzarik andienak, siñestu be ezin leikezanak.

Euskerea maite dauanak, euskereaganako maitetasuna benetan dauanak, bere auzokoen eta bere etxekoaren eragozpenen goitik eroango dau euskerea. Ori eskier.

Egiten ez dauanak ez dau asko maite euskerea, ta beraz ez dau asko maite aberria, ez da abertzalea.

Guztia da abertzaletasunik eza.

1916-III-29



Gora «Euskal-Esnalea»!

Atzo emon euskun eguna ederra izan zan benetan.

Goizean, Meza entzunda gero, Joan giñean «Campos Eliseos» antzokira, gogoia poz-pozik genduala, geure ele maitearen aintzaz egiteko ziran izkaldiak entzuteko asmoz.

Ara baiño len, bidean, Bidebarrietako ukondoan artu genduan lenengo poza. Antxe aurkitu genduzan abade bi ta josulagun bi, oneetarik bata Lande-tar Kepa zuberotar ospatsua.

Eldu giñean antzokira, ta arik laster asi zan batzarra. Kanpion jaunak irakurri eban itzeikizun bat, Queiporen elez, baiña zelan? Euskerearen aldezkuntza ederragorik ezin entzun leike; ta irakurri be ain ederto eze, berari begiratu ezik, ezin eikean siñestu irakurten egoanik, buruz itzeiketetan baiño. Kanpion maisua da, ta maisua lez agertu jakun.

Onen urrengo aurreratu zan Azkue abade jauna. Bizkaiaeuskeraz irakurri eban idazki mamintsu bat, bertan esanik, beste gauza eder askoren artean, gure alegin guztiak euskerearen alde, bearbada, alperrik izango dirala, ikastolak sortzen ez badoguz; ta onetarako bear-bearra dala ainbat lenen irastea elezaingo edo *academia*.

Irugarrena batzarrean Muxika-tar Gergori izan zan. Onek ez eban irakurri, itz egin eban. Gipuzkera garbiz itz egin arren, an gengoan guztiok ederto ulertu geuntson. Eta zein oldozpen sakon politak esan ebazan berak! Askok itandu euskuen arratsaldean: «Nor izan da irugarren itz egin dauan gaztea?» Erantzuten geuntsen: «Zer ba, atsegin izan al jatzue?» Eta danak iñoen: «Ederto itz egin dau, ta ondo ulertu dautsogu! Luzaroago be pozik adi egongo gintzakiozan berari».

Urten zan gero iruditokira «Orfeón Euskeria», ta abestu ebazan «Kaiku esnea» ta «Goizeko izarra» berak dakian lez.

Azkenez Larreta jaunak irakurri ebazan erderaz ta euskeraz batzarrean arturiko erabagiak, Diputaziñoei, Ayuntamentuei, izparringiei ta Eleiza-agintariei egiten jakezan eskariak, ain gatz andiagaz eze, itzeikizun bati bai-zen atsegin andigaz egon gintzakiozan berari entzuten. Berandu zan baiña (ordu batak urrean), pozarren eta barru-barrutik barreka gengoan. Nor Larreta jauna lakorik areek lako eskariak alako gatzaz irakurteko?

Txalo andiak jo geuntsezan danai, ta an egon ziran guztiak ziñez goraltzen eben goizeko jai.

* * *

Arratsaldean, iru ta erdietan eldu giñean antzokira, eibartar mordo galanta lagun genduala, ta laster jesarri giñean geure leketan, jaso eben estalgia, ta agertu zan Bilbaoko «Sociedad Coral»; abesau ebazan lau eusko abesti, guztiz ederto, ta txaloak joaz eragin geuntson barriro abes-tutzea lautarik bata.

Oneek alde egin ta irakurri ebazan euren lanak Etxegarai eta Agirre jaunek. Biok dira gorengoak idazten eta euskerea sakonetik jakiten, eta alan erakutsi eben. Zein gauza ederrak entzun genduzan Etxegarai jaunagandik! Eta, Agirre-tar Domeka jaun idazle entzute andiduna? Arratsalde guztian, ao batez, esaten eben antzokian egozanak, abade jaun onen itzeikizuna edertasun eredua izan zala. Batek esan eustan, ia ezin eitekezan euki euron eta goizekoen itzeikizunak, astiro ta nasai irakurteko ta ausnarean artzeko; ta euskaldunenak erderaz ipiñi, euskotar erdaldunak edo euskaldun motzak be jakin dagiezan irakaste ain ederrak.

Gero, «Doillorra» ikusi genduan. Mutillak! gauza itzela da gero antzezki au. Doillorkeriarri edo zekenkeriarri gorrotoa artzeko ez da besterik bear. Grilla gaizto au, ainbeste ta ainbeste gaiztakeriren iturria dana, ederto iruditu dau Elizondok; eta beragaz irakaskizuna emon entzuleei. Onetariko antzezkiak beti datoz ondo, jendeak ikasi dagian esku-zabalekoa izaten eta ez diruari gorputz eta arima josita.

Antzezlariak ikaratu ginduezan. Ez genduan uste izango euskeraz ain ederto antzezki bat iruditu leikeanik. Altzaga-tar Toribi jaunaren gurendea izan da atzokoa, bada bere ikasleak dira «Doillorra» iruditu ebanak. Neskatilla bi urteten dira, eta biak dira edozein erdaldun antzezlari-aren aldean jartekoak; amaika barre eragin euskun mirabe egiten ebanak bere gatz andiaz gauzak esateko. Gizonezkoak be ez gitxiago. Agure doillora egin ebanak ikaratuta itxi ginduzan, biotzeko miñagaz eriotza itzela iruditu ebanen; benetan izan zala esan eikean.

* * *

«Euskal-Esnalea»ren bidez atzoko eguna euskeraz bete-betea igaro genduan. Muta esker eurari. Sarriago etorri bear leukie. Ondo pozik artuko geunkez.

1916-IV-3



Umeentzako ipuintxuak Manta zarra

Gudatea zan, eta baserri batean gudari talde aundi bat sartuta, eska-tu eben gizon bat eurei bideak erakusteko. Alogereko beargin gixajo bat izentau eben. Otz aundia egoan, edurra zara-zara jausten zan, eta aize otza indartsu etorren. Agaitik gizon arek manta bat eskatu eban, baiña iñok ez eutson emoten.

Orraitiño agure bat errukitu jakon, eta aldean eukan mantazarra emon eutson; errementari txiro bat zan agure ori, erbestetik gudearen igesi etorria, ta lan eginda nekez bizi zana.

Beroni eskerrak eginda gero, joan zan bide-erakuslea gudariakaz.

Arratsaldea eldu zanean, zaldizko ofiziale gazte ta dotore bat gala-pan sartu zan baserrian; apaindo-apaindo jantzita egoan, paparrean eukan sari-gurutz eder bat. Guztiak ikaratu ziran itandu ebanean ofiziale arek ia nun zan agurea, bide-erakusleari manta zarra itxi eutsona.

Errementari zarrak pozezko deadar bat egin eban ofizialea ikusita.

—Ai ene Jainkoa, Endika neure semea da ba ta!

Auxe esanda, joan zan arin gazteagana, ta maitero estutu eban bere besoetan.

Urte batzuk lenago Endikak gudari joan bearra izan eban, eta ofi-ziale izatera eldu zan, mutil esaneko, beargin eta bildurbakoa zalako.

Gudari joan zan ezkerro, ez eban izan aitaren barririk; errementari-maisua zan bere aita uri andi batean, eta berau itxi eban gudeak txiro ta lan barik, eta beste toki batera alde egin bear. Bere semeak bereala ezagu-tu eban aitaren manta zarra bide-erakuslearen sorbaldetan, eta berone-gandik jakin eban bere aita baserri aretan bizi zala, apal-apalik bere lana-gaz.

Aita-semeok alkarri laztanka pozez negar egiten eben, eta aurrean egozan guztiei be malkoak agertu jakezan. Endikak gau guztia aitagaz emon eban eguna zabaldu arte. Orduan agur egin eutson, diru kopuru gogor bat berari emonda, ta aurrerantzean be lagunduko utsola aginduta.

Baserriko biztanleak igarri eben Jaunaren eskua ibilli zala jazokun aretan, eta alkarri esaten eutsoen:

—Agure ori, iñoren erruki izan dalako, Jaungoikoak erruki izan dau, ta bere semeagaz batu dau, onek atara dauala bere bizikera larritik.

Beartsuari lagun
egiten badautsazu,
Jaunagandik ordaiña
beti artuko dozu.

* * *

Orra or, B-tar P. adiskidea, lengoan emon zeustazan erdal ipuiñeta-rik bata euskeralduta.

Eredutzat ipinten dot emen. Zer deritxozue? Euskera ori mordoi-loago ipiñi, ulergarriago izan daiten? Esakerak laburrago ipiñi, dagozan baiño ebagiago, umeak neke gitxi artu dagien aditzen?

Irakaskintzan adituak diranak edo arazo orreri zelanbait urreratuta dagozanak ondo egingo leukie zeozer esanaz.

B-tar P-k diño, ta egiz, ez daukogula euskeraz umeentzako irakur-gairik, edozein erderatan ainbat eta ainbat idaztiño dagozala egoki-ego-kiak, lau-lauak, errazak, umeentzako. Guraso batek bere umei euskeraz irakurri erazo gura badautse, ez dauko zer ipiñi euren eskuetan. Bardin ikastolan.

Auxe da lan bat askoren artean agudo egin bear doguna. Gai aune-tzaz itz egin genduan lengoan B-tar P-k eta biok; berak ekarri eustazan neuk ikusteko erderazko ipuintxo labur-errazak, umeentzakoak; eta otu jat euretatik bata euskeraldu arduraz, ta ementxe argitaldu, ia beroni zer deritxoen irakaskintzaz arduratzen diranak.

1916-V-24



Zer deritxozue?

Gaur argitaltzen dogun Zumaiako idazkian Emengua-k diñoana irakurrita, egia esateko ez dot egin purrustadarik maiko papel guztiak aidean jasota, ez dot ukabillaz maia jo, ez naz jagi ta gelan ibilli batera ta bestera ukabillak estututa erdaldunen aurka txakurrenak esaten, ez... zetako? Ori lako jazoerak edonun eta edonoz izaten dira emen gure Euskalerrian.

Okotzagaz paparra jota kokotea luze-luze dodala jarri naz geldigeldi apur baten oldozketan, eta ara zer erabagi dodan: Ondo deritxot Emengua-k Diputaziño, Udal, Euskal-Esnalea, Batzoki ta edozetariko euskaldun guztierei egiten dautsen deiari; baiña orreek erantzungo daberen arte itxaroten egon barik, asi gaitez gaur-gaurtik auxe egiten:

Tranbi, tren, denda, ta alde guztietan euskeraz egin daigun.

Tira... alde guztietan ez. Zeuk bear-bearra dozunaren billa bazoaz idaztola edo ofizina batera, ta euskeraz egiten badozu, ez dautsue jaramonik egingo, ta zeuk galdu; norberak galtzeko tokian, azeri izan, eta erderaz itz egin, bear izan ezker. Baiña ostantzean? Ekin geureari, ta gogait eragin!

Eta egiteko au ez daioegun eskatu baserritar gixajoei; au geuk egin bear dogu kaleetan bizi garanok, bibote erre bat ezpanganean darabilgunok, *txarolezko* arkondarea janzen dogunok, eta erderaz itz egiten daki-gunok... geuk arerio arei aurre emon bear dautsegu lenen.

Bar edo garardotegi batera sartu, ta otseñak:

—¿Qué desea el señor?

Pitxer bete garardao ekarrrik.

—No comprendo el dialeto.

—*Ikasi ba, astoko, ikasi.*

Ta ikurka edo kiñuka edo aitu erazo, ta ezin bada, alde egin, mustur-musturrera irribarre gozoa eginda. Tranbian:

—¿A dónde?

—*Onako tokira.*

—¿Que le digo que aonde!

—*Onako tokira!!!*

Orra or antzokira joan barik komedia polita ikusteko area.

Dendetan be bardin, eta leku guztietan, norbere kalterik izan ez leikenetan, euskeraz dana erantzun, ta txibitea erabilli. Onetaraxe asten bagara euskaltzale guztiok, urte gitxi barru igarriko jako.

Zer deritxozue asmo oni?

Gaur bertan asi be gero, lagunak; ez biarko itxi.

Erderearen ordaiña

—Zeregin asko daukozu, Kirikiño?

—Naikoa. Zer dala ta diñostazu ori ba?

—Gaurko «Egunekua», Naparratiko izparrak, irakurri dot, eta ulertu be bai, bizkaitarra nazan arren; baiña bertako izpar bat orraitu guztiz argi jakin gura neuke, zerbait illuntxo gelditu jat eta. Zeugana nator orretarako, ta zeregin asko ez badozu...

—Esaizu ba, o gizon.

—Orra ba: Izpar orretan diño Iruña Goterkiko jaupariak alegiñetan dabiltzala euren urteko neke-saria jaso dagioela jaristeko, ba oraingo sari ori ez dala naikoa bizi izateko.

—Bai ba. Asko dira urtean anei laurleko baiño gitxiago daukenak Laterriagandik, eta gaur egunean, nor bizi ain gitxigaz?

—Jaupari edo abade orreek dira «parroco»ak eta «coadjutore»ak, ezta?

—Bai, txauburuak eta txauburu lagunak. Eta eskatu dabe urte-saririk edo «sueldo»rik ez dadilla izan milla laurleko baiño gitxiagokoa, ta Laterriak sari guztierei egin oi dautsen autsikia edo «descuento»a ez dagioela egin abadeen sari argalai.

—Baiña izpar onen azkenean dago niri dart egin daustana. Ara, oneexek ebakuntxu biok, oneexek bizkaieraz esaistazuz, arren.

—Entzuizu ba:

«Erribera ta Iruña aldeko jaupariak dabiltz arazo onetan, euskaldunak ez dira bizi ba ain estu ta larri.

Euskaldun erriak naikoa polito laguntzen dautsie euren abadeei; baiña erdaldundu diranak gosez ilten uzten dautsie. Zer tximist-arrario ez dakar erdera orrek?»

—Ai ai! Orduan euskeraz itz egiten dan errietan abadeak obeto begiratuak dirala, ez dauzala goseak ilten, erriak maite dauzala; eta oster, erderaz egiten dan errietan abadeak larri dabiltzala.

—Orix! diño Izperkariak, eta arek ondo daki.

—Orduan, Kirikiño, nora begira dagoz erderea zabaltzen eta euskerrea lurperatzen alegiñetan dabilzan abadeak? Bururik ba dabe? Ori egiñaz, Uzkurtzari ta Aberriari egiten dautsien kalteaz gañera, euren buruen kalte dabiltz ba ta!



—Zuzen diñozu, itsukeri andiagorik ez dago. Ondo argi dagoana da gure euskalerrira «erdereak» ekarri dauzala «eleizarako oztasuna, biraoa, itz zikiña, ekandu loia», ta beste ainbat gaitz, ba gaitz guzti orreek dauke «erderearen» ikurtz edo marka; eta alan be, abade asko gaitz-bidea dan «erdera» ori sartzeko su ta gar dabiltz.

Eta gero, bein «erdera» kutun ori jabe ta nagusi egin daitenean... bere adiskide abadeentzako «gosea» ta ikusi-eziña.

—Jaungoikoak makilla barik joten dauala esareta da.

—Ta egi andia. Igarriko ete dabe, Kirikiño, nozbait zetan diñarduen?

—Igarrita be asko ez dira ikaratuko, ta euren lan gaizto orreri utzi bez.

—Jakiñen ganera gatxa egiten ete dabe ba?

—Antzak alan dira.

1916-IX-6

Aramaioko eleiztarak Dagokionak ardurea artu bei

Iru edo lau egun dala eldu jatan Aramaiotik idazki bat, bertako aberztale batek egiña, ta bertako Jel-Buru batzarrak bidaltzeko baimena emonda.

Idazki au osorik argitatzeko ez bai egon naz, arrastadatxu garratz batzuk daukozalako, ta eurok ikusita batek baiño geiagok ortixek astea eukiko eban idazkigilleen aurka jarteko. Auxe tamala izango zan, egiaren eta zuzenaren jabe dana txartzat botatea, bere berotasunean bear dan baiño zeozer geiago esan daualako.

Orregaitik, azkenean erabagi dot, idazki orren guna edo barrua ementxe argitatzea, garrazkerituak barik; eta bide batez, dei egitea emendik (dei au ezetako gauza bada) gure artean Kristoren artaldea zaintzeko egikizuna dabenai.

Ara: Deun Sebasten ziñoparen bederatziurrena orain arte beti euskeraz egin da, igazko urtean be bai; eta aurten erderaz egin dala. Zegaitik au, aramaioarrak izanik igaz aiñako euskaldunak? Ba, ez da bestegaitik ango txaunburu edo parrokoa ezker dagoalako bertako abertzaleakaz, oneek diñoenez; eta erea nundik arrapauko ibilli oi dala euri min emoteko, ta ortixek, euskeratik ekiten dautso.

Eta ango abertzaleak idatzi dabe ona, ba dakiela txaunburuaren zeresanik euki ezker, Jaupalburu edo Artziprestigana jo bear dabela, ta onen bidez, Gotzailleagana; baiña bide ori jakin arren, eurentzako alpe-rrik dala, ez dabela asi be egin gura bertatik; «ez dago berak (Jaupalburuak) Gatzagako txadonan zer egin eban ikusi baiño txonitz batean...» Auxe diño. Ez dakigu Gatzagako orrek egin ebana; baiña igarten da euskerearen arerioa dala, nazionalisten arerioa dalako.

Eta diño, ona joten dabela ta emendik eskatzen dautsoela Gotzailleari, bear dan begiratasun guztiaz, alde artu daijala arazo artan, eta agindu daijala Aramaioko euskaldunei (erri guztia) euskeraz egin daioezala eleizan latiñez egin bear ez diran egikizunak, auxe dalako zuzentasuna ta beartasuna.

Orra or Aramaioko idazkiak diñoana.

Dei egiten dautsegu Kristoren arditxuak zaintzeko bearkuna dabenai, Jaungoikoarren euskaldunei ez daioela egin euskeraz egin-ezaz egiten dautsien okerra.



Euki beie gogoan euskaldunak gaizkatzeko be gure Jaun ona il zala gurutzean eta bere odol eder-ederra jarion eballa.

Irakatsi beioe euskaldunei be Gorako bidea eurak dakien eta darabilen eta poz-pozik aitzen daben euskeraz, gurasoakandik etorri jakun elez.

Asian, Afrikan, Ozeanian, ludiko toki guzti-guztietan biztanleei euren elez edo berbetaz irakasten jake Kristoren Izparra, Doibatz edo Eleiza Deunaren asieratik, Jaungoikoak alantxe gura daualako. Kristoren Belduak (Apostoluak), Goteunaren arnasea artuta Apaltokitik urten ziranean edozein eletan itz egiteko eskerra edo gaia euken. Alatz edo milagro au, zetarako egin eban Jaunak, erri bakotxari bere elez Goizparra (Ebanjelioa) eroan egioen baiño?

Beraz, Jaungoikoak gura dau erri bakotxari bere elez emotea bere Barri: erri guztiei, euskaldunei be bai.

Euskaldunei euskeraz, eurek aitu leikien eraz, Jaunaren Barri emon gura ez dautsenak, ez dau ondo betetan bere egin-bearra.

Euskalerrian jazoten dana ikaragarria da. Lenago, antziña, euskeraz irakasten eben abadeak Uzkurtza (Erlejiño); orain, eurentariko batzuk euskerea dauke «nazionalisten» gauzatzat, eta oneen arerioak badira politikan, euskereari ta nazionalistai kalte egitearren, erderaz ekiten dabe eleizan, Uzkurtza errian galduko dan ardura barik, itsututa dabiltzalako politikeaz.

1917-1-23

Itxasaldeko irakurleei

Gaur zuekana nator, zuek erraz egin al dozuen gauza baten eske.

Ara:

Emengo Itxaso Agintari nagusiak (comandante de Marina) asmo bat dauko polita, ta berau da Bilbaoko ta enparau Bizkaiko Itxaso Agintaritzako etxeetan ipintea euskeraz ta erderaz idatzi esakun zarrak (errefraknak), itxasoari dagokiozanak.

Aizea nundik datorren eta indartsu ala makal, odeiak zelakoak eta zeruaren zein aldetan agertzen diran, itxasoak zein margo darakusan, ugiñak edo olatuak zelan datozan, itxas-txorien ibillerak, eta beste gauza asko onelakoak; jakinbideak izaten dira atzean etorriko dan eguraldia igarteko, ta jakinbide oneek eukiten dabez esakun zar edo esaeretan sartuta, errazago ikastearren eta obeto gomutatzearren.

Ni ez naz itxasaldekoa mendikoa baiño, ta augaitik ez dakidaz esakun orreek; bestelan ementxe bat ipiñiko neuskizue adibidetzat. Edoze lan be, ulertu daustazuela ta nago. Emen Bilbaon lengo zarrak esaten eben: «Kirru-laiñoak ikusi badaizuz zeruan goi-goi Pagatzarri aldetik, iru egun barru euria dozu».

Oreexen antzeko esakunak dira ba esan gura dodazanak, baiña itxasoari ta itxasoko lan edo bearrari dagokiozanak.

Oreexek ipiñi gura dauz ba emengo Itxaso Agintari nagusiak, euskeraz ta erderaz, itxastarrak sartu-urten-bear andia dauken Itxaso Agintaritzako etxeetan, orretara galdu ez daitezcan eta zabaldu daitezcan, esakun orreek ba guztizko onuratsuak dira itxastarrentzat, batez be arrantzaleentzat.

Olantxe ipinteko batu gura dauz esakunok, eta bere aldetik etorri jatan lengo egun baten abertzale zaldun ezagun bat; esan neutson neuk ez dakidazala, baiña Bizkaiko itxasaldean eurrez irakurten dan lez izparringi au ta abertzale ta euskaltzale zinto-zintzoak eurrez diran lez, neuk dei egingo neutsula ta uste nebala erantzungo euskuela, euskerearen eta itxastarren aldezko arazo onetan.

Beraz, gu abertzaleokana jo daben ezkeron onetarako, bete daiogun guraria Itxaso Agintari orri; bestelan esango leuke zelakoak garan euskeraz-alde onelako gauza erraz baten ez laguntzeko.

Bialduko daustazue ba esakunak, ugari izan bear dabenak Ondarroat, Lekeitio, Elantxobe ta Bermio lako erri, arrantzalea ain ugari dane-



tan. Eurokaz barriketaldi batzuk egin ezkerro, laster batu lei esakun txortea, onetariko esakunak ba bizi-bizirik eukiten dabez gogoan, naiz arrantzaleak naiz baserritarrak, eta biziago eskolabakoak edo eskola gitxidunak diranean.

Bialdu egizuez, ta txorta-txortaka berbialduko dautsoguz Itxaso Agintariari, bide batez esker ona erakutsirik berari gure euskereari ta gure erriari arazo onezaz egiten dautsen ariguriagaitik.

Gure irakurle guztiak be jakin daiezan, ementxe be argitalduko doguz, nundikoak diran adierazorik.

Nik or gorago Bizkaiko erriak bakarrik aitatu dodaz, baiña Gipuzkoako itxas-urietan daukoguzan irakurle jatorrak be bialdu leikiguz esakunak; baita itxasaldetarra izan ez arren iñok badaki orrelako esakunik, bialdu bei.

Nok daki? Bizkaiko Itxaso Agintariak egin dauana jakinda, izan leike Gipuzkoakoa be asmo orretan sartzea.

Ia ba, irakurleak, ortxe zarie ba. Eskier nago ez nozuela lotsatuta utziko.

1917-II-17

Itxas-esakun zarrak

Otsaillaren 17an deia egin genduan, eskaturik itxasaldeko irakurleei, billatu eiezala itxasoari jagokozan esakun zarrak; eta esaten genduan zetarako gura genduzan.

Orain arte bidaldu dauskuez: 15 esakun Lekeitiotik Valdes-Goikoe-txea-tar Alexanderrek; bat Gatikatik Errizalek; eta 21 Ondarroatik Solabarrietak, eta onek ekarririko geienak Aramaiok be bai atzalben egokia eurei ipiñirik.

Beste itxas-errietatik ez dogu ezer artu ondiño; uste dogu orraitino batenbat ibilliko dala biltzen, eta pillotxua egin daianean igorriko dauskuzala.

Artu doguzanak argitalduko doguz ementxe, ta geroago bardin egingo da artuko doguzanakaz... artzen badoguz.

Eta eurok, erderalduta gero, bidalduko dautsoguz emengo Itxaso Agintariari, adierazorik berari alegiñak eginda orreexek zuzendu al izan doguzala.

Ona ba etorri jakuzan esakunok. Lenengo doaz Lekeitiotik bidalduak:

* * *

1. Atxak zuri dagozarian, eurija otzian.
2. Eguzkijak erruak, aixia kanpora. (Azkenengo itz oneek esan gura dabe atako aizea edo kanpaizea edo Norte-aizea).
3. Irategik laiñua, iparra. (Mendexa ta Lekeition dagoan Loibeko erreka bazterrari deritxo Irategi; iratza bat dago).
4. Traganarrua agiri bada, eurija asko, aizea kanpora.
5. Karraspioko olatu-ots andija, iparra seguru.
6. Izarrak kiñuka, errekaixia.
7. Ipar paltsua, noroesteko olatua zorrotza, ta beko aldia aztun, eka-txa ganian.
8. Aixia otza, «palametrua» berutz, edurra parra-parra.
9. Txorijak goitik, ekatxa betik.
10. Itxaso bare, karramarrua azal, itxasuan bagia (itxaso eragiña).
11. Laiñua mendija joten, aixe bare (aize gitxi).
12. Zerua argi, terral luze, goitik aixia, kanpaixe antza.



13. Sarri bazoiaz Artzara (kale bat), ixangozu jake zar a zartzara.

14. Lumatxetan (kale bat) besigua, geure irolan besigua.

15. Txirrijak liorretik, gose sendua atzetik.

«Txirri» orreek ei dira itxasoko txori zurizkak, emen Bilbaoko ibaian ain ugari neguan ibiltzen diranen endakoak, baiña txikitxuagoak.

* * *

Gatikako «Errizalek» bidaldu dauan esakuna da: «Arballo-ganean lanbarra, txalupean bela bakarra». Errizalek berak iñoan araiñegun itz-neurtuz, Arballo ori dala mendotz bat Matxaku (Matxixako) ta Mañua bitartean.

Esakun onek diñoanez, Arballo orren ganean lanbarra agertzen danean laster dala galernea edo aize andia, ta txalupeari bela bat bakarrik ipiñi bear jakola, alan gertuta egoteko aize bultzada bapatekoa datorrene-rako; bestelan ba, itzuli eragin leio txalupeari.

Beraz lanbar edo laiño ori ikusi ezker mendotz artan, arrantzaleak egin bear dabe txalupeari bela bakar bat itxi, ta arin etxera!, astirik galdu baga.

* * *

Bijar, Jainkoak gura badau, ta beste izpar eguneko biziren batek atze-ratuten ez badauz, argitalduko doguz Ondarroatik bidaldu dauskuezanak. Eta barrero dagioeguz eskerrak bidaltzailleei.

1917-III-2

Itxas-esakun zarrak

Gaur ipinten doguz, atzo agindu genduan lez, Ondarrutik bidaldu dauskuezanak. Lenengoz, Solabarrieta adiskideak 21 ekarri euskuzan; eta biaramonean Aramaio idazleak bidaldu euskuzan 19, baiña eurok dagoz Solabarrietaren 21etan. Orain, Aramaio egin dauana da, berak bidalduriko esakunik geienai azalpentxu bat ezarri, obeto ulertu daitezzen. Buaz aurrenengo 19 esakunok:

* * *

1. Matxakuk baldarra, jan-barra gogorra.

«Onen lenengo zatiak esan gura dau galerrena dakarrela, baiña beste zatiak darantzutso jateko egon egin bear dala» (Aramaioren oarra).

Baldarra da odei aundi baltza.

2. Otoio kapelii, arrantzaliak bela.

«Esan gura dau Otoio mendiari odeiak oratzen dautsanean, txalupak etxeruntz abiatzen dirala» (Aramaioren oarra).

Solabarrietak ekarri eban esakun au onantxe: «Otoio kapelara, mariñelak egin duela».

3. Amon gurmii, kanpaixii.

Solabarrietak: «Arnon gurmia, atako aixia».

«Gurmi» au da lauso sarratutxua, erderazko «bruma».

4. Santa kurutz mendijan gurmii, eurije.

5. Mendesta? Laster egualdi txarra.

«Este edo ekaldeko aizeari diñotsoe mendesta» (Aramaioren oarra).

Itz auxe, nire ustez, dator frantzeratik: vent d'est.

6. Matxaku motz, iparra zorrotz.

Motz orregaz esan gura da, lauso artean nekez agiri dala Matxaku.

7. Baldan laiñua, iparra.

«Zumaia aldeko utsune bati deitzen dautsoe Balda» (Aramaioren oarra).

8. Izarrak kiñulari, ego-aixii.

9. Kulixkak kantari, eurijak nagusi.

Gautxori batzuk dira kulixkak, erderazko «chorlitos».

10. Triketa-bete suroest, artaña-bete noroest.



«Au da, suroestetik aldatzen dala noroestera, ta len baiño aize gogorago ekarten dabela» (Aramaioren oarra).

Triketa da, entzun dodanez, bela edo oial txiki bat; artaiña, arteko oiala, andienaren urregokoa.

11. Muruetan lañuu, nekatuko da orekarijen orpuu.

«Esan gura dau, Muruetako mendian jarten danean laiñoa, aize zaka-rragaz laster txalupea orekan euki bearko dala, arraunari gogor tenka» (Aramaioren oarra).

Solabarrietak orpoa-ren orde besoa diño.

12. Luzurieta argi, iparra nagusi.

Orio ondoko mendi bat da Luzurieta.

13. Terrala Mixo-n, mendebala pixo.

Onantxe emon eustan Solabarrietak, eta Aramaiok idazten dau: Terral de mixo, mendebala pixo. Eta oar auxe dagi: «Terrala, goixetan ibai eta errekek dagozan tokietan egoten dan aixia da». «Mixo» ez dakigu ze arraio dan.

14. Artapeko zingirii loitu, itxasua geitu.

«Ondarroa ondoan dago zingirau , eta itxasoa bare egon arren, loitzen asten bada, ugiñak edo olatuak geroago andiagoak izaten dira» (Aramaioren oarra).

15. Egualdeko urrutiko soñuu, ego-aixii gañiin.

16. Altos Hornos-ko argii, andik etorriko jaku aixii.

17. Sarkaldian burduntzi-odeia, mendebala ta eurija.

18. Eguzki zuri, aixe edo euri.

19. Brixak luze, atako aixe.

«Esan gura dau, barruko aldetik ataruntz egualdi onagaz brixak (aizeak uretan egiten dauzan erraiak) luzeak badagoz, atako aizea etorri-dala» (Aramaioren oarra).

Emeretzi orreen ganera, Solabarrietak emon euskuzan bi geiago; eurok, itxasalderako naiz mendirako bardiñak dira; guztiz politikak, ara:

20. Edurrak juaten badira euriz, etorriko dira berriz.

21. Edurrak urtzen badira eguz, juango dira leguuz.

Beraz, euriak urtu badagiz edurrak laster dira atzera: ta egoi aizeak urtu badagiz, luzarorako doaz (leguuz edo leguaz).

1917-III-3

Izkillu ikaragarria

«Euskal-Esnalea»tik artuta atzo leku onetan argitaldu genduan irakurgai Arbelaitzek diño izparringia dala ikaragarrizko izkillu bat, indar andia daualako, ta eskatzen dau alegindu gaitetzala bat euskeraz sortzeko, baiña egunerokoa.

Irakurgai orren azken aldera itanduten dau ia zer diñogun euskeraz idazten dogunok.

Nik, lengo egun baten esan neban emen, nire ustez ondiño ez gagozala orretarako, iñoz eguna elduko dan arren.

Orain, nire esanaren zegaitia azaldu bear dot.

Eguneroko izparringiak zotz asko daukoz, uste izaten dan baiño zotz geitxuago. Agiri-agirian dagozan zotzak dira: nok idatzi, nok irakurri, nok dirua emon irasteko.

Nok idatzi. Gaur ia idazle asko dagoz, egia da; ta guztien artean, ez ete litzakez idoroko ba sei, zazpi edo zortzi, eguneroko izparringi bat betetzeko lakoak? Baietz dirudi, baiña ez dakit. Izparringi geiena idatzi bear da bederatzi-amar ordutan; bizkor ibilli bear da. Atatiko izparrak, izpar orokarrak, ariz artu bear diranak, eta gaur egunean izparringian leku andia bete dabenak, iru ordutan (goitik jota) artu ta idatzi bear dira. Euskeraz lan au ondo egingo leukienak, idoroko litzakez, baiña nekez.

Nok irakurri. Arazo au gatzagoa da askozaz be. Euskeraz len baiño geiago irakurten da, ori ezin ukatu lei, baiña ondiño gitxi eguneroko izparringi bati eutsiteko. Onetarako bearko litzakez zazpi-zortzi milla, ta nun dagoz urrik emoteko be? Zenbat ete dira izparringi onetako gure euskerrea irakurten dabenak? Bosteun bai?

Nok ipiñi dirua. Irugarren zotz au osteraz gatzagoa da beste biak baiño. Eguneroko izparringia irasteko millaka ogerleko asko bear da, ta nun bildu? nogana jo? Au, arazo latza da; Ormetsek diñoala: «Gauza gatzagorik asi ta jarraitu bere egiten da». Ta zer? Diru ori euskaldun euskaltzaleen artean, bakotzak onenbeste emonda, bildu bear, edo aberats andiren bati sakela ebagi bear; lenengoa guztiz nekeza, bigarrena nekeza goa.

Euskerazko izparringi egunorokoa irasteko, nire ustez labea ondiño oztxu dago; labea berotu daitenean, berari dagokion berotasuna jaretsi daitenean, orduan berez edo beintzat erraz agertuko dira idazleak, irakurleak eta dirudunak.



Guk orain, geure abartxuak erre ta erre, laba ori berotzen ekin bear dautsogu. Eguneroko onetan daukozue erre-leku bat, eta beste erre-leku asko asteroko edo amabosteroko euskal ingjetan: «Jaungoiko-Zale», «Euzko-Deya», «Napartarra», «Euskal-Esnalea», «Irugarren Prantziskotarra», eta abar.

Ekin ba labea berotzen gelditu baga, elduko gara ta.

1917-1V-25

Bizkai Diputaziñoaren euskal ikastolan azterketak

Urtean-urtean lez, ikastaroa ille onetan amaitzen dan ezkeru, atzo egin ziran azterketak Bilbaoko «Instituto» deritxon Ikastetxean, Bizkaiko Diputaziñoak antxiñatik daukon euskerazko ikastolan.

Maiko jarri ziran Altzaga-tar Jon eta Zubikarai-tar Perdiñanda diputaduak, eta eurakaz irakasleri biak: Azkue-tar Berbiz abade jauna eta Bustintza-tar Ebaista.

Lenengokoz azterkau ebezan bigarren urtekoak, Bustintzagaz ikastaroa erabilli dabenak; ondo adierazo eben, bai neskak eta bai mutillak, euskerea Bilbaon ikasi leikela ikasteko guramena dauanak, ba euretatik geienak naioa dakie edozeiñegaz itz egiten asteko; irakurri ta ulertu txirikillan lez egiten dabe, itz-duna dana baizen bizkor, baiña ez dagoz, jakiña, txikitatik euskalduna dan edozeiñek aiña egiteko eran.

Bigarren aldiz Azkue jaunak azterkau ebazan bere ikasleak, eta aurren euskerea ikasten asirikoak izan arren, geieneak ia gertuta dagoz laster itz egiteko moduan. Lanik asko egin dau Azkue jaunak, itxura danez! Onei euren irakaslariak irakurten eutsen euskeraz liburu batetik, eta guztia ulertzen eben; batez be, euskal izti edo gramatikan iñun diranak dakiez mutiko ta neskato koskor areek.

Azkenean Altzaga-tar Jonek itz batzuk zuzendu eutsezan ikasleei zorianak emonik euri ta eskaturik beti erabilli dagiela euskerea, danon artean kendu daigun baserriarren ustea, au da, euskerea ez dabela egiten erri txikietakoak baiño; erakutsi bear dautsegula bilbotarrak eta beste urietako semeak be ba dabela itz egiten euskeraz, eta uste oker au kendu daigunean, eutsin ez eze zabaldu be egingo dogula alde guztietatik gure euskerea, bertako Euzkadiko elea benetan izateraiño.

Azterketa orretan gauza bat bakarrik izan da illuna, gogoia zelanbait mingostuta isten izan dauskuna bertaratu giñean guztioi, eta bera da: ikasle gitxi ikustea.

Lenengo ikastarokoak amaika izan dira aurren, eta lenengokoak amazortzi inguru uste dogu bertan ikusi genduzala. Eta au ez da ezer Bilbao lako uri andi ta abertzalez beterik dagoanarentzat. Emengo gazteak erakutsi dabe bein baiño sarriago euren abertzaletasuna auteskundeetan ederto lan egiñaz; baiña arazo aretatik at, parkatu beiskue, ez dabe erakusten abertzaletasun andirik.



Eta euskotarrak ezetan be ez dau erakusten zintzoago bere abertzaletasuna euskerearen alde lan egiten baiño. Auxe, euskaltzaletasuna da bidea, abertzaletasuna benetakoa dala erakusteko. Euskerea maite ez dauan abertzalea... ez da abertzalea. Alantxe, biribil esanda.

Emen esaten doguzan gauza oneek ez dabez irakurriko, jakiña, gure abertzale erdaldunok, eta erderaz gogor egin bear jake urrengo ikastaroa eltzen danean, neguko illuntzeetan ordutxo bete emon dagien euren abendako ele garbi ta eder au ikasten, ortik zear ibilli barik barriketan, ardanzulorik ardanzulo bearbada.

Erderaz idatzi baiño gurago neuke edozer, baiña datorren udagoie-nerantz uste dot asi bear dodala orroaka ia orreek abertzale adibakook ipiñi al doguzan gure gauzai begira, eta batez be geure gauzarik ederrenari begira, euzkera garbi oni, millaka ta millaka urteetan gure asaba zarren, gure abendearen pozak, negarrak eta gañerako bizikera guztia adierazo dauan ele maite oni begira.

Ezin leike ezetara be maitatu gure abendea bere ele euskerea maitatu barik.

Euskera bako euskalerrria?... Zelako gauza barregarria!

1917-V-21

Umearen izena aitak, ez bestek

Lengo baten esan euskuen Ondarroatik iñok eskatzen dauanean bere umea euskal izenaz jarteko ugutz-liburuan, ango abadeak, ezetzik esan baga, aurrean jarten dauala espaiñeraz izena ta gero bartatz (paréntesis) artean euskeraz. Izpar au emon euskunari eskatu geuntson ori ondo jakiteko egia dan ala ez. Bik erantzun dauskue Ondarroatik egia dala esanaz; emen daukoguz idazkiak.

Ba, orretara badagoz, ume oreek ez dauke euskal izenik; euren izena da lenengoa, erderaz idatzita dagoana. Ume orren gurasoak atzipen edo engaño biribilean aurkitzen dira, euskal izendun umeak daukezalakoa dagoz. Etzan obeto, etzan garbiagoa, guraso orrei esatea: «Ez dot euskal izenik ipiñi gura», baietz esan eta gero ez ipiñi egin baiño?

Orain, ez dakigu zelan zuzendu leiken oker ori. Egiña egintzat, izango da or urrean.

Arazo onetan abade batzuk darabilen bidea ez da iñori gauza onik erakustekoa.

Aginduta dago Erromatik, lengo egunean izparringi onetan ondo argi azaldu zan lez, gurasoak gura badau, aurrean ipinteko euskeraz izena ta gero bartatz bitartean espaiñeraz (bestea zein dan adierazteko, liburua espaiñeraz dagoan ezker). Gasteizko Eleiza Boletinean argitu zan agindu ori 1911ko Lotazilla 9an, eta geroago ainbat bidar aitatu dogu abertzaleak.

Abadeak burla egiten badautsoe agindu orri, eta aginduaz batera gurasoei, zer uste izango dabe gero guraso oneek egin bear dala beste agindu askogaz be? Ez leikioe burura etorri aginduak ez dirala bete bear norberari gogoak emon ezik? «Al daianak al daiana» dala aurrenengo legea, etxake, bearbada, bururatuko?

Txikitxoan artean ereiten dan okerra beti ernetan da, beti, ta landara mardoak sortzen dira, amari edo frutu ugari ta sendoak emonik.

«Eta orretariko gauzak geuri, txikiei, egiten dauskuez» entzuten da alde askotan. «Aberatsai balitz ez leuskioez egingo, areen umei isil-isilik edozein izen ipiñiko leuskioe». «Ezagutzen doguz aberats edo andiki-umeak, Emma, Betty, Violet, eta abar izendunak; eta Miren, Luke, Edurne, ta abar izenak ipiñi gura diralako, gogait eragiten dabilz; zegaitik alde ori, batzuei bai ta besteei ez?»



Euskal izenen arerio bidebakoak zarien abadeok: Ikusizue nora doazan zeuek joka darabilzuezan gogoak!

Zuek, zetan sartu bear dozue umearen izena zein izango dan arduretan? Umea, bere aitarena da; bere aitak dauko eskubidea, jatorri legetik, bere umeari izena ipinteko; berak, eta beste ñok ez. «Kepa» izena ipintea bada bere gogo, zer dala ta sartu bear dau orretan Ondarroako abadeak ez bestek, umeari «Pedro» izena ezarririk, aitak gura ez dauala? Ondo dago, zuzen dago, izen bat ipiñi gura, ta abadeak beste bat ipintea aren ostez?

Au burla geiegi dok ia.

Euskaldun abertzaleak: gogor zaindu egizue zeuen eskubidea umearen izena ezarteko, abadeari argi-argi esaiozue ipiñi daiala euskal izena lenengo, eta urrengo (gura badau) erderazkoa marra bitartean; olantxe, ta gura ez badau, alde ume ta guzti; bere gain umea ugatzau barik gelditzea.

1917-VI-26

Egin bear dana

Aspalditxo da baserritar abertzale batek itandu eustana:

—Nik «Balase» izena dauan alabea dot; ointxe asi bear dau eskolara; ba dakit, edo beintzat alan entzun dot, irakasleak edo maistreak ez dau tsola deituko izen orregaz, izen ori erderaz biurtuta «Blasa» baiño. Onera, eskolako neskato-lagunak be Blasa deituko dautsoe, ta alperrik izango da Balase izena ipiñia. Ez al dago biderik maistra orreri eragiteko neskatoari deitu dagiola bere benetako izenaz?

Erantzun neutson neuk ez nekiala legez biderik dagoan ala ez maistreatri eragiteko; ta neuk be itanduko neutsela beste batzuei, ia guztion artean jakiten genduan.

Batzuren batzukaz itz egin dot, eta orain arte ez dot gauza garbirik atara.

Eta neu noa emen agertzera arazo orretan egin leikena, neuk banau Balase deritxon alaba bat egingo neukena, ara:

—Maistreak Blasa deituten badauna, ez eion bape erantzun, ormeari deitu baleutso lez. Orregaitik ezer esaten badauna edo agiraka egin, erantzun eion ik Balase daukonala izena, ta aitak esan daunala iñori ez erantzuteko Balase deitu ezik, eta asarrerik egin gura badau datorrela neugana; orixe erantzun, eta ez ikaratu ezegaitik, ez erantzun bein be Balase deitu ezik. Entzun don, ene alabatxu orrek? Eta ori dala ta beste barik eskua ganean ipiñiko baleuna, esaistan neuri, ta neuk belarri-aldeak berotuko jautsonadaz maistra orreri. Joan eskolara bape bildur barik, bertan beti izan esangiña ta adikorra, bear dan lotsez eta eraz ibilli ta egon beti eskolan: baiña Blasa deituten badauna, ez erantzun!!

Nik auxe egingo neuke. Iñok esango dau kirtenkeria dala ori, maistreatri belarriak berotzea; baiña kirtenkeri andiagoa da ume bat jotea ezizen bati erantzun gura ez dautsolako.

Eta untze bategaz bestea atara al izan oi dan lez, kirtenkeri bategaz bestea kendu lei ederto.

Aitatu dodan baserritarrak gure izparringia artzen dau, ta beronen bidez or dauko berak niri egindako itanduaren erantzuna. Berari buruzburu baiño gurago izan dot erantzuna emen emon, jazoera bardiñean aurkitu leitekezan beste askok be irakurri ta jakin daien.

1917-VI-29



Gernikako Jaupalburua

Jaupalburua, Arcipreste-a da gero, irakurleak, ez uste beste gauzarik.

Jaun orrek, gaurko Gernikako idazkian irakurri zeinkien lez, eta geuk egunokaz isilik egon garan arren jakin izan dogun lez, ume bat ez dau ugutzau gura, euskal izena ipiñi daiola eskatzen dautsolako umearen aitak. Jaun orrek beste izen bat ipiñi gura dautso berea ez dan gauzeari.

Eta umearen aitak, eskubidea daualako, umea etxera eroan dau, ta or dago umetxu ori bear-bearrekoa dan Ikurton edo Sacramento-a artu barik.

Nik ez dot ondo gomuta noiz izan zan, or azkenengo udagoian izan zala bakarrik gomuta dot, Ibarrangeluko abadeak be ez eban ugutzau gura izan ume bat euskal izenaz. Umearen aita ta beste batzuk (uste dot) joan ziran orduan Gasteizera Gotzain edo Obispoagana, ta onek erabagi eban eta alan idatzi eutsan Ibarrangeluko abadeari ugutzateko umea bereala, ta ipinteko berari euskal izena, aitak gura izan ezkeru, onetarako eskubidea ba eukola ta. Alantxe egin zan orduan.

Gernikako Jaupalburua, Ibarrangeluko abadearen nagusia da Eleiza-ko maillatzen, eta beraz, ondo daki orduan zer jazo zan, ondo daki orduan Gasteizko Gotzaiñak zer agindu eban; eta agindu ebanean eukiko eban bere zergaitia, ez eban egingo bere burukeriz.

Eta Gotzaiñak aginduten dauana, Gotzaiñak umeen gurasoei ezagutzen dautsen eskubidea, zelan ukatu lei Gernikako Jaupalburuak? Nori jaramon egingo dautsogu?

Eta nor da Gernikako Jaupalburua guzurak dirala esateko lengo egunean izparringi onetan argitaldu genduzan agiriak Boletinetik artuta? Guzurak areek? Ori be bai? Gero zeuri, nok siñestuko dautsu ba?

Guzur kontu ori egia bada, jaun orrek ez dau erakusten formalidade andirik. Guzurra, 1911ko Abenduko 11n Gasteizko «Boletín oficial Eclesiástico»tik arturiko agiri edo dokumento bat? Esan erraz egiten da, baiña argi ipiñi bear da esaten dana: batez be Jaupalburu edo Arcipreste batek, ba ori lako jaunak asten bajakuz orretara, danok asi bear dogu «au guzurra da ta ori guzurra da» esaten, eta ondorenak batek ba daki zeintzuk izango diran.

Ain goi jarrita dagoan gizonaren ezpanetatik ori lako itzak entzutea, ikaragarria da gero. Nok zenbatu ortik sortu ta jaioko diran kalteak kristiñau artean?

Or konponduko da jaun ori bere nagusiakaz, emen edo an.

Bitartean, euskaldunak, guk eskubidea daukogu geure umei euskal izenak ipiñi al izateko, eskubide argi-argia Enroman eta Gasteizen Doipuruak eta Gotzaiñak ezagutu dauskuena ta bear dan bidetik iragarrita; beraz, eutsin geure eskubide oni gogor ta zintzo, eskatu euskal izena ezar-tea, ta gura ez badabe, alde ume ta guzti.

Ez laga eskubidea!

1917-VII-3



Ez artu bidebako bildurrik

Lengo egun baten izketa-aldi bat egin neban lekaide jakintsu bategaz, eta gure izketa-gaia, aldatuaz ta aldatuaz, jausi zan nozbait euskal izenetara, ta neuk itandu neutson ia zer eritxon euskal izenak dirala ta ez dirala guri egiten dauskuezanak Gernikako jaupalburuak eta bera lako beste banaka batzuk.

Irribarre egin eban, eta esan eustan:

—Orrelako gauzak ementxe Euzkadin bakarrik jazoten dira, beste iñun ez.

Ara —jarraitu eban—, zuek abertzaleok asi ziñienean orain bederatziren bat urte euskal izenak ezarri al izateko eskubideen eske, arazo ori askozaz lendik erabagita egoan Erroman.

—Eta, zelan erabagita?, itandu neutson.

—Ara —erantzun eustan—, Italian erri askotan jazoten zan gurasoak bere umeei ipiñi nai izatea Doibatz-arerioen abizenak izentzat, adibidez, umeari izentzat ipiñi gura «Garibaldi» edo onakoren bat; jazo zan iñun, abadeak izen ori ipiñi gura ez izatea, eta orduan gurasoak ugutzau barik umea etxera eroatea. Auzi au erabagi bear zan arin umea egon ez zedin Ikurton edo Sakramentua artu barik; eta Erroman Doipuru edo Aita Santuak, edo bere izenean, Eleizoikun Batza Deunak (Sagrada Congregación de Ritos) erabagi eban onantxe: UMEARI IPINI BEAR JAKOLA BERE AITAK AGINTZEN DAUAN IZENA. Eta Italian asko dozuz Garibaldi lako izenak dabezanak, eta ori gorabera kristau onak diranak.

Auxe esan eustan lekaide edo praille jakintsu arek. Itandu neutson ia Gernikan jazoten danagaz zer egin leiken umearen aitak, eta esan eustan aitak eskubidea dauala umea etxera eroateko abadeak ugutzau gura ez badau aitak agintzen dautson izenaz; eta aita onek gora jo bear dauala abadeak egiten dautson okerraren zuzentza eske; bitartean euki ume ori, ta ikusiko baleu ilteko zorian, berak ugutzau etxean.

Orain diñogu guk: Goikoak zuzentza-eskari ori alde batera utzita, lo isten badabe, zer? Ume orrek «moro» egon bear dau beti ala?

* * *

Beraz, umeari ipiñi bear jako bere gurasoak gura dauan izena.

Ori ez daki Gernikako jaupalburuak? Bai, jakin ez!...

Zegaitik dabil ba orduan ugutzau gura ez ta gogait eragiten? Politikan abertzaleen aurkaria dalako, abertzaleen arerioa dalako. Orrexegaitik bakarrik.

Eta, eleizara eroan leiz, batez be Sakramentuak emoteko arazora, eleizatik atako eztabaidak?

Ez, ezin leiz eroan. Eleizan danok gara bardiñak, eleizan abadeak izan bear dau danentzako bardin: Gaztelarren umeei JUAN, frantzitarren umeei JEAN, italiarren umeei GIOVANNI ipinten jaken lez, zegaitik etxabe ipiñiko JON euskaldunen umeei, aitak gura izan ezkeror?

Gernikako jaupalburu orrek esan ei eban lengo baten eleizan: «Amaika egun baiño geiago umea ugutzau barik dauken gurasoak oben astun-astuna (pekatur) egiten dabela, ta gaiztokira (inpernura) joango dirala».

Eta guri otuten jaku itandutea: «Eta amaika egun baiño geiago ume bat ugutzau barik daukon abadeak, zelako obena egiten dau? Bere bear-kuna izanik umeari ugutz-Ikurtona (Sakramentua) ezartea eskatzen jakonean, politikako arazo txikerrakaitik ume koitauari Ikurton ori ukatzea, ez ete da ba oben astun-astunenetarikoa? Ori egiten dauanak, zabalik ete daukoz ba Donokiko bideak? Inpernua guretzat, abertzaleentzat bakarrik ete dauko ba gure Jaunak?

Euskaldunak, batez be abertzaleak, oraintxe euki bear dozue ondura andia zeuen atsoakaz.

Ba dakizue inpernua aitatu ezkeror atso guztiak ikaratuta jarten dirala, ta asten dira etxean zarataka gizonai, abadeen aurka jarri garala ta onetariko kopletan. Ba dakit Gernika aldean matraka bat baiño geiago izan dala etxeetan orrexegaitik.

Eutsin atsooi!! Ze inpernu! Ez dago inpernurik norbere eskubidea, Erroman Aita Santuak berberak ezagutu dauskun eskubidea zaintzeagaitik. Ez artu bidebako bildurrik, eta eutsin gogor geure eskubide oni.

Ipiñi euskotarrari euskal izena ardura barik!

Gernikako jaupalburuak, Iturraran-tar Joseba Domekak, eta bere antzeko beste banakaren batek ugutzau gura ez badabe umea, etxera beronegaz, ta gero urrengo maillara jo oker ori zuzentzeko.

1917-VII-18



Sasi euskotarrak? Sasi vascos

—Kaixo Kirikiño, zelan bizi gara edo...
 —Ba gabilz... eta zeu, Jospandon aspaldikoa, bizi zara orraiti...
 —Gu, beiñolako filosofoak esaten eban lez, il arte bizi.
 —Orixe da zintzo jokatzea. Eta, iru urte ta erdi onetan emendik agertu ez ta, zek ekarri zaitu ba gaur?
 —Zeugaz barriketa-aldi bat egitearren etorri naz ba.
 Asko poztuten naz. Ez dakizu zu lakoakaz itz egitea zein atsegin izaten jatan. Asi zaitetz ba.
 —Lengo egunean irakurri neban zure eguneroko arloa, ta bertan ikusi neban Unamuno edo orrek ondiño be gorrotoa dautsola gure eskerari, ezin dau eroan ba euskereak aurrera-biderantz oinkada bat egiterik.
 —Bai Jospandon, ori ta bere antzeko asko dagoz, aitu ezin leikezan gizonak. Gure gauza guztiak, baiña batez be euskereak amorrurik andienean ipinten ditu.
 —Ori, zegaitik ete da ba?
 —Nik ez dakit; baiña olantxe jazoten da. Unamunok ezin dau entzun ez eroan euskerea landu ta idatzi ta irakurri ta erabilten dala gero-ago geiago euskaldunen artean. Bera lako beste batzuk suak artuta lez jarten dira emiren baten, esaterako, pregoia euskeraz egiten dala ikusiaz. Denda ate-buru baten euskerazko idazkun bat ikusi badaie, begietatik txinpartak dariola jarten dira. Abade batek euskal errii baten bertako elez txonitza egin badaie, laster dira mar-mar, eta berari nundik eldu badauke ez dautsoe baketan utziko erderaz eragin arte. Ikaratu zaitetz, Jospandon! neuk ikusia da gero, ez iñok niri esana, eskeko batek euskeraz eskatu ta erantzun dautsoe: «Que te den los que hablan tu lengua». Ementxe Bilbaon, erdi-erdiko kale baten dagoan denda aurrean jazoa: Lagun bi izketan, batak diñotso besteari: «Aguarda, que voy a entrar aquí a comprar tal cosa», eta besteak orduan: «No entres ahí, porra, que hablan siempre vasculence», eta lenengoak au entzunik ba diño: «Entonces nada y que se amuelen». Euskaldun batek bere umeari izena ipiñi gura dautsola euskeraz, gauza bide-bidezkoa! ba, or dozuz orrexegaitik amorru baten jarten diranak, batzuk ez ipiñi gurarik izen ori eta besteak ari txaloak jorik, eurai ardura baleutse lez iñoren izenagaitik!, eurenaz ta iñorenaz agindu gura, arraiek...

—Itz baten, Kirikiño, or ikusten dana da gorroto neurribakoa gure euskerearen kaltez. Eurek egin gura ez badabe ez daiela egin, baiña iñok egin gura badau, eurei zer ardura izan bear jake?

—Orixe daukozu ba!

—Eta diñoenez, euskaldun abizendunak ei dira okerrenak.

—Okerrenak ez badira be, bai beintzat okerrenak bestekoak.

—Orixe da gauza bat nik ezetara be aitu ezin dodana. Euskaldun abizen ederra euki ta euskereari olako gorrotoa izan?

—Guzurra dirudi bai.

—Nik uste dot, orreek ez dirala benetako euskotarrak.

—Zer esan gura dozu, Jospandon?

—Erdaldunak esaten daben lez, orreek dirala «vascos de extranjis», edo guk geure ele polit onetan esango geuken lez: «sasieuskotarrak» eta Bilbaoko erderaz: «sasi-vascos».

—Zuri otuko etxatzunik, Jospandon!...

—Orrek ez dauke euskotarra euren abizena baiño. Odola ez, ezin leiteke izan, bestelan, odol piska-piska bat baleukie, ez ete leuskioe ba tirekada bat egingo, txikia izanda be?

—Bai, jakiña da, alan esaten daukue beintzat jakintsuak, gizakumeak bere asabetara joten dauala bere zaletasun eta bere izakeretan, eta ori egia bada, orreek ez daukie euskaldun zarren antzik iñundik be.

—Zelan eukiko dabe ba antzik, Kirikiño gixajo orrek, gure asabak euskeraz itz egiten izan dabela iñok ez badaki zenbat aldi edo denpora dan, jakintsuak diñoela gure ele au dala European danik zarrena, eta ori olan izanik kontuizu zenbat eta zenbat belaun edo mailla daukoguzan geure ganean asaba euskaldunetan, eta maillatza luze-luze zar-zar orrek utzi bear odolean zaletasun piskat euskerarako, ta zaletasun au zelanbait lausotzen bada be, gorrotoa bein be ezin lei agertu eunkada ta eunkada euskaldun gizaldiak bere odolean daroazanaren biotzean?

—Alantxe dirudi.

—Ez dago emen irudirik, izatea baiño. «Sasi-euskotarrak» edo emengo erderazko «sasi-vascos», ta ez besterik.

1917-VII-22



Erratzik onena

Katuari buztana
zapaldu eiozu...
astin-astin jarririk
purrust! egingutsu.

Arri bategaz joizu
buruan txakurra...
Or joak larri-larri
alarauz etxera!

Adakiaz astoa
neurtu bizkarretik...
arrantza baten doa
belarriak zutik.

Ugao (Miravalles)-ko
alkate dana be,
euskeraz egin ezkeru
jarten da astindute.

Purrustadea jaurtin
euskun lengunean,
berari ez esateko
ezer gure elean.

Alkate ori ei zan
Burgostik etorri
ta gure euskal errian
aginduten jarri.

Beti motzai euskeraz
egingo bageuntso
amurratuta geunkez
beti erabiliko.

Ta ekin eta ekin,
eleaz bakarrik,
bialduko gendukez
guztiok emendik.

Astoa adakia
txakurrai arria,
eta belarrimotzai
euskera garbia.

Euzkadi garbitzeko
ez dago erratzik
gure euskerea baiño
erratz obagorik.

Erratz au geure eskuan
daukogu, ta beraz,
lotsa puskat badogu
egin daigun euskeraz.

Ai zenbat aiñeketa
Ebrorantz orduan!
Zein pozik gu, jarririk
bidien onduan!

Orduan eingo geunke
didar biotzeti:
Gora gure euskerea!
ta Gora Euzkadi!

1917-IX-1



Euskeraz ala erderaz irakurten errazago euskaldunentzat?

Txikitatik asi ta geiago, nagusi egin arte, beti erderaz irakurri ta ikasi dauan euskalduna, erdalduna geiago izaten da euskalduna baiño. Bere gogoan sortzen jakozan oldozkun edo pentsamentuak erderaz iruditzen dauz bere barrurako, bere buruagaz erderaz itz egiten dau, baita bere ideko guztiakaz be. Onetarikoentzat, jakiña!, errazago da erderaz irakurtea. Oneexek be, orraitik, euskerea galdu ez badabe, ta zaletasun pixkategaz asten badira euskeraz irakurten, aldi gitxian barru egingo dabe zeregin ori erderaz baizen erraz. Sarritan ikusi doguna da auxe.

Ostantzeko euskaldunentzat, adiralbenik edo estudiorik egin ez dabenentzat, eta beti euskeraz diarduenentzat, errazago da euskeraz irakurtea... eurak uste izan ez arren. Auxe da gauza arrigarria: onetariko batzuk uste izaten dabe erderaz irakurri ta ulertuten dabela, ta geien-geienetan len baizen uts geratuten dira. Irakurri eragiozue onei erderaz apur baten, eta bereala itandu zer esan gura dauan itz onek edo orrek edo arek, eta ikusiko dozuez larri zer erantzun ez dakiela. Eta ostera, notin zindo ta tolesbakoak badira eretxikeri ta andipuzkeririk ez daukenak, irakurri eragiozue euskeraz, ta agiriko da zein ederto ulertuten daben. Bai ba, euren ele edo berbetan da ta! Eretxiak eta andiputzak badira, orduan ez ezer itandu, eurenai eutsitearren guzurra dariola ibilliko jatzuez ta.

Edonungo notiñak obeto ulertuten dabe euren elez erbesteko elez baiño, ezer esaten jakenean itzez naiz idatziz. Egi au ukatuten dauana... lau ankadun belarri-luze bategaz buztartu, ta bialdu solora, Lugintza edo Agriculturak irabazi daian.

Zuk, U-tar J. K. adiskide orrek zeure idazki buruan ipinten dozun itanduagaz zer-ikusirik ez dauko lugin gazbako orrek diñoanak: «Euskerea ez doa iñora be».

Ori esaten dabenai egin bear litzakioe, al balitz, erdereira irakatsi ta Extremadurara edo bialdu, ia zer egingo leukean bere erdera ta guzti. Laster litzake atzera emen goseak illik.

Esango balebe: «Ondo dator erderaz be jakitea», baietz esango geunskioe ta isilduko gintzakez; baiña «Euskerea, zetako da?» esatea, euskaldunak bere burua ukatzea da, erdaldunen buztarripean bera sartzea, gizonak egin leiken oillokeririk andiena da.

Ori esaten daben euskaldunai, geuk al dogun guztia ukatu bear geunskioe, ez adiskidetzat ez laguntzat artu ezetan be. Iñoz geure eskuan badaukogu mesede bat egiteko erea, ta mesede au artzeko bajatorku orrelako euskaldun abenda-saltzaille zikin bat eta belarrimotz bat, onexeri, belarrimotzari egin mesedea besteari baiño lenago.

Doillorari ez lekurik emon.

1917-XII-7



Jakiteko... ikasi

Gizonen artean iñor ez dago ikasi barik ezer dakianik. Zetara datozan filosofokeri oneek?

Orra ba, adi egon:

Atzo eldu jatan gizon bat, emen Bilbaoko izparringi bat eskuetan ebala, ta esan eustan:

—Gauza bat itandu bear dautsut, zeure baimenaz.

—Ia zer dan ba.

Ta izparringian egoan euskeraz jaki azalketa edo menu, araiñegun giputz-arabar-bizkaitar diputaduak alkarregaz euki eben bazkariarena, ta azalketa aretan egoan auxe: «Izokiña Chambord baziaz».

—Au, zer da? Nik ez dot aituten, neu euskalduna izanik. Izokiña, ta orren antzeko beste itz batzuk, emen dagozanak, nok jakin zertzuk diran? Euskalduna izan ta ezin aitu, gauza barregarria da. Zuk ba dakizu zertzuk diran?

—Bai, ba dakit. Izokiña, erderaz *salmón* deitzen daben arraiña da, ta itz ori erabilten ei dabe eurrez Bidaso ibarretako biztanle guztiak.

—Eta Bizkaian, zelan?

—Bizkaian ezelan bez, emen ez dagoalako orretariko arraiñik.

—Orduan zelan jakin dozu ba?

—Ikasi dodalako. Len ez nekian nik ori; bein irakurri neban, eta ez nintzan asarratu ez nekialako, bai zera!, alegindu nintzan jakiteko, ta jakin neban; eta ordutik ona darabilt neuk be, zein da neure bizi guztian jakin banau lez.

Atzo niri itanduka etorri zana, uste dot apur bat asarre egoala, erakusten ez eban arren, jaki azalketa aretan aurkitu ebazalako itz ezezagunak.

Askori jazoten jake orixe. Iñoz jarten jake begien aurrean euskerazko idazki bat; adiskideren batek diñotse: «Emen zer diño?»; ta aurkitzen dira autortu bearrean ez dakiela, ta onexek lotsatzen ditu. Bai ba, euskalduna izan txikitatik geiago, ta euskeraz zerbait esan eurei ta ezin aitu... suak artzen ditu.

Baiña ez dago ziorik orretarako. Ez gu bakarrik, espaiñeraz txikitatik geiago itz egiten dabenak be, alantxe ibiltzen dira sarritan; itz asko erderazkoak ez dabez ezagutzen, eta orduan, iztegiara jotzen dabe euren billa, edo norbaiti itanduten dautsoe; asarratu bein bez. Gure euskaldunek ez. Itz bat edo aurkitu badagie ezezaguna, ez dira joaten iztegiara, edo ez dira

iñogana joaten itanduka, ez, asarratu egiten dira, ta arro-arro esaten dabe: «Zelako euskerea da gero au? Neuk aituten ez dodazan itzak?» Eta orregezag asmoa artzen dabe ez geiago euskerarik irakurteko.

Arrokeria da ori, arrokeri tentela. Iñor ez dago ele bateko itz guztiak dakizanik; gizona, ele edo izkeretan naiz beste edozein jakinbidetan, beti dago zeozter ikasteko. Ementxe, geure euskeran jazoten da bestetara, emen eurrez daukoguz gizonak euskera guztia zeatz dakienak, ezer ikasi bear ez dabenak.

Onetariko euskaldunei jaki azalketa baten, erderaz ipiñiko neuskioe, adibidez: «Alcaparrones» eta «Bocas de la Isla».

Edozer jokatuko neuke ezetz ulertu «izokiña» baiño geiago, ta edozer jokatuko neuke ezetz asarratu eurok ulertu ezagaitik. Laster asiko litzakez oni itandu ari itandu, edo iztegiara jo jakitearren, eta bein jakin ezkerero, poz-pozik eta nasai geratuko litzakez, agin artean esanik:

—Beraz, *alcaparrones* zera dok, ederto; eta *bocas de la isla* ostera beste zera da, guztiz ederto, pozago nago!, orain beste baterako ba dakit.

Ba, orixe ez dabe egiten euskeraz. Etxeko elearentzat beti otso, erbestekoentzat beti uso.

Gizontxuak, jakiteko ikasi, ta ikasteko adi egon, eta gogo ona euki, zantar txotxoloak izan barik, eta atzo etorri jatan gizona lez egin: norbaiti itandu norberak jakin ezik.

Olantxe jakingo dozue, bestelan beti asto; jakinda iñor ez dator ludi-
ra ta.

1918-III-23



Aurrerantz euskerea

Arañegun, Donostin, «Novedades» deitzen dan aretoan itzaldi bat egin dau Urreta-tar Mikel gipuzkoar diputadu jaunak, euskeraz.

Itzaldi onen gaia izan da: «Edesti-aurrea. Leize-zuloak».

Oste andia bildu zan itzaldia entzuteran, ta adi-adi egon jakozan Urreta jaunari, ta amaieran jo eutsoezan txaloakaz erakutsi eben euren poz-atsegiña.

Urreta jaunaren itzaldi au orkada edo pausu bat da, gure euskera onek aurrerantz egin dauana.

Lenago, orain ogetabost-ogetamar urte, euskeraz gauza gitxi idazten zan eta gitxiago irakurri, ta idazten zana be ekar edo sentzillotxua. Orduantxe asi zan euskerea azalera urten nairik.

Ori ikusirik, Unamunok eta bera lako filosofo ustel ganorabako batzuk esaten euskuen: «Euskerea ez da gauza, baserritar eta arrantzale eskolabakoak darabillezan oldozkun apurtxuak azaltzeko baiño, ta ortik gora geien-geien izneurtu negartiren batzuk eta ipuin me batzuk idazteko baiño ez; oldozkun jakintsutarrak, oldozkun gogotarrak, ezin leiz azaldu euskereaz, lagaizue!»

Unamunok eta beste filosofo ustelok esan bear ebena zan: «Geuk ezin dogu euskeraz oldozkun asko azaldu, euskerea erabilten ez dakigulako». Orixe izango zan gizon zindo ta burudunen esakuna.

Eta guk, filosofoak ez garanok, erantzuten geuntsen: «Geuk be ezin doguz oldozkun orreek euskeraz azaldu, baiña ori ez da euskerearen errua, geure errua da, geuk ez dakigulako naikoa orretarako; au gorabera, guk ez dogu lagako geure-geurea dan abenda ele au, ta landu egingo dogu sendo, ta iñoz, azaldu al izango dira euskeraz beste edozein eletan azaldu leikezan oldozkun guztiak, eskier gagoz».

Eta abertzaletasunak, beragaz batera zabaldu eban euskaltzaletasuna, ta euskerea agertu zan batzarretan, antzokietan, izparringietan, erri-etxeetan, burdin-bideetan, eta abar.

Len azaltzen ez ebazan oldozkun asko ta asko azaltzen dauz aspaldion euskereak, asko landu da, askok idazten dau gaur ta askok irakurten dau.

Ba doa gorantz bere bidean. Ondiño, bai ba, bide asko dauko ibilteko; baiña ibilliko dauz.

Bide orretan orkada edo pausu bat egin dau ointxe Urreta jaunaren itzaldiaz. Ointxe lenengoz euskeraz azaldu dira Lutazalitzti (Geologia) eta Leintzakizti (Paleontología) jakintzetako gaiak, eta ez gela zulo baten, bost edo sei jakintsurentzat, ez, erri-gela edo areto aundi baten, berau notiñez beterik dagoala, ta notiñok atsegiñez entzun dabezala jakingai orreek.

Orain ogetabost urte au egingo zala esan baleuskue, zelako barredestaiñak egingo ebezan Unamunok eta bere sokakoak! Geuk be nekez siñestuko genduan.

Beste ogetabost urtean, noraiño igongo da gure euskerea? Eta beste berrogeta amar urtean?

Ordurako, Unamunoren buruak arrapau al izan dauzan oldozkuntxu guztiak txirikilan azalduko dauz euskereak, baita euron erderatxu orretan esan leikezan oldozkun guztiak be.

Filosofo usteloi jaramon barik, ekin, gizonak, euskerea lantzen bako txak al dauan aldetik, eta batez be erabilli. Onetantxe dago bidea, erabiltzan. Eleakaz jazoten da, geiago erabilliaz sendoago ta erosoagoak egiten dira.

Lan onuratsu onetan gogor diñarduelako artu beie geure zorion agurrak «Euskal Esnalea»k eta Urreta-tar Mikel jaunak.

1918-IV-9



Esakun zarrak

Oraintsu, etxe barri baten jaunak, bertako eskaratzean edo idazkunik ipinteko asmoz, eskatu eutson Mourlane-Mitxelena idazle entzutedunari zuzendu egiozala euskerazko esakun zar egoki batzuk, eta onek, urrengo ipinten dogun txortea bildu dau.

Eurotarik batzuk, ezagunak eta gaur bertan be guztiz oituak dira Bizkaiko euskaldunen artean; beste batzuk barri egiten jakuz guri bizkaitarroi beintzat. Eta danak dira bata baiño bestea politagoak.

Mourlaneri ikusi geuntsozan eurok, eta eskatu be bai, ementxe egun baten argitaltzeko, ta poz-pozik emon euskuzan. Anei esker, adiskide.

Orra esakunok:

«Haz nezak egunko aragiaz, atzoko ogiaz, eta jazko arnoaz, eta atxeterrak bihoaz» (Arnauld Oihenart).

Gure euskeraz: Azi naik gaurko okeleaz, atzoko ogiaz, ta igazko ardaoaz, ta osalariak buaz.

«Begi batez aski saltunak, ehun eztitu sobera erostunak» (Abbé Intxauspe).

Au polita da. Saltzen dagoanak begi bategaz naikoa da, ta erosi bear dauanak eun eukita be, geiegirik edo sobrarik ez.

«Arraiña eta arotza, heren egunak karazez-kanpora deragoza» (Mitzel).

«Gaitza hungi ator, bakar bahator» (Izturizkoko etxe baten dago).

«Nork bere gozoz etxaginean» (Oihenart).

«Ez jan eta ez lan» (Erriarena).

Au Bizkaian eurrez erabilli oi da.

«Garean, garena legez» (Sangis).

Lenengo itza, «garean» guk esaten dogu: «izan gaitezan».

«Milla urte igarota, ura bere bidean» (D'Etxeberri).

«Andiak andiro» (Garibai).

«Barrak bearra eragiten du» (Abbé Intxauspe).

Au be Bizkaian eurrez esaten da gaur.

«Andrea ugaria, eta gorularia» (Erriarena).

«Idi bereari, goldea» (Garibai).

«Nork bere opilari ikatza» (Erriarena).

Esakun au guk erabilli oi dogu onan: Bakotxak bere opilari sua.

«Esanok oi dira eze errege bere ogiz ase eztoa» (Garibaiena:

Baztango etxe baten ei dago).

Orreexek dira esakunok. Orreetarikoak beste asko bildu leikez; elerik geienak aberatsak izaten dira esakunetan, eta gure onek be ainbat daukoz.

Baña nik uste dot orain esakun barriak asmau bear doguzala, bearriana ba dago ta.

Esaterako, edo adibidez, euskerearen alde gogorkeri andiak dakazanari auxe erantzun:

«Beioaz itzak, betoz egintzak».

Ez al da polita, egokia, egizkoa ta bearrezkoa? Neu beintzat baieztean nago.

1918-V-22



Piperpoteak arrantzaka

Araiñegun emen piperpoteak euki eben batzarrean, euretariko batek (piperpote zimel maillatu ta utsitu batek) asarrea erakutsi eban gure Diputaziñoa bere otsein izateko euskeraz jakitea eskatzen asi dalako.

Bai ba, asarre... bide orretatik piperpoteak gelditzen diralako bazter-tuta, «hermano»ak euskerarik ez dakielako, eta jakingo bez.

Baiña zuek asarre izan arren, ez dago gauza zuzenagorik euskaldunen eta euskaldunentzako otseiñak euskeraz jakin bearra baiño.

Zamoran erri otsein izateko ipiñiko balebe espaiñeraz itz egiten ez dakian bat, zer esango zeunkie zuek? Burubakokeri bat dala. Eta egi utsa esango zeunkie.

Eta Zamoran lez, eta Bizkaian lez, burubakokeri bat izango litzake ludiko edozein aldetan ipintea erri otsein bertako elea edo izkerea ez dakian bat.

Au baiño argiago eguerdiko eguzkia bez. Au ezin lei iñok atzeratu.

Ondiño, piperpote zulaturen batek erantzungo daust emen ba dagozala asko euskerarik ez dakienak. Ba dakigu, ta orregaitik gure Diputaziñoak eskatzen dau bere otseiñak jakin daiezala ele biak: euskerea ta espaiñerea. Ez al da zuzen?

Ele bi orreexek dira gaur Bizkaikoak, bata da geurea, bertakoa, lenago emen egiten zan bakarra; bestea da atzerrikoa, lenago emen iñok ez ekiana, ta geroago kanpoko ta barruko gure arerioak ekarri euskuena, beronen bidez kanpotarra bertakoaren goitik jarri al izateko; baiña dana dala, gaur Bizkaikoa da berau, ta berau barik bertan erri otsein izaten gaitz.

Ba ele bion jakitun izan bear dau Bizkai otseiñak.

Diputaziñoak zuzen egiten dau ba bere otseiñei euskerea ta erdereza jakitea eskatuteaz.

Eta piperpoteok, oker egiten dabe erdaldun utsa ipiñi gura izateaz Bizkaian: asarre agertzeaz euskerea eskatzen dalako emengo erri otsein izateko.

Bizkaitar euskaldunak, eta bai enparau euskaldunak be! Ikasi or zeuen buruz guk ainbeste bidar esan dautsueguna; piperpoteak beti izan dirala, ta dirala, ta izango dirala euskaldunaren arerioak.

Gure betiko esan ori sendotzen, orra araiñegun piperpoteak eurak etorri jatzuezala Bilbaora.

Ikasi ta jakin ba danok, eta ez aztu zelakoak diran orreek.

Eta euskerearen aurka agertu zan piperpote orrek gura badau otsein-tza edo *empleo* bat Bizkaian, itxaron daiala, baiña jesarrita bada-epzpada.

Arrantza, ez dok?, oin otsein leku edo *empleo*-rik arrapetan ez dozuelako. Ikasi egizue euskerea, bertako elea, ta emongo jatzue agiri edo *certificado*-a poz-pozik edo duban, piperpoteak izan orren, orain arte poz-pozik eta duban emon izan jakon lez edozein euskalduni, naiz jeltzalea dala, naiz karlistea dala, naiz edozer dala.

Baiña ez dozue ikasiko euskerea, maite ez dozuelako; ez bakarrik maite izan ez, ondiño geiago, gorroto dozuelako.

1918-VIII-13



Oñatiko batzarra. Txinpartak

Araiñegun Oñatin Bilbao-tar Estepanek bere itzeikizunean Espaiña ta errege aitatu ez ebalalako guztiz asarre ei dago jaun bat, igaz Euzkadi-
ra etorri zana, Espaiña ta errege ta orreetariko gauza luditarrak baiño goragoko zeregiñaren ardureagaz.

* * *

Bilbaoko *intelectual* gazbakoak joan ziran Oñatira euren nausitasuna erakusten, eta gixajook ez ei dabe aoa bein zabaldu lelokeriren bat esan barik, eta guztiei irribarre eragin barik. Beti sartu bear ukondoa!

* * *

Eurok, *intelectualok*, egun baten «Euzko Ele» atalean gogait eragiten asi ziranean, batzarkide baten eskabidez abiau ziran euskeraz itz egiten batzarrean, eta *intelectualak* apal-apalik at urten bear, ezer ez eben aitzen ba ta.

Intelectualak eta aitu ez? *Intelegentzia* ederra dok orixe!

* * *

Zarrontzale be Oñatin izan ei da. Ene! Ene!

* * *

Malpardak burua piskat okertuta begiak itxirikian, esan ei eban euskerea ez dala izan bein be erri onetako ele edo berbetea. Ez ba! Euskerea geuk bizkaitarristok asmau genduan lengo urte baten.

Kirtenik iñun galdu bada, ba dakizue bat nun dan.

* * *

Araiñegun goizean Eibartik igaroriko tren baten jente asko ikusita, *jabana* gorri batek itandu eutson bertako beste gorri bati nora ete joiazan,

eta euskotar gorriak esan eutsonean Oñatira joango zirala, ta gañera azaldu Oñatin zer egiten zan, birao biribil zikin bat jaurtinda esan eban jabana gorriak:

«¡Me cisco en la cultura esa de los daqui! Ni un homecedio, ni un convento quemao, ni ná».

Gitxiago ez izatearren bertakoak be bota eban bere birao biribilla, esanik: «Claro pues».

* * *

Lekerikak azaldu ei eban emen gure artean euskereatzaz darabilguzan eztabaidak eta aldeak erabagiteko, Espaiñako «Academia de la Lengua» nagusitzat artu bear geunkela.

Bai ba, ez dago gauza argiagorik; arazo bat askatu edo erabagiteko, arazoatzaz tautik ez dakiana artu. Guk emen zein ederto erabagiko geunkezan txiñoak euren artean eta euren eleatzaz daukezan eztabaidak!

Auxe etxako iñori otu, Lekerikari otu jakon arte. Oneek intelectualok baukiez burutzar batzuk!

Onexek beronek, Lekerikak, esan ei eban batebatzuk dabiltzala euskerea alperrik galtzeko bideetan euren idazte ta irakasteakaz.

Baiña ik, zer aitzen dok orretan?

Ara, bein gizon bati astoa gelditu jakon erloju denda baten aurrean, begira balegoan lez denda leioan agiri zan erloju ustai andi bati, eta gizonak jo makilleaz ta esan eutson:

—Arre burro, tú qué entiendes de menus!

* * *

—Or Oñatin izan dan guztia abertzaleen alde, diño gure arerio batek.

—Bai ba, aberri Euzkadiren alde izan bear. Zuk ezer egiten badozu sendiaren alde, sendiko semeen alde be egiten dozu naita-ez.

* * *

Ba dira azaletik diñoenak: «Bai, ezin ukatu leike Oñatin arazo askotan lan ederra egin dala ta...» Baiña barrutik dabil *prososiñoia*.

1918-IX-10



Euskeraz jakin bearra dabe

Araiñegun Bizkaiko Diputaziñoak erabagi eban euskerea jakitea etxakela eskatuko, bertan idazkotseiñak (escribiente-ak) izateko agertuko diranei.

Otsein lekua emonda gero eskatuko jakela euskerea ikastea urte bi barruan, ta ikasi ez badagie, otseintzatik atara ta bialdu egingo dirala.

Bai zereko bialdu! Etxagok olakorik! Nok bialduko dau ba, urte bi bere zeregiñean ekinda gero? Obe, ori egitekotan, artu ez. Bai ba. Gero euskerea eskatze ori ez da besterik zurikeritxu bat baiño, argi-argi ta biribillean ez esatearren euskerarik ez dala bear Diputaziñoako idazkotseiña izateko.

Ba, gure aburuz bai, bear-bearra da euskerea, zuzen jokatu ezker, Diputaziñoako otsein edozetarikoa izateko.

Zegaitik?

Euskerea dalako Bizkaiko elea, orrexegaitik. Bizkaitarrak, bere elez, euskeraz, Diputaziñoan edozein arazo atonduteko aala euki bear dau, eskubidea dauko Diputaziñoako edozein otseiñek, andienetik txikieneraiño, aitu ta ulertu dagion. Au ez al dago zuzen?

Orain, guk igarten dogu, Diputaziñoaren otsein izateko euskerea eskatzeaz asarre jarten dirala bizkaitar erdaldunak, Bilbo inguruko, Enkartaziñoako ta Orduñakoak.

Orreek esaten dabe, bide ori jarraitu ezker, Diputaziñoako otsein leku guztiak izango dirala bizkaitar euskaldunetzako, eta eurentzako bapez, ta ia eurak ez ete diran edozein besteko bizkaitarrak.

«Zuentzako leku guztiak eta guretzako bapez... Ori zuzen al jagok?»

Gauza zuzen bi alkarregaz ezin txarto etorri leitekez. Bizkaitar erdaldunen «zuzen» au aztertu daigun ondo.

Diputaziñoako otsein lekuak ez dira sortu emengo edo orko bizkaitarrai, onetariko edo orretariko bizkaitarrai bizibidea emoteko; ez, otsein leku orreek sortu dira bizkaitarrai serbietako; bizkaitar guztion lepotik emoten jakez alogerak otsein guzti orrei, ta eurok gauza izan bear dabe edozein bizkaitarri serbidu al izateko.

Bizkaian ele edo berbeta bi dagoz: bata bertakoa, bera darabilgunok izanik bizkaitarrik bizkaitarrenak, antxiña-antxiñetatik lur onetan beti bizi izan diranen oiñordekoak; bestea atakoa edo kanpokoak, euren, bizkaitar endekatuak ona ekarri ebena, baiña tira... alan dala naiz olan dala, oneta-

rikoa dala naiz orretarikoa, ekarri eben, ta emen dago, ta ez dago besterik aintzat artu bearra baiño.

Ba, Bizkaiaren otseiña izateko ele edo berbeta biok jakitea bear-bearra da.

Orretara bizkaitar erdaldunak geldituko dirala otsein leku barik... eta, zer egingo dautsogu? Zegaitik ikasi gura ez dabe bertako elea, guk euskaldunok euren ikasten dogun lez? Otseintzat artuko leukie erderaz tautik be ez dakian euskalduna? Ez, ezta?

Ba orduan, zer dala ta guk ikasi bear euren elea, ta eurak ez geurea? Ez al gara geu be eurak beste bizkaitar? Orduan, euskaldunak gagoz erdaldunak baiño berago Bizkaian.

Ori ez dago zuzen. Uste dot argi ipiñi dodala.

Otsein lekuak ez dira iñok jateko lekuak, erriari aitu ta ulertu ta bere arazoak atonduteko baiño.

* * *

Diputaziñoak erabagia artu dau, ta emen esan doguna da: «Urak joan ta presak egin».

Dana dala, atzetik dala naiz aurretik (aurretik obe baiña), errazoia beti da errazoia.

1918-IX-13



Euskalduna, euskotarra

Ordiziatik galdetzen dit «E-tar Errotari» oleskariak nere iritzia, euskalduna ta euskotarra, itz bi oietzaz; berak dasa, gazte batzuek esaten diotela euskalduna dala euskeraz itz egiten dakiana, naiz ta atzerritarra izan, eta euskotarrak dirala eusko jatorria dutenak, naiz ta euskeraz itz egiten ez jakin; «Errotari»k dasa ezin zaiola deitu euskalduna edozein aldetakoari euskeraz itz egiten ikasi duelako bakarrik; «Errotari»rentzat euskalduna deitu bear zaie bakarrik eusko jatorridunei, ez beste iñori.

Orra ba nire iritzia, gure irakasle Arana Goiri-tar Sabiñi ta gure erri euskaldunari nik ikasia. Euskalduna da eusko ele-duna, euskerea duena, euskerea dakiana. Itzak ori dasa. Eta erriak ere bai. Zuk, «Errotari», ta beste edozein euskaldunek entzungo balitu gizon ezezagun batzuek euskeraz ari dirala, ostatu batean, tren batean, akeitetxe batean eskier edo ziur esango zenukete «euskaldunek dituk oietxek» jakin gabe nundarra diran, bearbada galiziarrek edo pasieguk izan litezkela.

Eta gure erri, gure eusko erri onen semei deitzeko itza danak, euskeraz dakitenak naiz ez, arrapatzen dituan itza, *eukotarra* da. Itz onek adierazten du eusko jatorria, eusko odola duen notiña.

Beraz, zuk, «Errotari», orain 22 urte, Deban ikusi zenduan, mutil azal-beltza, euskeraz itz egiten zekiana, etzan euskotarra, baiña bai euskalduna.

Jazotzen da, orraitikan, gure odolekoak ez diran gutxik, oso gutxik, banakaren batek bakarrik ikasten duela euskotarren elea; ta geien-geienetan, ia beti, euskalduna izan oi da euskotarra, eta onegaitik maiz erabili oi ditugu biak bat bezela. Zenbait aldiz esaten eta entzuten degu: «Gora euskaldunak», «Gora euskotarrak» orde; «Euskal erri maitea», «Euzkadi edo Eusko erri maitea» orde. Eta orrekin ez degu uts txiki pitin-pitiña baizik egiten.

Baiña gauzak zeatz erabiltera, egin-egíñera, eraman ezkerro, euskalduna da eusko ele-duna, euskotarra da eusko jatorri-duna. Euskalerrria da euskeraz itz egiten dan gure aberriaren zatia; Euzkadi da gure Aberri osoa, euskeraz itz egiten dan zatia ta erderaz itz egiten dan zatia, zati biak artzen dituan izena.

Orra or nere iritzia, «E-tar Errotari», neronek al izan dedanik argien eta garbien azalduta.

1918-XII-18

Ikusten doguna

Gizon ori Erriojako semea da. Bizkaiko erri txiki batera eskola maisu etorri zan. Mutikoak eta berori ezin ziran alkar aitu. Orduan gizon orrek asmoa egin eban euskerea ikasteko, ta bertako abade bat maisu ebalu, ikasi egin eban eta ondo. Andra euskalduna artu eban.

Ba, gizon orren etxean ez da erabilten beste elerik euskerea baiño. Eta Erriojanoa da.

* * *

Gizon ori Euskalerrriko semea da. Txikitari ikasi eban euskerea. Bere abizenak euskaldunak dira. Ganera, jeltzalea da, sutua atan be. Andrea euskalduna dauko.

Ba, gizon orren etxean ez da erabilten euskerea, erderaz itz egiten da.

* * *

Gizon bi orreek euskaldunak eta abertzaleak dira, ta ez edozelakoak, aurrengoak baiño.

Ba, oraintxe lez, beti alkarren artean espaiñeraz itz egiten dabe. Bakar-bakarrik entzungo dautsezu gure euskerea ez dakian baten aurrean dagozanean.

* * *

Gizon jeltzale orrek sarritan gogor egiten dau euskotasunaren alde, esanik geure gauza guztietan eusko usaiña sartu ta erbeste usaiña kendu bear dogula.

Ba, gizon orren umeak espaiñerazko izenak dabez.

* * *

Gazte ori Espaiñaren arerio itzela da. Beingoan asiko jatzu, zeri ez dala geienetan, deadar garratzak jaurtiten Espaiñaren aurka. Mutilla da



bera orretantxe! Baiña ez dauko gogo izpirik be euskerea ikasteko, ta darabilen erderea be ez da Bilbokoa Madrilgo «chulo»-ena baiño: «chaval, la ha diñao, vamos a jamar» eta oneetariko izduna. Orren izketea entzun eta Madrilgo Plaza de la Cebada-ko mutillena entzun, arenbaten.

* * *

Abertzaletasun, euskotasun, jel-tzaletasun, askatasun eta abar, zarata asko darabilgu. Euskerea galtzen badogu, zarata orreek, zetako? Euskera bako Euzkadi? Gogo bako gorputza!... Usteldu!!

1919-I-11

Gure irakaslea

Zer irakatsi euskun?

Gauza asko; baiña lenen-lenena auxe: Gure aberria ez dala guk orduan uste genduana, gure aberria Euzkadi dala bakar-bakarrik.

Irakatsi euskun gero aberri au zelan maitatu bear dan, beronen alde zelan alegindu bear garan, beronen alde gertu egon bear dogula edozetarako. Eta guzti ori irakatsi euskun, ez barriketakaz, egintzakaz baiño, ta egintza asko ta andi ta gogoragarriakaz.

Olantxe izan bear dau irakaslariak, esanaz ta egiñaz irakatsi. Eta olantxe egin eban Arana Goiri-tar Sabin andiak.

Bere irakaspenakaz emengo gauza guztiak atara ebazan lengo bide geldietatik, ilteko bideetatik. Gauza guztiei emon eutsen beste era bat.

Aberri ele euskera onegaz be orixe egin eban, atara lengo bide ilgarrrietatik, eta bizimen barri bat emon eutson.

Onetantxe bai izan dala Sabin gure irakaslari benetakoa! Bera izan ez balitz, ondiño emen ibilliko giñean lenago lez alkarri esaten edo norberak norbere buruari esaten: «Erderazko oneek gauzok, eta orreek besteok, eta areek eta, zelan ipiñiko joaguz euskeraz?... Ezin leikek!!»

Sabin aurretik olantxe ibiltzen giñean euskal idazleak, euskerearen lengo bideetan urratsik ezin eginda, bidezkunetan zerbait gorantz asi ezkerok; ori dala ta, orduan esaten eben askok (eta orain be bai kirten batzuk) gure euskerea etzala gauza, baserritarren eta arrantzaleen oldozkunak adierazteko baiño.

Sabin adimen-gurenak, orraiti, euskerea sakon-sakonetik aztertu ta argi-argi ipiñi euskun, eta berak arturiko bidetik jarraiturik, gaur euskeraz adierazo daikegu beste edozein erderatan adierazo leiteken guztia.

Sabiñen euskalbide eder au geurea dogu abertzaleak eta maitero darabilgu. Ba dira abertzale ez diranen batzuk euskalbide au txartzat daukenak, eta asmoak daukez berau al badabe lurreratzeko.

Zegaitik ez dabe gura euskalbide au? Abertzaleak ez diralako, gure aberria barik beste bat eurentzat ezagutzen dabelako!

Ba, guk gaur lako egunetan, asmo gogorrek artzen doguz Sabinen bideetatik joateko aberri arazo guztietan, eta euskerazkoan batez be.

Ez da alperrik izango, Sabin, zuk irakatsi zeuskuna! Emen gagoz gertu zure irakaspenak zaintzeko! Eta irakaspenok ebagi ta eratsi gura badabez... geure ganetik igaro bearko dabe!!



Izparringi onetan euskerea irakurten dozun abertzale orrek: Gaur otoi egin sendo gure irakasleri Arana Goiri-tar Sabiñen alde, eta asmo sendoa artu bere irakaspentak gogor eutsiteko bere areroen aurrean.

1919-XI-25

Gorrotoa eta jakin-eza

Españako erregeak Bilbaon Irakaskintza arazoetako daukon ordelariak, debekau egin ei dau, emen asmata egoan eskola jai bat, euskal ikas-toletako umeei urtean irabazitako sariak eskura emoteko.

Atzo irakurri genduan eta arrituta geratu giñean eta... ondiño be arrituta gagoz, geure buruari itanduten dautsogula: «Baiña morroi orrek, nundik eta zer dala ta dauko eskubiderik orrelako jai bat debekauteko? Ezin euki lei; baiña artu badau be, zelan itxi dautsoe berari ardurarik ez dautson arazoetan sartzan, gogor egin barik? Gogor egin bear jake orrei! Bizkaiko uri batek, bere diruaz eskola bat ipiñi gura badau euskeraz irakasteko, ta gero, berak gura dauanean, eskola jai bat egin gura badau, an dabiltzan umeei euren sariak eskura emoteko, zer dauko orretan zetan sartu erregeren ordelari orrek?»

Araiñegun Bilbaoko ziñegotzi zintzoak diran Abandok eta Nuñezek eta Urrestik ondo esan eben lez, on egin dau ordelari orrek euskereari gorrotoa dautsolako, piperpote ona dan aldetik.

Berak, ordelariorrek, itxuraz atxakia artu dau ori egiteko, jai orretan urten bear daben ezpata-dantzariak eta neskato gorulariak, abarketetan ta abar, gure margo gorri-orlegi-zuriak erabilli oi dabezalako.

Araiñegungo Udala batzarrean, Bandresek esan eban obeto egingo litzakela margo orreek ez erabiltea, askok orretan ikusten daualako politikea.

Baiña ori jakin-ez bat da. Margo orreetan politikea ikusten dabenak oker dagoz; margo orreek Bizkaiarenak dira antzin-antziñatik. Bizkaiaren ikurdi edo eskudua *gorria* da, Gernikako Aretxa dauko ta au da *orlegia*, areitz onek ganean gurutz zuria dauko ta orra or *zuria*. Orra or iru margo.

Eta ikurdi (eskudo) ori ez dogu asmau gaurko Jeltzaleak, ikurdi ori asmau eben eta erabilli eben antziñako bizkaitarrak, antziñako Jaureki (Señorio) berberak.

Beraz margo orreek adierazten dabe Bizkaia, ta margo orreek iguiñaz ikusten dauzanak iguiñaz ikusten dau Bizkaia, ta auxe dala uste dogu emen egin leiken politikarik txarrena, Bizkaiaren aurkakoa.

Eskola jaia egingo da, ordelari ori gorabera, ta andiro egin be; zegaitik ez da egingo? Nori egiten jako kalterik orregaz? Euskerea irakasteak ta ikasten ibilli diranai sariak emoteak ta Bizkaiak beti-beti erabilli dauzan



margoakaz abarketak apaintzeak, nori dakartso kalterik? Au ez da lotsa-garria? Au ikusita ondiño be iñor egongo da guri arpegira botako dauskunik gorrotoa daukogula Ebroz andikoentzako? Ez dago argi-argi eurek dauskuela geuri gorroto, ez jeltzaleei bakarrik, emengo gauza gutzietei baiño?

Irakurleak, euskotar odola badozue, asarratu zaitzeze, baiña gogor, ta zin esaizue gaurtik aurrera len baiño gogotsuago ekingo dautsozuela euskerearen alde.

Gora Euskerea!

1919-XII-14

Euskaldunak gara

Santurtzetik Bilbaorako tranbian datoz iru euskaldun, neskatilla bat eta mutil gazte bi.

Eurok, euskalerriko bazterren batetik etorri dira Barakaldo aldera edo, nor-edo-nor ikusteko edo zeregiñen bat zuzentzeko ustez.

Iru gazteok alkarregaz izketan datoz euskeraz; bai ba, euren elea da ta.

Tranbian dator espaiñar gudari bat, ez laua (errasa); besoetan izar-duna, agintaria da.

Onek gazte arei marre dirautse ez itz egiteko euskeraz, an espaiñeraz itz egin bear dala.

Euskaldun gazteok, erbestean edo erri ezezagunean dagoana lez, etziran azartu gogor erantzuten.

Bakarrik erantzun eben, eta erderaz, ia zegaitik ez eben euskeraz itz egingo, ia eurak iñori ze kalte egiten eutsoen euren elez euren gauzak eurentzako esanaz.

Gudaria, mutillek biguntxo erantzuten ebela ikusirik, asko jagi zan, eta asarre-zarataka garratz asi jaken.

Onetan, sartu ziran tranbian ola beargin batzuk, euskaldunak, Dikeetan edo dabilzanak.

Uartu eben zer erabillen mutil gazte ta gudari arek, eta euretariko batek esan eutsen gazteei euskeraz:

—Itz egin euskeraz ardura barik.

Orduan gudaria beargin oni asi jakon zarataka, ta onek zarata andia-goak atara eutsozan berari.

Askok garratzu ziran biak, eta azkenean gudariak eupadea jaurtin eutson beargiñari urteteko tranbitik biak burruka egiteko.

Beargiñak guztizko edertoen erantzun eutson:

—Izarrokaz darabilzun jake ori kendu egizu lenengo, ta gero urten-go naiatzu.

Au entzun ebanean, gudari txotxoloak alde egin eban tranbitik

* * *

Jazopen au lengo egun baten izan zala esan dauste. Orretariko jazopenetan erakusten dabe espaiñar txarrak euren gorrotoa euskaldunen gauzentzako.



Gudari arek ezin esan lei a neskatilla ta mutil gazteak *separatista*-k dirala, nortzuk diran be ez daki ta.

Ak ez ebazan ikusi euskaldunak baiño, ta orrexegaz bakarrik naikoa izan eban bere gorrotoa erakusteko.

Argi dago ba, orreek españiar txarrok, ez dabela gorrotatzen *separatistmoa* (eurak esaten daben lez), orreek gorrotatzen dabena da euskalerrria.

* * *

Tranbiko beargiñak gazte arei esan eutsena berresan daigun:

—Itz egin euskeraz ardura barik! Eta iñoz, a gudaria lakoren batek ezer esan badautsue, euskeraz erantzun: «Ez dogu gura erderaz itz egin», ez erderaz ezer be erantzun, eta jarrai.

* * *

Eta orain jatorku gogora euskaldun askok (eta abertzaleak be ba dira lotsagarritz) ekandua daukela beti erderaz itz egiteko alkarregaz.

Euren jatorriaren lotsa dirala esan lei.

Ez lotsatu, ez dogu lotsaririk euskaldunak garalako. Ez gara sasikumeak. Euskaldunen erria Europan diranik zarrenatarikoa da. Antziña irasi edo fundauriko etxeokak gara ba. Zegaitik lotsatu orduan? Egin, egin euskeraz; erantzun geure jatorriari, geure odolari.

Bere jatorri zindo ta argia maite ez dauana, doillorra da.

1919-XII-23

Euskal esakerak

Aspalditxoan daukodaz (ia iru illabete) noz-edo-noz argitaltzeko usteaz, lengo udan neure baserrian neuk uaturiko euskerazko esakera politak...

Tira, neuk eretxi politak; zuek, bearbada, ez dozuez politak eretxiko; baiña dana dala, or doaz, ta politak ez baderitxozue, parkatu.

* * *

Nire aurrean barriketetan iñarduan bein andra ta gizon pillotxu bat, eta onetan, euren arteko gizon gazte batek auxe esan eban:

—Ai baia... *gari ona etxetik saltzen da.*

Gauza onaren billa etxera etorten dirala adierazteko, askozaz zeatza-goa ta politagoa eretxi neban esakera au erdaldunen «el buen paño en el arca se vende» baiño.

* * *

Zaldi bat galapan, eta autsa andia ataraten dauala, ta arri koskorrak alboetara jaurtiten dauzala, datorrenean...

Edo arri mokil andi bat mendian goiti-bera doanean arriabarrots andia ta keea atarata...

Edo edozek abiada andia, ikaragarria daroanean...

Orduan nire erritarrak esaten dabe besoak jasota:

—*Ak darue sue ta lantarra*, edo *ak dakar sue ta lantarra!* Nire errian lantarra da erderazko «chispa». Beraz, esakera ori ta erdaldunen «va echando chispas», bardintsu.

* * *

Notin batzuk sena eukiten dabe euren gauzea beti goraltzeko; euren gauzea beti izaten da iñorena baiño ohea; saltzera badoaz beti ordaindu bear jake beste iñori baiño geiago.

Orretariko notiñekaitik esaten dabe nire erritarrak:

Orren gauziek gero beti daukoz *bits bi*.



Antza danez, bits bi daukozan gauzaren bat ba dago guztiz ona dana, esnea edo besteren bat; baiña auxe ez dakit ondiño zein dan.

* * *

Txakur bat abiau jakolako, mutiko bati entzun neutson esaten:
—Gero... niri barriro etorten bajat etorri... *laukuek atarakutsaz*.
Antza danez, «laukuek atara» izan bear dau lau zati egin, edo olakoren bat.

* * *

Urkiolara zuazie? Eurije ein biutsue ba.
Bai gure badau! Juetie pentsau du ta oin ba guez.
Esakera orrek adierazten dau: «Ez da ardura».
—Urteik ortik ikusiko abe ta!
—*Bai gure bajok!* Ikuek ederrak jaozak eta betekada bat ein bieiuat.
—Ointxe be guardasola aztute itxiozu zuk, galdukozu alakon baten.
—*Bai gure badau!* Balio dabenaitei...
Beraz, ez da ardura, «zer dauko ba» edo oneetariko esakeren orde zarritan erabilten dabe nire errian «bai gure badau». Eta ez dabe esaten lauz; beti indarraz, esangura andiz.

* * *

Ezegaitik ez dala estutu bear, gero be emen geldituko dirala gauza guztiak eta, adierazteko, esakun polita erabilten dabe:
Gu ilda gero be, zorrak errotara.

* * *

«Au gure andriau baiño *esan txarrekuaurik* iñun etxauk!» esaten eban bein gizon erretxiña arramuskalari batek, adierazorik ez ebalan esanik egiten.
Beraz, *esan txarreko* da erdaldunen «desobediente»; eta ondo dator, ba, erdaldunen «obediente» adierazten dabe *esan oneko, esaneko, esagin* itzakaz.

* * *

Orreek lako esakeraz beteta erabilten dabe euskerea baserritarrak, eta neu atsegñez egoten naiake entzuten.

Erderatiko itz asko sartu jaken arren, ondiño be, zein polita dan euskerea erderarik ez dakien baserritarren ezpanetan!

1919-XII-28



Abertzale asko ta euskerea

Sarri esan oi dana da: Abertzaletasunak euskerea gaizkatuko dau, abertzaletasunak atarako dau eriotzearen erpe artetik gure elea ta indartuko dau.

Egia da ori, egi andia.

Ondo ikusita daukogu danok ori. Abertzaleak ez diran Bazkunak, euskerearen alde diñarduela esan arren, ez dabe euskerea gaizkatuko.

Baiña... abertzale asko diran lakoak balira danak edo geienak, abertzaletasunak be ez leuke gaizkatuko euskerea, ezta urrik emon be!

Au zegaitik diñodan? Ara: abertzale asko ezagutzen dodazalako, eurak euskaldunak izanik, beti erderaz diñarduenak, beti gero, euskaldunakaz itz egiten; eta ez edozelako abertzaleak edo bazterretakoak, erdi-erdikoak baiño, aurrengoak eta sutsuenak dirudienak euskerearen alde. Baita beste batzuk, abertzale erdaldunak izanik, eta euskerea ikasteko era ta astia eukirik, amar-amabost-ogei urte oneetan ikusten doguz len beste-ko erdaldun jarraitzen dabela.

Orretariko abertzaleakaz euskerea gaizkatu? Zer diñozue, irakurleak? Nire aburuz, oneek eurok sakatzen dautsoe zulorantza gure ele gaixo oni, españarrak eta españartzaleak baño geiago.

Abertzaleak bere izenari erantzun gura badautso, euskalduna bada euskeraz beti itz egin eta idatzi bear dau, erderaz bear-bearra danean bakarrik; erdalduna bada, erarik eta astirik badauz ikasteko, ikasi egin bear dau, emen Bilbaon ainbestek egin dauan lez, onetan aurrengo izan dirala «Euzkeltzale-Bazkuna» ospatsuko gazte azkarrak. Oneek erdaldunak izan ziran txikitatik, eta euskaldun egin ziran ementxe geure artean, abertzaletasunak eraginda, ta aspaldiko urteetan eurek eurekaz eta enparau euskaldunekaz ez darabille beste elerik euskerea baiño.

Abertzaleak bazarie, ba, euskeraz itz egizue al dozuen guztietan. Izana ta esana batera erabilli; ez egin abertzale askok lez, barrutik erdaldunak izan, eta euskerearen alde gauza andiak eta ederrak esan. Azalez eder, barruz ustel.

1920-III-5

Deun Jon

Urteko egun alaienetariko bat gaur da, Deun Jon Uguzlaria.

Ludi guztian, kristauak alairo ospatzen dabe gaurko egun au, eta antziñatik dago ekandua alde guztietan suak eginda inguruan ijutika ta oiuka ibiltea.

Nire baserri koskorrean, mutiko-nestakoak soloetan egin oi dabez Deun Jon suak, bertan egurrakaz batera pillaturik arrapau al izan dabezan etxeko traste zar guztiak. Ixiotu dagieneko, danak deadarka asten dira euren indar guztiakaz eta mutikoak suaren ganetik saltoka ibiltzen dira.

Deadarrez esaten dabena auxe izaten da:

San Juan, San Juan...

Eztau besterik gogoan...

Lapurrek eta sorgiñek

Erre, erre!!

Artuek eta garijek

Gorde, gorde!!

San Juan, San Juan...

Ez dago txarto eskatua. Orraitiño, orixe lapurrak erreteaz kontuz ibilli bearko geunke, ba danak erre ezker, erriak ia utsik geratuko litzakez, ta ganera, danak erreteko be arri-orioa edo petrolioa sendo ekarri bearko litzake, emengo basoetako egurrak ba ez litzakez naikoa izango... lapurretan bajagok ba!...

Eta ori diru edo ogasun lapurretan. Ostantzeko lapurrerietan sartuko bagiña, ene Josu!... Guri euskaldunoi aberria ostu dauskuenak, ai zelako lapur zarrak! Eta ondiño be aberri au ostuten jabilkuzanak...

Ostuten ondiño be? esango dozue. Eta nik diñot: baietz, ostuten ondiño be. Ara, gure euskerea ta geure ekandu onak alde batera itzita atzerrikoak artu ta darabillezanak, ez al dabilz geure aberria ostuten? Diru-lapurrak baiño txarragoak dirala uste dot, ez deritxozue?

Zer egingo dogu, lagunak? Su bat egin eta bertan gure aberri-lapurrrak erre daitezala eskatu?

Ez, erreko balira danok, iru edo lau katu baiño ez litzakez geratuko Euzkadin, eta orregaitik obe dogu eskatu, erre barik, biurtu dagiela osturikoa, eta euskotar onak izan daitezala; eta atzerritarrek ostera, gizon onak eta zindoak badira, gure artean bizi diranak, geure lagunak izan daitezala, eta bada-ezpadakoak badira, iñogaz ezin alkar artzeakoak, eta beti gure ele



ta ekandu-lapurrak izateko asmodunak, orduan... Pancorbo alderuntz anka-joko bizkor bat egin beie ainbat lasterren, eta ez daitezala agertu euria gorantza egingo dauan arte!

1920-VI-24

Edo geuk edo ñok ez

Atzo eguerdi ostean adiskide batek esan euskun: «Au ikusi dozu?», eta emon euskun makiñaz idatziriko erdal idazki bat, «Euskaltzaindi edo Academia Vasca»k Espaiñako erregeri zuzentzen dautsona.

Gogoratu eragiten dautsoz erregeri Oñatin berak esandako itzak: «Cultivad vuestra lengua... etcétera» bide batez koiperi batzuk egiñik, esaten dautso ba gu euskaldunok erregerentzako guztizko zintzoak garala. Oñatiko bere itzok aztu-eziñak (imperecederas) diralako guretako, eta itz orreen ostean eurezazko lege egoki ta erakoak badatoz *Alfonso el Vascófilo* izenaz ezagutuko dauala Edestiak (Historiak), eta onetariko labankeriak.

Orren urrengo diñotso errege orri, 1874ko Espaiña legeak agintzen ebalá euskalerriko notario-ak bertoko ele edo berbeta jakiteko, baiña agintze ori ez dala betetan izan, eta azkenez 1917ko beste agintze bategaz ezereztu ebela, ta gaur erdaldunak datozala notario ta liburuak (testamentuak) eta ostantzeko agiriak oker egiten dabezala geienetan, biztanleak ezin diralako.

Baita be esaten dautso errege orri, Bizkaiko Arantzazu baserriko Udalak Boletiniñean iragarri gura izan ebala osalariaren bearra egoala bertan, eta izan gura ebanak euskerea jakin bearra ebala, ta emengo gobernadoreak galerazo egin eutsola iragarki ori argitaltzen, esanik euskerea ezin jakola iñori eskatu.

«Euskaltzaindi edo Academia Vasca» jazopen bi orreen aurka jagiten dala ta Espaiñako erregegana agertzen dala, okerrok zuzendu daitezala eskatzen.

Geu be oker bi orreen (eta beste askoren) aurka gagoz.

Guk ez daukagu zintzotasun zorrik, eta beraz ez gara zintzoak, ez errege orrentzako ez beste batentzako be; Oñatiko bere itz edo berbai ez dautsegu bape garrantzi edo *importanciarik* emoten eta aztuta euki doguz; eta... *Alfonso el Vascófilo* iñoz deitu leiola irakurri dogunean barre piskat egin dogu, ta berak be barre egingo dauala uste dogu. Ganera, gizon orri deadar egin, eta itxasoaren erdian deadar egin, aren baten da.

Orixe alde batera ipiñi ezkerro, enparau guztian, geu be «Academia Vasca»gaz gagoz arazo orretan; edo euskerearen kaltezko lege ta agintze oker orreen aurka.

* * *



Orraitiño, gure eretxia da euskerearen okerrak ez dirala zuzenduko erdaldunen aldetik.

Euskerea iñok ez dau jasoko geuk euskaldunok jaso ezik.

Geuk gura badogu, bai, jasoko da, ta biziko da, erdaldun guztiak bere aurka egon arren be.

Galtzen bada, geure erruz izango da. Orain arte galdu dana be geure erruz galdu da.

Geuk galduko dogu edo geuk irabaziko dogu.

* * *

Gaur eguneko bidean badoa, ez dago erregerik euskerea jasoko dauanik, ez dago legerik be, ez dago ez libururik ez ikastolarik ez ezer, euskerearen eriotzea eragotziko dauanik.

Euskerea azkenetan dago, ta ilgo da, ta errua euskaldunek dabe.

Euskaldunek ez dabe maite euren elea ta orregaitik ez dabe erabilten. Euskaldunek beti erderaz egiten dabe. Besteei erakutsi ona emoteko iñor baiño beartuago dagozanak eurak, dana erderaz egiten dabe. Abertzaleak mordoska ikusi leikez kaleetan, batzokietan eta abar, danak euskaldunok izan arren, beti erderaz itz egiten. Abertzale erdaldunak ez dabe bape leiarik erakusten euskerea ikasteko. Dendetako ate-buruetan euskerazko idazkuntxu bat ez da ikusten. Izparringietako euskerea iru edo lau katuk baiño ez dabe irakurten. Euskerea baztertuta dago. Bazterrean euskaldunak sartu dabe, ta egunero sartzen dabe. Erdaldunen bearrizanik ez dago gure euskera zarra luditik bialtzeko.

* * *

Esan daigun barriro: Euskotarren elea euskotarrak gaizkatu leikie, gura izan ezkerro.

Eurok gura ez badabe, alperrik da atzerriko erregeakana jotea.

Euskerea gaizkatu... edo geuk edo iñok ez.

1920-X-30

Noz, nun, zelan?

Ia urte bi oneetan nozik-bein agertzen izan da emen euskal idazleen artean gurari bat, danoi poza emoten dauskuna: Euskeraz izparringi onetan idazten dogunok, eta ostantzeko euskaltzaleak be bai, Bidasoz andikoak eta Bidasoz emendikoak, egun baten alkartu bear dogula nunbaiten, alkar ezagutzeko ta alkar besarkatzeko anaiak garan lez, ta egun gozozgo bat alkarregaz igaroteko, geure elez bakar-bakarrik egiñaz, ta geure artetik alde eragiñik edozetariko erdera dakarren gutziei.

Euskal egun bat!!

Ori danok gura dogu, baiña nun batu?, eta... noz batu?, eta... zeintzuk egintza bete egun aretan?, eta... nok artu zeregiña egun ori eraltzeko edo organizetako?

Orretantxe dago ba untzea.

Onetan, irasi zan Euzko-Gastedi-Batza, ta bere egikizunen artean, orixe, euskal idazleen batzar egun ori eraltzea izan zan bat.

Eta lengo baten itz egin neban euren Buru-Batzako bategaz, ta esan eustan asmo ori ez daukela aztuta, asmo ori aurrera eroan bear dabela, ta bete.

Orain, berak esan ebanez, gura leukie jakin euskal idazleen eretxia arazo onetzaz, batez be Bidasoz andiko euskal idazleena, batzar onen zegaitirik andiena da ba, andiko ta emendiko euskaltzaleak eta abertzaleak alkarregaz batu gaitzala... lenengoz!!... jakin gura leukiela ba zein leku deritxon egokiena batzarra egiteko, baita noz izan leiken aldirik egokiena, ta gero, zeintzuk jai gertau al leikezan egun aretarako.

Nik esan neutson Euzko-Gastedi-Batzakoari, neure eretxiz iru itandu «noz, nun eta zelan» orrei neuk onantxe erantzungo neuskioela:

Noz?... datorren iraillean.

Nun?... euren eta geure alde oneen bitartean, bide-erdi inguruan, eta erri txiki batean, euskalerrri uts-uts baten.

Zelan?... Jai ekarrak edo senzilloak, panparrokeri gitxi; ezpata-dantzeta, pelota partidu on bat, eta aize zabalean euskal idazleen batzarra, bertan emengo batek arei ta angu beste batek emengoai anai agurra egiñik; orrexegaz ta alkarregaz egun guztia igarorik eta alkarregaz bazkaldu ta alkarregaz barriketean egiñik... naikoa.

Ara joaten bagara uste izanik bertan gauzak bidean ipiñiko doguzala urrengo tirekada baten geure aberri Euzkadi maite au aske atarateko; ta



orrez ganera, batzen bagara diskurtsua emendik eta diskurtsua ortik egun santu guztian alkarri adarra joten ekiteko... ez dogu besterik egingo burukomin andi bategaz urten baiño.

Nire eretziz egun ori da alkarregaz egun alai bat igaroteko. Beintzat neu ez naz joango ara desesperauta lez ibilteko, egun guztian begi-zearka betozko illunaz ibilteko; ni banoa izango da, J. l., egun gozo bat, argi ta alai, Bidasoz andiko neure anaiakaz igaroteko.

Kirtenkeriren bat esan al dot? Izan leiteke. Alan bada, zeuek esan itz zuzena ta bena ta jakingarria, eta parkatu.

Ia ba, Antxuberro, Zerbitzari, Oxobi, Hiribarne, eta zuek, Bidasoz ortiko idazleok, zer erraiten duzue?

1921-III-16

Dregueral-en lagunak

Dregueral-ek gure euskerearen aurka egin dau. Esan genduan ori ez dala asko arritzeko, motz uts-utsa dalako. Baiña txarrena da euskerea zapaltzeko lagun asko daukola emen.

Nortzuk dira lagunok? Piperpote ta belarrimotz geienak. Eurrez dagoz Dregueral-en lagunak emen.

Baiña ondiño beste lagun obeak daukoz Dregueral-ek emen gure aberri onetan euskerea zapal-zapal izteko.

Nortzuk diran orreek?... Ikaratu zaitze!... eta ez naizue jo.

Lagun orreek... esango ete dot, ez ete dot esango?... Jaungoikoak gura dauana izan daitela! ta or naioak uretara... danba!

Dregueral-en lagunak onenak euskerea zapaltzeko, «jeltzaleak» dira!

Ara, irakurle, ikusten dozuzanean euskaldun bi edo iru edo geiago, jeltzaleak izanik euren artean erderaz itz egiten (eta ori eurrez ikusi zeinke), esaizu: Orreexek dozak Dregueral-en lagunak euskerea ilten.

Ikusten dozuzanean jeltzaleak asarreka euskerazko itz edo berbaren bat ulertu ez dabelako, esaizu arek ez daukola bape zaletasunik bere ele alde, ta laster itxiko dauala euskerea, ta Dregueral-en laguna izango dala.

Ikusten dozuzanean jeltzaleak euskerazko gauzarik irakurri gura ezta, gatxa egiten jakela ta onetariko atxakia darioela, esaizu Dregueral-en lagunak dirala.

Ikusten dozuzanean euskal irakastolak erdi-utsik, nun ikasi euki ta ikasi gura ez erakusten daben ainbat eta ainbat gazte jeltzale ikusten dozuzanean, esaizu Dregueral-en lagunak dirala.

Geuk abertzale guztiok euskerea benetan maite bagendu, naiz Dregueral naiz bere aldeko piperpote guztiak gorabera, euskereak ez leuke bape galduko lekurik, bai zera!, irabazi egingo leuke. Eurek euskerea il gurea erakusten daben ezkerro, guk erakutsiko geunke euskerea biztu gurea; ta edo geu danok il bearko gindukiez, edo ezin izango leukie il euskerarik, ezta makaldu be, arazo au ba geure «gurarian», geure guramenean dago.

Orretan dago guztia, geuk gura edo geuk gura ez.

Geuk gura izan ezkerro, ez dago Dregueral-ik euskera ilgo dauanik.

1921-IV-22



Oyartzunera

Esan bearrik ete dogu barriro be biar Oyartzunen egingo diran euskal jaiak zeintzuk eta zelakoak diran?

Baleiteke ondiño be batenbatek esatea: Ze jai dituk orreek? Nok asmau jozak? Zer ospatzen joek? Noz dituk?...

Orrelakoxe gibelaundiak daukoguz gure abertzale purrukatuena artean!

Bada, or beste aldean dagoz euskeraz, atzo lez, eta jakin gura dauanak antxe irakurri bei.

Gipuzkoatik idazten daust jai onen antolatzaile batek, eta diño ganeratu leitekela, Pasai, Donosti, Errenderi ta Zaldibiko ezpata-dantzariak be joango dirala. Alkate jaunak erretzasun guztiak emon dituala. Eta bere ustez jai oso polita egingo dala, batez be arratsaldean.

Neuk be uste dot jentea batuko dala, lengo egunetan ez neban uste ainbeste; baiña orduan esan nebana diñot, naiz asko naiz gitxi, batuko gara euskaltzaleak eta euskal idazleak, eta batzen garanok egingo dautso-gu zor jakon agurra euskotarren abenda ele garbiari; ez dogu ukatuko geure jatorria Euzko-Gastedi-Batzak eraldu dauan EUSKEREAREN EGUNEAN.

Orixen da aberriaren eguna, ta bere semeak, al izan ezkeru, beintzat, ez dabe utsik egin bear amaren egunean. Eldu bear dabe amaren ondora, berari esateko: «Zeure semea naz ta zeugana nator zeuri laztan bat emotera».

* * *

Oyartzunen euskeraren jai orren orde z jarri balebe «La fiesta del Casteyano» eta jai batzuk eraldu balebez «cantaores y bailaores flamencos» eta «una becerrada en la que estoqueará el famoso Cuerete» eta «pronunciará un discurso retumbante el acreditado profeta Tataratá», eta oneetariko jai atalak jarririk, eurrez joango zan jentea, urriñetatik be, eta euren artean gaur atxakia dariola dabilzan abertzale (??) asko.

Baiña alde (diferentzi) bat dago orduan joango litzakezanetatik orain joango garanokana; areek asko baiña erdaltzaleak, atzerrizaleak, eta gu gitxi izan arren euskaltzaleak, geure aberri-zaleak. Ori, alde andia da!

Zeintzuen artean gurago, irakurle?

Eskier (seguru) nago erantzungo dozula «zuekaz euskaldunokaz gurago».

Etorri, ba, biar.

Ezin zara etorri? Eziña badozu, aske zara; eziñari iñok ez dautso irabazten.

Al dozu? Ez geratu etorri barik.

Alde batetik beartuta lez zagoz etorteko al izan ezkeru; baiña orrez ganera, egun eder bat igaroko dogu, egun ederra euskerearen maitasuna dabenentzako.

Euskerea maite badozu, egun atsegiña izango dozu. Guk egin bear doguz an barriketak alkarregaz! An alkar ezagutuko gara aberri alde guztietako euskaldun abertzaleak; ara elduko dira Zuberotik, Laburditik, Naparratik, Gipuzkoatik, Arabatik eta Bizkaitik. Danok batera. Noz alan aurkitu gara iñoz?

Aberriaren alde guztietako semeak alan alkarregana batzea, ez al da gauza ikusgarria, ta garrantzi andiduna? Bai bein!!

Biar Oyartzunera ba al dozuen danok.

Biar arte.

1921-VI-8



Oyartzungo jai ederrak

**Bidasoz andiko ta emendiko
euskal idazleak Oyartzunen alkartu**

Lau katu?... Nok esan dau Oyartzunen lau katu batuko ete giñean?... Nor izan zan ori esan ebana?... Neu izan nintzan, eta ementxe apal-apalik autortzen dot oker izugarri baten nengoala. Asketsi, ba.

Batzar ederra Oyartzungoa araiñegun, alde guztietatik begiratuta:

Erria guztizko ederra ta eusko eredua, ta bere biztanleak, alkatea ta abadeak aurrenengo izanik, guztizko argiak, eta alegiñetan erbestetik joan giñeanai zelan poz-emongo.

Bildu giñean euskal idazleak, iñok uste genduan baiño geiago, mordo galanta. Or atzerago ikusi zeinkiez zenbat eta nortzuk.

Ostantzeko euskaltzaleak, idazle ez diranak, notintza andia. Erria notiñez bete-beterik aurkitzen zan.

Eta bildu giñean guztiok, auxe da onena, euskaldunak, eta geure aberioriaz batera euskerea maite-maite dogunok.

An etzan entzuten euskerea baiño, an ez egoan itz zakarrik, an etzan ikusten arpegi batxu be asarre, danak egozan pozik eta atsegiñez eta alai. Zelan ez, Ama baten umeak baziran, aspalditik alkarren urrin egon diranak, eta araiñegun batzartu ziranak alkarri anai-laztan gozo bat emoteko?

A zan a, jentea! Abenda zarra da gurea, baiña araiñegun Oyartzunen batzartu zan lako notintza bat idoroteko or Ebroz beste aldean... farol askotxo gastau bearko litzake billa!

Ku emen Bilbaoko geltokian bultziratu giñeanean, uartu genduzan Sokoa ta beste euskal idazle batzuk; gero Durangon, Eibarren, Elgoibarren, Deban (emen sartu ziran Tene, Asier, euskal idazleak eta neskatilla euskaltzale bat), Zumayan, Zarautzen, banaka-banaka lez, igarri barik asko sartu ziran, eta Donostira eldu giñeanean, bertan itxaroten egozanakaz, mordo galanta egin genduan.

Sartu giñean danok Irungo tximist-buitzian, eta Oyartzungo geltokian jatsita oiñez joan giñean errira, bertara eldurik jaupa nagusitik urte ten eben orduan. Erriko enparatza notiñez baltz egoan. An aurkitu genduzan ainbat eta ainbat euskal idazle. An zan ba alkarri bostekoak estutea, ta alkarregaz poz-pozik geure euskeraz itz egitea.

Olantxe egon giñean batakin inguru arte, bitartean Pasai Deun Jon-tarren aureskua ikusirik atsegin andiaz, eta Mendibururen opa-arria ager-

tutea be bai, bertan Labayen jaunak itz goralgarriak esan ebazala Mendibururen alde ta gure euskerearen alde.

Sartu giñean gero jateko-etxean, aldraka etxeko geletan; eta onetan, bazkaria asi baiño lenago, orra nun sartzen jakuzan abade bi, gazteak, euskotar antzeko uts-utsak, eta euren euskera bigun eta gozoaz esaten dauskue eurak dirala Antxuberro ta Oxobi. An izan zan poza!

* * *

Bazkaldu ta gero, or laurak baiño lentxuago, batzartu giñean euskal idazleok eta bai euskaltzale asko be, erriko eskolen aretoan, areto zabal izugarria; ez dot larregirik esango, emengo «Salón de la Filarmónica» bostekoa ba dala esanaz. Ba, dana bete zan.

Batzarraren asieran irakurri genduzan Batzarrari bidalduko idazki ta urrutidatzak agur egiten. Ara:

SORALUZE.— Elosuko batzarrera jun bear eta ezin orretaratu. Nere agur biotzekoa. Kirikiño ta euskaltzale danai. Zeleta.

ASTIGARRAGA.— Agur sutsua dagizuet bildu zeraten euskal idazle guziori, ni ezin joan. Agur Gora Euskera. Txadon-Zaya.

DEBA.— Nere gogoa zuekin dalako opa dizuet egun paketsu eta alai bat euskaltzale guztiok. Katrapon.

DONOSTIA.— Tamal zait zuen artean arkitu eziña; baiñan nere gogoa ta biotza zuekin daude. Garitaonandia-tar Bitor.

AZPEITI.— Baserritarren illeroko batzarra degulako soiñez zuen artean ezin izan arren gogoz zuekin naukazute. Erlomendi.

SEGURA.— Euzkadiren seme-alaba jatorrak Aberriari dagiozuten opari eder orogarri onetan biotzez or nazute. Agur guztiok. Otamoztarra.

SESTAO.— Batzarrak baten da Sestaoar Jel-batzokia. Lendakari Bilbaok.

* * *

Orreek izan ziran urrutidatzak. Eta ona emen orain irakurri ziran iru idazkiak:

EUZKO-DEIA.— «Bilbaotik 1921ko Bagilla 18an. Kirikiñori. Agur irakasle ta aberkide maiteoi: Euzko-Gastei-Batzak Oyartzunen gertau dauzan jaietara pozik joango gintzakez. Baiña biar bertan jai andiak



Gaminizen eukiko doguz, Bilbaoko Euzko-Gastediak eginda. Eta eurak geuk geronek eraldu doguz ta, ezin utsik egin.

Orregaitik ez gara Gipuzkoako erri begiko orretara joango, Euzkadi-ko euskal idazleak ezagutu ta laztandutea, guretzako atsegiñik andiena izango zan arren. Baiña esaiezu an batuko diran guztiai, eurekin batez gagozala, ta Aberriaren alde egiteko ez dogula iñoiz bez gure lana ukatuko.

Gora euskerea! Gora Euzkadi! Gora zuek, idazle maiteok! Altunatar Joseba, Errasti-tar Joseba Mirena, Jemein-dar Keperin, eta Gallastegitar Eli».

BILBAOKO EUZKO-GASTEDIJA.— «Bilbaoko Euzko-Gastedi-ja»k agur bero sutua dagitse Oyartzunen batzalduko diran euskal idazle guztiai, ta uste betean dago batzar orretatik aberrirako onura aundiko asmoak urtengo dirala.

Gure izenaz or doakizue Arrutza-tar Mikel bazkidea, «Larrabaster-tar Jon» izenordeaz zuen artean oso ezaguna. Gora Euzkadi ta Euskerea! Lendakaria, Gallastegi-tar Eli».

ENBEITA-TAR KEPARENA, «Biaizteritik 1921ko Bagilla 19. Kirikiñori. Agur neure adiskide on maitea: Arabako bazter onetatik bialtzen dautsut idazkitxu au, Oyartzunen batuko zarien gure anai euskal idazleei nire izenean anai-besarka maitakorra eman dagioezuntzat.

Euzkadi-arerioak uste dabe Jel-eriotza lortu dabela baiña... guzurrean dagoz. Jel-eriotza geroago ta urriñago dago. Euzko-Gastedi-Batzak euskereaz birrinduko dauz gure arerio zitelen eragozpen guztiak, eusko epelak berotu, beroak zindotu eta zindoak geiturik guzti au Jaungoikoaren laguntzaz.

Goiz eder alai dakuskunean
Eguzkiagaz oskarbi
Izaten dira bizirik diran
Geienentzako pozkarri;
Baiña ondoren aize deungeak
Ekatxa badai ekarri
Len alai-alai ziran biotzak
Tamalez oi dira jarri
Auxe berberau jazoten jako
Euskera maitaleari.

Euskerea da euskaldunentzat
Oskarbiko eguzkia,

Geure gogoia, geure biotza,
Poz eta atsegin guztia;
Ekatz deungea gure artera
Sartu dan erdalkeria.
Jaso daigun ba ekatz onen gain
Euskera maitegarria.
Bestela zelan esango dogu
Au dala Euskalerrria?

Gora Euskadi geurea! Gora euskerea! Gora Oyartzungo euskal idazle batzarra! Zeuekin dago, Enbeita-tar Kepa».

Enbeitaren idazki oni txalo-jote andia egin eutsoen entzuleak.

* * *

Bereala, Labayen jaunak itzaldi laburtxu bategaz esan eban batzararen zegaitia, ta iragarri eban nortzuk itz egin eben. Lenen itz egin eban Mañarikoak. Onek amaituta, jagi zan Antxuberro, eta itz sutu ta ederraz esan euskun zenbat balio dauskun euskereak, beroni deitu leiola geure gaurko Lege Zarra, ta berau utsin eta berau edertu ta berau aberastu ta berau zabaltzen alegindu bear dogula. Zelako pozaz entzun genduan Bidasoz andiko abade gazte azkar onen itza! Gora zeu, Antxuberro!

Gero, deadar egin geuntson Urretari itz egiteko, ekarri genduan maira, ta... mutillak! ak egin euskun itzeikizuna! Maitasuna aitatu eban eta azaldu euskun maitasuna dala egipen andi guztien iturria, ta ipiñi euskun aberri-maitasun eta euskera-maitasun eredutzat gure maisu andi Arana Goiri-tar Sabin.

Ara, Antxuberrori eta Urretari jo eutsiezan txaloak andi ta sarratuak izan ziran, gortugarriak, eta luzaro. Ba egoan an sua!

* * *

Itzeikizunak amaituta, Urki Zornotzako izparkariak eskatuta, erabagi zan aburu batez, Buenos Airesko abertzale jatorrai zorion agurra bidaltzea Laurak Bat-en izan daben gurenda andiagaitik.

Onen ondoren, Otarpe Errenderiko izparkariak azaldu eban egoki izango zala Batzarraren izenean agur bat bidaltzea geixorik dagozan eus-



kal idazle andi biri, Axeri eta Enbeitari. Entzun ordukoxe erabagi zan, txalo andiakaz sarizturik Otarpen asmo ori.

Onen ostean, Kuku-Erri Azkoitikoak agertu eban, Enbeita ondiño Biaizterin dagoala bere osasun billa, eta lanik ezin egin eta gastua eukirik, berari zelanbait laguntzeko antxe bertan txindi-biltze bat egitea. Euskaltzale zar gipuzkoar batek, entzun orduko Kuku-Erriko iñoana erantzun eutson: «Arzak txapela eta itzik geio ein gabe asi ari billatzen». Eta alantxe asi zan eta bildu zituan 181 laurleko.

Azkenez Oxobi jauna jagi zan eta batzarrari agertu eutson bere asmoa; datorren urteko batzarra izan daitela Sara Laburdiko urian, Axular euskal idazle ospatsuaren jaioterrian. Danok erantzun geuntson baietz, eta bereala abesturik Itxarkundea eta Eusko Abendaren Ereserkia urten giñean enparantza zabalera.

An dantzatu ziran Zaldibiko, Pasai Deun Kepako eta Donostiko ezpata-dantza aldrak. Zein polito ikasi daben gipuzkoar mutillak gure Bizkai dantza gogor au!

Azkenez, Errenderiko makil-dantzari txikiak. Oneexek bai euki eben mundu guztia eurei begira-begira poz baten! Erakutsi eben mutil txikiok belarri ereskor ederra daukela eta anka bizkorrak.

Txalo andiak entzun ebezan danak, eta dana zor jake mutil begiko arei.

* * *

Ona emen orain Oyartzunen atzo bildu ziran euskal idazleak. Erreskada onetan batzuk bearbada ez dira egongo sartuta; berau egin eban eguerdian Larraitz Alegiko izparlariak, neuri lana aurreztutearren, eta beragaitik eskerrak dagitsodaz emendixek; erreskadan neuk sartu dodaz Kuku-Erri ta Begoñako biak; izan leike batzuren batzuk, oneek lez, erreskada onetan ez agertzea, Larraitzek bazkari etxean idoro ez ebazalako.

Ara: Matxin Gorri, Samaiko Zulo, eta Txinparta, Tolosakoak; Larraitz, Alegikoa; Goikola, Zoraitz, Aloñamendi, Ziritxo, Azpiola, Tximista, Zumardi, Mendi-zorrotz, Dunixi, Donostikoak; Ko-Ai, Artamendi, Endika, Erauskin Errotari, Ordiziakoak; Otxandi, Otxandiokoa; Aralar-mendi, Zalbidikoa; Otarpe, Neonek, Braxak, Izkillu, Gainbera, Lieizpe, Errenderikoak; Biar, Ondarroakoa; Gelatxo-Errota, Aberri, Elgoibar-koka; Ibaigane, Bergarakoa; Antxuberro, Oxobi, Laburdikoak; Iturbide, Iruña-tar Alesander, Naparrakoak; Basanaitz, Mendi-Lauta, Zubiondo,

Zarautzekoak; Tene, Asier, Debakoak; Txiiñuelo, Mañarikoa; Andutzmendi, Gernikakoa; Urki, Zornotzakoa; Arrugain, Bilbaokoa; Urni, Gogorra, Santanazubipekoa, B-tar P., Durangokoak; Zargazte, Eibarkoa; Zubigar, Pasai Zabalekoa; Murumendi, Isasondokoak; Buruntza, Andoaingoa; Ondartza, Pasai Deun Kepakoa; Kuku-Erri, Azkoitikoak; Urriola-beitia-tar Amantzi, Zornotzakoa; eta Begoñako Jelbatzokitik eta Euzko-Gasteditik Goti-tar Bedita, baita Abertzale ta Matxin, Mungiaokoa.

Ez al da mordo galanta?

* * *

Illuntzean Donostira etorri giñean Oyartzundik, eta apal-ostean batu giñean Eusko Etxean, eta an be barriketa ederrak euskeraz euki genduzan; abestu ebezan Txanton Piperriren zatiak lenengo Lizarraga Debarrak (Pasaian bizi da orain), gero biek batera Arostegi abotsendoak eta Gorostidi abotsoliak, guztizko ederto, eta azkenez Olaizola abeslari gorengoak abestu eban berak dakian lez, txalo andiak entzunik. Danoi eskerrak euskal idazle guztion aldetik.

Gure lagun Dunixik irakurri zituan «Abarrak» liburuko ipuintxo bi: Tximistargi barria, eta Atxuriko millagroa.

Egun eder bat igaro genduan Gipuzkoako gure anai euskaldunakaz. Eskerrak eta agur zuei. Gora Gipuzkoa!

* * *

Amaitu baiño lenago, gure batzarrera joandako euskal idazle guztion ordezkerrak Oyartzungo alkateari, erreztasun guztiak emon zitalako, baita bazkal orduan Oyartzunen bertan egiten dan Bitsdun Txakoliña botilla pilla bat biali zigulako. Ori dek alkate bat, ori!

Txapel-okerrik be ez genduan ikusi, eta ustea dogu ori be Oyartzungo alkateari zor zaiola, berak nunbait Miralesi esan bear izan zion etzala txapel-okerririk, eta berak erantzuten zuala etzala ezer izango.

Agur, araiñegun Oyartzunen batzau ziran euskal idazle ta euskaltzale guztioi. Datorren urtera arte Saran!

1921-VI-21



Euskerea jakin erazo

Euskerea dendetan

Lengo igandean Donostiko batzarrean Euzko-Gastediak arturiko erabagi bat izan zan: Euskera-aldezko Batzako bazkideak biñako aldrean ipiñi ta egunean aldra bakotxak egin daiala dendetatik ibiltaldi bat, salneurriak eta salgeien beste zertzeladak «euskeraz» eskatzen.

Asmo onuratsua da berau gure euskerarentzako, ba, danok ori egingo bageundu euskerea bearrekoa egingo geunke emen geure aberrian, eta bearrekoa egitea lakorik ez dago jenteari eragiteko euskerearen aldera.

Euskaldunak onetan bigunak izan gara, ta gara gaur be. Guk alegiña egiten dogu atzerritarrak ulertu daiskun, bere ele edo izkuntzea ondo ez badakigu, mordoilloka ta kiñuka baiño ez bada be; arexeri atzerritarrari eder egitearren bere elea ikasten dogu zelanbait.

Berak, ostera, euskaldunen artean bizi arren, ez dau geienean alegiñik egingo gure elea ikasteko... bai zera! gure elea basati edo *salvajeana* dala esaten dausku geuri arpegira, ta kitu.

Nik bein ikusi neban ementxe Bilbaon auxe: Neu nengoan burdiñeri-denda baten zeozer erosten, eta sartu zan bertan andra bat baserritarra, erderarik ez ekiana, ta bertako mutil bati eskatu eutson euskeraz, jakiña, «mai gainerako hule bat».

Ia ba, erderarik ez ekiala be, andra arek erderaz «hule» esaten eutson arren, dendako mutillak, bape alegiñik egin barik aituteko, siku-siku erantzun eutson: «No entiendo vascuence». Andrea geratu zan minduta lez arek euskeraz ez ekialako, bere begi bigunetan erakusten eban bere atsekabea, ta bere artean lez esan eban: «Ai ene, nik zelan aitu erazoko dautsat oni».

Orduban neuk esan neutson euskeraz:

—Etzaitetz estutu, egin-egiñean be, emen inguruan ainbat denda daukozuz onetarikoak, burdiñeri-dendak (ferreteriak) eta zoaz euretara, ta euskeraz eskatu beti, ta topauko dozu batenbat aituko dautsuna. Ara, nik ikusi baneu onek morroi onek alegin zeozer egin dauala zuri aituteko, neu zeuen bitarteko jarri ta alkar aitu erazoko neuskizue; baiña bape alegiñik egiten ez daualako, orrexegaitik, ez dot gura bitartekoa izan, eta zoaz beste dendetara. Ara, ortxe aurrean sartu zaitetz, ta uste dot euskaldunen bat topauko dozula».

Dendako morroia begira-begira egon zan bioi, baiña nik ez neutson ezer esan; neure artean esaten neban: «Auxe beti egingo balebe ona datozan euskaldunak, edo euk edo eure ugazabak ardurea artuko zeunkie euskerea ikasteko edo ire lekuan euskaldun morroi bat eukiteko dendan».

Euskaldun abertzale geienak ori egingo bagendu, dendetara sartu ta bear doguna euskeraz eskatu, ta ori ez bein edo alditxu baten, beti baiño, laster igarriko litzake, laster sal-erosleak euskeraz ikasiko leukie, edo beintzat, euren dendetan euskalduna eukiko leukie.

Ementxe Bilbaon gagozan beste euskaldun balegoz frantzitarrak edo ingelantarrak edo doistarrak edo... txiñatarrak, uste dozue ez legoke-la Bilbaoko denda guztietan frantzitar edo ingelandar edo doistar edo... txiñatar bat? Bai!!

Makalak gara, makalak. Guk onetan eredutzat artu bear geunkez Ebroz andiko belarrimotzak, euren bidetik jarraitu; eurek egiten dabena egin, eurak artu maisutzat. Eurek, euskaldun uts-utsa dan erri batera eltzen diranean, euren elez itz egiten dabe, ta dana eskatzen dabe euren elez; ez dira ibiltzen koipekerietan, dri-dra, eurena, jo ta keea, ta ulertzen ez badautsie, eurek euki daroe zer-esan geiago, ta purrustadaka asten dira, ia zelako basatiak eta ezjakiñak diran erri aretan, eta abar.

Ba, guk egin daigun eurek lez, alde guztietan, edo beintzat eurek geure bearritzana dabenetan; egin daigun euskeraz, ta ulertzen ez badauskue, alde beste leku batera, geure arterako esanik: Arraiorrek ba, niretik ogia atara bear bok, neuri ulertzen alegindu bearko dok; euk neu bear nok, eta neuk egin bear eure elez? Neuk eu bear autanean, izan leikek eure elez egitea, baiña ez ostantzean».

Donostin Euzko-Gastedi-Batzak arturiko erabagia, Altzagatar Jon Mungiako ordezkariaren asmoa ontzat artuta, orretaraxe doa, ta danok lagundu daiogun.

1921-VII-20



Orrenbeste?

Baionako «Eskualduna» izparringian dakusku irakurgai bat, J. E.-rena (ez dakigu berau nor dan), eta bertan auxe irakurten dogu:

«Gogorra, dorpea, askotan truskilla, bizkaitarren eskuara. Garbiago zauku, leunago ere mendiez hunaindian derabilaguna, nahiz den gutien bat aberatsago hangoa».

Orrek ez gaitu bape arritu, amaika bider terdi entzun dogulako gure euskerea latza dala, au dala ta ori dala.

Baiña arritu gaituana izan da J. E.-k gerotxuago emoten dauan arrazoa, ara: «Irakurtzen dugularik, ezin adituarekin askotan buruan min emaiten dauku».

Orra or zegaitik deritxon gure euskereari gogorra, dorpea, ta askotan truskilla.

Baiña arrazoi ori, bardin-bardin emongo leukie emengo euskaldunek ango euskereagaitik. Emengo euskaldunek J. E.-ren «Eskualduna»ko irakurgaia, adituko leukiela uste al dau berak? Ez leuskioela burukomiñik egingo uste al dau?

Arrazoi orretatik, ludiko ele guztiak dira «gogorak, dorpeak eta askotan truskillak»... aditu ezin dauzan edonorentzat.

Ez gara asarratu ori J. E.-k esan daualako, ez, bai zera!... berak esan-go leuken lez «irriño» bat urten jaku.

Gure euskereak *zazaza* gitxi dauko, obeto esateko, geuk darabilgu *zazaza* gitxi; guk s, z, ts, tz abotsak, gogor esateko ekandua dogu, *zazaza* barik; eta ortik sortzen da gure euskeraren gogortasuna Frantzia aldeko belarrientzat. Guk ikasiko bagendu J. E.-ren euskerea be, gogorra urten-go litzakigu, geure oguzkereagaitik. Emen be, zizipaza dauken umeren batzuk eta emakumeren batzuk bizkaitar euskerea leun-leun, me-me, gozo-gozo, frantzitarren antzera egiten dabe.

Bizkaitiar-euskereak, berak, ez dogu uste J. E.-k diñoan besteko dorpetasuna dauanik.

Orain J. E.-k ezin dauala ondo ulertu? Ai, ori beste arlo bat da, adis-kidea!

Ori ez da gure euskerearen «dorpetasuna», ori, ezer izatekotan, zeure «dorpetasuna» da.

1921-VIII-17

Erregenak

Atzoko egunez oin urtebete, illuntze aldera, Mallape etxean barrikena gozoan aurkitzen ziran bertoko senar-emazte ta euren alabatxo Miren ta Sorne, ta euren semetxo Kepander.

Jakiña, izketagaia zan gau aretan Erregeek zeintzuk emoi ekarriko ete eutsiezan iru neba-arrebatxuei. Batak au, ta besteak ori, gauza asko aitaturten eben, gauza asko gura, baiña bat baiño ezin eskatu, ta ezin ziran lotu gauza baten.

Aitamak barre andiak egiten ebezan txikien barriketa zoliakaz.

Alako baten aitak itandu eutsen:

—Ene txikitxuok, eta Erregeei zelan eskatuko dautsezue, zelan idatzita itziko dautsezue ingia, euskeraz ala erderaz?

Neskato biek esan eben erderaz idatziko ebela, ba Erregeak izan eskero euskeraz ezin leioela egin, ia euskeraz erregeak... ene!..

Mutikoak, gogor-gogor esan eban euskeraz ipiñiko eutsela bere eskakizuna, bera euskalduna zalako.

—Aitxe, erregeek euskeraz ez dakie ala?

—Jakingo etxuek ba?

Biamonean, oin urtebete, goizean leioak zabaldu ebezanean, barre algarak eta negarrak batera izan ziran etxe aretan.

Mutikoak, berak ingia itzi eban lekuan aurkitu eban iru txirringadun tramankulua, ganean ibiltekoa, ta ganera ostiko-pelota andi eder bat eta ganera zorrotxu bete galleta, eta azpi-azpian ingi bat, onantxe: «Etxe one-tako mutiko euskaldunarentzat; olantxe ederto, bakotzak bere elez eskatu. Agur mutiltxu, urrengo urtera arte».

Neskatoak... ezebeze! Areek egin ebezan negarrak! Aitak esan eutsen:

—Orixe daukozue ba, erderaz ipiñi dautsezue ingitxuak eskakizunaz, ta Erregeek aintzat artu bez.

—Baiña ori zelan? Erderaz ez dakie ala?

—Ara, Erregeak erri batetik bestera igaroten diranean, euren elea aldatu egiten jake, lengoa aztu ta barria jakin bakarrik, eurak dabiltan erriko elea bakarrik jakiten dabe. Burgostik datozanean espaiñeraz bakarrik dakie; an euskaldun mutiltxu edo neskatxu batek euskeraz ingia ipiñiko baleutse, ez leuskioe jaramonik egingo. Baiña eltzen dira Bizkaiko euskal errira, ta bereala bapatera aztuten jake ezipaiñerea, ta euskeraz bakarrik



dakie; ta orregaitik, erderazko ingiak areentzat ez dira ezebe... ipiñiko ez balira lez, bardin-bardin.

—Ai, ori jakin bagendu, iñoen negarrez neskatxuak, euskeraz ipiñiko geuntsen geuk be Kepanderrek lez... Ai!...

—Tira, etzaitzeze estutu, esan eutsen aitak, neuk erosiko dautsuedaz olgetaki polit batzuk, eta urrengo urtean ez aztu.

* * *

Etxake aztu, ez. Bart, iru neba-arrebak guztizko zintzo idatzi ebezan euskeraz euren eskakizunak; eta neskatxuek, bildurrarren, aitari ta amari erakusten eutsiezan ingiak, ia ondo ete egozan.

Mirentxuk eskatu dau dantzan egiten dauan andrakilla bat dotore jantzita.

Sornetxuk josteko otzara bat bere artazi ta aril ta titara ta errazton-tzi ta enparau guztiakaz.

Kepanderrek... «autokamion» bat, baiña berez ibilten danetarikoa, ez sokeaz lotuta tarraz eroan bear izaten dana.

* * *

Bart amarrak jo orduko, an eukezan euren emoiok, Erregeak... oera goizetik joan gura ta, arin ibilli ziralako.

1922-I-6

Esakun zuurrak

Ezeizu bein be zeure burua izketan erabilli. Egia badiñozu, iñok ez dautsu siñestuko. Guzuzra badiñozu... danak siñestuko dautsue.

Lana da gureztat geuk nai doguna: edo geure adiskidea edo geure arerioa.

Euskeraz itz laburren laburrenak zeintzuk dira? Bai ta ez. Orraiti bai eta ez orreek esan baiño len amaika bira eragingo dautsozu zeure miññari, euskalduna.

Obe da kontseju onari belarri biak edegitea txarrari bat baiño.

Zorionak beti atsegiña emoten badautsu, euskalduna ez aztu atsegiñak ez dautsula beti zoriona emongo.

Era batetara asmau... ta bestetara egin, orra geien-geienen zuurtasuna.

Astia zelan emon ez dakiana... alperra da.

Noz-edo-noz ikastea obe da, ikasi barik egotea ta iltea baiño.

Euskalduna, norbaitek ezer txarto esaten dautsunean, erantzun baiño len gau bat bitarte itzizu.

Jateko txarra onduteko ez dago gosea lakorik.

Zerbait asmatzeak ez dau balio, gero ez egitekotan.

Irribarre maite polit bategaz emoten dan ogei txakur-txikikoak bost laurleko balio ditu, artzen dauanarentzat.

Bere diruaz baliatzen ez dakiana, ez da aberatsa.

Zein laster aztuten dan deusik ez daukon adiskidea!

Iñor ez da engañetan errazagorik gizon zuzena baiño: danak daukoz bera lako zuzentzat.

Azariak egiten dau leoiak ezin dauan asko.

Makulu bi baiño anka bat obe.

Gudea, aitek semeak enterretan dituen aldia da; bakea, semeek aitak enterretan dituena.

Eguzkia gozo-gozoa dala, sarritan ondo da eguzki бага egotea. Edo, ogia ondo jatorko artoaz bizi danari.

Irugarren aldiz lurrean sartzen dan zugatza, nekez sustraituko da leku barrian.

Deabrua zentzundun egin ei zan zartzaroan; gizonak beste ainbeste egin bear leuke.

Sugeak ilda ez dauko berenorik.



Ezer ez dakianaz be zerbait ikasi leike.
 Mai batera deituten dautsuenean, euskalduna, saldea artzean ondo
 buruan erabiliko dozu zer esan alboko lagunari.
 Ez dau balio erre kara ura eroaten ibilteak.
 Miin txarra baiño suge gaiztoagorik ez da.
 Euskalduna, arren ez aztu illargia agiñakaz ezin dozula arrapau.
 Norbait badago beti atsekabeen sartua, ez eiozu zeure zoriona agertu.
 Euskalduna, gerizearen atzetik alperrik ibilliko zara.
 Gure bizia ez litzake laburra, beraz baliatzen bagenki.

BILARIA
 (Ille onetako GURE HERRIAtik bizkaieralduta)
 1922-VII-30

Gernikako batzarra

Euzko-Ikaskuntzaren III Batzarra aurten Gernikan egiten da, ta gaur da bere asiera eguna.

Aurtengo Batzar onetan gai bi bakarrik adiralduko (estudiauko) dira: gure izkuntza bata, eta Eusko Erriko Irakaskintza bestea.

Batzar onetan egingo diran itzeikizun, irakaskizun eta erabakizun guztiak gai bi orrei buruz izango dira.

Jaungoiko-Goteunak argituko al dautsez adimenak eta sutuko al dautsez biotzak Gernikara batzen diran euskaltzale ta euskoztale guztiei, eta Batzar orretatik urtengo al da zeozer onuratsua gure Aberriarentzako.

Geure aldetik, «Euzko-Ikaskuntza»ri eta batzarkide guztiei zorion agur biotzeko bat. Jauna zeuekaz!

* * *

Aitatu doguzan gai biok, izan be, garrantzi andiena dabenak dira gure Aberri bizkunde onetan.

Euskerea lenengo, gure aberriaren arnasea, gure aberria izango bada bear-bearrekoa dana, ba ez dogu uste iñor egongo danik euskera bagako eusko erririk izan leitekenik. Euskera galtzen bada... agur euskaldunen edo euskotarren erria!

Irakaskintza gero, auxe da gure bizkunde guztiaren oiñarria, ortixek asi bear euskerea ta euskotasuna txikitatik euskotarrari irakasteko, gure erriko umeak izan daitezcan euskoztaleak eta euskaldunak.

Ortxe dago abertzale guztiontzat oraingo burruka lekua edo lan egite-lekua, ortxe gogor egin bear dogu. Gogor egin bear dala esateaz ez dot esan gura gero, zarataka ta arramuskadaka ibilli bear dogunik, ez olakorik, bapez zaratarik, eta batu onetarako euskerea ta euskaltasuna maite daben guztiakaz, abertzaleak ez dirala badiño e be. Gure asmoak izan bear dau ekarri onurea, ekarri gauza ona gure Aberrira, bide batetik edo bes-tetik, geuk bakarrik ezin badogu, edozeñegaz batzauta.

Eskolea da gaur gauzarik bearrena Euzkadin. Abertzaleak, goazen eskolaren billa! Eta orretarako... goazen lagunen billa!

Eta... ortxe, Gernikako Batzarrean euskaltzale guztiak lagun egin daiguzan, eta Aberriaren onak eskatu ezker, euren lagun egin gaitzean.

1922-IX-10



Euskaldun utsakaz

Erderaz ez dakien euskaldunakaz izketan ibilli ezkeru, esakera oso politak entzuten jakez. Esakerok euren artean, euskerearen erraietan sortu dirala uste izan leike, erderatik etorri barik, eta augaitik atsegin andiz batuten doguz entzuten doguzanak. Ara batzuk:

Bein, mutil bat zeregin bat-edo-baterako gauza izango ete zan ala ez izketan eragoioen batzuk; eta euretariko batek, mutilla ondiño txikia zala adierazteko onantxe esan eban:

—Mutil orrek arazo orretarako EPERDIJE BETXO ez dauko?

* * *

Gizon zar batek (larogei ingurukoa) andra bati itandu eutson onen seme gazte bat ia zelan ebillen, ia zelakoa zan; andreak erantzun eutson mutil esanekoa ta ekandu onetakoa egin jakola, pozik egoala beragaz. Eta agura zuurrak esan eutsan:

—Ointxe ondo zaindu biozu; mutillek eukiten dabe aldi bat oso arrisku andikue, BIXERREN URTEYERIE; orduentxe ardura andije eurekaz.

* * *

Eskolara joiazan mutikoei errekadu bat emon gura eutsen baserri-ete bateko andreak, eta auzoko beste andra batek onan esan eutson:

—Ara, erreka ori mutikuekaz ezeixu bieldu, ORREEK GALBAIE ERABILTEN DAKIJE TA.

Esan gura ebana zan, barriketan egiten dabela ta dana zabaltzen dabela mutikoe, galbaian zuloetatik joakela ganean ipiñirikoa.

* * *

Mutil bati jakin erazo eutsoen alako errian eta alako baserrietxean neska ezkongei bat egoala, ta mutil ori joan zan etxea ta neskea ikusten.

Mutil orregaz berba egin eban bati esan eutsoen:

—Ta?... zer diño mutil orrek?... ezer egingo ete dabe?

—Ez dot uste ezer egingo dabenik, ABIYIE GUSTAU YAKO BAIA SOSUE EZ.

* * *

Beste batzuk be ba daukoguz ta alako baten ipiñiko doguz.

1922-XII-31

Euskereak dana adierazo leike

Gai gatx bat euskeraz

Aspaldion, illabete batzuk bai, daukogu emen iru ataleko idazlan bat, Donostiko euskaltzale gorgalgarria dan Anabirena. Gau ipinten dogu lenengo atala.

Ikusiko dozuen lez Einstein doistar jakintsuaren oldozpen barrietaz idazten dau Anabik.

Batenbatek esango dau, bearbada, onelako lanak ez dirala egokiak eguneroko izparringi batentzako, irakurlerik asko ezer aitu barik geratzen diralako; baiña ori gorabera, nik uste dot argitaltzea ondo datorrela, erakustearren gure euskereak balio dauala orrelako gauza jakindarrak adierazteko be.

Aspaldiko urteetan jabilkuz Unamuno (Mikel), Baroja ta euren atzean txakurra ugazabaren atzean lez dabilzan beste asko, esan eta esaten, gure euskera au ez dala bestetako ezjakiñen oldozpen apurrak adierazteko baiño; ta orregaitik laga bear dogula, bein be ez dala izango ikasteko elea, bein be ezin izango dala adierazo euskeraz jakintza gauzarik, gure ele onek azurrak gogortuta dauzalako, biguntasunik, biortasunik bape ez daualako.

Orrelakoai aoa estaltzeko ondo datoz Anabirena lako lanak euskeraz, ta eguneroko izparringietan, ez eurrez, baiña bai noz-edo-bein, argitaldu bear dira, jakin daien danak euskeraz edozer adierazo leikela.

Unamunok eta orreek esango leuskigue, Anabik idatzi dauana ez dala ulertzen.

Danak ez, ez dabe ulertuko, baiña bai askok. Eta erantzungo dau-tsegu orrei, Anabik euskeraz idatzi dauana espaiñeraz idatziko balitz be, erdal irakurlerik geienak «in albis» geldituko litzakezala, eta bearbada, Unamuno ta Baroja ta eurok be bai. Oneek be, zer? Erderazko dana aitzen ete dabe ba? Jakindi askotako arazoak espaiñeraz argi idatzi arren, Unamunok eta Barojak eta abar, oiñak otz eta burua bero atarako leukiez.

Beraz, danak ez dabela ulertzen ez da errazoia gauza bat txartzat botateko.

Dana dala, or joatzue Anabiren lan ori. Astirik ez badozue, laga, ta ez da ezer galdu. Baiña ba dakit bat baiño geiago izango dirala ori irakurri ta ulertuko dabenak.

Eta Anabiri geure bostekoa, Einstein-en gauza zaillok euskeraz ipinteko kemena ta trebetasuna euki daualako.

1923-1-5



Euskaldun utsen esakunak

Lengo baten argitaldu genduzan leku onetan, geure ustez politik ziran esakunak, euskeraz baiño itz egiten ez dabena entzunak.

Gaur, beste baten-batzuk ipiñi gura doguz, uste izanik ba, gure irakurleek ondo artuko dauskuezala.

Bilbaoko emakume batzuk, illabeterako edo joanda errian aurkitzen ziranak, goizetan berandu jagi ta etxetik urten ta egurastuten ibiltzen ziran ezeren ardura barik, eta euren auzoko batek onan esaten eban:

—Ainbeste emakume izan, ta ondiño illuntzian be orren oiek eta gelak SATORRAK JOTA egoten dira, ori da ganoria daukiena.

Esakun onek dakar gogora satorrak jota egoten dan landea, emen lur-pilloa or lur-pilloa; oak, bear dan moduan ipiñita dagozanean, landa garbia lez, leun-leun eta polito egon oi dira; baiña bertan bera lagata goizean jagieran lez, emen sakon-unea or goiunea ta an estalgiak meta egin da, satorrak jotako landa baten antza ba dauko zelanbait.

* * *

Bein Elorrioren, gure adiskide maite baten ama, euri zaparradeak arrapau eban bidean eta busti eban; eta etxerantza arin-arin joiala igaro zan aberats-etxe baten atarte aurretik, eta etxe aretan otsein egoan elorriar neskatilla batek, deadar egin eutson:

—Ene, itxaizu piskaten ta guardasol bat atarako dautsut.

—Ez ein atera, itxion, bustita naiaon ba ta, BELIAK ETXAUKON GEIAU BALTZITUTEKO BILDURRIK.

* * *

Lengo baten baserritar emakume bati entzuten geuntson (gitxi gorabera):

—Mutiko batzuk okerrak dauz, ene!... an gure etxe ganeko estartan batzen dira bi edo iru, ekarten dituez astuek eta biorrak, or basuetan arrapauta, eta ganera igon, eta an ibiltzen dira estartan batera ta bestera añeketan, baña zelan? An izate diran astrapalak eta apatx-otsak!... eiñalien

LAUGINAN erabilteituez ganauek. Nik ez dakit zelan biarreztanen bat eiten ez dabena.

«Laugiñan» itz orregaz adierazten eban erderazko «al galope».

Begiratu dot euskal iztegiatara, ta itz ori ez dago.

Lenago, geure errian bertan entzun genduan ori adierazteko «oinbardinka». Orraitiño, alde aretan geien entzuten dana da orretarako «galapan», eta auxe da itz egokia, beronek dakar ba belarrira zaldiak bere apatxakaz egiten dauan otsa olako ariñeketea darabillean.

Bidasoz andiko euskaldunek «lauazka» esaten ei dabe. Itz ori da gure «lauoinka» lakoxea.

* * *

«Ilipon» zer dan igarriko ete dozue?

Notin izena da. Olantxe ta guzti be, irakurle askok, baserrikoak ez badira, ezetz igarri erderazko zein izen dan.

Ilipon, Ilipon, Durango inguruko baserrietan sarri entzuten dannotin izena.

Ori da erderazko Ildefonso. Ugutz-aldian abadeak Ildefonsus deitzen dautson eta ugutzauen liburuan espaiñolez Ildefonso edo Alfonso izena ipinten dautsonari, gero euskaldun utsak Ilipon deitzen dautsoe.

Ildefonso baiño politagoa ez da?

* * *

Eta «Nanaro» notin izena zer dala ta zagoze?

Ezetz igarri onexeri be.

Ikaratu zaitze: Nanaro da erderazko Genaro.

* * *

Gure euskaldun utsak, eurek ez dakiela erderaren sustar andiak daukez sartuta euren izketan; baña uste izan leike euretara erderearen kutsu barik aurkitu balira, erderazko izen guztiak, abadeak ugutz-aldian ipinten eutsezanak, azpikoaz gora ipiñiko ebezala, ta eurek asmau beste barri batzuk, laburragoak eta ots obedunak.

1923-I-17



Kataluñarrak eta gu

Atzo, Donostiko Anabi idazleak uar batzuk egiten eutsozan Kizkitzaren lan bati.

Esaten eban kataluñarrak ele edo izkuntza erreza daukela, ta guk euskaldunok ele gatxa; eta orretatik datorrela areek ariñago ibiltea gu baiño.

Irudi bat ipinten eban Anabik: alde andia dagoala adrilluzko etxe bat egitetik piramide bat egitera.

Kataluñarrak da adrilluzko etxe erraza egitea; gu euskaldunena da piramide bat egitea.

Kataluñarrak erraz eta zabal daukiez euren eleari jagokozan bideak, eta euskaldunak aldapatsuak eta estuak.

Baten gagoz Anabigaz, zuzen diño.

Baiña...

Geuk be uartxu bat egin bear dogu, guk lez askok eta askok egin izango dabena emen gure Euskalerrian.

Gure uarra auxe da:

Kataluñarrak alde guztietan eta beti «parlen catalá». Trenean, jate-txean, kalean, dendan, tranbian, edonun, kataluñarrak beti «parlant catalá» ikusiko dira; eta ez bakarrik langille antzekoak, ostantzeko guztiak be bai, ondo jantzita, aberats antzekoak. Auxe da uar bat, gure irakurle guztiek egin izango dabena, geuk lez.

Orretara erakusten dabe izkuntza maite-maite dabela, ta euren artean besterik ez dabela erabilli gura.

Eta emen gure artean, nortzuk euskeraz egiten dabe? Egia esan daigun: Banaka batzuk aldendu ezker, erderaz ez dakienak bakarrik.

Eurrez ikusten doguz aspaldiko urteetan abertzale zintzo-zintzoak, euskaldunak, beti erderaz itza darioela, alkarregaz izketan euskaldunak eta abertzaleak diranak egon arren.

Uar au edonok egin leike Bizkaian eta Gipuzkoan, uri andietan eta txikietan. Euskeraz bakarrik egiten dan uri asko ta askotako Jel-batzokietan Espaiñako erderatxua baiño ez da entzuten geienetan.

Euskaldunak ez dau maite bere aberriko elea, jakiñik ez dau erabilli gura ta; bere aberria zapaldu dauan erriko erdere maiteago dau.

Onetan alde aundia dogu kataluñarrak eta guk.

Areek beti kataluñeraz itz egiten dabe.

Euskaldunak, geienak, abertzale purrukatuak izan arren, ez dabe euskeraz itz egiten.

Areek zegaitik bai? Euren elearentzako maitetasuna dabelako, gogoa dabelako.

Emengoak zegaitik ez? Gogorik ez dabelako, euren elea maite ez dabelako, atzerritar arerioen elea maiteago dabelako euren jatorrikoa baiño.

Orrez ganera, zenbat euskotar erdaldun abertzalek ikasten dau bere aberriko ele «Euskerea»?

Zenbatuko balitzaz emen euskeraz ikasten dabiltzanak euskal irakastola guztietan eta emen agertuko bagendu, danoi arpegia lotsaz gorrituko litzakigu.

Aberri elea maite izaten, guk asko ikasi bear dautsegu kataluñarrai, euren aurrean burua makurtu ta txapela erantzi bearrean gagoz.

Kataluñarrakaz burua bat egin gura badogu, euskaldunek euskaldunakaz beti-beti... beti gero!... euskeraz itz egin daigun.

1923-I-21



Ama, txiroa bada be, ama da

Euskeraz itz egizue

Guk lengo igandean, gaur zortzi, leku onetan esan genduan euskaldun geienak ez dabela euskeraz itz egin gura izaten, erderaz itz egiten jakin ezker. Eta ori abertzaleen artean be jazoten dala; eurrez ikusten dirala euskaldunak alkarregaz erderaz berbetan.

Arañegun «Iñor» idazleak zelanbait arixe gure esanari erantzuten lez, leku onetantxe idazten eban euskaldunek olan erderara jotea «derrigorrezko» gauzea dala.

«Iñor»ek diño, gorputz-indar-lanean iñarduten dan euskaldunak euskeraz pentsetan dauala ta orregaitik euskeraz eroso itz egiten dauala; baiña adimen-lanean iñarduten dan euskaldunak erderaz dana egin bear izaten dauala, erderaz ikasi, erderaz irakurri, erderaz idatzi ta abar, eta onan erderapean jausten dala, dana erderaz egiten oituten dalako.

Ganeratzen dau, euskeraz gitxi idazten dala, ta idazten dan apurra be garrantzi edo inportantzia bakoa; ta beraz, euskaldun ikasiak beti erderaz irakurri bear izaten dauala, ta emendik be erdereak bere menpean artu ta oituten dauala.

Euskaldun orrek bere adimeneko gauzak erderaz askoz errazago esan al dauzala, batez be garrantzi andikoak badira gauzok.

Eta gatx au osatzeko eskatzen dau euskeraz asko idazteko garrantzidun (inportantziadun) arazoetzaz.

Beraz, «Iñor»en asmoa da, euskaldunaren adimenari euskerazko irakurgai garrantziduna ugari emon, irakurri dagian eta, gaur erderara oituten dan lez, euskerara oitu daiten, euskeraz erraz-erraz edozer adierazteko bestean.

Asmo ederra «Iñor»ena.

Idatzi ta argitaldu beitez euskerazko irakurgaiok, betoz euskerazko liburuok.

Eta datozanean, euskaldunek izan beie eurok irakurteko gaur euskeraz itz egiteko ta irakurteko erakusten daben baiño zaletasun geitxuago; bestelan, liburu koitauok egon bearko dabe or gela bazterren batzuetan alkarren ganean, sagutxuen agiñar-gei.

Baiña ez dogu uste «derrigorrezkoa» danik erderaz itz egitea, erderaz irakurten dalako ta erderazko adimen-lana egiten dalako.

Lenen-lenengo esan bear doguna da, erderaz itz egiteko ekandua dauken euskaldunek ez dabela erabilten, geien-geiengan beintzat, garrantzidun izketa gairik, bai zera; izketa gai ori beti izan oi da, edo osasuna, edo eguraldia, edo jantzi-janarien salneurriak, edo onakoxe gauzak, egunorokoak, eurrez mundu guztiak darabilzanak.

Orreek gauzok erderaz erabiltea ez da «derrigorrezkoa». Erderaz dana irakurri arren, orreek gauzok euskeraz erabiltea gauza erraza da, gura izan ezker.

Orixe egiten dabe kataluñarrak beti, naiz ta euren aberritik urrin bizi, katalaneraz itz egin olako gauzak.

Baita orixe egiten dabe frantzitarak Espaiñan beti bizi arren, espaiñarrak Frantzian naiz Ingelendan bizi arren, edozein aldetakoak euren aberritik urrin bizi arren, danak euren artean euren berbetea erabilten dabe, orreek egunoroko gauzok alkarri adierazteko beintzat.

Ez bearizana daukelako, ba euren bizi diran erriko berbetea ederto ikasita eukiten dabe, euren aberri berbeteari dautsoen maitetasunagaitik baiño.

Euskaldun erdera-zaleok be bardin egingo leukie, euren ele Euskerari maitetasunik baleutsoe.

Ba dira euskaldunak, besteak baiño gitxiago diran arren, euren artean beti euskeraz iñarduten dabenak, ez bakarrik orreek eguneroko gauzok adierazteko, baita «Iñor»ek diñozan garrantzidunak adierazteko be.

Onetariko euskaldunak irakurten dautsue, adibidez, Geografiako edo Matematiketako edo Historiako edozer gauza, ta gero, an irakurri dabena, euren artean euskeraz erabilten dabe, euskera mordoilloz baiña euskeraz.

Onetariko euskaldunak ugari samar dagoz, Gipuzkoan batez be, baita Bizkaiko erri txikietan eta geien itxasaldean.

Beste erdalzaleak be oneexek lez egin leukie, eta abertzale diranak ez dauke iñundiko atxakirik ori olantxe ez egiteko.

Abertzalea ez dan euskaldunak esaten dau: «Nik euskerea zetako? Zer irabazteko? Zer irakurteko?»

Baiña abertzaleak ez lei olakorik esan, ori litzake ba seme batek bere ama txiroari esatea lez: «Nun dozu jauregia? Nun dozuz sedazko ta urrezko jantziak? Nun dozuz apain-pitxiak? Orreetarikorik ez badozu nik zeta-zaitut?»



Ez, seme onik ez dago bere ama txiroari ori esango dautsonik, ez abertzalerik euskerea maitatzeko ta al dauan guztian maite ta pozik erabilteko aurreztik ospatasuna eskatuko dautsonik.

Artu daigun geure ama bera dan lez, ta alegindu gaitezan bere txabolatxua garbiro ta txukun eukiten, beragaz bizi izanik pozarren amasemeak lez; ta iñoz txabola ori jauregi biurtu al badogu obeto danontzat, eta ezin badogu, geureagaz, Jaungoikoak emon dauskunagaz apal bizi gaitozan.

Irakurleak: Itz egin beti euskeraz.

1923-I-28

Bakotzak bere teillatua zaindu

Doistar edo aleman batek gure EUZKADI onetan «ogia» ta «ogija» idatzita ikusi dauzalako itanduten dau ia itz biok euskera diran.

Baietz erantzuten dautsoe, ta doistar orrek bere betaurrekoen ganetik zorrotz begituta diñoi:

—Orduan, santa sekula baten be elertirik (literaturarik) ez dozue euko euskeraz.

Olantxe! «Ogia» ta «ogija», ta euron antzera beste itz asko era bitara esan eta idazten doguzan bitartean, gure euskeraz ezin lei idatzi ez irakurri ez irakatsi ez ikasi... galduak gara!

Orain, guk, doistar orri itzul-oldarkun edo «contra-ataque» bat (ein Gebenlaufgraben) egin bear dautsogu.

Edo geure erara esateko: Berak gure teillatura arria jaurtin dauskun lez geuk be bere teillatura jaurtingo dogu.

Doistarrak gure itz «egin», era bi oneetara idazten dabe: 1-tun; 2-thun.

Ori zelan dok, mein Herr?

Doisterrak gure itz « ataldu» edo « zatitu» , era bi oneetara idazten dabe: 1-tehilen; 2-theilen.

Ori be zelan dok, i, mein Herr?

Doistarrak «mich» idazten daben itza, irutara oguzten dabe: 1-mitx; 2-mix; 3-mij.

Orretara, mein Herr, zuen elertia ta putzerroskilla bat bardin izan bear leukiek.

—Aber wir haben eine reichliche Litteratur (Baiña guk elerti ugari bat dogu).

—Ba dakigu, ta ori, batzuk «tun» eta besteak «thun», batzuk «teilen» eta besteak «theilen» idatzi arren; baita «mich» itza, oneek *mij*, orreek *mix*, eta areek *miix* esan arren.

Eta guk be batzuk *ogia* eta besteak *ogija* esan ta idatzi arren, geure euskerea erabili badarabilgu, elertia egingo dogu. Eta egiten ez badogu ez da izango *ogia* ta *ogija*-ren erruz, bai zera!, izango da idazlerik ezagaitik eta irakurlerik ezagaitik.

Izango da euskereaganako maitetasunik ezagaitik.

Bizi-bizi daukot gogoan, Zumarragan batzarra egin zanean «Euskal Esnalea» irasteko, eretxiak esaten ebilzanean batzuk eta besteak euskerea-



ri nundik eta zelan indarra emongo, jagi zala euskal idazle ta erdal idazle gazte bikain bat eta esan ebala: Euskerea indartzeko bide guztiak alperrekoak zirala maitetasuna ointzat ez baeben, eta beraz lenen-lenengo adiraldu (estudiau) bear zala maitetasun ori zelan sortu euskaldunen biotzetan.

Zuzen esan eban idazle arek, eta an gengozan askok pozik entzun genduan. An egozan beste askok, errezeloz ta isilik begitu eutsoen.

Maitetasun ori euki ezkeru geure abenda elari, euskaldunek alkarreganatzan diranean alkarri itz egiteko edo alkarrenak irakurteko bata *ogja* esan edo idatzi, besteak lehen esan edo idatzi, onek *intxaurra*, orrek *eltzaurra*, orkoak *arrautza*, angoak *arroltze*, ta abar, esan edo idatzi arren, egon eskier alkarri entzungo dautsoela, alkarrenak irakurriko dabezala, alkarrenaz euskerazko artuemona eukiko dabela, ta euskerazko artuemon orretatik sortuko dala, sortutekotan, elertia, bizia, kalekoa, lagun artekoa.

Maitetasuna barik, ostera, Euzkadi guztiko idazleak danak *ogja* idatziko balebe, euren idaztiak or egongo litzakez idaztegi edo biblioteketan autsez beterik, eta an geldi egongo litzakez doistar «Herr Sprachforscher»en bat bere betaurreko ta guzti etorri arte.

Itz baten, gu ez gagoz elerti barik, gure euskerea ez doa galtzen, *ogja* ta *ogji* esaten doguzalako... esaten ez doguzalako baiño!

Ai, euskerea dakien guztiek beti-beti esango balebe *ogja* edo *ogji* edo *ogjye* edo *ogjxa*, ta ez *pan*, euskereak iraungo leuke, sendotuko litzake, ta bere barrutik atarako leukez elertiok eta bear diran guztiok!

1923-II-4

Euskeraz, mordoillo bada be

Iru edo lau euskaldun abertzale purrukatuk, idun txarolezkodunak, geienetan oi daben lez, espaiñeraz itz egiten diardue.

Artera jatorke lagun barri bat, euskalduna ta abertzalea berau be, ta besteak aiñako purrukatua izan ez arren, beti euskeraz itz egiteko oitura aberkoia daukona. Agur eginda, asten da izketan:

—Ortxe beste kaleko fondon zeozer pasau bier ixen dau; jente pillua dago batuta ate-aurrien, eta atartien polizijakuek agiri dire...

Ezin dau geiago esan. Asi jakoz barre destaiñaka, esana ebagiten, onetariko itandutxuakaz:

—Kale?... zer da kale?

—Fonda?... nungo euskera da ori?

—Pasau!... euskera gaixoa!

—Jente!... Polizijako... Ori euskeraren izkelgi barriren bat edo da, «dialecto vasco-españolista» edo..

Zeozer edestuten edo kontetan asi danari gogait eragiten dautsoe, ta ainbeste burla ta destaiña ez entzutearren alde egiten da andik; eta aurreantzean euskeraz itz egiteko bildurtuta, lotsatuta, adore andi barik.

Beste abertzale purrukatuak, euskera garbi zaleak, kale ta jente ta fonda ta onetariko erderazko itzik entzun ezin dabenak... erderaz, espaiñeraz, itz egiten darraie.

Euskeraz itz egin gura izan dauanari barre ta burla egiñaz, galerazo, ta bera be erderaz beti egiteko bidean ipiñi.

Eta eurek, iñoz iru edo lau esakune euskeraz ez dakien aurrian izan ezik, beti espaiñeraz daragoioe, izanik Espaiñaren arerio itzelak eta izanik euskerea garbi dakienak (euren ustez).

Orretariko iru edo lauk aberriari kalte geiago dakartsoe iru edo lau milla maketok baiño.

Eurok euskerea ta euskal antz guztia galdu eragiten dabe.

Orretariko guztiek a euren lagun gixajoak lez beti euskeraz egingo balebe, euskera mordoilloa izan arren, gure izketa onek indar geiago leuke.

Orretarikoakaitik jazoten da, eurok erakuspidea emonda, ainbeste euskaldunek erderaz beti egitea, batez be kaleko jantzia ta bizimodua artu badaiz mustur ertzean bibote erretxu bat itxita.



Ez, jauna, ez ta ez! Bakotxak berak dakian lez itz egin daiala, mordoilloz naiz ostera; bear dana da euskeraz egin. EGIN, EGIN!

Ortxe igarriko da maite dan ala ez. Maite dozu? Erabiliko dozu! Ez dozu erabilten? Ez dozu asko maite!

Ori baiño argiago zer gero?

Irakurle: euskera mordoilloa darabilzulako iñok destaiñarik egiten badautsu, erantzuiozu, iñori ezer esan barik berak ondo egin daiala, bere lagunakaz ta bere etxeokaz erderaz ibilli barik.

Eta azkenez, destaiñagiñai esan bear dautsegu, euskera mordoillo-dunak, itz-joskeran, esakeretan, eta erraztasunean, euskera polit bigun gozo-gozoa egiten dabela geienetan; eta destaiñagiñok iñoz egiten dabena, barrez, alde guztietatik ertz ta punta ta gogortasunez beterik egoten dala, bere laztasunagaitik euskaldun utsak iruntsi gura izaten ez dabela.

1923-II-16

Euskaldun eskolabakoak

Eskoleak jentea mendu ta ezi egiten dau. Eskola asko ta eskola onak dagozan erriak aurreratuagoak, obeak dira, eskola gitxi edo bapez dauken erriak baiño.

Eskolabako jentea, skolabako erriak, basatiak dira.

Esakun orreek egiak dira. Geu be orretan gagoz, notin ikasia beti dala geiago ez-ikasia baiño.

Baiña...

Ez ikaratu, ez dogu esango ezer eskolearen aurka, bai zera!

Gure asmoa gaur ez da besterik emen, geure euskal errian oartu doguzan gauza batzuk aitatutea baiño.

Euskaldunek, beargin artekoak izan ezkeru, eskola gitxi ikasten dabe; eta baserritarrak badira, geienak ia bapez, eta askok bapez, benetako skolabako edo analfabeto geratzen dirala.

Bai ba, zelan ezer zuzen ikasiko dabe, euren maisu-maistrak eurakaz ezin aitu badira?

Olantxe ba, gure euskaldun gixajoak, edo eskola barik edo erdi-eskoleaz geratzen dira.

Erdaldunak, ostera, geienean eskola onak daukiez, maisu ta maistrak euren berbetakoak, asko ta ondo irakasten dautsienak al dabelako.

Beraz, gure euskaldunek basati (salvaje), kirten, astopatxiko, lotsabako ta oneetarikoak izan bear.

Eta erdaldunak, naiz ango naiz emengo, euskaldunen aldean jente azikera onekoa, jente mendua, berbetan ondo dakiana, lotsa edo errespeto andikoa abadeentzat, nausientzat, zarrentzat, gurasoentzat, eta edozeiñentzat.

Alde andia egon bear onetan euskaldunetatik erdaldunetara.

Baiña... zer da ikusten dana?

Guk beintzat ikusten doguna da:

Zoaz trenean, irugarreneko burdian, baserritar euskaldunakaz batera, ta ez dozu entzungo astakeririk, lotsabakokeririk, berba txarrik, ezeren ardura barik joan zindekez euren artean. Sartu zaitez, ostera, erdaldunakaz irugarreneko burdian, eta an entzungo dozuz «diabru-letaiñak», eta izketa bada-ezpadakoak, ezeri ta iñori lotsarik ez dautsiela.

Euskalerrian zoaz baserri baztertueta, eskola barik antxe basoan bizi diranen artera, ta antxe idoroko dozu jenterik zintzoena, jente argia,



edozetan zeuri laguntzeko gertu daukozuna, naiz jana ta naiz ostatua konprimentu gitxigaz emongo dautsuena.

Eta euskalerrian bertan, uri andi ta burdinbide eta bitxabal ondoetako jenteak, areek baserri baztertukoak baiño geiago ikasita dagozanak, eskola geiago daukienak, etxatzuz ain argi egoten, bidezko agurra be nekez egingo dautsue. Eta basokoak bidean kurutzetu orduko argi-argi «Egunon edo arrasteion» esango dautsue.

Onelako gauzak oartuta sarri egon gara esaten geure arterako: «Eskoleak jentea gaiztoagotu egiten dauala esan lei».

Baiña... ez, eskoleak ez dauko orretan errurik, erdereak berak baiño.

Erdaldunei eta urietako euskaldunai maisuak eta maistrak eskolan irakasten dautsie gauza ona, baiña erdera orrek kalean eta antzokian eta joko lekuan eta edonun beste irakaste bat emoten dautse. Eskolan gauza bat, eta eskolatik at beste gauza asko ta ez onak.

Orregaitik, iñoz esaten da, ta egiz esan be, gure euskera eder onek Uzkurtz edo Erlejiñoa jagoten dauala; eta esan daikegu arez ganera, gure euskera onek jagoten dauala ondiñoarren mendutasuna (zibilizaziñoa).

Euskera bako eskoladunak basatiagoak agertzen jakuz eskolabako euskaldunak baiño.

Gure oarra beintzat orixe da. Euskaldun utsen artean, sekulan eskolara joan ez badira be, nasai egoten gara, ezagutzen ez doguzan arren; erdaldunen artean edo euskaldun urietako ezezagunen artean ez ain nasai, errezeloz baiño.

Gure erri zoritzarreko onetan eskolea lenengotik euskeraz emon balitz, noraiño goieran gaur aurkituko litzake berau?

Ziur gagoz, ludian aurrenengo errien artean legokela.

Eta sartu dan erdereaz, oster, naiz ta eskola bat ipiñi kale ta auzo bakotxean, euskerea galduaz geroago basatiagoa ta zakarragoa egingo da.

1923-III-16

Pedro Mikel Urruzuno jauna

Izen ori eban euskal idazle bikaiña lengo larunbat eguerdian il zan Mendaron.

Gaurtik amabost egun barru inguru beteko ebazan, bizi izan balitz, 79 urte; baiña orren adin aundia euki arren gizon osasuntsu ta betiko umore ona eukana zan Don Pedro Miguel.

Aste Deun onetan lan askotxo egin eban bere adiñerako; prosesioñoi jarraitu bide guztian, eta egun baten irurogeta aitorkuntzak entzun, eta onan gixajoa nekatu egin zan, eta orregaitik ordutik ona egon da apur bat ondoezik. Larunbatean txartotu zan bat-batera, ta Ikurton Deunak artu ondoren bereala il zan.

Igande goizean egin zan bere obiralkundea, erdurik Mendarora Elgoibarko apaizak eta bai Mendaro inguruko guztiak be; eta orrez gañera, bertako ta inguruetako jende aundia.

Elgoibarrera eraman zuten, ango semea baizan ba, ta ango Baratz Deunean bere gurasoen ondora illobiratzera.

Atzo astelenez asi da Elgoibarko eleizan bederatzi eguneko il-otoizketea Urruzuno jaunaren gogo alde, eta amaituko da bederatziturren au datorren astelenean, orduan egiñik jaupa ta ilotoizketa nagusienak.

Gaur jaupa ta il-otoizketak egingo dautsoez Mendaroko monjen eleizan; eta antxe bertan datorren barikuan barrero, inguru guztiko abadeak aginduta.

Urruzuno jauna izan da aspaldiko urteetan euki dogun euskal idazle bikaiñenatariko bat. Berak, orain ogetaz urteak dirala, beñiolako «Euzkalezale» Bilbaon argitaltzen zan euskerazko aldizkingi eder-ederrean asi zan idazten bere «Euzkaldun Erdalezale», eta gero jarraitu eban «Ibaizabal» asterokoan, eta arrezkero idatzi dau ainbat izparringi eta aldizkingitan, eta ointsurengo «Jesusen Biotzaren Deya»n, eta «Argia» asteroko politean.

Amaika barre gozo eragin dau Urruzuno jaunak «Euzkaldun Erdalezale»kaz!

Eta ez uste Urruzuno jaunak beti barregarrikeri, gatz lodiko idazkaiak bakarrik idazten ekiala, ez; ben idazten ebanean, samur idazten ebanean, ba ekian bere samurtasunaz begira malkoak atara eragiten.

Jaungoikoak lagun, biar eta urrengo egunetan argitalduko doguz ementxe bere idazkairan batzuk, gaurko gazteak ikusi dagien zelako gauza politak idatzita eukazan Urruzuno jaunak.



Idazle ona izanaz gañera, jaun au zan apaiz onbidetsua eta gizon zintzo ta oso gogaldi onekoa; biotza eukan garbi, ta orregaitik, beti barre egitekko guraria, baiña barre garbia, iñori gatzik bakoa.

Elgoibarko semea zan, eta bere jaio-errian txauburu izan zan; eta dakigunez, bera txauburu izan zan aldian txadonako bederatzirenen eta otoitz guzti-guztiak, baita abestiak be euskeraz ipiñi zituan. Benetako euskaltzalea zan.

Geroago izentau zuten Mendaroko monjen kapillau, eta antxe bake-rik zorionsuenean igaro dau bere bizitarik erdia.

Goian bego Urruzuno-tar Kepa Mikel jaunaren gogo. Otoitz bere alde irakurle guztiok, batez be euskal idazleok, bera izan da ba gure anai nagusienetariko bat, eta anai maite-maitea izan ere.

Bilbaon bizi dan bere arrebari ta bere lobari, baita Elgoibarren daukazanai, laguntzen dautsegu gaurko euren atsekabeen.

1923-1V-17

Eleizalde

Burruka gogorra erabilli dau aspaldi onetan eriotzeagaz, baiña gixa-joak azkenean lurra jo dau, guztiok jo bearko dogun lez.

Atzo goizeko zazpi ta erdietan bere gogoia emon eutson Jaungoiko-ari.

Bere geixoaldi luzean, benetako kristaua lez agertu da, ondoez guztia gogo sendoaz eroanik; benetako euskotarra lez, azkeneko orduraino bere aberri Euzkadi oroiturik; baita benetako gizona lez be, eriotzeari bape ikara barik, aurrez-aurre begiraturik.

Ointxe egoan ba, gure ustez, Eleizalde, sasoirik onenean aberriaren alde bere adimen argi ta ikasiaz lan ederra egiteko, ta orregaitik, bera gal-tzeak min andia emoten dauku abertzaleei; eta oldoztuten jarten gara, ta bururatzen jaku Jaungoikoak ez ete daukun kendu berak merezi eban bestean maitatzen ez gendualako.

Eleizalde gazte-gaztetxutik abertzalea izan zan. Sabin maisuaren adiskide kutuna zan. Bere lenengo idazkiak EUZKADI ingurtian argitaldu zituan, eta bereala igarri eben irakurlerik geienak «Koldobika» izenaz an agertuten zana idazle puntarengoa zala.

Ordutik ona, danok dakizue zeinbat eta zelakoa idatzi dauan gure asteroko izparringietan, egunoroko onetan, liburuetan, aldizkingietan, eta abar. Onen barri danok dakizue.

Zenbat irakurri eban, nok daki? Bere etxeok bakarrik. Eleizaldek esango geunke liburutan larregi irakurri ebala; lanegi diñogu, bere osasunaren kaltean izan ete dan susmoa jatorkulako.

Gu abertzaleon artean gizonik jakintsuena ta adimen argitsuena izan ez bada, bai beintzat jakintsuenetarikoa ta argitsuenetarikoa.

Bera lako gizon batzuk, asko barik, euki bagenduz, edo bageukoz, laster sartu izango zan, edo sartuko litzake, gure Jel-batza ta gure aberria jakintza bidetik.

Abertzale aurrenetarikoa izan da beti, azkenengo ordurarte; atzo bertan entzun geuntson esaten berari azkeneko ordurarte lagundu eutsan bateri, il baiño zerbait lenago esan ebala: «Nire neke oneek artu daistazala Jaunak neure Aberri gaixoaren alde, neure ustez berak merezi dauan baiño gaixoago».

Gogoan eukan ba aberria eriotzearen aurrean be, olan adierazorik zein sakon eukan aberri maitetasuna.



Langillea izan da, gitxi lakoa. Ezin zan egon zeozer egiten egon barik; batzuetan barre be eragiten eban bere urduritasunak. Osatebakuntza gogorra egiten eutsoen, eta oean egoala, andik egun batzuetara, oearen ondora eroan bear izaten eutsoen idazteko makiñea, ta an ekiten eutson lanean sendo, osasunaz beterik genbiltzanok baiño askozaz gogotsuago. Ezin geldi egon.

Jaunak eroan dausku. Guk uste genduan bere bearra ba geunkala. Itxuraz alan ez da, edo bere bearraren duin ez gara, etxagoku berak egin leikean eusko bearrak... au ete da ba, Jauna? Oldoztutea bakarrik itzela da.

Eleizalde gure anaieak beste aldean be beana egingo dau, ez idatziz, baiña bai otoiz. Bere aberri alde otoi egingo dau Jaunaren aurrean.

Eta guk be otoi egin daigun bere gogoaren alde, bearbada gure otoiak bear baditu Jaunaren aurrera eltzeke.

Orain arte otoitz egin dogun lez bere osasunaren alde, egin daigun bere osasun betikoaren alde.

Eukizu Jauna or goian gure anai maite Eleizalderen gogoa!

Betiko argiak argi begio!

1923-VII-25

Egin

Uste dogu irakurle asko geldituko zizala jakin barik lengo igandean Tolosako gure euskal izparkariak bere idazkian emoten eban izpar bat.

Eta ori uste dogu, susmetan dogulako euskal irakurle askok ez dauzala irakurten bere erriko (edo bere erri inguruko) idazkiak baiño; orretan oker aundi bat egiñik, idazki askotan izpar polit eta jakingarriak etorten diralako.

Norbere errikoak ez diran idazkiei be ondo da begirada bat ganetik egitea, ia euretan idoroten dan izpar polit, edo jakingarri, edo garrantzidunen bat. Izpar bakotxari, geiengan, bere asieran igarten jako zetarikoa dan.

Orra ba, igandean Tolosako idazkian etorririko izpar jakingarria zan:

Gipuzkoan suaren kalte-aurkako Bazkun bat dago «Seguros Mutuos de Guipúzcoa» izenduna; Bazkun onek bere urteroko batzarra Tolosako udaletxean euki dau lengo egun batean, eta bertan, urtebeteko goraberak, suaren kalte-ordaiñak, eta oneetariko zertzeladak, eta bai ostantzeko erabagikizun, oarpen eta abar, EUSKERAZ egin ziran.

Izparkariak diñoanetik ataraten da, aurten egin dala olan lenengoz; len erderaz egiten zizala batzarrok.

Beraz, orkada (pausu) bat gorantza egin dau euskereak or. Gauza pozkarria da ori, abertzaleak eta beraz euskaltzaleak garan guztiontzat.

Izparkariak txaloak jotzen dautsoz Bazkunako artezkari Lopez-Mendizabal-tar Ixakari «ain txukun ta egoki aurten euskeraz agiriak eta batzarra egin arazi ditualako».

Buakioz gure txaloak be Ixakari ta Bazkun orretako kide guztiei.

Orixe da benetako lan onuratsua: «egitea» gure aberriaren alde. Ez dago orrelako «gora Euzkadi» deadarrik.

Deadar guztiak baiño «egite» bat obe da.

Egin... egin... orixe da bear doguna. Deadarrak aizeak eroaten dauz ta ezerezean geratzen dira, ta iñoz-iñoz geugaz batera eusko lan onuratsu baterako gertu dagozanak uxatuteko be izaten dira.

Egin... egin... irakurle.

Egitadaz jaurtizu «gora Euzkadi» deadarra. Seme edo alabea dozu? Ipiñi euskal izena berari. Orra or deadar ederra.

Etxe bat egiten dozu, denda bat zabaltzen dozu? Bere izena, bere idazkuna, bere iragarria euskeraz ipiñi egiozu.



Zeure lagunakaz, zeure etxekoakaz, erderaz itz egiteko oitura txarra dozu? Alegindu zaitetz oitura aberri-ilgarri ori atzeratzen, eta beti zeure asaba elez mintzatzen.

Zeure etxeko edo zeure lagun bati idazkia egin bear dautsozu? Euskeraz idatziozu.

Ikusten dozuz jeltzaleak ez diran batzuk, eusko zaletasunak eraginda, gertu dagozala, euskerearen aldeko edo euskotarren aldeko zerbait, naiz ikastola, naiz bazkun, naiz bide, naiz etxe, naiz txadon, naiz portu, naiz edozer, egiteko? Batu zaitetz eurakaz, ta danon artean egizue gure aberriarentzako ondo datorren arazoa, lan aberkoi eder orretatik zeure deadarrakaz eurei alde eragin barik.

Deadarra iñoz ondo dator, alkar ezagutzeko ta alkar sututeko; baiña beti-beti ta zetara ez datorrela, utsa da, ta iñoz gogaikarria, baita kaltegarria be.

Egitea, barriz, beti-beti dator ondo.

1923-VIII-8

Argi ta garbi, atxakiak, zetako?

Lengo illeko igande arrastegi baten Begoñara igon giñean, egurastuaz batera denporea emoten, eta an, eleizearen aurrean aurkitu genduan adiskide maite euskaldun bat, bere ume bigaz, neskato-mutikotxu txoriak lakoxe alai ta politak.

Ango aulki baten jesarrita barriketaldi luzetzua euki genduan, bitartean umetxu polit areek olgetan ebiltzala gure inguruan, une baten be geldi ezin egonda.

Guretzako ume areek euken gauzarik ederrena, eurek erabillen euskerea zan. Bai, euskeraz bakarrik eta erraz-erraz egiten eben euren artean eta aitagana zetan edo atan urreratzen ziranetan, eta guk eurei zeozer itandu ta zirti-zarta egundoko bizkorren erantzuten euskunean.

Ume areek Bilbon jaio ta azi ta bizi dira. Euren aita euskalduna da, baiña euren ama len etzan, bilbotarra zalako, eta gaur euskeraz daki, berak euskotar gogo bizia daukolako ta bere senarrak irakatsi dautolako.

Orra ba sendi bat euskalduna, erdaldunak inguruan euki arren; etxeko elea euskerea dabe.

Onetariko sendiak Bilbon banaka-banaka askotxu dira, uste dan baiño geiago. Euskotar zintzo asko ezagutzen doguz olantxe euren umei euskerea irakatsi dautsienak etxean beti erabilliaz bakarrik.

Poz andia izaten da guretzako Bilboko semea edo alabea dala ta euskalduna dala iñor aurkitzea.

Baiña bestetarikoak be, eurekanaiño antxiña-antxiñetatik belaunik-belaun eldu dan euskerazko katea eten eta galduta, euren umei euren elea irakatsi ez dautsienak, asko dira, asko!

Bilbon eurrez aurkitzen dira esaten dautsuenak: «Mi padre y mi madre ya sabían, pero yo no sé... no me enseñaron» (Nire aitak eta amak ba ekien, baiña nik ez dakit... ez eusten irakatsi).

Euren sendietan orrelan euskerea galtzen dabenai itandu ezkerro ia zegaitik, erantzuten dautsue:

—Bilbo au erdalerria da ta umeak erdereza baiño ez dabe entzuten, ta ezin leike.

—Ni asi naiake irakasten eta euskeraz eztabe ein gura, ta zer gurozu? Errekara botakozuz? Itzi ein biar.



—Ara, guk etxean pozik eingo geunskioe geure umeei, baiña gaur erderearia biar-biarrekua dalako, erderaz itz egiten dautsegu, erderearia galdu eztagien, erderearia beti erraz euki dagien...

—Nik irakatsiko neuskioe, orixe bai, neu nazan euskozalea izanda, baiña...

Orretaraxe, dana izaten da atxakia; danak estaldu gura izaten dabe atxaki orreekaz egizko zioa: euskereaganako ezetza, euskereagaitik ardurarik eza, Euskalerrriak ondiño bizirik daukon gauza bakarria galtzeak bape miñik ez emotea.

Zetako atxakiak? Argi ta garbi esan zegaitia.

Or ipiñi doguzan atxakietatik irugarrena emoten eban bat, bere sendiagaz, aspalditxo dala, Doitzerrri (Alemania)-ra bizi izaten joan zan, eta an, bai berak eta bai bere seme-alabak, dotxerea ondo jakitea onurea eben; baiña ori gorabera, etxean beti gaztelako erderaz itz egiten eben.

Au ikusirik, bere ezagun beste euskaldun batek bein esan eutson:

—Zelan da ba? Etzenduman zuk esaten Bilbon etxean erderaz egiten zenduela, erdalerrrian bizi ezker, erderearia bear-bearrekua dala, ta zeuk eta sendiak erderearia obeto erabiltearren alde batera itzi zenduela gure euskerria, onek kalterik ekarri ez egizuen zeuen erderearia makalduta? Emen, Doitzerrrian bardin egitekotan, etxean doitzerraz bakarrik itz egin bear zeunkie, Gaztelako erderearia itzita, emen ez dozu bere bearrik eta. Zelan da ba, euskereari ezarriko neurria gaztela-erdereari ez ezartea?

—Tamala izango litzake galtzea.

—Eta euskerearia, zeure elea galtzea, ez?

Euskaldun biok barriro autu berberori euki eben gaztelar zintzo ta gogotsu baten aurrean, eta onek bizi-bizi esan eban:

—Hace tiempo ya que vivo en Alemania, y mis hijos hablan alemán igual que los alemanes; pero en casa siempre hablamos nuestra lengua castellana, y nada más que ella, para que no se nos olvide, ¡pues bueno estaría que olvidásemos la lengua que es nuestra! ¡Entonces sí que mereceríamos que nos desollasen vivos! (Doitzerrrian aspaldi bizi naz ta nire umeak doistarrak eurak baizen erraz itz egiten dabe doitzerraz; baiña etxean beti darabilgu geure ele gaztelarra, ta bera bakarrik, aztu ez daki-gun; ez geunke besterik bear geurea dan elea aztutea baiño...! Bizirik narrututea legokigu orduan!).

Au entzunda, euskaldun atxakibakoak gogoz bostekoa estutu eutson gaztelar zintzoari, ta gero, euskaldun atxakitsuari euskeraz esan eutson:

Erri onegandik ikasi...

1926-XI-11

Euskerazko asterokoa

Zenbat bidar esan eta entzun ete da, emen Bizkaian be euskeraz bakarrik egindako izparringi asteroko bat bear geunkela, Gipuzkoan «Argia» dauken lez!

Zeuk be, irakurle, ori esan izango dozu, ta entzun be bai beste askori, ezta?

Orra ba, emen olako izparringia atarateko eragozpen asko ta andiak azpiratu bear dira. Ia-ia ezintzat euki lei izparringi-atarate ori, ain andiak eta ugariak dira eragozpenok.

Baiña «Argia» Donostiakoak diñosku bizkaitarrai: «Gure izparringi onen zati bat (bost orrialde) emongo dautsuegu bizkaieraz idazteko; beraz, ortxe daukozue zeuk nai dozuen asterokoa».

Orra or morapilla askatuta. Guk gura dogun asterokoa bizkaieraz «Argia» berbera izango da, «Argia»ren zati bat (bost orrialde).

Donostian egiña dala, ta zer dausku guri? Naiz Donostian, naiz Bilbaon, naiz Ataunen, naiz Morgan, naiz edonun egiña izan arren, zer dauko ba? Zapatu arratsaldetan geure eskuetara etorri ezker euskerazko izparringia, bardin dausku guri emen naiz an egiña izatea.

Gipuzkeraz zati bat eta bizkaieraz beste zati bat ekarri arren be, guretzat ez da ori eragozpena, bai zera; ementxe geure «Euzkel-Atal» onetan beti ibilli dira alkarregaz gipuzkerea ta bizkaierria, baita noz-edo-bein naparrerearia ta iñoz laburdierearia be eurakaz argitaldu da, etxekoak dira guztiok eta.

Beraz, gipuzkerazko asterokoa ta bizkaierazkoa, biak baten, «Argia»n, agertuko litzakez.

Au egin al izateko, baiña, «Argia»k bizkaitarren laguntasuna bear dau. Guk lagundu ezik, asmo ain on ori ezin dau eroan aurrera.

Laguntasun ori bitarikoa da: idaztearia bata, «Argia» saldutearia bestea.

Nok idatzi erraz izango litzakela billatutea uste dogu. Ementxe bertan askok agindu dabe idaztearia, naiz errietako izparrak naiz ostantzeko idazlanak; eta ondiño ezer esan ez dabenen artean be, ziur gagoz geienak laguntasun au emongo leukiela.

Beste laguntasuna da ardura andiagokoa. «Argia»k bear dau jakin puskat gorabera zenbat izparringi salduko leuken Bizkaian, gastuetan sartu baiño len. Onetarako, erri bakotxean bizi diran euskaltzaleak batu bear dabe ta idoro saltzaille on bat lenengo, ta gero erabagi zenbat lez



saldu leikezan; ori eginda, idatzi «Argia»ri: «Guk emen onenbeste izparringi salduko dirala uste dogu, ta urlia saltzailleari bialdu egjozuez. Geure kontura bialdu. Geiago edo gitxiago bear badira, jakitun ipiñiko zaituegu».

«Argia»ren zuzenbidea auxe da: «Semanario Argia. Garibay 28. San Sebastián».

Jakin dogu Ondarroan euskaltzale pillo batek erabagita daukola 70 «Argia» eskatutea uri artarako. Areen antzera egin bear dabe beste errietan be.

Bizkaiko baserri txiki baten, aspaldion «Argia» pillo bat saltzen da, bertako abadeak ardurea artuten daualako. Asi zan apur batzuek eskatzen, eta danak saltzen etziranean emon egiten zituan zabalkunderako; ta duban artzen ebenak be gero erosi egiten dabe.

Izparringi asteroko euskalduna gura dogu? Alegindu gaitazan, eta eukiko dogu. Geure eskuan dago eukitea edo ez eukitea. Eukiten ez bado-gu, errua geure-geurea baiño ez da izango.

1928-V-1

Zetatik?

—Euskeraz irakurteko ta zeure erriko izparrak euskeraz idatzi ta izparringira bialtzeko orren zaletasun andia nundik dozu?

—Ara, nire basen-itik urtxo dagoan urian euskal jai ospatsua izan zan bein. Ni mutiko bat nintzan orduan, euskeraz irakurten ondo ekien umeei sariak agindu eutsiezan.

—Eta zu, sariketa aretan aurkeztu ziñean, ezta?

—Bai, neure mutil-lagun batzukaz batera aurkeztu nintzan, eta irakurtea ederto egin neban, antza, sana emousten ta.

—Zer emon eutsuen?

—Ogerleko bat, «santo» batzuk, eta euskerazko liburua. Nire poza! Ogerlekoa amak urtu eban; baiña liburua ta «santuak» ondiño etxean dira, ta barri-barri, ardura guttiz jagon dodazalako.

Orduantxe sortu jatan euskeraz irakurteko leia andia, ta arrezkero asko irakurri dot.

—Zer irakurri dozu, liburuak ala izparringiak?

—Bitzuek; baiña izparringia geiago, ta irakurtetik etorri jatan, gero-ago, idazteko guraria, ta alako baten asi nintzan izparrak bialtzen EUZ-KADira. Pozik artu eustezan, zuzendu be bai nire idaztokerrak, eta orrenbestegaz euskaltzale gogotsu-gogotsua naiatzu.

—Ba dakizu gaur Zumarragan egiten dala euskal jai ospatsu bat, zuri euskeraz irakurteko zaletasuna emon eutsuna lakoxea?

—Ba dakit, eta berari laguntzeko neure dirutxua be emon dot.

—Ia zure antzera an aurkeztuko diran umeetan sortzen dan euskaltzaletasuna.

—Sortuko da, ez dago orixe baiño ereite obarik eta.

1928-IX-30



Itz barriak

Igaroko berrogei urte oneetan, itz barriak dirala ta ez dirala, auzia, eztabaidea, usubilloa ta zaratea darabille euskaltzaleak.

Batzuk ezetatik be ez dabe itz barririk entzun ez ikusi gura. Bat bera entzun edo ikusiak min emoten dautse. Eurok esan daroe itz barrien asmatzailleak eta itz barrizaleak euskerea galtzen, ondatzen diñardueta.

Au zegaitik diñoe? Ara, euskaltzale orreek gura leukie euskereari ez ukuturik egitea, guk geure gurasoekandik artu dogun legetxe iztea, ezer kendu ez ezarri barik, dagoala dagoan legez. Eurontzat euskerea, gurasoen kutxa zar edo etxe bat lakoa da. Ez dabe barrizatzerik gura, ez dabe geitzerik gura, ez dautsoe euskereari gauza bizitzat begitu gura, gure eskuetara eldu dan euskerea oso-osoa bilduta balego liburu ta ingietan, ez leuskioe bape ardurarik izango orrei bertan bapatera euskerea galtzeagaitik.

Museo batera eroateko dan kutxa edo beste errediza zar, zerenak jandako ta aldiak marguldurikoa, bere burdiñazko atalak ugertuta dauzan errediza zar bat, iñok barriztu gura baleu, ta dotore ipiñi, bertan gauzak eukiteko, museora barik etxe-errediza legez erabilteko, anbiolizti-zaleak asarre bizian sartuko litzakez, euren deadar ta garrasiak Gorbeia txuntxurra iñoe be elduko litzakezala.

Olantxe, ba, itz barrien arerioak diran euskaltzaleak be, eurentzako errediza zar bat dan euskerea barriztu, geitu ta edertu gura dabenai, beste edozein errik bere elez esan eta adierazo leiken guztia euskalerrriak be euskeraz esan eta adierazo al dagiala gura dabenai, gorrotoa izaten dautsie.

Itz barrizaleak, ostera, diñoe euskerea ez dala museora sartzeko kutxa zar bat, gauza bizia baiño, euskalerrriaren elea dala; baiña orain arte landu barik egon dala, euskaldunak bape arduratu ez diralako orretan, eta garbitu, geitu ta ornidu bearra dauala. Eta onetan diñardue gogor aspaldiko berrogetaz urteetan, itz barrien arerioei jibitea emonik.

Ezin ukatu lei gaurko euskereak itz zakar asko dituala atzo erderatik sarturikoak, eta ondo dala eurok polito-polito ataratea, ta euskerea garbitutea. Baita gaur euskeraz dana adierazo al izateko, itz barri askoren bearra dagoala. Adibidez, «Daneurtizti» edo Geometria euskeraz adierazteko, Mibisus azkarrak iñun diran itz barriak euskerearen sustar-sustarretik atara bearra izan dau.

Itz barri asko, erabillien erabilligaz, onezkero errian sartu dira; ta itz barrizaleak diran euskaldun alderdiaren arerio amurratuak eurak be bai

darabillez, erriagandik ikasita. Ondiño oraintsu, itz barrizale alderdiaren arerio andi batek bere itzaldian onelako esakerak erabilzan: «Erri onetako sendi edo fameliak», «kristiñauen sendi edo famelietan»...

Neure kolkorako esan be egin neban: «Ez dakik asko, gixajo orrek, nundik norakoa dan itz ori, nok asmaua dan, bestelan etxoat uste erabilliko eukeanik».

Itz barriak, ba, bear-bearrak dira, ondo datozenak dira; eta eurok ondo asmatzea euskera aldezko lana da.

Orraitiño, onetantxe be neurria bear da, beste gauza guztietan legetxe. Euskerazko esakun polit bat auxe da:

LARRIK EZ ONIK

Oldozpen au gogora ekarri dauste aspalditxu onetan irakurri dodazan itz barri bik: *gizarra* ta *gizemea*.

Euskeraz adierazoko dautsuet itz biok esan gura dabena, erderazko itzetara jo barik, ara; *gizarra* gizonezkoa da, *gizemea* andrazkoa da.

Itz barri bi orreen bearrianik izan da? Ezetz esan lei, lengo itz bi euskal sustardunak adierazten diran ezkerok.

Guk, bizkaitarrok, *gizonezkoa* ta *andrazkoa* esan daroaguz; gipuzkoarrok *gizakume* ta *emakume*. Bigarren au, *emakume*, Bizkaian be erabilten da.

Bearrian bakoak izan arren, tira, ori baiño ez balira, okerrik ez legoke, sarri jazoten dan lez gure euskera onetan gauza batek izen asko eukitea baiño besterik ez litzake izango; baiña itz orreek uts andi bat dauke: motzak, itsusiak, ezaiñak, zantarrak izatea euskalerrian.

Euskaldunak ez dabez *arra* ta *emea* itzak notiñentzat erabilten, abereentzat bakarrik baiño. Eurrez esaten dira: katarra ta kataemea, astarra ta astaemea, ta onakoak, iñok itz zantzartzat artu barik; notiñentzat, ostera «giza-arra» ta «giza-emea» ezin esan leiz aziera onari uts egin barik.

Erantzungo dauste, bearbada, notiñak be arrak eta emeak izatea egia baiño besterik ez dala, itzok zantartzat artzea oitura bat dala, eta egia lenago dala oiturea baiño.

Eta nik berrerantzuten dautset ezetz. Geltokietan, antzokietan, kaleetan, norbere bearrianak egiteko lekuetan ateburuan idazkun auxe: «Caballeros», edo beste auxe: «Señoras» ipinten daben orde, «Machos», «Hembras» ipiñiko balebez, zer jakozo litzake? Egundoko ariñen kendu eragingo leukiez idazkunok!



Urkiolako eleizan ain polito dagozan euskerazko idazkunak, ezker aldeko aulkietan «Gizonak», eskuma aldekoetan «Andrak», uste doze ordeztu leikezala «gizarrak» eta «gizemeak» itzakaz, notiñai iguin emon barik?

Ez, ezin leikez esan, gaur beintzat, *arra* ta *emea* notiñentzat aziera onari uts egin barik.

Euskaldunik ez dago esango dauanik: «Gurean sei ume dira, lau arrak eta bi emeak». Eta batenbat balego, ao batez danak deituko leuskioe baldar, asto, azierabakoa.

* * *

Ganera, «gizarra» lendiko itza da. Antziña gaur baiño geiago erabilten zan; baiña ondiño gaur be entzuten da.

Gizarra-k esan gura dau gizon txiki, argal, erkiña.

«Bera ain gizarra dala, ainbeste gizon sendo ta errime darabilz bere agindupean».

1928-XI-10

Iztegia

Azkue jaunaren iztegi nagusian batuta ez dagozan itzen batzuk, erri onetan eurrez entzuten diranak, eta urrean emen Durango aldeko beste euskalerrietan be erabiliko dirala uste doguzanak:

TXIXASE

Txixestu be esaten da, ta esan gura dau garnu-ontzi edo puxikea beteta dagoanean txiza egiteko bearrian andia dala. Txixase izan, auxe da aditza.

«Txixase naz ta banue, beinguen nator, egon ementxe». «Eskolan umiek txixase diranian, eskue jaso ta ezer esan barik maixueri atzamar bat erakustutsie».

«Txixase luzaro ta sarri izatetik puxikako gatzak sortu oi dira». Au erderaz, zelan esan itz bategaz bakarrik?

ASOLUE

Itz au da *asoloa*, a mugalegaz, ta beraz, mugale barik, itza soil-soilik da *asolo*.

Ona emen zelan erabilten dan:

«Ai orrek darabilen asolue!» esaten da aitak itziriko ondasun andiak alperrik galtzen diñarduan semeagaitik.

«Aurten siketiek asolo andia eragin dau».

«Kima barri guztiek bal-baltz eginda itxi ditu leiek, onako asolorik orraiti!»

Beraz, «galtze, ondatze andia, kaltea, ondamenti andia» esan gura dau *asolo* itzak.

Igarten da erderazko aditz «asolar»tik datorrela. «Asolar» itz onek esan gura dau dana lautu, zelaitu, lurreratu, ezer zutunik utzi бага, ez etxe, ez orma, ez zugatz, ez ezetariko gauza urtenik. Itz onetatik sortuta daukez erdaldunak: «asolador, asolamiento». Euskaldunek *asolo* itza ez dabe artu erderatik, erderako «asolar»tik euren kontura atara baiño. Eurek egin-dako itza da, ba, erdaldunen beste batetik atara arren.

Jakiña, orren ordezkua «ondamenti, ondatze» da; baiña berau be erdera-sustarduna ei da.



NEGARRA

Lurpetik ura eroateko odia egoan lekuan, gizon bik atxurraz lurra edegiten inñarduela, itandu jaken ia zetan ebiltzan, eta erantzun eben:

—Emengo kañue agirien ipinteko agindu dauskue, negarrrik ete daukon ikusteko.

Negarra da ba odi bati bere zatien irrikituetatik urteten jakon ur apurra.

Bardin esaten jako, eurite bat izanda gero atxak euren birringa edo arrakaletatik botaten daben ur apurrari: «atxak negarra dauko».

Negarra deitzeko ur gitxik, igarteko lain bakarrik, urten bear dau.

TXAKUR

Laboindun etxe-aberetxuz ganera itz onek beste gauza bat be esan gura dau emen. Zandin edo ajetiboa lez erabilten da, zeozek lotseari uts egiten dautsola adierazteko. Adibidez:

«Neskatilla orrexek jantzi txakurre egin dau gero» esaten da gona ta beso motz, papar zabal, eta margoz (kolorez) nabar bizia bada jantzia.

«Mutil gazte orrek darabilen berbete txakurre ez dau bere etxien ikesi tabernan baiño», berbete lotsa gitxikoa darabilela adierazorik.

«Eitada txakurre dok ori gazte batek persona zarrari eiteko», esan gurarik egitada lotsabakoa.

TXAKURTO

Alan deitzen jako notin lotsagaldukoari, lotsearen apurrik apurrena be ez daukonari, edonun eta edonoren aurrean edozein astakeri, edozein zantarkeri, edozein berba loi ta gaizto esan oi dauanari.

Erdaldunen «cínico» ta emengo euskaldunen «txakurto», gitxi gorabera gauza bat adierazten dabela dirudi.

ESKEA

Notin bat osalariagana joan, eta onek jan-edanean neurriak ipiñi eutsozan; baiña geixoak neurritik urteten eban, eta osalariak igarri eutson, eta aretara gauza onik ezin egin leikela ta, asarratu jakon, eta bein onan esan eutson:

—Zu beti pekatu batzukaz zatorkidaz.

Auxe aotan erabilela, emengo batek onan iñoan polito:

—Erregular eske andia eban, ta ezin jan barik egon.

Eskea gosea-ren lekuan esanda.

ZARAPEAN

Ume batek urteak betetan dauzan aurreko egunean esan oi jako: «Gaur gabean zarapian ipiñi bear zaituguz ta biar arte zarapian egon biarkozu».

Bat-edo-bat ezkontzeko danean be, aurreko egunean orixe esan oi jako: «Zarapian zagoz onezkeru».

Baita azterketa naiz zein-geiagoketa bat iñok egin bear badau be, oituraz «zarapian zagoz» esaten jako aurregunean.

Zarapean itz ori dator onetatik: Oilloa ilteko danean, aurregun illuntzean otan arrapetan da, ta zara bat auspez ipiñi ta arexen azpian eukiten da biaramonean ilteko ordura arte. Au egiten da, oilloak ain goiztarrak izanik, eraz arrapetako il bear dana, eurek oillotegitik urten baiño lenago goizegi jagi bear izango litzake, edo bestelan oillo-eizan ibilli bear arifieketan eta zarata baten; erosoago izaten da aurreko illuntzetik oilloa arraputa eukitea.

Erdaldunak, gure *zarapean* lekuan esaten dabe «estar en capilla, poner en capilla».

Erdaldunak: «¿Cuándo te casas? —Ya estoy en capilla».

Guk: «Noz ezkontze az? -Zarapian naiauk».

TXANKERRE

Erren edo kojo diranai *txankerre* deitzen jake.

Itz onek gogoratu erazoten dauz prakerre, gonerre, kopeterre, bibo-terre, ulerre ta abar.

Azkeneko «erre» orrek gauza muskilla, gitxi edo bape balio ez dauana, edo olakoren bat adierazten dauala esan lei.

«Erre»dun itzok olgeta edo burlabidez erabilten dira, ez begirunez itz egiten bada.

MOKILLAUSKI

Soloan mokillak jo ta birrinduteko erabilten dan gabia da mokillauski. Agirian dau zelan sortu dan: mokil-aus-ki. Gabi arin-arin bat izaten da, kirten luzeduna, zutunik, gorputza bape makurtu barik lan egin al izateko.

EZKU, EZKUMENDI

Azkue jaunaren iztegi nausiak diño emen Mañarin «tilo» zugatzari ezku deitzen jakola, eta emen mendi bat dala Ezkumendi izenduna, «monte de los tilos».



Ezkumendi ba dago; baiña emen «tilo» zugatzari etxako deitzen ezku. «Tillo, tillue» deitzen jako. Eta *Ezkumendin* ez dago tillorik.

Azkue jaunari neuk emon neutsozan bere iztegirako emengo itzak; eta oker ori ez dakit zetatik datorren, bearbada neure errua da, baiña or okerra dago.

SURRUNTZA, EZ LURRUNTZA

Baita Azkueren iztegiak diño Mañarin erderazko «correhuela» landareari «lurruntza» deitzen jakola, ta ez da egia. *Surruntza* da, ez lurruntza.

Landarea lurrean zear azi ta egoten dalako, lurruntza izena egokia goa dirudi, ta uste izan lei jenteak ez dauala ondo esango; baiña dana dala, emen jenteak surruntza deitzen dautso landara orri, ez «lurruntza».

1928-XI-27